

ARRISKUAREN
GIZARTEA.
MODERNITATEAREN
KRISIA, TEORIA,
GIZARTEA ETA POLITIKA
EUSKADIN

Andoni Eizagirre Eizagirre

Udako Euskal **Unibertsitatea**
Bilbo, 2002

© Udako Euskal Unibertsitatea

© Andoni Eizagirre Eizagirre

ISBN: 84-8438-033-5

Lege-gordailua: BI-2517-02

Inprimategia: RGM, Bilbo

Azalaren diseinua: Iñigo Ordozgoiti

Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Leire Calle Arrinda

Banatzaileak: UEU. Erribera 14, 1. D BILBO telf. 946790546 Faxe. 944793039

Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.org

www.ueu.org

Zabaltzen: Igerabide, 88 DONOSTIA

Andoni, Arantza eta Iñakiri

Esan ohi da inoren libertateak mugatzen duela
norberarena. Esaten ez dena zera da: inoren
libertaterik ezak suntsitu egiten duela norberarena.

Joxerra Garzia
Egonean doazen geziak

¿Pero cómo encontrar la unidad indispensable para la
acción social sin acabar creyendo que esta unidad existe
como realidad sustantiva, sea en un presente “estático”,
sea en un pasado o un futuro “míticos”?

Xavier Ruvert de Ventós
*De la identidad a la independencia. La
nueva transición*

La mala conciencia es penosa e incita a negarla; genera sus
propias formas de buena conciencia y agresividad. Es otra
cosa lo que hace falta: la capacidad de reconocer el odio del
otro en el nuestro; pero también la bondad del otro generada
por este odio nuestro. Es abandonar las mil y una formas del
fundamentalismo político, para poder ser éticos sin necesidad
de recurrir a normativas siempre desfondadas de antemano.

José María Ripalda.
*Políticas postmodernas. Crónicas desde la
zona oscura.*

Aurkibidea

| | |
|---|-----|
| AURKIBIDEA | 9 |
| OHARRAK | 11 |
| 1. SARRERA | 15 |
| 1.1. Sarrera | 15 |
| 2. ARRISKUAREN GIZARTEA | 25 |
| 2.1. Erakunde-krisia: modernitate berri baterantz | 25 |
| 2.1.1. Bi logiken arteko bereizketa: aberastasuna arriskua denean | 28 |
| a. arrisku ekologiko globalak aberastasunaren ondorio moduan | 29 |
| b. alarmismoaren gutxiespena babeserako aitzakiatzat | 31 |
| c. arrazionaltasun zientifikoa eta arrazionaltasun soziala ... | 37 |
| d. arriskuaren komunitatea | 45 |
| 2.1.2. Modernitatea eta kontramodernitatea industria-gizartearen baitan | 52 |
| 2.1.2.1. Gizartearen destradizionalizazioa eta fenomeno sozial berrien agerpena | 54 |
| 2.1.2.2. Ni-aren kontakizuna familian | 64 |
| 2.1.2.3. Lanaren gizartea krisian | 71 |
| 2.1.3. Erakunde-krisia | 75 |
| 3. MODERNIZAZIO ERREFLEXIBOA | 83 |
| 3.1. Auto) suntsiketa sortzailea | 83 |
| 3.1.1. Gizartearen desinstituzionalizazioa | 92 |
| 3.1.2. Arriskuaren (ezusteko) agerpena | 93 |
| 3.1.3. Betiereko itzulera | 97 |
| 3.1.3.1. Kontingentzia eta arriskuaren aldia | 99 |
| 3.1.3.2. Anbibalentzia | 100 |
| 3.1.3.3. Sorkuntza psikosoziala | 100 |

| | |
|---|------------|
| 3.2. Politikoaz (edo politika berrasmatu beharraz) | 102 |
| 3.2.1. Parapolitikatik behepolitika erreflexibora | 106 |
| 3.2.2. Biografia erreflexiboa | 120 |
| 3.2.2.1. Indibidualizazioa, autonomia, mugak. | 122 |
| 3.2.2.2. Indibidualizazioa, kontrola, erantzunak | 127 |
| | |
| 4. URRATS KUALITATIBOA KONTZEPTUALIZAZIOAN | 133 |
| 4.1. Ondorioak | 133 |
| | |
| 5. AIPATUTAKO EGILEAK ETA LANAK | 147 |

Oharrak

Ikerketa hau Jesús Casquette irakasleak animatuta 2000ko neguan hasi nuen lanaren azken emaitza da, Politika eta Administrazio Zientzietan lizentziatzeko azken ikasturtean egina.

- 2001eko martxoan, “Gatazka berri baterako teoriaren beharraz” komunikazioa aurkeztu nuen V. Soziologia Kongresuan.
- Ekainean, berriz, “Anbibalentziatik sorkuntzara edo subjektibitate politikoaren (bir)jaiotza. Ulrich Beck-en autokritika sozialaren teoriak gogoetak” lanarekin *Soziologia eta Politika eta Administrazio Zientzien arloko ikerketa eta saioen lehen lehiaketa: saiakera baten bila* lehiaketan, sari nagusia eskuratu nuen. Lan hau *Inguruak* aldizkari zientifikoan aurkituko duzue (Ikus: *Inguruak*, 28: 187-207).
- Azken lanak, 2001eko irailean amaituak, lizentziatura-tesina modura aldeztu eta lizentziatura graduarekin eskuratzeko balio izan zidan. Orduko hartan, *Arris-kuaren gizartea. Modernizazioak modernitatea tradizio bilakatzen duenean* izenburua jarri nion.

Orduz gero, hamaika gertakari berrik bete arren egunkarietako azalak, ez diet tarte berezirik eskaini, berauek ulertzeko liburuan egindako gogoetak eta proposatutako tresna analitikoak nahiko izango baitzaizkio irakurleari. Pasarte berriak, ordea, egon badaude. Unibertsitaterako ikerketa arindu eta ulermena erraztu zezaketen azalpenak txertatzea erabaki dut. Halaber, Euskadiko gertaera eta auzi zehatzak erabili ditut lanaren ardatz. Horiek horrela, saiakera edonork landu dezakeela uste dut.

Liburuan, bost zati bereizi ahalko dituzue. Sarreran, nire proposamena emango dizuet. Gizartea ulertzeko tresnarik gabe geratu gara, ez digute orain arte erabili ditugun marko teorikoek balio. Gertakariak gure kontzientzien aurretik doaz eta errealitatea ezin ulerturik gabilta. Ez ezazue pentsa, ordea, gabezia kognitibo hau analista sozialen kezka, ardura eta eginbeharra bakarrik denik. Izan ere, marko teorikoak eta gure portaerak elkarriz lotuta daude, ez da bata bestearekiko independentea. Hori horrela izanik, botere erakunde eta zenbait intelektualei aurre egitea nahitaezkoa dugu, hegemonia semantikoak sortzen dituen bazterketa prozesuei aurre egiteko. Egia da hiritar asko etsipenak jota dagoela; behiala

kontatu zizkiguten alternatibek porrot egin dute. Alabaina, gizartea mugimenduan dagoela ezin diezazueke inork ukatu.

Hori bigarren atalean landuko dugu. Adibide zehatzak jarriko dizkizuet horretarako, betiere euskal gizartea hizpide dudala: arrisku ekologikoa, fenomeno sozial berrien agerpena, familiaren berregituratzea eta lan profesionala, hurrenez hurren. Horien azterketak kapitalismo industrialak politikatik baztertuta geratu ziren erabaki esparru guztiak —zientzia eta teknika, sektore pribatua, hiria eta egunero-kotasuna— gatazkarako ardatz bilakatzen direla frogatzeko balioko digute. Alegia, orain arte apolitikotzat jo diren gaiak politiko bilakatzen dira.

Esan bezala, gure portaerak eta marko teorikoak lotuta daude. Ondorioz, bilakaera berri eta desberdin bat posible izan dadin, nahitaezkoa zaigu nagusi izan diren kontzeptuak eta kategoriak aldatzea, betaurreko berriekin egin diezaiogun aurre aldaketa prozesuari. Hirugarren atalean, trantsizio hori ahalbidezko oharrak egingo dizkizuet. Akordioak apurtuta daudenez, sorkuntza fase berri bati nola ekin eztabaidatuko dugu.

Laugarren atalean, berriz, gizarte-ereduak eta sistemak beren legitimazioa galdu ahala, politika modu berri batean ulertzeko proposamena egingo dizuet. Orain arte politika beti elite politikoarekin, sistema politikoarekin, legebiltzarrarekin lotuta egon bada, gure bizitza baldintzatzen duten erabakiak mikroelektronikan, manipulazio genetikoan edo teknologia nuklearrean daude gaur egun. Politikaren kontzeptuak eta gure portaerak egoera berri honetara egokitu beharko ditugu, eta horren arabera gogoeten bidez estrategiak pentsatu. Teknokrazia edo aukera bakarraren politikaren ordez, politikak lehentasuna hartu eta protagonismo pluralari, hautabideei, anbibalentziari atek ireki behar dizkiola aldeztuko dut. Nire jarrera hori atalaren bigarren zatian jorratzen dudan gaiarekin sendotu nezake. Indibidua, komunitatea eta, azken finean, nortasuna aldaketa kulturalak baldintzatuta egonik, gure bizitza eraikitzen doan prozesu modura ulertu beharko dugu. Orain arte, besteak beste, familia nahiz lanbidea egitura egonkorrak eta gure bizitza antolatzeke eta segurtatzeko forma finkoak izan badira, azken urteetako bilakaerak egoera kualitatibo berria sortu digu. Noski, honek bere arriskuak baditu, baina baita aukera berriak ere. Egoerari emandako erantzunaren arabera izango da bata zein bestea.

Azkenik, errealitatea aldatzen ari bada, gure kontzeptualizazioan ere aldaketa kualitatiboa eman beharko dugu. Gizarteak errealitate ontologiko objektibatuaz itzeari utzi eta bere lekua sozialitateari uzten badio, gure baliabide kognitiboek ere egoera berri horri erantzun beharko diote. Ardura etiko eta politiko hori hartu nahi izan dut lan honetan.

Liburua irakurri ahala, nazioarteko testuinguru akademikoan sortzen ari diren eztabaida eta proposamen teoriko berrienak ezagutzeko aukera izango du irakurleak. Ia ez dago modu honetako libururik. Niri ez zait zaila egin, belaunaldi gazteak

abantaila batekin jokatzeko baitu. Azken urteetan ematen ari diren aldaketa kualitatiboak guri ez zaizkigu fenomeno berriak iruditzen, gu konfiguratzeko gaituen errealitatea eta guk konfiguratzeko errealitatea baizik. Ez ditugunez proiektu, forma nahiz arau sistema modernoak ezagutu, ez daukagu distantziarik zertan hartu; alabaina, gai izan behar genuke gaur egungo dogmatismoetan oinarri modernoak daudela ikusteko eta baztertzeko. Orobat, modu honetako lanak komunikabideen bidez ezagutzen ditugun gertakariak ulertzeko giltzarri izan dakizkioke irakurleari. Nik neuk distantzia bat hartu ohi dut egunkarietako berrietan eta iritzi artikuluetan idazten denarekiko, eta nahi nuke zuek ere halaxe egitea liburu honek egingo dizkizuen ekarpenekin. Ez da nahikoa kritikatzeko, eta kritika hori marko berrietatik egiten saiatu beharko dugu, dimentsio, aukera eta proposamen kualitatibo berriak eskainiz.

Alemaniarra joan aurretik, Jesús Casquetteren bulegora egindako bisitek berpiztu zidaten lizentziaturako lehen hiru urteetako giroak makaldutako ikerketa gogoak. Horri esker, posible izan ziren azken ikasturtean Leioako liburutegian sartutako orduak eta udara ikerketan buru-belarri iragan izana. Fruitua honako liburu hau duzue. Joxe Azurmendi izan da urtebetez zokoratua egon den lana berreskuratzeko eta argitaratzeko erronka proposatu zidana. Andoni Ibarren ikerketa taldean bekadun modura pasa ditudan hilabeteek ZTG Zientzia, Teknika eta Gizartea gaiei buruzko pasarteak txukuntzeko balio izan didate. Hortik aurrerakoa Internet bidez Nekane Intxaurtzaren gomendioak jarraituz gauzatu dut. Horiei guztiei eskerrak.

Nire gurasoekiko zorra ez dut aipamen huts batekin kitatuko. Atzokoagatik eta gaurkoagatik. Eta biharkoagatik.

1. Sarrera

1.1. SARRERA

Aurrizki eta adjektibo aniztasunarekin egin ohi du topo gizarte garaikideaz artikulak eta liburuak irakurtzen dituen orok. Etengabe errepikatzen dira gizarte postindustrialia, postmodernoia, informazioaren gizarteia, kapitalismo berantiarra, sare-gizarteia eta gizarte postfordista terminoak, besteak beste. Luzea den zerrenda hori ez dela izengoiti arazo hutsa frogatu nahiko da lan honetan, gaur egungo gizarteia hizpide duten eztabaida garaikideak, gai zehatzetara mugatuak ez ezik, gizarte garaikidearen definizioari zuzenduak ere badaudelako. Gizarteia nolakoa den bilakatu da auzi nagusia, gizakia zer den.

Fenomenoen konplexutasun enpirikoaren markoan, izengoiti horien beharra gizarte modernoia azaltzeko erabili diren tresna analitikoek gizarte garaikidearen elementu eta jazoera berriak azaltzeko gaitasunik ez dutelako sortzen da. Definizioak askotarikoak izan arren, kontzeptu horiek guztiek azken hiruzpalau mendeetan gizarte modernoia irakurtzeko erabili izan diren oinarri zaharrak mantentzen dituzte. Elkarren artean desberdinak, kontrajarriak, aurkakoak, “kritikoak” batzuk eta “lasaigarriak” besteak. Baina gizarte modernoia gizarte industrial bezala edo gizarte kapitalista bezala irakurtzen dugu oraindik ere.

Soziologia klasikoak ez ezik, soziologia garaikideak ere “industrialismo garatuaren sistema botere sozial autonomo eta geldiezin modura aintzat hartu behar dela onetsi du” (Beck, 1998b: 126). Azken hamarkadetako gogoetak hartuz gero, adibide gisa, joera berdina dute, hau da, modernizazioa eta modernizazio sozioindustrialia parekatzeko joera. Modernitate ziurrak ohikoa duen irakurketa lineala egiten dute guztiek ere. Desberdintasunak irakurketaren arabera sortzen dira (Beck, 1996a: 236). Batzuek, ohiko eskola funtzionalista eta marxistaren lehian jarraitzen dute, baina orain postindustrialismoaren (Bell) eta kapitalismo berantiarren (Habermas) aldaerekin. Gaur egungo modernitatearekin *baikor* azalduko dira, eta aldaketa bakarra “zerbitzuen gizartera” emaniko urratsean topatzen dute, eskolaren arabera, noski, irakurketa desberdina izango duena. Halaber, besteak, “gizarte modernoaren ereduaren faltsutasun historikoa agerikoa egin ahala”, arazo ekologikoa ukatuz, irakurketa *negatiboaren* bidetik, baina betiere modernitatea eta modernizazio sozioindustrialia parekatuz, postmodernitatearako urratsa emango dute.

Bi tradizio nagusietan oinarritzen dira definizioaren ahalegin guztiak. Azken batean, beraz, aniztasun hori guztia modernitatea irakurtzeko beti erabili izan diren ohiko bi paradigmen aldaera hutsak baino ez dira. Modernitatearen zutabe izan diren gizarte kapitalistaren paradigma eta gizarte industrialaren paradigma (Giddens, 1993) ez dira gizarte garaikidearen beharrak erantzuteko eta interpretatzeko gai azalduko. Eta, beraz, aipatu diren aurrizkiek eta adjektiboek paradigma horietan oinarria badute, proposatzen diren irakurketak eta irtenbideak *zaharrak* eta *iraganekoak* direla agerian uztea ezinbesteko betebeharra izango da lan honetan. Irakurketa lineala eta ziurra gaindituz, anibalentziaren bidetik *beste* modernitate baten aukera proposatuko da. Gizarte-zientzien fakultatetik iragan den ikaslearen harridurarako, Emile Durkheim, Karl Marx, Max Weber, Talcott Parsons, Jürgen Habermas, Claus Offe, Max Horkheimer, Theodor Adorno eta, noski, Niklas Luhmann zaku berean. Baina ez umezurtz, testuinguru teoriko eta epistemologiko berrirako bidean, Ulrich Beck soziologo alemaniarra oinarri hartu eta gertuko zein urrunagoko pentsalarien laguntza izango baita.

Gizarte erreala teorizatzen urrun daude. Ez hori bakarrik. Kategoría eta mar-ko teoriko zaharrak erabiltzeak gizartearen bilakaera baldintzatzen duen unetik, fenomeno berrien aitzinean jokabide zaharrak erabiltzeak gizarte-gatazka eta haus-tura bultzatzen dute. Eta egunkarietan bultzatzen dutela irakur daiteke. Baldintzatuta daude eguneroko biziera eta bizikidetzaren teoria abstraktuenekin.

Alberto Melucci soziologo italiarraren hitzak erabiliz, aipatu den hizkuntza auzia, azken batean, “gaur egungo dilema teorikoaren sintoma adierazgarriena li-tzateke”. Analista sozialek “ez lituzkete gai zehatzak soilik eztabaidatuko, beste-lako auzi orokorrak baizik, tartean gizarte garaikidearen definizioa” (Melucci, 2001)¹.

Zuzenak badira baieztapen horiek, Mendebaldeak bere sistema politikoaren eta sozialaren oinarriak zalantzan jartzen dituzten erronkei beharko die aitzin egin, arazoei sakonetik heldu eta irtenbiderik topatu nahi badu, behintzat. Industria-gizarteak bere gaineko irudiaren bihurtura bat jasaten du erakundeetan, zaharki-tuak geratu diren ziurtasun eta ideia normatiboak mantentzen baititu testuinguru horretatik arras aldentzen den errealtateari aurre egiteko. Nolabait esatearren, ga-tazkak erakundeetan baita ematen dira, erakunde politiken garapenerako alternatiba eta printzipioen artean. Erakundeak berak daude kinkan. Zientzia eta teknika, zuzenbidea, politika, ekonomia eta kultura krisian daude. Ez dira orain arte bezala, ordena bermatuta egonik, erakundeetatik at emandako gatazka. Eredua bera da auzitan dagoena. Eta ikusiko den moduan, ez subjektu iraultzaile batek egoera irauli duelako, sistemaren autodinamikari sakratuak diren mugak jarri ez zaizkio-lako baizik.

1. Alberto Melucci-ren liburu hau lanean zehar gehiagotan erabiliko bada ere, ez da aipuren orria zehaztuta agertuko, zeren liburu honen abiapuntua izandako lizentziatura-tesina, Merlucchi-ren lana editatzeko ardura izan duen Jesus Casquette-k utzitako eskuizkribuekin egin baitzen.

Lanean zehar aipatuko diren azken hamarkadetako aldaketek, kontratu sozial berrien bidetik, “industria zibilizazioa berreraikitze adostasun berri bat ezinbestekoa egiten dute” (Beck, 1994: 14). Modernitate *ziurra* legitimazioa galtzen doan heinean, beharrezkoa izango da modernitate *anbibalentea* eraikitze eta beronen inguruan kontzentzu berriak sortzeko gai izatea.

Gizarte-aldaketak egiturazkoak izatea modernizazioaren berariazko ezau-garria izan da. Baina gaur egun aldaketa horiek inoiz baino sendoago eta biziago eman ahala, jarrera “modernoek” gizarteaz egiten dituzten irudi eta erreprezentazioek iraganarekin bat egiten dute, orainaldiko biziera guztietan jada bertaratuta dagoen “*etorkizun erreala*” (orainaldia) ekidinez. Garapen sozioestruturalaren ondorioz, gaur arte baliagarriak izan diren kontzeptuak ez dira gizarte garaikideaz aritzeko egokiak. Horien artean aipa daitezke, besteak beste, “lanaren gizartea”, familia nuklearra, demokrazia formala, zientzia eta teknikaren errugabetasuna, klasea eta estatu-nazioa, nahiz nortasunaren eta indibiduoaren definizio modernoa.

Kategoria horiek modernitate industrial-kapitalista zuten aipagai. Gaur egun modernitate hori *iragana* izanagatik ere, gizarteari erreferentzia egiteko erabili diren kategoriak mantentzen dira. Eta horrek berebiziko garrantzia du. Izan ere, tipologia eta eskema teoriko zaharrak, eta horren ondorioz datuak, kategoriak eta egitura soziala mantentzen jarraituz gero, ondoeza areagotu besterik ez da egingo, beharrezkoak diren erantzun globalak ezkutatu eta arriskuak areagotuz (Beck, 2000a: 13-31).

Iruzurra besterik ez da egiten unibertso kontzeptual modernoa mantenduz. Beharrezkoa da, al bait arinen, aldatzen ari den gizarteari ohiko kontzeptuei esanahi berria emanaz, edo hobeto, hizkera berri baten bidez, erreferentzia egitea. Sako-neko aldaketa zientifikoetan jazo zen bezala, gizabanakoak eta taldeak orduan baino ez dira egingo kontziente modernitate industrial-kapitalista bere azkenera iritsia dela; hau da, mundu berri batean bizi direla.

Aldaketak eman ezean, baita borondaterik onena erakusten dutenen aldetik ere, arazoak konpontzeko ahaleginak egingo dira; baina horretarako oraindik ere irtenbide zaharrak proposatuko direnez, arazoa ez da konponduko. Gehienera jota, irtenbide faltsuak emango dira. Esaterako, azaleko irtenbidea egiturazkoa izan beharrean, plurala den egoera bati irtenbide homogeneoa emanaz, egoera kontingenteari eta anbibalenteari betiereko ordena ziur eta absolutua ezarri, etab. Soluziorik eza gutxi ez balitz, arriskua areagotzeko aukerak ere metatzen dira, “leherketa” (ekologikoa kasu) edo “garbiketa” (ideologikoa, erlijiosoa, etnikoa edo nazionalista, kasu) ematerainoko arriskuarekin. Eta, horrela jarraituz gero, ezaguna da *amaieran* zer dagoen. “Zientzia instituzionalizatuaren” laguntzarekin, zenbait “administrarien demokrazian” errealitateari muzin egin eta *errealitatearen eduki propioa* eraikitzen saiatzen dira. Baina, horrela, jada *egitura sozial berri baten bila*

hasi den gizartea ekidin besterik ez da egiten. Kategoria zaharrekin gizarte garaikidea irakurtzeko gaur egungo aditu askoren nahia *lor* daiteke eta lortzen da, baina errealtate galera izugarri eta arriskutsu baten bidez. Jarrera hori mantenduz, errealtatea onartu nahi ez dutenen aukera bakarra beren tresna analitikoak garbitzea da, edo tresna analitikoak bere horretan utzi eta bestelako tresnak erabiltzen dira, errealtatea bertan barneratua izan dadin. Kontzeptuak apur bat ireki eta malgutu, bertan tokia ez duenak (eta izan ezin dezakeenak) tokia izan dezan.

Xavier Rubert de Ventós-ek esan bezala, ezkerreko tradizioak ere ardura handiak ditu honetan guztian. Ortodoxia orori berariazkoa zaion egia haustezina, printzipio betierekoak eta metodo hutsezinak norberarenak izateak halako jarrerak sortu ohi ditu. Jarrera ideologiko edo alderdi politiko jakin batera lotzeak, nortasun agiri edo metodologia bat erabiltzeak, guztiarekin (zientziarekin, historiarekin, txiroekin...) bat etortzea adierazi izan du luzaroan. Aukera bakar batean teoria eta praxia, arrazoa eta bihotza bildu izan dira. Era honetan, errepresentazioak eta diskurtsoak ez ziren errealtateari buruzko azalpen modura soilik aurkezten; beraien bidez “irakurtzen” zen errealtatea. Espazio teoriko horiek jarrera bat hartzeko aukera ez ezik, “hausnarketa bat hartzeko” aukera ere ematen zuten.

Abangoardia teorikoek eta artistikoek beren eginbeharraren dimentsio eszenografikoa baztertzen zuten. Filosofo katalanaren ustetan, jarrera horiek ukatutako distantzia hartu behar da. Esentzia eta itxura, objektua eta errepresentazioa, analisia eta aukerak, ezagutza eta aukerak: horien artean distantzia bat hartu beharko da. Teorien historian nagusitu den “filologiarako gaitasun ezak” (2000: 159) bainera ezin zitekeelako erreprimitzea eta azal ezin zitekeelako ukazioa edo alboratzea ekarri izan ditu. Hein handi batean, “ulertzekoak” ere badira jarrera horiek, historiaren joan-etorri guztia unibertsoaren erdigunean dagoelako ustea pizten baita. Eta horixe gertatu zaie modernitatearen inguruan bildu diren teoriiei. Mesias asko, gehiegi. Euskaldunak badaki, pairatu du, pairatzen du.

Jarrera horri aurre egiteko ezinbestekoa da, gaur egun oraindik ere marko teorikoan eta kontzeptualean *lehentasuna ematen zaion iraganaren* aurrean, itxura hartzen hasia den etorkizuna izendatzeko tresna berriak plazaratzeari ekitea. “Diskurtsoek” eta “alternatibek” neutralizatzen *ez* dituzten esperientziak areagotu badira, teoria eta pentsatzeko ohitura modu zaharrekin lehiatu beharko da. Teoria soziologikoak eta politologikoak egoera berrira egokitzea izango da intelektualaren erronka etikoa eta politikoa, ezagutza “ekoizteko” modu sozial eta baliabide kognitibo berri horiek ahulenek bereganatu eta gizartea beren zerbitzura jar dezaten.

Ruvert de Ventós-ek bat egiten du jarrera honekin. Hizkuntza komertzialek, politikoez eta akademikoek, bakoitzak gauza baten oinarritzko izaera azpimarrazten duen garaiotan, errealtate singularraren esperientzia lortuko da baldin eta

izendatzen ikasten bada. Alegia, lehendik duen zeinua aldatuz, edo gutxienez, ikuspegiak nahastuz:

Geure kultura osatzen duen sistema sinbolikotik at ikuspegi trszendentea eta pribilegiatua ez daukagunez, mugak hautsi eta perspektibak nahastuz soilik iritsi ahalko dugu objektuaren sentsazioa ikuspegi, eta ez errekonozimendu, izatera, besteek uniformitatea pertzibitzen duten lekuan milaka desberdintasun ikustea ahalbidetuko diguna (2000: 170).

Horrela baino ez da lortuko gizabanakoa subjektu eta objektu den modernitatearen baitan ematen ari den haustura, eta ondorioz, figura berriaren sorrera, Beck-ek “arriskuaren gizartea” deritzona, ulertzea eta izendatzea.

Ez da nahikoa “kritika kulturala” egin dutenen bidea jarraitzea. Urrats berri bat eman beharra dago, besterik ezean, kritika haien “irakurketa” asko errealak bilakatu direlako. Alegia, etorkizuna modu ezkor batean pentsatzen zutenen idatziak gauzatu diren heinean, *diagnostikoa* ez da nahikoa (Beck, 1998a: 18). Urrats berri horren beharraz jabetu nahi du lan honek. Aurrerantzean irakurri eta sakondu ahalko den moduan, “gizarte industrialaren modernizazio erreflexiboa” izendatuko dena.

Ez da, beraz, *hego haizeak jo* eta beste zereginik ez dutelakoan, gizartearen ikerketa ogibide dutenen inozokeria hutsa kategorია berriak sortu behararen errorika. Bada ahantzi ezin daitekeen fenomeno bat: ordura arte nagusi izan ziren ikuspegiak hausteko Aro Modernoak erabili zuen ezaugarri bereizgarria gizartearen errepresentazioa *sozialki* egitea izan zen. Gizakiek gizartea definitzea, eta ez modu metasozial batean.

Ordutik, mundu sozialari buruzko definizioak edota gizartea irudikatzen moduak, bitxikeria akademikotik harantzago, gizarte garaikidean ekintza sozialaren formetan eraginkorrak dira (Melucci, 2001). Horrek esan nahi du, elkarrekin-tza bat dagoela errealitate soziala irudikatzearen eta portaerak kategorizatzen moduaren artean. Beharrezkoa da, beraz, guztion aldetik ohartzea kategoriak ez direla sortzen dituzten ondorioekiko errugabeak. Kategoriak ez dira neutralak, ez portaerekiko, ez errealitateari buruz egiten diren irakurketekiko.

Gizarte moderno-industrialatik aldenduz, ez dira gizartearen baitan azaleko aldaketak ematen. Gizartearen aldaketa ari da ematen. Modernizazioaren bilakaerek azken hamarkadetan izaera bereizlea dute, ezinbestekoa eginez euskarri eta muga berriak topatzea. Izan ere, *arriskuaren gizarteak*, klase-gizarteak ez bezala, ez du pertsonen arteko bereizketarik egiten, eta gaur egungo norbanakoaren eta taldeen zein ondorengo belaunaldien etorkizuna dago jokoan.

Paradigma modernoarekiko haustura ematen ari dela frogatzeko, bi aldagai ezagunak (ez bakarrak, lanean ikusiko den moduan) mehatxu nuklearra eta “barne-

-izadian parte-hartzea” dira. Eta horiek dakartzaten arriskuak, esan bezala, norbanakoen eskuetan daude (oraindik eskuetatik ihes egin ez diela sinetsiz gero).

Alegia, jazoera horienganako azken hitza norbanakoen esku egonik, eta ez gizakiaz gaidiko inoren esku (Jainkoa, Izadia, Historia, Estatua), gizartearen biziraupena errealitateari aurre egitearen araberakoa izango da. Gizakiaren ardura horrek errealitatea izendatzeak duen garrantzia sendotzen du. Gizarte-Zientzietan dihardutenek, beste arloetakoekin elkarlanean, egoera berria izendatzeko asmatuko dituzten moduak baldintzatuko du geroa, izango bada.

Horrekin lotuta, Melucci-k bigarren irakasgai bat ere atera daitekeela dio, “mehatxu nuklearra” eta “barne-izadian parte-hartzea” hizpide erabiliz gero. Modernitateak beti eduki du gizartetik at zer konkistatu, beti egon da “kanpoa” edo “bestea”. Gaur egun, bere burua suntsitzeko boterea izanik, bere biziraupenerako ez dauka *nora* eta *nola* kanpora jo. Guztia dago *barnean*. Modernitateak bereizgarri bezala izadia jarri izan du. Proiektu modernoarekin teknikaren arrazionaltasunak bazuen zer menperatu. Gaur egun, ordea, ingurumenarengan jarduteaz gain, batetik, jarduera hori bere mugetara heldu da (krisi ekologiko globala). Eta, bestetik, norbanakoaren barne osagai biologikoak ere ekoizpen sozial bilakatzen dira (bioteknologia, neurozientzia, genetika). Alegia, mundu-sistemaren “hipersozializazioa” eman da. Modernitatearekiko haustura bat ematen dela erakusten dute.

Gizartearen biziraupenerako oinarri naturalak eta sozialak eraldatzen dituzte, ez dira soilik errepresentazioak, baita bizitza sozialaren koordenadak eraldatzen dituzten egiturazko jazoerak ere, iraganarekiko sakoneko haustura frogatzen dutenak (Melucci, 2001).

Bizitzaren kontrolerako eta administraziorako gaitasunak haztearekin batera, biologikotzat eta betierekotzat jo izan diren egitateen izaera historikoa eta aldagarria frogatu da; emakumearen irudiari buruzko gogoetak jar genitzake eboluzio horren adibidetzat. Bilakaera ez da autonomoa, erabakiak hartzen dira, erabakien ondorioa dira. Gai eta arlo asko auzi politiko bilakatzen dira eta, era berean, Xavier Ruvert de Ventós-ek esan bezala, legitimazio ideologikorako eta politikorako bitartekoak ere eraldatzen dira. Hau da:

Orain arte interes partikularrak proposamen unibertsalistekin legitimatu behar baziren, orain proposamen horiexek dira —sozialismoa, liberalismoa, etab.— auzi pribatu eta monografikoei ematen dieten erantzunaren arabera azaldu eta justifikatu beharko direnak (2000: 156).

Gaur arte modernizazio *ortodoxoa* (*arrunta* edo *ziurra*) tradizioaren arrazionaltasuna bezala izan da ezaguna. Modernizazioa tradizioaren eta erlijioaren beste aldea bezala hartu da gogoan. Lan honetan proposatzen dena, berriz, horren guztia-*ren* arrazionaltasuna da, *autoaplikazioa* (Beck, 1996a: 237). Industria-gizartea tradiziotzat jotzea: modernizazio *erreflexiboa*.

Ikusiko dena aurreratuz, modernizazio erreflexiboak, funtsean, hauxe esan nahi du: modernizazio prozesua *erreflexibo* bilakatzen dela, modernitateak bere burua hartzen duela gai eta arazo modura. Garai oso baten autosuntsiketa sortzailea zatekeen modu honetan “modernizazio erreflexiboa”: forma sozial industrialeko deslotura lehenik, eta birlotura ostean. Progresua autosuntsiketa bilaka daiteke modernizazio bat amaituz eta bestea hasiz, modernizazio arruntetik modernizazio erreflexiborako iragatea.

Izan ere, modernizazioak, aurrean ipini zaizkion oztopo guztiak gaindituz, bere prozesua muturreraino eraman izanak modernitatearen zutabe nagusiak hankaz gora jarri ditu. Gizarte berri bat sortzen hasi da, baina ez “iraultza” bat eman delako, ezta gobernu eta legebiltzar erabakien fruitu moduan ere. Ez da subjektu iraultzailerik egon. Aitzitik, dinamismo industrial bera da garai berri baterako trantsizioa “nahigabe” eta “modu apolitiko” batean gauzatzen ari dena (Beck, 1994: 13-17). Modu esanguratsu batean esanda: “modernizazioaren arrakastek” gizarteko arazoan “gatazka ardatzak” eta politikoaren nolakotasuna aldatu dituzte.

Aldaketak esparruz esparru eta denboran emateak, ez gauetik egunera, oharkabean harrapatu ditu, bai hiritarrak, bai datuak kategoria zaharren bidez jasotzen dituzten gizartearen ikerlariak. Zentzu honetan, lanean aipatuko diren kasuek garbi utziko dute zer dela-eta Beck-ek (1994: 43) “diferentziazio sistemiko funtzionala” “iraultza” egiteko beste modu bat dela dioen.

Modernizazio erreflexiboak hori guztia aintzat hartuta, *beste* modernitate bat izango du helburu. Eta hori, modernitate fatalistak eta baikorrak ez bezala, gizarteari buruzko irakurketa modernoa egin nahi duelako. “Moderno” kontzeptuaren jatorriko esanahiari leiala zaiolako, ez hainbeste irakurketa modernoei. Hau da, (pos)modernoen nihilismoa eta Habermasen “proiektu amaitu gabea” baztertuz, *orainarekin* harreman *berria* ezarri nahi delako. Baina, betiere, *behin-behinekoa* izango den “ethos” berri bat. Hiru ezaugarri horiek baitira *moderno* izatea ahalbidetzen dutenak: oraina, berria eta iragankortasuna. Bestelakoak izango lirarteke, “modernoek” (edo hobeto: gizarte garaikidearen irakurketa antimodernoek) erabiltzen dituzten oinarriak: iragana, zaharra eta eternitatea (ikus: Lanceros, 1996 eta 2000).

Munduari buruzko erlijio irudien eta pribilejio estamentalen bidea daramate, gaur egun, gizarte industrial klasikoko zientziaren eta teknikaren ulerkuntzak, familia eta lanbideko bizi- eta lan-moduek, rol maskulinoen eta femeninoen arau irudiek, etab. (Beck, 1998a: 16-17). “Tradizioaren modernizazioa” eta “gizarte industrialaren modernizazioa” bereiztea, eta horren ondorioz arrazoi instrumentalarren arrazionaltasuna, funtsezkoa da, Ekialde/Mendebalde “aurkakotasun orohar-tzailea” amaitu eta industria zibilizazioaren eskaera globalak ematen diren egunean (Beck, 2000a: 13).

Lan honetan, oro har, bi zati bereiz daitezke. Lehendabizi, arriskuaren gizartea azalduko da modernizazio erreflexiboaren bi ideia arautzaileak aurkeztuz. “Aberastasunaren ekoizpen logika” oinarri izan du mundu modernoak eta joera hori muturreraino eramateak “arriskuaren ekoizpen logika” sortu du. Ideia hori hizpide harturik, krisi ekologikoaren jatorria industria-gizartean datzala azalduko da. Bestalde, industria-gizartea bizitza-eredu bezala posible egin duen modernitatearen *eta* kontramodernitatearen arteko bizikidetzeta-gogoeta gai harturik, gizartearen destradizionalizazioa, familia nuklearraren baitan ematen ari diren aldaketak, eta “lanaren gizartearen” krisia azpimarratuz, gizarte garaikidea *trantsizio* modura uler daitekeela proposatuko da.

Bigarrenik, modernizazio erreflexiboaren ideian sakonduz, anbibalentziak *sorkuntza-prozesu* berri bati ekin diezaiokeela argudiatuko da. Ideia horren inguruko lehen hurbilpena egin ostean, alegia, bizitza eredu baten amaiera eta beste baten hasera nola gauza daitezkeen adierazita, horrek guztiak esparru politikoan zer-nolako arriskuak eta aukerak ekar ditzakeen hausnartuko da. Demokrazia modernoak gizarte garaikidean dituen gabeziak agerian utziz, “politika” eta “nortasuna” modu berri batean kontzeptualizatu beharraz jabetu nahi du, euskaldunoi ekarpen esanguratsu bat egin diezagukeena.

Ekarpena, bide batez, bikoitza izan dakiguke, aurreko mendeei berariazkoak zitzaizkien kontzeptuak gizarte garaikidera “egokitzeak” eskemak eta ordenak behin-behinekoak eta anbibalenteak direla ikusten lagun baitezake (ohitura handiegia baitago ordenak betiereko eta absolutuak direla pentsatzeko, historiaren naturalizazioa bezalako eskakizun baztertzailak eta zatikatzaileak sor ditzakeena); modu honetan, proiektu politiko “berriak” asmatu beharko dira. Bigarrenik, ordea, ez dago esan beharrik, euskal gizartean, arrazoi desberdinak tarteko, izaera politikoa duen nazio-nortasunaren gatazkak (enfrentamendu kulturala) bestelako gatzaka errealak edo posibleak estaltzen dituela. Agenda politiko monotematikoak gatazka bakarra eta absolutua bideratzen du. Eta gatazkaren auzi horrek arrisku handiak ditu, are gehiago gatazka bakarra absolutizatzeak besteak baztertzen baditu. Beraz, beharrezkoa izango da gizartean dauden gainerako gatazka eta arazo errealekiko edo posibleekiko ardura izatea, gatazkei leku egitea. Noski, Euskadi askatzeko pasarte teorikorik ere izango da, premia badago eta (bai teoriarako, bai liberaziorako). Oro har, kultura sumiso eta autoritario batetik kultura aske eta askatzaile baterako saioa izan nahi luke lantxo honek.

Ondoko orrialdeetan, arriskua eta sorkuntzarako aukera berriak bere zentzu zabalenean ardatz harturik, hots, zientzia eta teknika ez ezik, klase eta emakumearen ohiko biografia edota biografia burokratikoak (zeinak gero eta zailagoak diren erabakietan zatikatzen diren) ere, kontzeptuei ihes egiten dien errealitatea azaltzeko eta, bide batez, harreman moralak, sozialak eta politikoak berrirudikatze-ko, hizkera berri baten beharraz oroitarazi nahi da. Horretarako, lanaren ondorioetan, kontzeptualizazioan urrats kualitatiboa emanaz, gizarte modernoaren

“modernizazioa” auzi ekologikoa ardatz duen teoria baten bidetik garatu beharko dela proposatu eta argudiatuko da. Amaigabea izan nahi duen *desparadojizazio* ziorako saioa da aurrerantzean datorrena.

2. Arriskuaren gizartea

2.1. ERAKUNDE-KRISIA: MODERNITATE BERRI BATERANTZ

Modernizazioaren aurreko bizimoduarekiko eta kulturarekiko haustura aldagaia erakunde modernoaren dinamismoa izan da. Giddens-en hitzetan, hiru izan dira dinamikotasun horren ezaugarri nagusiak (1995: 28-34):

- Denbora eta espazioaren arteko banaketa.
- Erakunde sozialen “erauztea”.
- Horien ondorio den erakunde “erreflexibitatea”; hau da, ezagutza eta informazioa dela eta, erakundeak etengabe berriztatu beharra.

Mundu modernoa mundu nahaspilatua da (Giddens, 2000). Sistema tradiziozkoen aurrean, aldaketa sozialak neurri handiagoan emateaz gain, helburua eta sakontasuna ere aipatzekoak dira, praktikan eta portaeretan zuzenean eraginez. Zuzeneko harremana sortzen da modernitatearen eta zalantzaen artean.

Ziurgabetasunari aurre egin dion proiekturik, ordea, ez da falta izan. Areago, segurtasunaren aitzakian Mesiasen nortasuna bereganatu eta paradisuak itzulera-saioa modernitatearen ezaugarri bereizlea dela baieztatu liteke. Askotarikoa izan den segurtasun horrek bide egitea eskatzen du, hau da, mapa eta proiektu zurrak behar direla laborategietan aurreikusi. Iragarpena egin eta berau lortzeko bitartekoak eta bideak zehaztea. Konstituzio bat egin, eta hiritarrak horra egokitzea. Bidaian, ordea, ezustekoak, ezezagunak, diferentziak, exilioak, amodioak eta mendekuak, traizioak, istripuak izaten dira lagun, edo etsai. Aurrez erabakitako helburua lortzeko asmatan erabilitako metodo efektiboaren ondorioak ezagunak dira. Ez dago denboran eta espazioan urrutira joan beharrik. Baina ez bedi zerrenda Gernikara, Auschwitzera eta Palestinara mugatu; ezta Hiroshima eta Nagasaki, Txernobil eta amets faustikora ere. Arazotzat jo denari modu arrazional eta tekniko batean irtenbidea emateko mentalitateak aldaera anitzeko “ekoizpenak” sortu ditu. Hori da mundu modernoan aurretiazko proiektu zurrak egiteak duen arriskua: mundua beltza *edo* zuria izatea. Infernua betierekotzea norberarentzat eta besteentzat. Nahikoa bedi Baumanek esandakoa:

Gogoratu behar dugu ordena artifizial eta gizartearentzako plan handien garaia dela modernitatea, planifikatzaileen aroa, bisionarioena eta, orokorrago, gizartea aditu batek diseinatu eta ondoren aurreikusi moduan landu eta mantendu behar den lurra bailitzan darabilten “lorazainena” (1997: 153-154).

Dena dela, tradizio soziologiko oso bat baldintzatu duen marko teorikoa eta epistemologikoa gainditu eta tresna analitiko berriak proposatzen hasteak gertatzen ari denarekiko beste irakurketa bat eskain dezake. Eta, alderantziz, gertatzen ari denak teoria soziologikoa berregokitu; luzaroan kontatu denaren aurka, unibertso kategorikoa bezala, horrekin elkarrekintzan dagoen prozesua ere hautu baten ondorioa delako. Beraz, lan honetan ere, aukera bat egiten da. Proposatuko denaren arabera, gizarte perfektura iristeko bidean, modernizazioaren dinamismo autonomizatua muturreraino eramatearekin modernitatearen zutabe izan diren ziurtasuna, homogeneizazioa, progresuarekiko adostasuna edo eragin eta arrisku ekologikoekiko abstrakzioa birrindu egiten dira. (Horregatik, noski, betaurreko zaharrak darabiltzatenen ahotan morala, ordena eta beste nagusitzea). Politikoaren kalitate-aldatze hori, neurri txikietan baina eraginak metatuz, inolako iraultza zein programa politikoen lehiarik gabe, garai bateko ulertzeko era zein bizierak birmoldatuz emango da. Ziurgabetasuna eta anibalentzia gure gizartearen printzipio eratzaille moduan onartzea da erronka, adibideen artean, besteak beste, Europar Batasunak esparru teknozientifikoan instituzionalizatu berri duen arduraren printzipioa edota, gure historian lehen aldiz errealitatea hiritarrek egituratzen dutela aldarrikatuz, subjektu politiko eratzaille baten aldeko apustua egin zuen Lizarra-Garaziko akordioa (1998-09-12).

Modernizazioa arrazionaltasun teknologikoarekin eta lan zein organizazioaren eraldakuntzarekin lotu ohi da. Baina lan honetan azalduko den bezala, modernizazioaren ulerkuntza soziologikorako agerikoak diren aldaketa horiek, ondorio sakonagoak dakartzate. Gizarte egitura osoa bereganatzen eta eraldatzen du. Ez da, beraz, kanpoko eta azaleko eraldaketa hutsa. Eguneroko bizitza soziala egokitu eta norbanakoen esperientzia pertsonaletan eragiten duen egiturazko aldaketa da.

Testuinguru honetan garbi gera bedi norbanakoak eta taldeak ezin daitezkeela kanpo eraginek baldintzatutako entitate pasibotzat jo. Euren berariazko nortasunak landuz, ekintzaren egoera zehazten duten tokitik harantzago joanaz, eragin sozialletan parte-hartzen dute eta ondorioak izaera unibertsalekoak dira. Bai denboraren eta espazioaren berrantolamenduak, bai “erauzte” bitartekoek aurrezarriak diren modernitatearen erakunde ezaugarriak erradikalizatzen eta unibertsalizatzen dituzte, eguneroko bizitza sozialaren eduki eta izaera eraldatzeko balio izatearekin batera (Giddens, 1995: 10).

Modernizazioa, beraz, etengabeko berrikuntza legez ulertu behar da; baina XXI. mendearen atarian, aldaketa horien ondorioek zer pentsatua sortu dute. Gaur egungo aldia, postradizionala² izanagatik ere, ez da nahi izan zen bezala ziurtasuna eta oparotasunaren aldia izan. Baina ezta izango ere. Eta komeni da ideia hori azpimarratzea. Gaur egungo arazoak eta desberdintasunak etorkizuneko gizarte batean desagertu eta zoriontasunaren paradisua emango den ustea ere baztertu beharra dago. Modernitate industrial-kapitalistak, “bizikidetzak” bermatzearen, ekoitzi duen mito horrek ez du baliagarritasunik. Paradisu hurbil baten truke ontzat eman diren askotariko galerak eta gabeziak hor jarraitzen dute. Areagotu egiten dira. Eta, konpontzekotan, gizarte garaikideak beharko ditu konpondu. Aldaketak ez dira besterik gabe ematen, aldaketak ez dira naturalki gertatzen. Ez, oro da erabakia; gakoa da nork, nola eta norentzat hartzen duen.

Arriskuaren gizartea hauxe da: arrisku sozialek, politikoez, ekonomikoez zein indibidualek (kontrolatu ezin dituzten mehatxuen ekoizle eta legitimatzaile diren!) industria-gizarteko erakundeetatik ihes egitea eta eztabaidagai bihurtzea. (Beck, 1998a: 199-289). Izan ere, tradizioek eta usadioek *ziurtasuna* bermatzen bazuten, ezagutza arrazionalaren ondorioz ez da ziurtasuna ahalbidetu. Aitzitik, aurrerakuntzei berariazkoak zaizkien zalantza berriak (ere) plazaratu dira. Zalantza horien jatorria modernitatearen sistema sozialaren izaera unibertsalizatzailean dago.

Bere bilakaera linealak gizarte garaikidean erakunde-krisia sortu du eta sistemarako arazoak iluntzen joango dira, jazoerak ekintza arduratsuen eta kontrolatuen ondorioak besterik ez balira bezala ulertuz gero. Izan ere, arriskuaren gizartea sortu duten aldagaiak, industria-gizartearen dinamismo autonomizatuari berariazkoak, *ezin* dira atzeman gizarte industrialeko sisteman emaniko eredu instituzionalekin (ikus, Beck, 1998b: 4.zatia). Ondorio sistematiko guztiak *arriskuaren gizartea* kontzeptupean ulertu behar dira, orduan soilik ohartuz autodeterminazio erreflexiboaren beharraz (Beck, 1994: 22).

Aldaketa-dinamikaren bidetik arrisku politiko, ekologiko eta indibidualen ekoizpenak, efektu kolateralen itxuran, industria-gizarteko kontrol eta babes erakundeek *ihes* egiten dien gizarte modernoko unea da “arriskuaren gizartea” (Beck, 1996a: 201). Ez da aukeratu daitekeen fase bat. Industria-gizarteak sortu dituen mehatxu eta ondorio ezkorrekiko *itsu* jardun izanagatik sortzen da. Beste hitz batzuetan, dinamismo industrial autonomizatuarengatik sortzen ari den gizartea da. Industria-gizartean bizi izan diren pertsona eta erakundeek izan dituzten ziurtasunak (kontzientzia progresoa, mehatxu eta ondorio ekologikoekiko abstrakzioa), ezer ez dute zalantzan jarri izan. Ez dituzte, oraindik ere, zalantzan jartzen eta kalteak etengabe metatzen jarraitzen dute.

2. Postradizionalaren ideiaz, ikus: GIDDENS, 1993; *idem* 1994.

Horren ondorioz, modernizazioaren “erreflexibitateak” industria-gizartetik arriskuaren gizartera emaniko “trantsizio autonomoa, nahigabea eta pertzibitu gabea esan nahi du” (Beck, 1994: 19). Garrantzitsua da egin berri den baieztapena. Izan ere, “erreflexibo” adjektiboak besterik eman baitezake aditzera, “autokonfrontazioa” adierazten du. Modernizazioaren dinamismo autonomizatuaren ondorioz, gizarte batetik beste gizarte batera emaniko nahigabeko trantsizioa (ez, ordea, erabakirik hartu gabe!). Arriskuaren gizartean, garapen teknoindustrialak sortu dituen arriskuekiko kontzientzia hartzen da, eta horren ondorioz, bere burua hartzen du aztergai. Bere burua da gaia eta arazoa. Prozesuaren beraren trantsizio autonomoa da. “Beste kontu bat da, bigarren une batean, hausnarketa (publiko, politiko, zientifiko) objektu bilakatzea. Arriskuaren gizartea abstrakzioak sortua da” (Beck, 1994: 19). Beraz, bi fase bereiz litezke, baldin eta hiritarrok kontzientzia hartu eta, hizkuntza monopolioa ekidinez, gizartearen zerbitzura egongo diren erabakiak guztion artean hartzen baditugu. Arriskuaren gizartean dinamismo autonomizatuari bere bidea egiten uzten bazaio, Holokaustoa gertatuko da; aldiz, hiritarrok erabakiak hartuz gero, gizarte-egitura berri bat ahalbidetu ahal da. Horixe da arriskuaren gizarteak ekarri duen dilema.

Datozen orrialdeetan, arriskuaren gizartea zertan datzan ulertzeko, lanaren helburuaz jabetzeko ezinbestekoa dena, Beck-en (1998a) bereizketa bat jarraituko da. Industria-gizartearen modernizazio erreflexiboaren bi ideia arautzaileak aurkeztuko dira. Batetik, aberastasunaren ekoizpenaren eta arriskuen ekoizpenaren arteko bereizketa; eta bestetik, gizarte industrialaren baitan ematen (ari) den modernitatearen eta kontramodernitatearen arteko berariazko kontradikzioa azalduko da, gizarte industrial-kapitalistaren bilakaera ahalbidetu duena, ordena sexual estamentalak adibideetako bat izan daitekeelarik.

2.1.1. Bi logiken arteko bereizketa: aberastasuna arriskua denean

Aurrerakuntza tekniko-ekonomikoaren boterea sendotzearen ordainetan, arriskuak gero eta modu gordinagoan ekoizten dira. Lehenengo une edo fase batean, efektu kolateral latenteen aitzakian eta progresorako baldintza delakoan, arriskuak legitimatu ahal badira ere, unibertsaltasunak, atzeraezintasunak, jendearen aldetiko kritikak eta ikerketa *zientifikoek* (edo antizientifikoek), auzi hori lehentasuneko gizarte- eta politika-eztabaida bilakatzen dute (Beck, 1998a: 19).

Izan ere, ekosistema kontuan hartzen duen bizimoduak, ekonomia eta ekologiaren harremana ez ezik, ekonomiaren eta politikaren harremana ere badu aztergai. Eta horrek, era berean, zientzian, administrazioan edo justizian ere eragiten du, berriki Itoitz edota Boroako kasuek erakutsi duten legez. Garrantzitsuak izan daitezkeen bestelako gaiak alde batera utzita, Ulrich Beck soziologo alemaniarra oinarri harturik, arriskua eta krisi ekologiko eta soziala nola uztartu daitezkeen landuko da ondoko orrialdeetan. Dena dela, zeharka bada ere, atalaren joan-etorrian gai posibleetarako zenbait liburu aipatuko dira, asetzeko asmorik

gabe. Gainera, “zientzia, teknika eta gizartea” ikerketa-esparruan arriskuaren auziak toki nagusia bereganatu duela jabetun izanik, atal honek helburu apalagoa eta zabalagoa du; azaletik landuko da atal bakoitza, lan osoa bere osotasunean hartzen duen irakurketaren bidez, modernitatearen sinesmen-sistema kontsolidatua ahulduta dagoela frogatu nahi baita.

a) Arrisku ekologiko globalak aberastasunaren ondorio moduan

Arrisku ekologikoaren ekoizpenak eta banaketak gaur arte nagusi izan den teoria sozialaren pentsamendurekin zuzeneko lotura du. Hauxe da pentsamendu horren ondorioa: “Aberastasunaren ekoizpen sozialak, hazkunde ekonomikoaren ikuspegi itxiak, berarekin dakar modu sistematiko batean arriskuen ekoizpen soziala”. Arrisku horiek berariazko ezaugarriak dituzte, azpimarragarriena beren globalizaziorako joera izan daitekeelarik, nazioa gainditu eta klase jakinetara mugatzen ez dena. Alegia, mehatxu globalak dira (eta oraindik adituek atzeman ez duten dinamika sozial eta politiko berria ekar dezakete).

Esan bezala, jarraian “aberastasunaren ekoizpen logikaren” eta “arriskuen ekoizpen logikaren” inguruko azalpen txiki baten bidez, frogatu nahiko da nola modu zientifiko-tekniko batean ekoiztutako arriskuetatik arazo, gatazka eta aukera berriak sor daitezkeen. Honako hau da erronka: kalte-, hondamendi- eta kutsadura-mailak ekidin eta murriztea ez ezik, eredu berri baterako “bitarteko” baliagarria ere bilakatzea.

Arriskuaren ekoizpenaren logika “gauzatzeko”, mendebaldeko gizarteak erakutsi duen bezala, bi baldintza bete behar dira: bai giza eta teknologia-ekoizpen indarrek, bai ongizate-estatuari esker emaniko arauak eta ziurtasunek miseria materiala objektiboki murriztea eta sozialki gaintzea (Beck, 1998a: 25). Nolabait esatearren, logika bakoitza, aberastasunaren logika eta arriskuaren logika, modernizazio prozesuan, garai *jakin* batean jazotzen dira.

XXI. mendean, hots, aldi historiko berean, bi logiken aldiberekotasuna eman daiteke. Izan ere, behar materialak baldintzatuta dagoen gizarteak iraun artean (Hirugarren Mundua), modernizazio-prozesuaren helburua aberastasunaren atea zabalduko dien garapen zientifiko-teknikoaren giltza eskuratzea izango da. Bestalde, gutxieneko baldintza materialen beharrek lehentasuna galtzen duen tokietan (baldintza materialak bermatuta egotearen baldintzapean, beraz), modernizazio-prozesuak ordura arteko legitimazio oinarria galtzen du, eta ez dira onartzen haren ordaintan onartuak izan diren efektu kolateralak.

Baieztapen bikoitz horrek, noski, konplexuagoa den errealitatea murrizten du. Horrela, norbanakoek *beharrak* ase arren, kontsumoaren gizartearekin sortzen diren *gabeziak* eskuratzeari lehentasuna emanez, arazoan aurrean itsu jokatzen jarraitzen dute. Behar materialak ase arren, desirak bultzatutako gabeziak asetzeko joera hau, gizarte garaikidean inoiz baino gordinago ematen da herrialde industrial-

zatuetao biztanlerian.³ Alderantziz, mendealdeko gizartearen modernizazioa eza-guna izan ez den herrietan, progresu-eredu hori ekiditen duen eredurik ez da falta.

Lehengora itzuliz, nola ulertu bestela, lehen mailako beharrak (eta zerbait gehiago) ase dituzten herrialdeetako hiritarren ekimenak, mugimendu ekologisten aldarrikapenak esaterako, ekidin ezinak izanik, enpresa multinazionalak eta transnazionalak Hirugarren mundura jo eta, legitimazio beharrik gabe, hango gobernuak halako harrera beroa egin izana?

Azalpenak ez du misterio handirik: “Miseria materiala eta arriskuen aurreko itsutasuna elkarri lotuta daude”. Herrialde txiroetako biztanleentzat, modu ziniko batean esanda, makineriaz, hodiz eta zabortegez betetako inguruneak ospeareten eta aberastasunaren adierazle izan dira luzaroan. Horren ondorioz, legitimazio beharrik ez duten lurralde horiek oso erakargarriak bilakatu ziren oztopo gabeko onespenei oztopoak jartzen zizkien giza mugimenduen ondorioak pairatu zituzten enprese-tarako.⁴

Egindako adierazpenetatik inork ondoriozta dezake gaitasun ekonomikoak, herrialde industrializatua izateak, heziketak edo informazioak desberdintasun sozial zaharrak modu berri batean areagotzen dituela. Itxura batean, eta lehenengo une batean, halaxe da. Baina arriskuen ekoizpenaren logikak badu “indar politiko berri bat”. Zenbait arrisku hainbat gaitasunen arabera ekidin daitezkeen arren, arrisku ekologiko askok, desberdintasunen gainetik, *guztiei* eragiten die. Arriskuaren ekoizpen logikarekin “ikuspegi espazio tenporal eta ikuspegi sozial batetik, mehatxuak delimitatzeko zailtasuna da ezaugarri berria” (Beck, 1997b: 37)

Arriskuaren gizartea, beraz, ez da “klase-gizartea”. Epe luzera ez ditu talde, herrialde edo eskualde batzuk bereizten. Modernizazioaren arriskuek duten globalizaziorako joera azpimarratu beharreko fenomeno da. Ekoizpen industrialak berariazkoa du arriskuaren unibertsaltasuna. Parte-hartu edo ez, zuzeneko onurak izan edo ez, arriskuak guztiei eragiten die azkenean. Zentzu honetan “besteek” desagerpena ematen da. Eta ez da nahikoa, ezta bidezkoa, behi eroen kasuaz soilik oroitzea, iragan mendeetako den erakunde politikoen ahulezia agerian uzten duten adibideak asko baitira, aireari esker barreiatzen direnetatik hasita, tokian tokiko

3. Egoera honi aurre egiteko, hiritartasunaren teoriaren arkitektura eraldatzen duen Andrew Dobson-en proposamena nahitaez aipatu behar da. Bere ustez, teoria politikoan nagusi izan diren hiritartasunaren ereduak beti eman izan diote lehentasuna “eskubideei”, betebeharren gainetik. Dobson-ek, eskuin berriarekiko antzekotasunez jabe bada ere, bestelakorik planteatzen du “hiritartasun ekologikoa” deritzonaren bidez. Ikus: DOBSON, 2001.

4. Aipatutakoaren ildotik, azkenaldian “birkolonizazio ekologikoa” izenez ezagutu den fenomenoak lan propio bat egiteko espazioa eskatzeaz gain, zeresanik eman dezake (eman beharko luke!) nazioarteko eztabaidetan. Mundu-merkatuen gurutzada jasaten duten herriek “birkolonizazio ekologikoa” jasaten dutela esatean, ez zaio soilik erreferentzia egiten destino merke izateari, baita txirotasuna betierekotzen duten hamaika aldagairen iturburu izateari ere. Horretaz eta horrek ekar ditzakeen “aukerez”, ikus: BECK, 1998b: 275-284.

hondamenditik harantzago. Beraz, Txernobilen gertatutakoa espazio eta denbora zehaztu batera muga daitekeela oraindik pentsatzen jarraitzen al du jendeak?

Klase-gizarteetan, behar materialak asetzea bazen helburua, arriskuaren gizar-tean agerikotasuna (gosea, gainekoizpena, boterea, mendetasuna) bigarren maila batean geratzen dira, “ikusezinak” eta “hauteman ezinak” diren mehatxuek lehen-tasuna hartzen baitute. Pairatzen, jasaten edo nabarmentzen ez denetik harantz dagoena, arriskuaren gizar-tean, *ez* da irrealia.

Laburbilduz, ageriko aberastasunaren eta arrisku ikusezinen arteko lehia lehenengoak irabazten du: behar materialek (eta, dirudienez, gizarte postindustria-lizatueta desirak bultzatutako gabeziek) lehen-tasuna dute. Baina, hara non horregatik denbora pasa ahala bigarrenak irabazten duen. Muturreraino eramantzen aberastasunak dakar arriskuaren gizartea. Hori, era berean, tokikoa baino globala da, eta atzeraezina.

b) Alarmismoaren gutxiespena babeserako aitzakiatzat

Ageriko txirotasunak edo gabezia materialak, lehen-tasuna hartuz, arriskuen hautematea uka dezake. Baina ez bere errealitatea ezta bere efektua ere. Hirugarren munduan ez ezik, herrialde industrializatu aberatsetako pentsamendu eta ekintzek, hazkunde ekonomikoaren lehen-tasunak eta bizitza-ereduak, beste leku batzuetan ere gauza berbera erakusten dute: aberastasuna eskuratzeko edo areagotzeko lehen-tasuna du arrisku ekologikoen aurrean.

Herrialde industrializatueta ere, “langabezia, kaltea eta galera ekonomikoa” aitzakiatzat hartuta,⁵ toxinak igortzeko onarpen-mailak areagotzen dira esaterako, eta kontrolak ekidinez edo murriztuz legalki *ez dauden* elementu toxikoak ohiko kontsumoaren polizoi bilakatzen dira. Bitartean, arriskuak definitzeko tresna zehatz batzuk sortzen dira eta, noski, hori egitearen kontura aberastuko diren industriak. Askotan, gainera, enpresa berberak dira kalteak sortu eta berauei aurre egiteko bitartekoak sortzen dituztenak.

Atal honen helburu nagusitik urrundu arren, hazkunde ekonomikoa irizpide-tzat duen jarrera honek ekonomia ekologikoa aipatzea ezinbestekoa egiten du. Entropiaren legea deritzona (edo termodinamikaren bigarren legea) oinarri hartuta, ekonomiaren eta ekosistemaren arteko harremanak ingurumena babesteko plaza-ratu ohi diren formula magiko anitz zentzugabeak direla argi eta garbi geratzen da.

5. Hazkunde ekonomikoari lehen-tasuna eman eta, argudio horretaz baliatuz, hiritarren artean gero eta zabalagoa den sentsibilitatea ekiditeko, mugimendu sozialen literatura soziologikoan erabili ohi den hizkeraz baliatuz, kontramugimendu ekologistak duen zeregina garrantzitsua da. Estrategia desberdinak egin ohi dituzte eta funtzioen araberrako bost talde daude: harreman publikoetako konpainiak, intelektual organikoak, esparru juridikoan jarduten dutenak, finantza-iturriak eta “organizazio medioambientalistak”. Analisisirako ikus: CASQUETTE, 1993.

Ondoren, aipatuko den zabortegien adibideak, edo beste batek, ezinezkoa den “ekonomia” eta ingurumenaren arteko harremana du oinarrian. Ekoizpenak, denbora pasa ahala, ageriko kalteak ekarri ditu. Mugatuak diren energia eta lehengaiak urritzen dira, eta bere jardunaren ondorioz sortutako hondakinekiko ekosistemaren ahalmen “mugatua” gaintitzen du. Hazkunde ekonomiko epe laburrerako ikuspegi da, ingurumena etengabe ahulduz. Dennis Meadows buru zuen txostenak garbi utzi zuen hazkundearen mugak ingurumenaren kutsaduragatik izan zitezkeela, hasieran uste izan zen energiaren eta baliabideen urritasunagatik izan beharrean.⁶ Ikuspegi horrek berebiziko lehentasuna hartuko du Ingurumenerako Nazio Batuen Programak Rio-n 1992an antolatu Lurraren Goi bileran. Biztanleria, kontsumo-eredua eta horretarako erabilitako teknologiaren ondorioz, *teknoesfera* eta biosfera aurrez aurre egotearen eztabaida sendotu egingo da.

Lurra eskaintako mugak gaintitzeagatik sortu ohi diren ondorioen hamaika adibidetako bat Gipuzkoako Foru Aldundiak epe laburrean irtenbidea eman behar harko dion zabor-hondakinen auzia da. Nahita hartu da arazo/arrisku hori hizpide, beste zenbait adibiderek ez bezala, ez baitu zifretan galtzeko arriskurik. Gainera, hiritarrak zabortegia kokatuta dagoen ingurura hurbiltzea nahikoa du, alarmismoa baino zerbait erreala dela ikusteko, “ikus” egiten baita.

1996an, hiritar ekimenek eta kostuek bultzatuta (25.126 milioi, zeinetatik 5.835 milioi publikoa behar zuen izan) eta Eusko Jaurlaritzaren gaitzespen eta mugimendu ekologisten oniritziarekin, errauskailua ez egitea erabaki zen. Hala ere, badirudi, “hiritarrek ez badakite ere”, eztabaida berriro piztuta dagoela azken urte luzean.⁷

Europar Batasunaren zuzendaritza batetik, eta orografia bestetik, birziklatzearen bide soiletik irtenbidea lortu ezin daitekeen arazoa mahaigaineratzen den auzia da. Alde guztiek ezartzen dute lehentasun modura birziklatzea, baina kontsumo-gizartearen ereduak zailtasunak ezartzen dizkio alternatiba horri. Honenbestez, Foru Aldundiak biometanizazioa, konpostaia eta errauskailuaren aukerak ere mahaigaineratzera behartuta dagoela adierazi du.

6. Mugak ezartzen dituen *lege naturala* izanik, izadiaren elkartasuna baino ez da irtenbidea. Ikus, hutsuneak hutsune: MEADOWS, 1973 eta 1992; SCHÜTZE, 1997. Hazkunde ekonomikoaz egindako aipamenak sakontzeko, hots, kontramugimendu ekologistak, eta ekonomia eta ekologiaren harremanak (eta bide batez, lan honetan garatuko ez den politika berdeaz: bai ibilbide historikoa, bai etorkizuneko erronkak antolamendu politiko legez), ikus: EIZAGIRRE, 2000a. Mehatxu nuklearrak ez ezik, astiro baina etengabeko krisi ekologiko globala hazkunde ekonomikoak ere badakar. Zentzu honetan, ingurumen-borroka *belaunaldien arteko justizia-arazo* bilakatzen da. Honen inguruan garapen eramangarriaren ideia ezinbestekoa bilakatzen da. Ikus: BARCENA, IBARRA eta ZUBIAGA, 2000. Auzi honek guztiak beharrezkoa egiten du politika medioambientalista (edo *kapitalismo berdea*) eta politika berdea bereiztea (DOBSON 1998).

7. Ez dago esan beharrik, ondoren aipatuko diren ingurumen-hutsunez gain, adibidetzat hartu den kasuak, modu honetako beste kasu batzuek bezala, defizit demokratikoa eta parte-hartzea hizpide dituen eztabaida ere eskatzen duela.

1996an, pertsona bakoitzeko eta urteko, 350 kg zabor bildu ziren, baina 1999an 419 kg bildu ziren; hau da, 1996an Gipuzkoan 736.000 tona jaso ziren eta 1999an 869.000 tona izan ziren. Horrela, jasotze selektiborako programa jakinen bidez, europar batez bestekoaren gainetik, %13,2 berreskuratzea lortu bada ere, eta, orografiaren zailtasunarekin, konpostaiak materia organikoa berreskuratzeke aukera eskaini dezakeen arren, zabortegiaren bizitza-erabilgarria amaitzen ari da.

Esaterako, Donostialdea eta Bidasoaldeko zaborrak biltzen dituen San Markos zabortegiari bospasei urteko bizitza iragarri diote. Gauzak horrela, zabortegiaren aukera mugatua da baldintza geografikoen eta orografikoen oztupoak jartzen baitituzte, Europar Batasuneko araudiak azken aukeratzat jotzeaz gain. Hala ere, errauskailuak kostu ekonomiko itzelak ez ezik, hiritarren aldeko gaitzespen zabala ere badu.⁸

Oraingoz, guztiek argi daukate, erretorika modura bederen, kontsumoaren gizartea eredu bezala edukitzeak dituen ingurumen kalteak. Gainera, erakunde publikoek, Europako herrialde askotan jada egiten den moduan, “kutsatzen duenak ordainduko du”⁹ printzipioa hiritarrei aplikatu beharko zaiela argi eta garbi dauka, Txingudiko Mankomunitateak salbu, gainerakoek ez baitute zabor-tasen bidez jasotze- eta tratamendu-zerbitzuen kostua kitatzen.

Erabaki oro, ordea, hanka-motz geratuko da “murriztu, berrerabili, birziklatu” neurrian oinarrituz, gizarte-eredua auzitan jarri, jasotze-araudia aldatu eta berrerabilpenaren politika bultzatu ezean. Hortxe dago gakoa eta erronka. Eta zentzu horretan, esan bezala, ez dirudi errauskailua bitarteko egokiena denik.¹⁰

8. Bada, ordea, errauskailua ezbaian jartzen den guztietan, aztertuta eta frogatuta dauden ingurumen ondorioez gain, ekidin nahi izaten den oinarritzko argudio bat: errauskailuak “murriztu, berrerabili, birziklatu” politika ororen bazterketa dakar. Izan ere, errauskailuaren inbertsio-kostuak amortizatzeko eta errauskailuaren funtzionamendurako, hara non zaborra beharrezkoa den. Errauskailuaren ingurumen-kalteen azaleko hurbilketarako, ikus: SILVANI, 2000. Bestalde, egindako azalpenetarako, 2000ko maiatzaren 18-19an Miramongo Parke Teknologikoan, zaborren kudeaketa eta finantziazioaren inguruko jardunaldiei buruz, garaiko egunkarietan ateratako berriak eta elkarrizketak erabili dira oinarri moduan. Lan hori egin zenetik, datu eta informazio eguneratua azaldu da, bada aldaketarik baina ez, funtsezkorik, hemen azaldutakoak bere baliagarritasun osoa mantentzen duelarik.

9. Ikus, ROMANO eta BARRENECHEA (koord.), 2001. Lan honetan azalduko den pasarte laburra eta bizkorra garatzeko ere baliagarria izanen da aipatutako liburua.

10. Lan hau egin den bitartean, oraindik Gizpuzkoako Foru Aldundiak ez du plan edo aurretiazko planik jakinarazi. Ez da harriztekoa izango, ordea, errauskailua nahitaezkozkat joko duen argudioa ematea. Hori, noski, eredu aurrerakoiarena eta teknologia perfektuena oinarri harturik egingo du; esaterako, balorizazio energetikoa aipa daiteke, edota birziklapena eta errauskailua prozesu beraren zati bezala aurkeztu. Denborari berea. (Agian hemerotekan du dagoeneko irakurleak frogatzea, edo etxe ondoan). Dena dela, zientzia eta teknologiaren gizarte-ikerketetan nazioarteko oihartzuna duen Wynne-ren hitzak gogoraraztea komeni da: “Ekoizpen garbiaren inguruko enfoko teknikoaren ohiko ikuspegiak galdera orokor bat planteatu ohi du: nola hobe dezakegu gure prozesu industrialen eraginkortasuna baliabideen erabilera eta hondakinen ekoizpenean? Galdera konplexu eta zabalago

Ilustrazio modura aipatu berri den arazoarekin batera, irtenbidea tekniken hobekuntza dela argudiatuz, sarri aipatu ohi dira honako esaldi hauek ere: “Ingurumen-babesak lanpostuak sortzen ditu”; “ekonomia eta ekologia osagarriak dira”; edo “ingurumena babesteko, hazkunde ekonomikoa beharrezkoa da”. Baieztapen horiek, ordea, entropiaren legea gutxiestean dute abiapuntua.

Horrek guztiak, beste baieztapen baten zinikotasuna agerian uzten du: “ingurumenaren zaintza etxetik hasten da” (Dobsonnek esaldi hori bere egiten du, baina zeharo desberdina den edukia garatuz). Argudio kuantitatiboak nahikoak dira jarrera horien defendatzaileak gutxiesteko. Egoera globalaren alde, zerbait egin izanaren ilusioa eta nagusi den ereduari aurre egin izanaren autoafirmazioa baino ez dira lortzen hiritar arruntak etxeko esparruan hartzen dituen erabakiekin eta portaerekin (ikus: Dahl, 1997). Adibide batekin irudikatzearen: norbanakoak esparru pribatuan egiten duen ahalegin oro (bazkalostean sobera geratu den ura lorontzira botatzea) hutsala da bizimodu berbera mantentzen den heinean (auto bat egiteko laurehun mila litro ur erabiltzen denean).

Baina baieztapen horiek zalantzan jarri eta, arriskuaz jabeturik, egoera salatu nahi dutenak alarmistatza eta arriskuaren sortzailatza joz, gutxietsi nahi izaten dira. Frogaezinak omen dira euren argudioak, gehiegizkoak gizakiei eta ingurumenari iragarritako ondorioak. Gainera, zenbait arazo eta arrisku agerikoak diren unean, erraz topatu ohi da irtenbiderako giltza: “Ekoizpen sozialaren hazkunde bizkorragoa”. Neurri horren bidez, kalteak eta arazoak (inoiz ez arriskuak) tekniken hobekuntzarako pizgarri bilakatzen dira.

Halako kritikak egiten dituztenek, zientzia eta ikerkuntza goresten dituzte, eta gainerakoa irrazionaltza jo. Arriskua ez da izango, horien hitzetan, Aro Modernoan sortutako jazoera bat. Gainera, biztanleriak onartu ditu aurrerapenak ezinbestekoak dituen kalteak eta arriskuak. Alegia, sortzen dituen abantailak nahikoa ez eta, ohitura bilakatu denez, aurrerapena ez dago tradizioa baztertze prest.

Aipatu den guztiaren ildotik eta adibide modura, Gil Calvoren (2001) adierazpenak lerro hauetan jasotzea beharrezkoa da, areago soziologo batenak izanik.

bat hauxe da: Ea ambientalki jasagarriak diren, etorkizunak bideragarriak ote diren, baita ekoizpen sistema eraginkorrenak modu unibertsean aurrera eramanda ere. Ez ote da posible kontsumo eta ekoizpen hazkorrek, irudikatutako utopia teknikoak ahalbidetutako aukerak oztopatzea?” (WYNNE, 1997: 161). Ingurumenerako politikek bereizi egiten dituzte ekoizpen garbiari lotuta dauden auzi teknikoak baliabideen erabilera hazkorraren eta hondakinen aregotzearen auzitik. Horren ondorioz, ZTG Zientzia, Teknika eta Gizartea bezala ezaguna den ikerketa esparruan egin diren zenbait azterketak salatu duen moduan, arriskuaren auzia ezin daiteke analisi tekniko huts batera mugatu. Arriskuaren gaia eztabaida zehatz horretara zuzentzen duen lan sakonago baterako gomendagarriak dira: FRANKLIN (1998) zeinak Beck-en “arriskuaren gizartea” izango duen hizpide, betiere, Britainia Handiko kasuak landuz; ADAM, BECK eta VAN LOON (2000); IRWIN (2001); gaztelaniaz, berriz, LÓPEZ CERESO eta LUJÁN (2000); LÓPEZ CERESO eta LUJÁN (2001); eta Hannot RODRÍGUEZ (2001) euskal filosofo gaztea.

Bere aburuz, alarmismo hutsa baino ez da gaur egungo gizartearen joera zalantzan jartzeko saio oro. Gil Calvo ziur dago arriskuak historia sozialean izan dituen berezitasun berberak mantentzen dituela. Ez omen dago arriskuaz hitz egitean ezaugarri bereizgarririk gizarte garaikidean.

Pentsamendu kontserbadoreak hainbese maite duen erretorika atzerakoia Beck-i leporatuz, soziologo alemaniarren originaltasuna bi axioma faltsutan oinarritzen delakoan, baztertu egiten du bere alarmismoa. Batetik, arriskuen izaera globala ukatzeko, bizi-kalitate eta giza garapenaren gizarte-adierazleak azpimarratzen ditu.

Bestetik, arrisku modernoak naturalak baino artifizialak direla dioen Beck-en baieztapena ez dela zuzena gaineratzen du. Horretarako hauexek azpimarratzen ditu: duela hamabi mila urteko ehiztariak ahitutako pleistozenoko megafauna, duela hamar mila urte nekazarien iraultzak hiri-estatu neolitikoak sortzean asmatutako epidemia kutsagarriak, duela hiruzpalau mila urte inperio hidrauliko handiek eraldatutako ibaien bideak aldaketa klimatikoa bultzatu izana, duela milurteko bat nekazaritza feudalek eta ontzi-eraikitzaileek sunsitutako Europako basoak eta diezmatutako amerindiar biztanleria eta duela berrehun urte sortutako kapitalismo industrialak, bere efektu kolateralak eta guzti.

Gainera, gaur egun, aipatutako arazoekin ez bezala, kalteak ezagunak omen dira, eta gero eta gaitasun gehiago ei daude horiek kontrolatzeko. Baieztapen horren aitzinean esan daitekeenaz gain, ezagutzen diren arazoak al dira *daudenak*? Zer egin (ezagutzen direnen artean, jakina) oraindik kontrolatzen ez direnekin, nahiz eta gertatzeko probabilitate gutxienekoa izan, probabilitatea izanik, gaur gauean jazo baitaiteke?

Amaitzeko, Gil Calvo-ren ustez, Beck-en tesiaren ospea ez datza arrisku errealean areagotzean (“objektiboki murrizten baitira”), jasaten diren edota irudikatzen diren beldurren *kutsapenean* baizik. Modarekin edo negoziioekin gertatzen den bezala, zikloak gertatzen omen dira ordenatik desordenara, arriskutik ziurtasunera, kausalitate zirkular batean elkar elikatzen diren mugimendu kolektiboetan. Halakoetan, arriskuaren jatorriak garrantzia galtzen du, behin arrazoi erreal edo irudimenezkoengatik sortuta, birus epidemiologikoak bezala bazter guztietara hedatzen delako. Beste hitz batzuetan, (aldi baterako) berrekoizpen mimetiko huts bat.

Oinarri bezala Gil Calvo hartu denez, ondoko orrialdeetan beronen irakurketaren inguruan sor daitezkeen zenbait gogoeta egingo dira. Ahalegin horren bitartez, arriskuak gizarte industrialaren ezaugarri azpimarragarria direla arrazoitu nahiko da.¹¹ Ahalegin horretan, kalitate-neurketa adierazleen gabezia ere azpima-

11. Hemen jorratuko ez bada ere, bizi-kalitateaz Gil Calvo-k egiten dituen baieztapenak oso berekoiak dira. Munduko bazterretara begiratu besterik ez dago. Baina, are gehiago, batzuen “azaleko” bizi-kalitatea besteen kontura egiten dela gaineratuz gero, norberaren ongizateaz eta

rratuko da. Horren ondorioz, ziurtasun sozialek eta politikoez gaur arte teknikan eta hori neurtzeko ustezko ahalmenean izan dutenez ziurtasunerako oinarria, gizarte garaikidean hiritarrek duten ziurtasun soziala eta politikoa hankaz gora jartzen dela frogatuko da.

Beste hitz batzuetan, eta hauxe da tesia, segurtasunaren filosofia segurtasun teknikoaren filosofiatik bereizi beharraz ohartarazi behar da. Arriskuen definizioaren auzia zabaldu eta demokratizatu beharra dago, ekoizpen industrial tradizionalaren oinarriak ez ezik, zientzia, zuzenbidea eta politika ere eraldatuko lituzkeen aldaketa erradikala bultzatuz. Maila politikoan eta kulturalean erabakiak hartu behar dira, aurreikuspen teknokratikotik harago: “Erabaki teknikoak modu ez tekniko batean hartzeko eta justifikatzeko subiranotasuna demokraziaren gradu ebolutiborako neurria da” (Beck, 1998b: 65). Hori ekidin du bilakaera soziala eta industrializazioaren sistema botere sozial geldiezin eta autonomotzat jo dituen teoria soziologikoak (ez soilik “sistemen teologiak”), giza ekintzarekiko independentea balitz bezala. Industrialismo berantiarraren makroarriskuak arriskuaren gizartean, ordea, inseguritate kalkulazinak dira. Azken hori onartzean dago gakoa. Zientziaren soziologiak azken hamarkadetan egindako ekarpenak gutxi ez direla (laborategian diharduten hamaika aldagaik agerian utzi dituzte, adostasuna nola lortzen den ezagutaraziz, baita gizarte- eta kultura-testuinguruak duten garrantzia ere, unibertsaltasunaren ideia matizatzuz), ziurgabetasunaren printzipioa nahitaezko baldintza “berria” da.

Bitxia da Beck-ek hemendik ateratako ondorioa, bere autokritika sozialaren teoriaren tesia ere izango dena: gizarte moderno zein modernizazio bidean dauden gizarteetako mehatxuak eta arriskuak hain dira handiak eta neurtezinak, ezen eboluzio teknologiko eta kultural horiei erantzuteko tresna politikoak, juridikoak eta administraziokoak hutsalak bilakatzen diren, “desburokratizazio eta antiburokratizazio prozesurako tresna egokia bilakatuz, oraindik atzeman ez arren” (1998b: 135). Azken batean, lagungarriak eta nahitaezkoak diren protesta-ekintzak, giza eta auzo-mugimenduak baino zeregin kritikoagoa ez al du izaten salatzen dena “gertatzeak”? Ez al dute orduan hiritarrek ulertzen energia nuklearraren kritikoen hizkuntza? Horri arriskuaren autopolitizazioaren tesia ere dei geniezaioke, ez direlarik mehatxu fisiko, ekologiko edo mediko moduan aurkezten. Eta gizarte-arazoen naturalizazioa edota teknifikazioa ekiditen ditu.

Autodinamika industrialaren biolentzia objektibatuari buruzko irakurketa honek, noski, baditu bere oztupoak. Esaterako, politikoaren monopolioak, “parago-

gehiegikeriaz harrotzea oso zinikoa da. Baina jakina, auzi honetan, norberari begiratzetik haragoko balioak sartzen dira jokoan, *eta besteenganako ardura horiek hartzea zaila egiten zaie zenbaiti*. Etika unibertsala etika absolutua eta unilaterala dela frogatzen da, beste behin ere (kosmopolitak!). *Dena dago urrun / nire etxeko atetik at / sentikortasunik ez / sortasunean lagata...* Bestalde, kultur erronka moduan, beharrak eta gabeziak bereizi, eta hazkunde ekonomikoa baldintza izango ez den ereduaren bidetik sailkatu beharko zatekeen giza garapena.

bernu teknokratikoak” (Luhmann-en eta gainerakoen politika “lasaitzaile” eta “autoritarioaren” laguntzarekin), nagusi den natur zientzia eta teknika-irizpidea erabiltzen jarrai dezake, desintoxikazio sinbolikoaren politikarekin, kasuan kasuko eztanda edo dena delakoa “giza akatsa” izan dela argudiatuz.

Beck horretaz kontziente da. Areago, lan honetan adierazi(ko) den bezala, bere modernizazio erreflexiboaren teoriak bigarren fase bat ere badu: kontzientzia hartzearena. Gaur egungo gizartea, izan, arriskuaren gizartea da, “arduragabekeria organizatuak” bermatua, sakondua eta legalizatua. Gakoa, kontzientzia hartu eta kritika egitean datza; gizabanakoek burutzen duten eboluzioari bestelako bide bat ematea lortu behar da. Komunikabideak, epaitegiak eta “antizientifikoak”, besteen artean, garrantzitsuak izango dira ahalegin horretan.¹²

Dena dela, segurtasun teknikoaren pentsamendua probabilitateetan oinarritzen da, arriskuaren orokortzea eta legalizatzea bultzatzen da, arriskuaren definizio teknikoak industria-ereduaren arazoak estaltzeko bitartekoak dira. Alegia, besterik ezean, prozesu autodinamikoak bera izango da arrazionaltasun sozial garaikidea, zuzenbidea, politika, administrazioa eta zientzia eraldatuko dituena.

Mundua laborategi bilakatu den honetan, ordea, bi aukera horien artean bada desberdintasunik. Lehenengoak sistema autoerreferentzialak subjektuen menpekoak direla kontzientzia hartzen du, eta horrela beste gizarte-egitura bat ahalbidetzen du. Aldiz, modernizazio erreflexiboaren lehen fasea betierekotzeak, alegia, autodinamika industrial bere horretan garatzen uzteak (hori bai, gero eta aurrerapen tekniko handiagoekin), eralda dezake gaur egungo gizarte-egitura, baina hondamendiari bide emateko. Ez baitago ikusi nahi ez duena baino itsuagorik.

Azken paragrafo horietan jaso dena hurrengo orrietan eta atala amaitu artean garatuko da.

c) Arrazionaltasun zientifikoa eta arrazionaltasun soziala

Modernizazioak bere garapenarekin dakartzan kimikoki eta atomikoki garatutako indar-ekoizpenen arriskuak gaur arteko oinarriak eta kategoriak lehertzen ditu. Kontuan hartzeko baieztapena da hori, “ingurumenaz eztabaida bat egiterakoan, soilik irizpide kimiko-biologiko-teknikoak erabiliz, gizakia *aparatu organiko* modura, besterik gabe, kontsidera baitaiteke” (Beck, 1998a: 30). Modu honetan, modernizazioaren arrisku sozialen, ekonomikoen eta politikoen edukiak eta ondorioak ezkutatu egiten dira. Atal honetan, bestelako auzi garrantzitsuetan sartzeko asmorik gabe, horren garrantzia azpimarratu nahiko da.

Bizi-kalitatea aireak, urak eta elikagaiek dituzten kutsadura-mailak, besteak beste lehengaien gabeziara edo biztanleriaren hazkundera mugatzea hutsala da,

12. Ikus: *Inguruak*, 24.

baldin eta ahalegin horretan botere-egiturak edo nagusi diren arauak baztertzen badira. Ekologismoak ere kritikak Natur zientzien bideari jarraituz egiten ditu, salbuespen ezagun bat “Earth First” izan daiteke, pentsamendu *soziala* alde batera utziz. (Harridura eta kezka areagotu egiten dira hutsune sozial horretaz soziologoak ohartzen ez direla ikusita).

Arazoaren muinari heldu eta mugimendu ekologikoa harrapatuta dagoen gaizki-ulertu naturalista gaudituz beharra dago, erronka ekologiko garaikideen gizarte-dimentsioak aztertu behar dira eta ekologismoa ez da ingurumenaren mugimendua izango, mundu sozialaren mugimendua baizik. Araudi eta arrazionaltasun dominanteak, botere-egiturak, burokrazia ere kritikatu behar dira, modernitatea teknika eta izadira mugatzea ekidin, gizarte-testuingurua ere “saltsan sartu”, teknologiarekiko eta industriarekiko argumentu kritikoek izaera teknokratikoa eta naturalista izan ez dezaten (Beck, 1998b: 75).¹³ Azken batean:

Ezaugarri bereizgarri garaikidea ez da fisikoa –suntsiketa mehatxagarria-, soziala baizik: erakundeen oinarrizko porrota, ia konstantea eta zalapartatsua, suntsiketaren aitzinean (Beck, 1998b: 123).

Ez da, era berean, kritika moralizatzaile bat egin nahi, gizarte industrialaren autodinamikak beste modernitate bat bultzatzeko aukerak dakartzala agerian uztea baizik.

Ez da ukatu nahi garrantzirik gabeko kontuak direnik berotegi-efektua¹⁴ sortzen duen karbonoa igortzearen auzia, edota milioika urteren buruan gaur egun ekoiztutako erradioaktibitate kutsatzailearen ondorioen arriskua jasan behar izatea. (Kritikek ere datu zientifikoak erabiltzea nahitaezkoa da, paradoxikoa iruditua egatik ere! Era berean, horrek Harri Arora ez dela itzuli nahi ere frogatzeko balio du). Baina gaiak aztertzean zenbakietara mugatuz gero, sakoneko arazoari ihes egiteaz gain, zifren “txundidurak” eta “hutsaltasunak” hiritarrengan sortutako portaerak ingurumenaren aurkako ekintza anitz justifikatzeko arriskua dakarte. Izan ere, zifrek, besterik gabe, ez dute jendearrengan eragiten, ez baitute non oinarritu egoe-raren larritasunaz jabetzeko. Hori gutzia gutxi izango ez balitz, ordea, hondamendi

13. Argudio horiek erabiliz, Beck-ek frogatuko du nola ingurumen-suntsiketa *eta* protesta ekologikoaren artean *ez* dagoen kausa/efektu erlazioa. Kulturak eta sinboloek duten garrantzia —bizipen- eta bizikidetzakulturalak duen garrantzia— azpimarratuko du. Itoizko kasua adibide modura erabil liteke hemen azaldutakoa ulertzeko; batetik, Antonio Casas-ek eta bere taldeak azterketa (anti)zientifikoaren bidez, zientzia ofiziala kritikatu dute; auzokideek, berriz, beren gizarte- eta kultura-testuinguruaren alde agertuz, horrek duen esanahiarekin, ingurumenaren aurkako eraso berri bat ekidin nahi izan dute. Era berean, ez dago esan beharrik pixkanaka-pixkanaka, denboran zehar, egunkarietan (gutxi batzuetan) argitaratutako “bestelako” datuek ustelkeria berri bat agerian utzi dutela. Hamaika aldagai hartu behar dira kontuan, loturak egin euren artean eta horrela arrazionalitate burokratikoa, arazoitik gutxi duena, zalantzan jarri gizarte-egitura berri baten bidean.

14. Ikus gai honi ikuspegi sozial batetik RIECHMANnek (1996) egindako hurbilketa.

atomikoeak, ekologikoeak, genetikoeak eta kimikoeak globalak eta konponezinak izan daitezkeen kalteak kuantifikatzea ezinezkoa da.

Esanahi sozialak eta kulturalak baztertzeaz gain, Natur zientzien irizpide hutsa mugatzeak ingurumenaren egoera neurtzeko hutsuneak eta zailtasunak badi-tu, zer esanik ez hortik izadiarentzat edo gizabanakoentzat ondorioak ateratzeko asmoa badago. Egiazki, arriskuaren gizartean, bai sistema politikoaren egonkortasuna, bai gizartearen lasaitasuna, noizean behin komunikabideen berriren bat salbu, *arriskuan ez pentsatzeari esker ema(te)n da*.

Jarrera eta portaera horiek gainditu behar dira. Besteak beste, honako auzi hauek erantzuteko ahalegina egin beharra dago: “Aurerapen teknikoak izango ote den berak sortutako arazoak konponduko dituen”, edo “kutsadura eramangarri bat errespetatuko ote duen”, edo “egitura sozialak eraldatzen dituen arriskua ote den”. Zer esanik ez, hausnarketa horiek ezinegon handiagoa pizten dutela oinarritzat muturreko adibiderik erabiliz gero. Esaterako, leherketa atomikoa, bat-batean ezeztatuz planteatu diren hiru aukeretako zenbait.

Auzia, ordea, uste baino larriagoa da, mehatxu bat delako; baina, noizean behin, gizadiari egiazko mehatxu bat dela gogorarazten diona, eta ez *fantasien pellokeria* bat (ikus, Bhopal-eko jazoera adibidetzat: Lapierre eta Moro, 2001; edo, berrikiago, Okzitaniako Tolosan gertatutakoa). Arriskuen egiaztatzeak betiereko autosuntsiketa ekar dezake. Eta frogatzeko orduan *inor ez da egongo*. Hauxe da “irudikatutako arriskua” *erreal*a bilakatzen duen argudioa. Bitxia da nola jarrera dominanteek logika esperimentalak irauli egiten duten (Beck, 1998b: 21): lehendabizi zentral nuklear bat eraiki beharra dago (aplikazioa), gero bere ziurtasuna ikertua eta frogatua izateko (ikerkuntza). Alegia, lehendabizi ikertu eta ondoren aplikatu ordez, aplikatu egiten da ostean ikertua izan dadin (edo ikertua izateko asmoarekin, baliteke nork ikertu ez egotea).

Bestalde, arrisku modu berriak interpretazio kausaletan oinarrituta egonik, arriskuaren ezagutza duten zientifikoek eta antizientifikoek jarduera garrantzitsua da. Arriskuak definizioaren arabera izanik, ikertzaileek jarduera soziopolitiko garbi bat jokatzeko dute. Dena dela, argi gera bedi, lehenago edo beranduago, landareak, animaliak eta gizakiak ere izan daitezkeela kaltetuak (baita, ekonomia autoerrefentzial bilakatu eta *ingurunea* baztertuta, modernizazioaren arriskuetatik onurak ateratzen dituztenak ere).

Arrisku horiek ez dira, gaur arte bezala, ez hautu pertsonalaren ondorio, ez tokian tokira mugatuak, industrializazioaren ondorioz mehatxu globalak baizik, Lurreko bizitza zalantzan jar dezaketenak. Are gehiago, progreso industrialaren bitartekoekin sortu eta beren garapenarekin sistematikoki hazi eta atzerazinak diren modernizazioaren arrisku globalak dira. Eta, hasiera batean, zentzuen bidez hauteman ezinak. Kutsadura nuklearrak edo kimikoak eta elikagaietako sustantzia kaltegarriak atzematen direnean, beranduegi izan daiteke.

Gil Calvo-k dio arriskuak gero eta ezagunagoak direla eta horien gaineko kontrol-gaitasuna ere hazkorra dela. Baieztapen horrek sor ditzakeen kritiketan zuzenean sartu gabe, kontuan hartu behar da, ordea, errektore nuklear baten ziurtasuna ikertzerakoan zientzialariak balizko istripu bat pasatzean eman daitezkeen arrisku zehatzak zenbatzera mugatzen direla; alegia, arriskuaren iritsiera teknika-
ren erabilgarritasunera mugatzen dutela. Analisi teknikoek probabilitateak dituzte aztergai eta hizpide.

Aldiz, hiritarrentzat eta energia nuklearraren aurkakoentzat energia nuklearraren hondamendi ahalmenak axola du. Gutxieneko gertagarritasuna duen istripua muturreko jazoera bilaka daiteke, oheratu aurretik hortzak garbitu bitartean, istripuak hondamendia esan nahi duen garai hauetan. Beste behin ere frogatzen da nola arrazionaltasun zientifikoak eta arrazionaltasun sozialak arriskuaren gaineko ikuspegi desberdina darabilten (edo erabili ahal duten).

Industria-gizarteko erakundeek, hala nola, politikak, zuzenbideak, zientziak eta teknikak eta industria-enpresek, kalkulatu gabeko arriskuak normalizatzen dituzte. Baina:

Probabilitateen kalkuluek —eta berarekin gainerako analisi zientifikoek— katastrofe nuklear bat jazoz gero eratorriko lirakeen arriskuak (teoria zientifikoetan eragin ez baina bizitza sunsituko zukeena) gainditzeko posibilitateen zein segurtasun-maila eskainiko lukete? (Beck, 1997b: 50).

Garapen eramangarriak ere antzeko irakaspena ahalbidetzen du:

Oinarritzko baliabideen inguruko erabakiak ezin daitezke merkatuan agente ekonomikoen lehia indibidualen esku utzi, ezta irizpide teknikoa erabiliz merkatu transakzioek zein ingurumen-muga bete behar dituzten politikoei aholkatuko dien aditu-talde murrizt baten esku ere (Tello, 1998: 359-360).

Ezagutzarako eta diagnostikorako baliagarriak izan arren, ingurumenaz arduratzen diren teknikoek zama-gaitasunaren mugak ezin dituzte ezarri, ezta ingurumen-kalteak prezioen hizkuntzara itzultzerik ekonomistek ere.

Arrazionaltasun zientifikoaren eta arrazionaltasun sozialaren arteko kontraesan horren adibide garbi bat Abra eta Nerbioi beheko aire-kutsaduraren inguruan sortutako auzia da.¹⁵ Batetik, BBG-BBEen Ingurunekeo Inpaktu Ikerketak, eredu

15. Gertatutakoak zer pentsatua eman beharko liguke, eta ez soilik kasu batera mugatu [Mario Zubiagak honen ildotik idatzitako artikulua baten izenburua, eta edukia, argigarria da: "Politikaren porrota", *Egunkaria*: 2002-01-23]. Modernitatearen arrazionaltasun-eredua, arrazionalitate burokratikoa, mundu- eta toki-ordena burokratikoa, kultura sumiso baten aurpegi instituzionala dela aspaldi idatzia dago, eta komeni da gogoraraztea. (Eta ez soilik Boroako kasu zehatzerako, baina horretaz Joxe Azurmendik idatzia dauka.). Ez dago aukera handirik: teknokrazia autoritarioa edo ilustrazioa mugimendu sozial modura.

matematiko gaussianoak erabiliz, kutsadura sortu ahala sakabanatu eta eskualdetik urrundu egingo dela argudiatzen du.

Bestetik, berriz, Abra kolektibokoek (“Nabaria da ikerketa egin dutenak ez direla Ezkerraldean bizi”, diote kide hauek) inbertsio termikoaren fenomenoak” azpimarratzen dute:

Eguraldiaren baldintza jakin batzuetan, aire hotzen geruza sortzen da azpian metatu egiten diren aire beroa eta gas kutsagarriak direla eta. Beste aldetik, Abra inguruko orografiak eta haize-txandaketek (egunez itsas haizeak norabide batean eta gauez lur-haizeak kontrakoan) eragiten dituzte kutsaduraren joan eta itzuliko mugimendu metagarriak, zeinek sakabanaketa oztopatzen baitituzte. Bi fenomeno haien *lan koordinatua* ikaragarri zorrotzko da, Abrako urak termiken jarduera dela medio izango duen tenperatura igoerarekin, biak uraren tenpera gradienteak baitituzte eragile. Egoera are jasangaitzagoa izango da haizerik gabeko egunetan.

Era berean, herritarrak leherketa arriskuaren beldur dira:

Zierbenako Birgasifikatzailekoaren moduko ontzi baten leherketa-gaitasuna Hiroshimako 66 lehergailu bezalakoa da, eta ia beste horrenbeste esan daiteke itsasontzi metaneroei buruz.

Hori guztia gutxi izango ez balitz, zera eransten dute:

Munduko Osasun Erakundearen Europako Bulegoak aginduta “Hiri Osasuntsuak” esparruaren barruan egin zen Ezkerraldeko Ikerketa Epidemiologikoak agerian utzi zuen eskualde honetan izaten diren minbizi, asma eta halako gaixotasunen agertzeak gainerako lurraldeetako baino askoz altuagoak direla, inguruaren degradazioa dela eta (ikus: Blanco, 2001).

Azaldu berri diren bi jarrera horiekin, irakurketa ez ezik, argudiorako abiapuntuak ere batak zein besteak leku desberdinetan ezartzen dituztela froga daiteke.

Arriskuaren esanahiaz jabetzeko, ordea, ez dira nahikoak aipatu berri diren *ezagutzarekiko mendetasuna* eta *arriskuen hautemate(ez)a*. Hain zuzen ere, batak zein besteak egitate hutsetatik harantz doazen ideiak dauzkate beren baieztapenen baitan. Alegia, elikagai bati sustantzia kaltegarriren bat atzematea ez da, egitate huts horrengatik, zibilizazio-arrisku.

Beharrezkoa da emaitza hori ekoizpen modu industrialaren ondorio modura joko duen interpretazio kausal bat. “Ekoizpen indarren” “hazkunde tasa” helburu zuten modernitate industrialaren aldaera baino izan ez diren mundua ikusteko *bi sistema politikoek* “industria zibilizazioa” izan dute euskarri (ikus: Blanco, 1999), eta “aurrera urrats kualitatiboa krisi ekologikoa industria-zibilizazioaren krisia denean soilik eman ahalko da” (Tello, 1998: 349).

Modernizazio-prozesuaren ondorio sistematikotzat jo beharra dago. Ahalegin hori aurrera eramateko saiorik eginez gero, frogatu ahalko da: modernizazioaren arriskuak unibertsalak direla, hots, toki jakin batean atzeman daitezkeela, baina ez direla toki jakin horretako jazoera hutsa.

Gainera, ondorio kaltegarriak ezin dira aurretik esan, ezta neurtu ere. Alegia, modernizazioaren arriskuekin espazio, denbora eta edukietan banatuta dagoena modu *kausal* batean bateratu ahal da (eta komeni da hala egitea, ardura indibidualak alde batera utziz).

Horren ildotik, laurogeita hamargarrenera arte ingurumen auzia gobernuen aldetik arazo *puntual* eta *lotura gabekotzat* jo izan bada, badirudi lan honetan aipatu den ideiarene bidetik Europar Batasuna bere jarreretan aldaketak ematen hasi dela.

Mugimendu ekologisten eta alderdi berdeen eraginez, neurri handi batean, ingurumen-arazoa *arazo sistemikoa* dela onartu da. Beharrezkoa izango da ekoizpen- eta kontsumo-moduak aldatuko dituzten politika bateratuak bultzatzea. Ahalegin horretarako “Ingurumen Ekintzarako V. Programa” (1992-2000) delakoa egin zen, nahiz eta Kontseilu Ekonomikoak eta Sozialak porrota dela esan duen.¹⁶

Hori dela eta, Gil Calvo-ren baikortasunaren aitzinean, Gotterborg-en egindako Europako Kontseiluaren Gailurrean landutako “Ingurumen Ekintzarako VI. Programa” (2001-2010) eta “Garapen Eramangarrirako Estrategia” (2020 artekoa) inoiz baino diagnostiko beltzagoaz plazaratzen dira.

Estrategian funtsezko sektore ekonomiko batzuetan —industria, energia, garraioa, nekazaritza, merkataritza, arrantza— “egiturazko aldaketak” ematearen ezinbestekotasuna azpimarratzen da. Europar Batasuneko Tratatuan, sektore politiketan ingurumenaren aldagaia txertatzea aurreikusten bada ere, 1998ko Cardiff-eko Kontseiluko erabakiarekin jarriko da martxan.

“Garapen Eramangarrirako Estrategiak” sei arazo aipatzen baditu ere, honako lau hauek jorratzen ditu, txostenaren arabera europar gizartearen etorkizuneko ongizatearen mehatxu atzeraezinak dakartzanak. Lehenik, “giza ekintzaren ondorioz, berotegi-efektua eragiten duten gasen igorpena beroketa globala sortzen ari da. Aldaketa klimatikoa muturreko jazoera klimatikoak eragiteko gai da, ondorio larriak sortzen dituen azpiegiturretan, jabetzan, osasunean edota izadian”.

16. Europar Batasuneko ingurumen politikaz sarrera eta V. Programaren ezagutzarako, ikus: EIZAGIRRE, 2000b. Bertan gainera, programa horretaz 1995ean egindako berrikusketa (bai Komisioarena, bai erakunde ekologistek egina) eta Espainiako Ingurumen-politikaren xede eta helmugari buruzko kritika ere jasotzen dira. Segidan aipatuko diren “VI. Programa” eta “Garapen Eramangarrirako Estrategia”ren hurbilketarako, berriz, txostenetara jo aurretik, ikus: BERMEJO, 2001a, eta 2001b.

Bigarrenik, ohiko erabilera duten sustantzia kimikoei epe luzera duten eragin kaltegarria eta gaixotasunak sendatzeko antibiotikoetan gertatzen den bakterio berrien agerpen hazkorra. Elikagai osasuntsuak bermatzeko ez dela gai izan onartzen du, eta merkatuan saltzen diren sustantzia kimikoen pozoien %99z ezagutzarik ez duela aitortzen du, 2004rako beharrezkotzat jotz “politika kimiko berria”.

Hirugarrenik, biodibertsitatearen galera, hondakinen hazkundera, luraren galera eta emankortasunaren beharrezkoekin nekazaritza-lurren bideragarritasuna oztopatzea azpimarratzen da.

Eta laugarrenik, garraioaren pilaketa bere era orotako kalteekin eta arriskuekin, hirietako kutsadura eta zarataren aldagai nagusia izanik.¹⁷ Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ibilgailuen parkea 879.244 unitatetako da, alegia, 1000 biztanletik 413 ibilgailu. Auto pribatuaren hazkundera aurre egiteko bitartekoak ezinbestekoak izango dira XXI. mendean; horien artean aipatzekoak dira gaur egun Amsterdam, Rotterdam, Copenhague edo beste Europako hiri batzuetan, hiriguneetan ibiltzeko ezarrita dauden tarifak. Izan ere, Europar automobil bidaien %96 toki izaera du. Donostiako, Bilboko eta Gasteizko eguneroko bidaien %60 hiru kilometro ibiltzeko baino ez da. Garapen bidean dauden herrialdeen kasuak, berriz, kezkarriagoak dira. Honako hauek dira *Worldwatch Institutek* 2000. urteko txostenean emandako datuak: hiri-kutsaduraren %60 eta %70 arteko ardura Erdialdeko Amerikan garraioak du; Indian, berriz, %50 eta %60 artekoa. Mexiko Hiria eta Txileko Santiagok aire-kalitatearen eragin latzak pairatzen dituzte, legezko muga oro iraganda. Hiri horietan beruna duen erregaia erabiltzeak, esaterako Delhin eta Shangain, haurren %60k odolean berun-maila altuak izatea dakar, giltzurrunetan, gibelean, berrekoizpen- eta zirkulazio-sisteman eraginaz. Kutsakorrenak Mexiko, Pekin, Shanghai, Teheran, Kalkuta eta Bangkok direla azpimarratzen du txostenak eta bertan bizitzea egunero bi pakete zigarro erretzearen baliokidea da.¹⁸

Egoera horren guztiaren aitzinean, beharrak, helburuak eta ekintza-esparruak zehazten ditu “Garapen Eramangarriko Estrategiak”, orain arteko politikarekiko aldaketa erakusten dutenak, idatzietan behintzat. Garapen eramangarria oinarri harturik, sarri zenbait erakunderen presioekin bada ere, gobernu espainiarrarena bereziki, hemendik aurrera programa berriak lantzerakoan ez da zerotik abiatu

17. Datuen jatorria: Gabriel IBARRA, 2001, eta Julen REKONDO, 2001.

18. Hiri-garraio eramangarri baten ereduak kudeaketa publikoa eta hiritarren ardura ez ezik, bestelako aldagaiak ere hartu behar ditu kontuan. Esaterako hiri-antolamendua, zeina garraio publikoan oinarritutako garraio-eredua jasotzeko antola daitekeen, edota garraio pribatua bultzatzeko. Bigarren aukera horren aldeko apustua AEBetako hirietan ematen da (*sprawling* urbanizazioa: barreiatua eta dentsitate baxukoa). Beste aukeraren adibide ideala Curitiba (Brasil) dago, bidaien %70 autobusez eginaz. Euskal Autonomia Erkidegoan azken urteetako datuek garraio pribatuaren hazkunde etengabea erakusten dute, urtero batz besterik %5 eta %7 artean igotzen dena. Horren aurrean beharrezkoak izango dira: Lurralde-antolamendurako, hirien planifikaziorako, zerga-politikarako, arategirako edo beste bitartekoetarako politika koordinatuak.

beharko. Aitzitik, helburu estrategikoak, epe luzerako garbiak eta egonkorrak direnak, jarraitu beharko dira. Aurrerapen ukazina, nahi adinakoa ez bada ere.

Dena dela, Europar Batasunak (EB) garbi eduki behar du bere estrategia den barne- eta kanpo-eramangarritasunaren bereizketarekin adi ibili behar duela. Europa barneko garapen-eramangarriaren (Cardiff-eko prozesua eta Goterborg-eko estrategiak) eta munduko garapen-eramangarriaren bereizketa (2002an Johannesburgon egingo dena) errealitatean artifiziala da.

Ez da komeni, Europar Batasuna bereizketa horretaz baliatuz, “kutsadura edo gainustiaketarako esparruak erostea”. Baina, nazioartean ingurumena eztabaidagai denean sortutako arazoak ikusita, garbi dago Europar Batasunak aitzindaritzako politikoa hartu beharra daukala (Insausti, 2001): AEBen jarrera atzerakoiak batetik, eta herri txiroetan munduko eramangarritasuna herri aberatsen kontua dela pentsatzeak bestetik, lehen mailako ardura Europar Batasunaren baitan ezartzen dute.

Izan ere, “Garapen Eramangarriko Estrategia” leialtasunez betetzeak ez lioke Europar Batasunari nazioartean konponbidea ekarriko, Johannesburgoko gailurrean kasu, gauzak dauden bezala (eta beraz, gero eta okerrago) utziz gero. Ez da ahaztu behar, aurreko lerroetan esandakoa berretsiz, tokian tokiko jarduerak ondorio globaleko jarduerak direla.

Ahalegin oro sendotzeko bide bakarra guztion pentsamendura heltzea da. Eta horretarako VI. Programak ere oso argi jasotzen dituen bi ekintza-esparru bermatu eta aurrera eraman behar dira: batetik, parte-hartzearen indartzea, “helburu eta politiken garapena interesatuta dauden talde guztiakin elkarrizketa ireki baten bidez burutu behar dira”.

Bestetik, ingurumen-informaziorako iritsiera eta kalitatea eskaini behar dira. Roberto Bermejok ondo dioen moduan, estrategia horrek Espainiako erakundeen jarrera aldaketa bat burutzea eskatzen du:

Gardentasun gutxikoak baitira eta, oro har, talde ekonomikoen parte-hartzea baino ez baitute onartzen; euren politikak ez du gardentasun informatiborik; legezko aginduez hornitua izan behar duen informazioa ukatu ohi dute, eta batzuetan informazio faltsua igorri ohi dute (2001a).

Horren ildotik, parentesi modura, arriskuaren gizarte modernoa Galizian kokatuz, baina beste bazterretara zabal daitekeena (ez dio Javier Sádabak alferrik: “monopartidismo de dos laderas”), Manuel Rivas (2001) galiziarraren lana irakurtzea gomendagarria da. Manuel Fragaren Galizia hizpide duela, Rivasek egindako “kontserbadorismo espainiarraren historian”, modu ironiko batean, Bermejoren baieztapena berresten duten esaldiak topa daitezke, azalekoak ez ezik, lan honen helbururako sakoneko gogoetak ere badituztenak. Bazter horietan dagoen egoeraren berri izateko pasarte erakargarriak eta adierazgarriak aurkituko ditu irakurleak.

Lehengora itzuliz, “parte-hartzearen indartzea” eta “ingurumen-informazio-rako iritsiera eta kalitatea eskaini beharra” estrategiak beharrezkoak dira. Horrela bakarrik lortuko da aldaketa emateko ezinbestekoa dena bermatzea: “hiritarren aldetik lotura-katea egiazkoa dela sinestea”.

d) Arriskuaren komunitatea

Hori horrela egitea ahalbidetu, eta politika ireki eta garden baten bidez hiritarrei egoeraz jabetzea lortzen bada, arriskuak objektibatu arren, zifra eta formule-tara mugatu arren, arrisku-katearen sinesmenak azken batean onarpenaren auzia pizten du berriro. Izan ere, modu horretan, “nola bizi nahi dugun” galdera pizten da berriro. Zentzu honetan, arriskuarekiko jarrera-modu honek, gaur egungo garapenaren aurrean hiritarrek duten ezinegona adieraziko luke. Eta kontzientzia-hartze hori litzateke hiritarrek erabakitako egitura sozial berri batera urratsa emateko baldintza.

Gizakiaz eta izadiak hausnarketa egiteko aukera zibilizazioaren garapen-une honetan eman daiteke, hau da, gaur. Autodinamika industrialak, subjektu gutxi batzuek bideratua, ahalbidetu badu arriskuaren gizartea, mugimendu sozial modura ulertutako gizartearen esku dago aukera ez autoritarioa eta ez teknokratikoa. Guztion ahoan dabilzan galderak dira, baita formula matematikoa eta eztabaida metodikoa gidatzat dituztenena ere. Arriskuaren inguruko gogoeta hauen bidez ager daitezke etika, politika, filosofia edo kultura modernizazioaren erdigunean, ekonomian, natur zientzietan eta esparru teknikoetan (Beck, 1998a: 34-35).

Paradigma kapitalista eta paradigma industrialak hutsal geratu direla adierazteko erabili ohi diren “barne-izadian parte hartzea” (irakur bitez: neurozientzia, bioteknologia eta giza genetika) eta nuklearizazioa aldagaiek gero eta ageriago uzten dute inhumanismoaren garaipena modernizazio-prozesu honetan.

Testuinguru honetan, ordea:

Dirudienez, Jainkoa hil ahala erlijioa zuzenbide eta moral arau bilakatzu doan heinean, espirituak, erlijio orotatik libre, bere jatorrizko askatasunera itzultzeko grina berria dizu, hots, bere “erlijiositate” elementalera... Horrela pentsamendu bat irteten ikusten dugu jada (Heiddeger, Sloterdijk), jainkogabatasunaren itsasoetan argonauta berri, sakratuaren bila. Sloterdijkkek Heiddeggerrekin salatzen duenez, soluzioak zeuzkan pentsamendu klasiko predikariak (humanistak) inhumanismoa ekarri du, gizakiaren nahiz jainkozkoaren bere kontzeptu kontrolatuekin. Pentsamendu gogoetariak, orain, berriro bila hasi beharra dauka, soluzioaren bila baino lehen galderaren beraren bila (arazoak berbara ekarri: haragia *Logos* egin bedi), zer den “abere arrazionala” baino barrenagi egiaz gizakia, zer “Esanezinezkoa”, “Ukiezina” zer izango den gizadiarentzat berriro sakratua. Amaieran, sakratua eta sakratuaren muga gabe, holokaustoa baitago (Azurmendi, 2001a: 91).

Arriskuaren onarpenak, beraz, aukera eta ate berriak zabal ditzake, oraindik ezagutu ez den eta garatu gabea dagoen “Sinbiosia Natur zientzien eta espiritu-zientzien artean, eguneroko arrazionaltasun eta adituen arrazionaltasunaren artean, interesaren eta egitatearen artean” (Beck, 1998a: 35). Biek gauza bakar bat osa dezakete, kolaborazio leiala eman ahal da hiritarren, enpresen, administrazioaren eta politikaren lehia orenen gainetik.

Baina Jainkoa bezalako azken esanahirik ez, eta gizakiak berak duenean hitza, beste aukera bat ere sor daiteke: aurkakoak diren definizio-borroka, baina gutxi batzuk izanaz erabakia hartzeko aukera, betiere, segurtasun teknikoaren bidetik.

Baliteke bigarren *aukera* hori hobestea. Are gehiago, nagusi diren joerek horretara bultzatzen dute. Hala izatekotan ere, ordea, iraganarekiko haustura erabakigarria dakarren ondorioa gertatzen (ari) da: *arriskuaren definizioan gaur arte zientziek izan duten arrazionaltasunaren monopolioaren amaiera*.

Modu bikoitz batean ematen da gainera: bai probabilitateen gainean diharduelako (lehen aipatua izan dena), bai jarrera axiologiko bat hartu beharra dagoelako arriskuez jarduterakoan (zientzialariak balio jakin batzuk bereganatuta ikertzen du: onargarriak eta onartezinak diren kalteen muga; zein diren beharrak; zein aldatu beharreko beharrak edota hazkunde ekonomikoen ordainetan hondamendi ekologikorik egin daitekeen). Laborategian dabilena horretaz kontziente da (bere joka-bidea beste kontu bat bada ere, hau da, kausa/efektu harreman gabea).

Gizarte garaikidean ez da ezer egitate puru bezala jazotzen. Gertakari oren atzean erabakiak, jarrerak, esanahiak eta helburuak daude. Ezagutzaren eta ekintzaren arteko mugak bere gardentasuna galdu du eta erabaki baten ondorioa da. Gizarte garaikidearen eguneroko esperientzietan ez dago aurrez ekoizpen soziala izan ez den ezer. Beraz, tinkoak eta sendoak izan diren hiritarren kultur oinarriak zatikatzearekin, arriskuaren onarpena eta iritsiera ezberdina da zeharo. *Balioen eta nahimenen arabera* da, zientziak eta teknikak beren errugabetasuna galdu baitute.¹⁹

19. Azken paragrafoetako gaiari sakontzeko, ikus: CALLON, 1995; OLIVÉ, 2000. Euskaraz bada harribitxi bat, gogoeta horiek teknikara mugatzen dituen: AZURMENDI, 1998b. Ikus ere bai: WINNER, (2001); MEDINA (2001); NÚÑEZ (2001). Gomendagarria da, era berean, *Jakin* (125. zkia.) aldizkarian *Zientzia XXI. mendean* monografikoan argitaratutako EIZAGIRRE (2001) eta IBARRAREN (2001) artikulua lantzea, ordena horretan. Xabier Eizagirrek modu labur baina argigarrian zientziaren gizarte-kontratuak izan duen iraganbidea azalduko du, 1999ko ekainean eta uztailen egindako *Zientziari buruzko Mundu Kongresuko* deklarazioa eta ekimen markoa proposatuz (ikus: www.oei.es/cts.htm). Ibarrek, berriz, ZTG Zientzia, Teknika eta Gizartea ikerketa esparruan nagusi diren eztabaida eta erronka garaikideei helduko die. Besteak beste, zientzia ulertzeko gizarte-testuinguruak duen garrantzia, zientzia-kulturaren beharra, arrazionaltasun epistemikoaren ethosa zientzia-erantzukizun orokorraren ethos batera hedatu beharra, eta “publiko zientifikoki kultuak zientziaren eta teknologiaren politika publikoaren orientazioan parte-hartu beharra” azpimarratuko ditu.

Irtenbide politikorako saioak, arriskuak eta arazo iraunkorrak, sistematikoki baldintzatuak, industrializazioaren ondorioa direla onartzean baino ez dira helduko. Tokian tokiko jazoerak kate luze batekin harremanetan jartzea ezinbestekoa da, ala harategian hezurrik gabeko txuleta ematerakoan, gustukoa ez delako, zerbitzariari jarraituko zaio errua leporatzen? Edota telebista-kamerak, hiltzaile baten moduan gizakiek erotutako behiari irudiak hartzerakoan, haren ondoan irtetzen den baserritarrari?

Adibidea oinarritzat harturik, baina bestelako adibideetan ere bai, inguruko erantzun-ahalegin orok erakundeen estrategietara jo behar du. Nekazaritza industrialak aurrez zentzurik izan duela onartuta ere, bereziki bi mundu gerren ostean zegoen egoeragatik, gaur egun ezinbestekoa da nekazaritza industrialari “nekazaritza iraunkorrak”, edo “zentzuzkoak”, edo “ekologikoak” aurre-hartzea. Izan ere, lehiakortasuna eta homogeneousutasuna gailendu den honetan, kalitatea baino kantitatea hobesten den honetan, erakundeetatik eskuratzen diren ekonomia-laguntzak lehiatzeko gaitasunaren arabera eskaintzen dira. Horrek ezinbestekoa egiten du nekazariaren aldetik ustiapen gero eta handiagoak edukitzea eta, jakina, baserritar handiak bihurtu ahala, industrializazioarekin egiten da topo.

Azken hamarkadetan helburu nagusia elikagaiak eskuratzea izanik, industria-nekazaritza bultzatu bada, gaur egun ikuspegi hori mantentzeak zeharo desberdina eta kaltegarria den helburua dauka: elikagaien merkatzea. Horrek guztiak, era berean, lotura hausten du kontsumitzailearen eta ekoizlearen artean, nahitaezkoa den informazioak porrot eginaz.²⁰

Hiritarrek ez daukate ihesbiderik. Esan bezala, kontsumitzailearen eta ekoizlearen arteko urruntzeak elkarren arteko komunikazioa hausten du. Gauzak horrela, azkenaldi luze honetan publiko egiten ari diren berrien aitzinean, kontsumitzailea bere azken babesa erakunde eta administrazio desberdinen kontrol-neurrietan jartzera behartuta dago. Jakina da kontrol horiek ez direla salbazioa, ezta arazoaren muinaren irtenbidea ere. Bere txarrean, ordea, hiritarren azken babesa dirudi.

Xabier Eizagirrerren artikuluan, ZTG azterketetan bereizten diren bi norabideak azpimarratzerakoan, eskema erabilgarri bat eskainiko du, tradizio europarra eta amerikarra bereizi eta bakoitzaren baitan dauden joera desberdinak zehaztuz.

20. Nekazaritza eta elikagaien inguruko irakurketa horietarako, ikus: *Larrun*, 40. Bestalde, eta jazoera orok aurrekariak dituela frogatzeko, Pitillas-en eraikitzeak den haragi-irinaren errauskailua behi eroen ondorioa da, komeni da gogoan edukitzea. Galizian Fragaren bidez Manuel Rivasek irudikatutakoa berretsi ahal da: proiektua alkateak eta udal taldeak onesten dute; bitartean, talde ekologistek zalantzan jartzen dute (bai kutsadura igorpenengatik, bai haragi-irinari bestelako hondakinen errausteak eman diezaiokeelako jarraipena). Beharrezkoa da bestelako bideak ikertzea, hala nola, konpostia, nekazaritza-ongarri modura irinetan dauden elikagai edukiak aprobetxatuz. Aukera hori, esaterako, “Sociedad de Agricultura Biológica”-k eta “Instituto Valenciano de Investigaciones Agrarias”-ek ere proposatu dute.

Edo zirudien. Izan ere, zein aukera geratzen zaio kontsumitzaileari, “administrazioek saltzeko onarpena” egina dutelarik, nor eta “produktuaren ardura duen enpresa denean, kalteaz “jabetuta”, produktua merkatutik at uztea” aholkatzen duena? (irakur: 2001eko abuztuan Bayer etxearen erabakia, *Lipobay* eta *Baycol* izenekin komertzializatutako farmakoaren inguruan. Beste kontu bat da, epe luzeagoan jorratzekoa, enpresa horrek hartutako jarreraren gibelean dauden arrazoiak ikertzea).

Gai horretan, beste gai batzuetan legez, beharrezkoa da helburuetan aldaketa bat emanez, bitartekoetan eta portaeretan aldaketak ematea. Izan ere, gaur egungo arriskuak ezinbestean *ekidin* beharrekoak dira eta probabilitate urria bera ere mehatxua da. Zentzu honetan, arriskua “ezagutza nahasia edo argudio frogatu gabea” delako aitzakian ukatzeak arriskua areagotzea baino ez du ondorioztat eta argudio horiek arriskua legitimizatzen dute. Zientifitatearen ereduak oinarri bezala erabiliz gero, onartutako arriskuen esparrua murriztu egiten da, baita teknikaren erabilgarritasuna ere, eta ondorioz, arriskuak areagotzeko *baimena* eskaintzen da.

Azterketa zientifikoaren gardentasuna inolako zalantza izpirik gabe eta dogma bat izango balitz bezala azpimarratuz, ez da kutsadura besterik *sortzen eta areagotzen*. Akats bikoitz bat egin ohi da (Dahl, 1997: 63-64): Batetik, industria-zibilizazioaren arriskuak eta hondamendiak zuzendu eta ekidin daitezkeela uste izatea (teknologiaren etengabeko perfekzioa, segurtasuna segurtasun teknologikoak dakarrelakoan); eta, bestetik, hori guztia gaur egungo bizitza-maila aldatu gabe egin litekeela baieztatzea.

Erradiazio eta sustantzia toxikoen berriak, ordea, egunero irakurtzen dira eta “holokausto atomikoa” posibilitate bat da. Baina, are gehiago, aro atomikoan eta esperimentu genetikoak eta kimikoak egiten diren honetan, *ez* dago ekintza burutu “aurreko eta ondorengo denbora”. Arriskua areagotu ahala, bizi-babesa murriztu egiten da: «Arriskuaren gizartea aseguratutako gabeko gizartea da non babesaren printzipioa ekonomikoki ez ezik, ikuspegi mediko, psikologiko, kultural eta erlijiosoan ere baztertua izan den» (Beck, 1997b: 46).

Bestalde, modernizazioaren arriskuek duten egituragatik, normalean ezin dira kausalitate printzipioaren bidez modu egokian interpretatu. Ez dago kaltea sortzen duen arduradun jakinik edo bakarrik. Froga kausala oinarritzat darabilenak ez du industria-gizarteak sortutako kutsaduraren arduraduna *minimizatu* besterik egiten.

Natur zientzien arrazionaltasunean oinarri duen froga kausalak *ez* du balio modernizazioaren arriskueterako. Etengabeko elkarrekintza egonik kaltearen iturburu guztien artean, zientzialariek ezingo diote kalte indibidual bati kausa indibidual bat leporatu. Ondorioz, modu adierazgarri batean esatearren: «zenbat eta gehiago kutsatu, orduan eta kutsadura edo kutsatzaile gutxiago» (ikus, Beck 1998b: 241-244).

Hori guztia gutxi izango ez balitz, arriskuek etorkizuneko osagaia dute. Aberastasunaren logikan onurak edo galerak bat-batean pairatzen baziren, arriskuak aldi berean errealak (ur kutsatuak, gaixotasun berriak, basoen suntsiketa, etab.) eta irrealak dira (Beck, 1998a: 39-40). Irrealak, arriskuen inguruko argumentuen indarra etorkizunari begira duten mehatxu gaitasunagatik (errealak bilakatzen direnak).

Arriskuaren kontzientzia, zentzu honetan, ez datza orainaldian, geroaldian baizik. Gaur egungo bizikidetz-moduaren eta hiritarren ekimenen oinarrian geroaldia dago jokoan. Gaurko ekintzek ez dute helburu moduan zerbait onuragarria sortzea. Aitzitik, etorkizunean *nabarmenduko* diren jazoera kaltegarriak ekiditea ezarri behar da lehentasun moduan.

Jarrera aldaketa horiek, ordea, arriskuek gizartearen aldetiko onarpena eskatzen dute. Beste hitz batzuetan, efektu kolateralen pentsamendu-eskema birmoldatzea. Kultura-aldaketa horretan lehen ere aipatua izan den “garapen eramangarria” printzipio baliagarria izan liteke.

Arriskuez baliatuz onurak atera nahi dituztenen aldetik kalteak sor daitezke, esaterako, arriskuak ezkutatzuz edo behar ez den moduan argitaratuz. Baina aberastasunaren logikaren aldean, arriskuaren logikak badu abantailarik: mehatxuak nabarmendu ahala (edo guztiontzat hobea den: jazo aurretik sinetsi ahala), ekoizpen sozialen abantailak erlatibizatu egiten dira, eta nahimen desberdinak dituzten hiritar-ekimenak antola daitezke. Gaur gaurkoz, arriskuaren gizarteko bigarren fasera urratsa ematean datza, eta hori mugimendu ekologistek ez dute argudio morala, naturalista edota teknizista erabiliz lortuko.

Klase-gizarteak ez bezala, mehatxu globalaren garaian arriskuek eta kalteek batasuna ekar dezakete. Beck-ek aipatutako *arriskuaren nazioarteko komunitate* bat era daiteke, zeinaren indar eta sendotasun politikoa gaur gaurkoz ikusteko dagoen.

Hiritarren segurtasuna eta osotasuna estatu batek bere kabuz soilik bermatu ezin dezakeen auzia izanik, “beste herrialdearen barne-arazoa”, “*atzerri-politika*”, *amaitu* egiten da (Beck, 1997b: 41). Krisi ekologikoa globala bada, nahitaezkoak dira nazioarteko hitzarmenak. Ez da nahikoa estatu baten baitako ordenamendu juridikoa, aldamenekoa (edo urrunekoa) arriskuaren gizartearen eskakizunetara egokitzen ez den artean. Norberaren akatsak bezain eraginkorrak dira gainerakoen akatsak. Ahalegin horretan, badirudi, izatekotan, Europar Batasunak izango duela ekimena aitzinera eramateko ardura nagusienetakoa.

Horren ondorioz, akatsak ekiditeko gaitasunik ez dagoenez, energia nuklearra kasu, zenbait neurri ezinbestekoak dira. Arriskuaren gizartean sortu ahal dira, bai gatazka eta kontzientzu berriak, bai “gizarte mundialaren utopia” (Beck, 1998a: 54). Eta hori da gaur egungo erronka nagusietako bat: bigarren fasea posible izatea.

Oraindik orain, ordea, beldurrei eta estutasunei aurre egiteko saioek berekoi-keriaren harrizarrarekin topo egiten dute. Azkenaldian nazioarteko foroetan ikusi den bezala, herrialde bakoitzak bere estatu-zilberrera begira jarraitzen du; edo zientifiko batzuk eginahalak egiten dituzte teknikoki ziurtatu gabeko eta etikoki mugak jarri gabeko auzietan aurrera jarraitzeko; edo “munduko ehunen bat enpresa elektrikok (Iberdrola tartean) administrazioei energia nuklearraren aldeko eskutitza helarazi die...”,²¹ etab.

Ardura ekologikoa erakusten dutenen artean ere zalantzak nagusi dira. Mehatxuak areagotu arren, arriskua menperatzeko aurre hartze politikak ez dira atzematen. Baina, gainera, zein politika eta erakundeen politika-modu diren onuragarriak ere ez da zehazten. Arriskuak indar eta esanahi politiko berria sortzeko aukerak sortzen dituen unetik, horretaz nola baliatu izango da aurrerantzean gizarte-aldaketa helburu dutenen zereginetako bat.

Zailtasunak zailtasun, eta atalarekin amaitzeko, bada ondorio garbi bat: demokrazia eta politika eta kultura auzitan egotea. Industria gizarteak “demokrazia mugatua” izan du ezaugarritzat eta bere ibilbidean jarraitzen utziz gero, dogmatismo teknologikoak teknokraziaren *hobekuntzan* jarraituko du *amaierara* heldu artean. (Hau, jakina, teknokrazia autoritario edo teknokrazia kritiko batekin jazo daiteke). Baina bada demokrazia auzitan jar dezakeen beste aldaera bat ere, zehazki, zenbait ekologistaren eskutik eratoritzen dena: helburuak lortzearen bitarteko demokratikoen garrantzia aintzakotzat hartzen ez dutenena.²²

“Demokrazia ekologikoaren” aldeko apustua lehentasuneko auzi bilakatzen da. Horri lotuta, mugimendu ekologistak argudio teknikoak eta moralak gainditzea ezinbestekoa dela dirudi, eta urrats sendoago bat emanaz, mugimendu politiko moduan jarduteko erronka du bere baitan mugimendu ekologistak. Urrats hori emateko, Beck-ek “makiabelismo ekologikoaren” ideia plazaratuko du (ikus, 2000a: 175-185). Ez da ahaztu behar arriskuaren gizarterako urratsa teknokraziak eman duela: “Segurtasunaren zuloak gero eta teknologia hobeeekin (teknika psiki-koak eta sozialak barne) estaltzen —eta irekitzen— dira” (Beck, 1998b: 298). Eta horrek badu ondorio garbi bat: zientzia teknikoen arrazionaltasuna ahulduagatik ere, egunerokotasuna, mundu teknikora eta hizkuntza teknikora murriztuz, erabilgarritasun teknikoaren menpe jartzea. Teknokrazia autoritariorako urratsa eman da, eta inor ez da ohartu, edo bederen inor ez da kexatu (edo arrazionaltasun burokratikoa eta kultura autoritarioak ez al diote kexatzen uzten?).

21. UDALAITZek (2001) ekimen hori Bonn-en aldaketa klimatikoaz eztabaidatzeko ekitaldia aprobetxatuz egin dela dio, modu honetan “iritzi publikoa energia-sektorean beharrezkoak diren aldaketan eta energia nuklearrera itzuli beharraren inguruan sentsibilizatu dadin”. Horrela, “Udarako Espainiako enpresa elektrikoek jaurtitako (argi) itzaldien mehatxua zentral termiko eta instalazio nuklear gehiago eskatzeko estalkia baino ez litzateke izango” (ikus 5. zita).

22. Ekologismoa eta antolamendu politikoaren harremanaz, ikus, bakoitzak bere erara: RIECHMANN eta FERNÁNDEZ BUEY, 1994; DOBSON, 1998; VALENCIA, 1998; ARIAS MALDONADO, 1999.

Infabilitate teknokratikoa auzitan jarri behar da, onarpen-eredua gutxietsi eta arriskuaren, hondamendiaren eta suntsiketaren legalizazioaren biolentzia politikoa agerikoa egin. Segurtasun teknologikoa, batetik, eta arriskua, bestetik, posible egiten dituen gizarte-eredua kolokan nola jarri gizarte garaikidearen erronka da. Arriskuaren gizartearen bigarren faserako urrats kontzientea ematea izango da gizartearen egitekoa (betiere, noski, autodinamikak holokaustora eraman gaitzan ekidin nahi bada). Segurtasunaren filosofia berri bat behar da, modernitate arduratsu bat. “Segurtasun teknikoak teknikoki sekula baztertu ezingo dena baztertu behar du: irudika daitekeen kasurik beltzena gertatzearen posibilitatea. Ezin daiteke baztertu, kalkulu oro probabilitateetan oinarritzen baita” (Beck, 1998b: 313). Erabaki teknikoetarako justifikazio teknikoak (soilik) behar ez direla frogatzeak autonomia politikoaren berpiztea ekar dezake, portaera modu berri bat, arriskuaren definiziorako botere, oinarri, arau eta printzipio berriak. Norberaren, taldearen eta komunitatearen iritzia. Politikaren piztuera bere porrota iragarri ostean. Ez irtenbide iragarririk eta absoluturik, autodeterminazioa.

Asko izan badira atal honetan jakitera eman diren ideiak, laburpen gisa, amaitzeko, ekologismoa gaizki-ulertu naturalistak gaudituz mundu sozialaren mugimendu bezala islatzen duen AHT Abiadura Handiko Trenaren aurkako asanbladako kide baten hitzak jasoko dira: «Asanblada hau 1993. urtean sortu zen, hegoaldeko Euskal Herrian AHTren aurkako oposizio mugimendu asanblearioa bultzatzeko asmoz. Garai hartan jadanik agintariek erabakiak hartu zituzten, modu inposatzailean eta batere informazio gardentasunik gabe. Esan daiteke asanbladaren bereizgarria izan dela AHTak ingurumenean eragingo lituzkeen kalte larriak salatzeaz gain, halako proiektu txikitzaileak bultzatzen dituen gizarte, ekonomia eta ideologia desarrollista eta kapitalista arbuiatzeari garrantzia ere ematea. AHTren salaketarekin, gizarte-eraldaketaren aldarrikapenari lotzen den mugimendu asanbleario bat sortzen saiatu gara. Euskal Herriari eragiten dion AHT Europar Batasunean abian jarri nahi den azpiegitura-plan erraldoi baten parte da, garraiorako Sare Transeuropearra alegia. Noski, jakina da Europako enpresa multinazional nagusiak biltzen dituen Europako Industrien Mahai Biribileko (European Round Table of Industrialists, ERT) ordezkariak ezarri zituztela plan horren norabideak. Horien jokoak, merkatuak zabaltzea, etekinak handitzea eta boterea metatzea da. [...] Finean, ingurune naturala eta soziala are sakonago baldintzatuko duten eraldaketa kate batez ari gara. Euskal lurraldea espazio metropolitano “transnazional” eta globalizatu bat sortzea du helburu, kapitalerako lehiakorra, baina pertsonen beharretatik urrun eta lekuan lekuko bizitza sozialaren eta kultur nortasunaren mesprezuan oinarrituta. Euskal Herria globalizazio ekonomiko neoliberalaren markoan guztiz txertatzeko proiektua da. Bide batez, gero eta menpekoago izango gaituzte eta zailagoa izango zaizkigu herritarroi gure bizi-baldintzak, baita parte-hartze zuzena edukitzea ere. Hortaz, galdera kezagarriak egin behar dira [...] herri batek izan dezakeen autonomiaren eta independentziaren inguruan. Izan ere, proiektuak ondo baino hobeto islatzen duen eredu desarrollista eta menperatzai-

leari makurtzen badizkiogu, horrek gizarte-kultura proiektu alternatibo, solidario, independente eta propio orenen hondamena ekarriko du. Badago beste era bateko harremanak imajinatzea gizartean, eta baita gizartearen eta naturaren artean ere. Norabide alternatiboaren irizpide garrantzitsu bat hurbiltasunean oinarritu behar da. Hurbiltasuna sortzea [...] lekuan lekuko komunitateen egiazko autonomia bermatzeko eta pertsonen eta naturaren arteko harremanak era zuzenez eta iraunkorrez errespetatzeko. [...] Garapenaren eta aurrerapenaren ideologiari kritika zorrotza egin behar zaio [...] Baieztapen honek, gainera, bat egiten du mundu osoan, hainbat herri mugimenduk, garapenaren aurrean hainbat sentimenduk, ideiak eta jarrerak banatuz, egiten ari diren gisa bereko borrokekin. Aurrean dugun aukera, informazioa, mobilizazioa, gizarte-etzabaida, kontzientziazioa eta borrokari bultzada bat ematea da. Pentsatzekoa da gizartea erabakitzeke ahalmenik gabe uzten duen tankera honetako eraso bortitzak erantzunak sortuko dituela gure herrietan eta auzoetan [...] AHTren aurkako borrokak gaur egungo gizarte- eta garapen-eredua zalantzan jartzeko balio behar du [...] Bistakoa da proiektu horiek gauzatuz gero, ingurumenari eragindako kalte larriez gain, euskal gizartearen harreman sozialak eta balioak erabat baldintzatuko dituztela» (Mikel Albarez).

2.1.2. *Modernitatea eta kontramodernitatea industria-gizartearen baitan*

Auzi ekologikoak dakartzan mehatxu sozial horiek guztiak, eta euren indar politikoa eta kulturala, ez dira arriskuaren gizartearen alde bat baino. Bestetik, gizarte industrialaren proiektuan, *modernitatearen* eta *kontramodernitatearen* artean emaniko kontraesanak daude. Atal honek badu ekarpen bat, arriskuaz egindako lanak oro har aurreko atalera mugatzen baitira. Lan honetan teoria soziologiko oso bat eta modernitatearen sinesmen-sistema kontsolidatuenak zalantzan jarri nahi direnez, arriskua modernitate- eta gizarte-egitura berri baterako aldagai oinarritzak dela proposatu eta ikusarazi nahiko da.

Datozen lerroetan frogatu nahiko da modernitatearen baitan aldaketa sozial bat ematen ari dela, gizakiak industria-gizarteko forma sozialetatik aska daitezkeelarik, garai batean Erreforma protestantearekin Elizaren dominazio sekularretik gizartera iragan ziren bezala. Bizitza-eredu zaharkitu batekiko izan dituzten loturak apurtzen hasi dira, gizarte-bizitza berri baterako loturak sortzen ari diren bitartean.

Egitura sozialaren baitan, eta ez ertzetan, ematen ari diren aldaketa horiek hiru zati bereiztuz landuko dira. Beck-i (1998a) jarraituz betiere, honako hiru atal hauek izango dira datozen orrialdeetan hizpide:²³

23. Beck-ek beste bi ere bereiziko ditu. Hauxe da lehenengoaren tesia: gizarte industrialean zientzia eta zalantza metodikoa instituzionalizatu egiten dira. Bereizketa bat egiten da: zalantza, hasiera batean, ikerketa-objektura mugatzen da; aldiz, lan zientifikoaren oinarriak eta ondorioak babestu egiten dira. Zalantza, ordea, aukera eta arriskuen jokoan aurreikusi gabeko ondorio sozialak

- gizartearen destradizionalizazioa;
- familia nuklearraren baitan ematen diren birmoldaketak;
- “lanaren gizartearen krisia”.

Hasi aurretik komeni da zehaztapen bat egitea. Indibidualizazioa eta destradizionalizazioa, bereziki, lehen atalean landuko diren arren, kontzeptu horiek beren zentzu zabalenean ulertzeko, hiru azpiatalak hartu beharko dira kontuan. Gainera, indibidualizazioaren eta destradizionalizazioaren ideiak klase- eta familia-ikuspegitik ez ezik, komunitatearen ikuspegitik ere jorratu ahal dira. Lan honen 3.2.2. atalean azken ideia horri helduko zaio, nortasuna gizarte garaikidean “eraikuntza anbibalente modura” ulertu beharko dela proposatuz. (Hori bai, ikusiko da nola nortasun postmodernoek gainditua duten nortasun “modernoa”, baina ez garrantzi gabekoa delako, bermatua dutelako baizik. Euskaldunok aintzat hartu beharko dugu esan berri dena, nazio-nortasuna beti izango baita, garaian garaian garrantzia eta ulertzeko era aldatuagatik ere, norbanakoaren osagarri nahitaezkoa. Ez, hemen inor ez da hezur-haragizkoa).

“Gizarte industrial klasikoaren irudian, bizitza-kolektiboaren formek bata bestearen baitan sartzen ziren *andrakila errusiarren antza* zuten” (Beck, 1994: 28). Bizitza-forma kolektibo bakoitzak aurrebaldintzak zituen. Adibide desberdinak daude eta ondokoa horietako bat izan daiteke: Klaseak beharrezkoa zuen familia nuklearra; honek, era berean, gizonen eta emakumeen lan-banaketa; honek, berriz, genero-rola, eta azken honek ezkontza edo senar-emazteak. Kate lotu bat.

Industria-gizarteko bizitza-ereduen kategoriek bata bestearen beharra bazuten, baina “indibidualizazioaren teoriak” gizarte garaikidean hori guztia deslotura eta birlotura prozesu sistematiko batean murgilduta dagoela adierazten du. Ongizate-estatuarekin garatu diren baldintza orokorreari esker, norbanakoak modu indibidual batean beren biografia eratzeko garaian bizi direla azalduko da, beraz, honako orrialde hauetan. Norbanakoak beren biografiaren “aktore” bilakatu direla frogatu nahiko da. Ikusiko da, gaur gaurkoz, horrek ez duela etorkizuna hautatzeko askata-

sortzen dituen aplikazio zientifikoen euskarrietara, aplikazioetara eta ondorioetara zabaltzen da. Honela, zientziak eta teknikak errugabetasuna galtzen dute. Zati hori garatu gabe utziko da lan honen helburutik gehiegi *urruntzeko* arriskua baitakar. Sakontasunean lantzeko, ikus: BECK, 1998a: 203-235. Landutako ideiak ulertzeko eta garatzeko zientziaren filosofiako ezagutza lagungarria izan liteke, ikus: BAZTARRIKA eta beste, (1992); BENGOTXEA, (2000); ECHEVERRÍA, (1989 eta 1995); EIZAGIRRE eta IBARRA, (1998). Beste atala, “Beck-en *bosgarrena*”, hiru atalak garatu ostean landuko da modu orokorrigo batean. Tesia: Gizarte industrialean demokrazia parlamentarioaren forma egonkortzeko saioa egiten bada, *aurrerapenaren* gida gardentasun demokratikorik ez duten ekonomiak, zientziak eta teknologiak hartuko dute. Hori arazo bilakatzen da konfigurazio sozialerako zuzendari-rola politikari kentzearen ondorioz. Horri loturiko ideiak izango dira gogoetagai lan honetan hirugarren ataletik aurrera.

suna esan nahi; gizartea eraldaketa-prozesuan dagoen garai hauetan egitura zahar-
 rrak mantentzeko botereen setakeriak *arazoei eta arriskuei bakarrik aurre egin*
beharra baizik. Talde eta kolektiboak ahuldu egiten dira; ez, ordea, garai batean
 horien sorrera bultzatu zuten fenomenoak.

2.1.2.1. *Gizartearen destradizionalizazioa eta fenomeno sozial berrien agerpena*

Lehen zatian, beraz, indibidualizazioa klaseari dagokionean izango da aipa-
 gai. Gizarte industrialia *talde handien gizartea* bezala agertu izan da orain arte, non
 “klase-gizarte” egonkorra eta betierekoa irudikatu den. Oraindik orain, ekonomi-
 koki aurreratuta dauden gizarteetan, *klaseak* sortzeko irizpidetzat erabili izan den
 desberdintasun sozialak bere horretan jarraitzen du. Baina klasearen muga horie-
 tatik harantz doazen fenomeno sozial berriak “jaiotzen” dira: emakumeen eskubi-
 deen aldeko borroka; txirotasun berria; etnia-, nazio-, eskualde- eta erlijio-gatazken
 suspertzea; etorkinen auzia; gay eta lesbianen eskubide-aldarrikapenak; belaunal-
 dien arteko desberdintasunak; edota, ingurumenaren aldeko taldeak eta ekimenak.

Horrek guztiak klase-gizartearen mugak gainditzen dituen harreman sozial
 berrien sorrera dakar; hau da, estatistiketan, ohikoa izan den moduan, desberdin-
 tasun sozialen egiturak mantendu egiten dira. Baina, aldi berean, horrek ez du
 oztopatu biztanleriaren bizi-baldintzak hobetzea diru-sarreretan, mugikortasun
 sozialean eta geografikoan, heziketan, zuzenbidean, zientzian edo masa-kontsu-
 moan ikus daitekeen moduan. Horren ondorioz, klaseari atxikiak ziren azpikul-
 turak ahultzen dira eta bestelako harreman sozialek lehentasuna hartzen dute
 gizakien nortasun eraketan.

Ez dira aintzakotzat hartzen klaseen araberako eredu hierarkikoak, aurrezarriak
 eta behin betikoak. Bizitza-eredu zein egoeren *indibidualizazioa* eta aniztasuna
 ematen da. Dena dela, garbi gera bedi: esandako guztia ahalbidetzeko, hots, merka-
 tuaren gidaritzapean pertsonak euren bizitzaren aktore bilakatzeko, bizitza-egoera
 materiala bermatua izatea ezinbestekoa da. (Eta, ikusiko den moduan, klase-lotura
 tradizionala baztertzeko eta indibidualizazioa gauzatzeko osagai ezberdinen lotura
 nahitaezkoa ere bai).

Desberdintasun sozialaren harremanak mantendu eta sarri areagotu arren,
 lanaren eta bizitzaren arteko harremanetan eraldakuntza eman da. Aldaketa
 nabarmenak lanetik kanpora eman dira. Hau da, gero eta lanordu gutxiago izateak
 masa-kontsumoan murgiltzeko aukera eskaintzen du, gaur arteko lotura sendoeta-
 tik (familia, lanbidea, komunitatea) aldentzeko aukera —eta arriskua— dakarrena;
 edo, bederen, lotura horiekiko harreman berri baten beharra sortzen duena.

Horren ondorioz, kontsumorako estilo desberdinak hauta ditzake pertsona
 berberak. Edo beste hitz batzuetan, orain arte ez bezala, egoera sozial bereko
 lagunek arras bereizten diren janzkera, pertsonaren irudia, etxebizitza, etab. hauta

elkartasuna ez dira gizarte garaikideetan nabarmentzen. Ez esatearren, Estatu sozialista lehenik eta komunismoa ostean aurreikusten zuten mundu ikuspegia.

Hori gutxi izango ez balitz, eskubide indibidualen sorrerarekin (lantegitik kanporatzerakoan, langabezia-aseguruan, heziketan, etab.), eskubideen helegiteak “norbanakoak berak” aurkeztu behar ditu langabezia-bulegoan edota auzitegietan. “Klase-patu zaharra kasu zehatzaren eta partikularren kategoria juridiko bilakatzen da” (Beck, 1998a: 110). Egoera hautsi eta zatikatu horrek, bestetik, zuzeneko eragina dauka egituratzeko zailtasun agerikoak dituzten sindikatueta (ikus: Gorz, 1981).

“Klaserik gabeko kapitalismoa” bezala definitu izan da testuinguru berri hori. Ongizate-estatuarekin klase tradizionalen gizartea ahuldu egiten da ikusi berri den bezala. Hori gutxi ez, eta lan-baldintzen malgutasunak *erraztuta*, garai berriak zuzenean eragiten dien emakumeak eta gazteak lan-merkatuan *sartzen* dira (laster batean atera eta berriz sartzeko). Bazter guztietatik sendotzen den fenomeno da klase-gizartearen kalterako.

Baliteke, ordea, azaldu berri den “klaserik gabeko gizartea” aldi bateko jazoera izatea, indibidualizazioa aipatu berri diren baldintza jakin batzuk sortu baitute. Alegia, gaur egungo gizarteetan ematen den indibidualizazioa baldintza jakin batzuen ondorioa izanik, baldintza desberdin eta berriak eman daitezke (hobeto esanda, baldintza berriak ematen ari dira, hala nola, langabezia masiboa eta enpresen automatizazioa). Eta horrek guztiak *klase*-prozesu berri bat sor dezake, merkatuaren *barruan* eta *kanpoan* daudenena esaterako, eta ez hainbeste gizarte-egituran gorago eta beherago daudenena.

Azken ideia hori ulertzeko, desberdintasun sozialen indibidualizazioaz egin-dako azalpena ulertu beharra dago eta, hein berean, klase-kontzeptua baztertu, kontraesanean dauden bi ikuspegi direlako (Beck, 1998a: 116).

“Klasea” oinarri duen pentsamenduak bateratuta mantendu nahi ditu bi fenomeno eta “desberdintasun sozialen indibidualizazioak” bereizi egin nahi ditu. Lehenak bateratu eta bigarrenak bereizten dituen bi fenomeno horiek dira: “taldeen arteko distantzia” batetik, eta “egitura sozialaren klase-izaera” bestetik.

Hona hemen azalpena: klase-ikuspegiak, desberdintasun harremanen mantenuarekin klaseen mantenua ematen dela argudiatzen du. Eta, alderantziz, langileen maila hobetzea klaseen arteko berdintasuna dela (“langileak aburgatzea” esan ohi da).

Luzaroan inork kontraesanean jarri ez duen baieztapen hori, ordea, jazoera berri baten bidez ahuldu egiten da. Klase-ikuspegirako ulergaitza den zerbait gertatzen da gizarte garaikideetan. Izan ere, “desberdintasun sozialen harremanak” eta “klase sozialen izaera” *bereiz* daitezke:

- Ongizate-estatuari esker emaniko indibidualizazio prozesuarekin, klase sozialak destradizionalizatu egiten dira;
- Eta alderantziz, desberdintasun soziala areagotu dezaketen baldintza berriak agertzen dira: langabezia masiboa, lan-prekarietatea, etab.

Luzaroan nagusitu den pentsamenduari dagokionez, gertagaitza eta kontra-esankorra zirudien jazoera bikoitza ematen da, beraz. Bereizketa hori “desberdintasun sozialen indibidualizazioa” darabilen ikuspegiari esker egin ahal da soilik. Horixe landuko da ondoko orrialdeetan.

Aurreko paragrafoetan bereizketa horren lehen zatia landu da, hots, klase sozialen destradizionalizazioa ematen dela adierazi da. Jarraian, berriz, bi jazoeren bigarren zatiari buruzko gogoetak egingo dira. Horrela frogatuko da desberdintasun sozialaren indibidualizazioak ustez kontraesankorrak diren bi jazoera nola osagarriak egiten dituen. Desberdintasunak mantentzen dira, areagotu egiten dira, gizarte-bazterketa ematen da, baina talde loturarik eta elkartasunik handirik ez da ematen.

Hausnarketa horretarako galdera hau hartuko da oinarri:

Atzo agian bai, baina gaur jarrai al daiteke “talde handien gizartearen amaieraz” hitz egiten? Langabezia masiboarekin eta txirotasun berriarekin ez ote gara berriz ere *klase-gizartera*, bere amaiera aldarrikatu ostein, itzultzen ari? (Beck, 1998a: 117).

Gizartearen destradizionalizazioa, edo indibidualizazioa, eta txirotasun berria ez daude kontraesanean. Klaseari loturiko talde handiekiko desloturak ez du esan nahi guztien eskubideak bermatuta daudenik, edo are gehiago, aburgeszazio-prozesu orokortu bat eman denik. Hiritarrek ez diote talde handietan, kasu honetan klaseetan, egituratzeari muzin egin desberdintasunak desagertu izanagatik. Bestelakoak dira arrazoiak. Desberdintasunak mantendu egiten dira, baina klase handietan berregituratzeko pizgarririk ez da atzematen.

Aldiz, indibidualizazio-baldintzetan norbanakoek langabezia masiboari patu pertsonal moduan aurre egin behar diote. Patu kolektiboa birrindu da. Gehienera jota elkarrekin estatistiketan agertzen dira.

Klaseari merkatuko norbanako hutsak hartu dio txanda. Modu honetan, arazoaren izaera soziala baztertuz, langabezia masiboak sor zezakeen leherketa politikoa indibidualizazioak estaltzen du, eta norbanakoak errua bere buruari leporatzen dio porrot pertsonala balitz bezala (ikus: Forrester, 2001).

Langabezia-datuek dituzten akatsak eta hausnarketak alde batera utzita, langabeziak jende askori aldi baterako eragiten dio eta horrek areagotu egiten du norbanakoengan zalantza: laguntza eskatu edo hurrengo lana topatu arte itxaron.

Egoera jasangaitz hori normalizat jo eta arazoa ezkutatzea lortzen da, joera areagotu baino egiten ez duena. Joera hori areagotzen duen beste aldagai bat ezin uka daiteke Inglehart-ek aipatu eta aurrerago landuko den belaunaldi berrien balio aldaketa ere badela. Enpleguari eta aisialdiari buruzko irakurketa berriek horretara bultzatzen dute.

Inor poztuko da hori horrela izatearekin, begien bistatik kenduko dituelakoan; baina ez, txirotasun hortxe daude. Izan ere, ezkutatzeko ahaleginek lehen munduko desberdintasunak ez dituzte desagerraraziko. Aitzitik, arazoak areagotu besterik ez dira egingo.

Zuberok egoera hori aurkezteko *bi herenen gizartea* (Peter Glotz) paradigma egokia izan daitekeela adierazten du: “*Desberdintasun sozialetik harago* doan eta gizarte dualizatu edo fragmentatuaren forma hartzen duen desberdintasuna da”. Modu horretan, arazoa “goikoen eta behekoen” desberdintasunera ez da mugatzen. Distantzia irizpidea (ere) erabili beharko da hemendik aurrera, “barruan eta kanpoan” daudenak izendatzea ezinbestekoa egingo baita (Zubero, 1998a: 36).

Sarri “kanpoan” dauden hauetako asko eta asko lehen itxura batean “barruan” daudenekiko bereiztea zaila izan ohi da. Baina nola atzeman daiteke, orduan, nor dagoen *hirugarren herenean*? Erakundeen aldetik, jukutria anitz burutu ohi da txirotasunaren emaitzak dotoretzeko orduan. Txirotasuna, arazo politiko bihurtu heinean, bazterketa sozialaren zentzuan ulertzeak zifrak hankaz gora jarriko lituzke. Eta, jakina, erakundeei hori ez zaie komeni. Ondorioz ikuspegi murriztaile batez baliatu eta egoera makillatuz, txirotasuna gutxieneko diru-sarreraren irizpidea-rekin lotzen da.

Txirotasuna aztertzeko egiten diren hurbilketan, beraz, bereizi behar dira eskubideak (txirotasuna bazterketa modura) eta kontsumo-gaitasuna irizpidetzat darabiltzan hurbilketa (Zubero, 1998a: 39).

“Bazterketak” hirurogeita hamargarreneko zentzua, hots, “hazkondeak ahaztuta zitzenak”, gainditu egiten du.²⁴ Bazterketaren kontzeptuarekin orain kontuan hartzen da eraldaketa ekonomikoetara eta teknologikoetara egokitzeko gaitasunik ez duen oro (Martín eta Simón, 1997: 66). Ekonomia- eta gizarte-eredu berrian, “baztertuak” enplegu ezaren ondorioz baliabide ekonomikoek mehatxatuta bizi direnak ez ezik, giza harremanek izaten dituzten testuingurua, “sare-harremana” ere ahuldua duten guztiak dira.

24. “Txirotasun berria” bezala ezaguna den fenomenoak hobeto ulertzeko eta lan sakon batean murgiltzeko, ezinbesteko aldagaiak dira, gutxienez, ondoren landuko den “bazterketa sozialaz” gain: 1. Gizarte batean dagoen harreman proportzionala, gero eta aberastasun handiagoaren eta bertako kideen arteko gero eta elkartasun gutxiagoren artean (ZUBERO, 1995: 66); V. Camps-en hitzetan, Suedia edo Alemania ez omen dira *kideari* laguntza emateagatik bereizten diren herrialdeak, indibidualismo edo nartzisismo izeneko ezaugarriak izateagatik baizik. Herrialde horietako justiziak ez

Arrazionaltasun ekonomikoaren prozesuak sortutako fenomenoak izanik, joera hazkorra izango du: ohiko talde marjinalak gain, orain arte bizitza normalizatua jarraitu eta gaur egun, lanaren prekarizazioak bultzatuta, normalizazioaren eta marjinazioaren muga ahulean daudenek ere osatuko dute baztertu sozialen taldea.²⁵

Egoera hori ahalbidetzen duten aldagaien artean daude, besteak beste, heziketa-maila, lagunen eta familiaren elkartasun-sareak edukitzea edo ez, eta lan-prekarietatea ezagutu aurretik pertsona horrek zituen bizi-baldintza materialen eta “habitat”aren aberastasun edo txirotasuna (Martínez eta Simón, 1997: 67).

Baliabide ekonomikoak eta enpleguan parte-hartzeaz gain, horrek guztiak norbanakoaren bizi-esparru guztietan eragina du, osasunetik eta zerbitzuetatik etxebizitzaraino eta heziketaraino.

Marjinalizazioa ulertzeko, enplegu eza eta zuzeneko ondorio materialak ez ezik, sare-harremanak ere oso garrantzitsuak direla aipatu da. Horren ildotik, bazterketa oso kontzeptu zabala dela jabetzeko eta pertsonaren lehen bizipenetan ere pairatzen dela frogatzeko (denborarekin areagotu egingo dena noski), Arartekoaren tesia berretsiz, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Eskola Kontseiluak bere azken txostenean esandakoa aintzakotzat hartzekoa da: “Zenbait eskolaren *getizazioa* errealak” dela azpimarratu du. Eskola gutxi batzuetan, ezintasun fisikoak, psikikoak, arazo sozialak dituztenak edo gutxiengo etnikoak biltzen dira. Hori hezkuntza-sistemaren porrota ez ezik, gizartearen porrota ere bada, harreman-sare *ahulak* adinean aurrera joan ahala bazterketarako aukera guztiak baitakartza.

Norbanako horiek guztiak, asko haurtzarotik, gizartean txertatzeko beharrezkoak eta ondorioz nortasuna eratzeke ezinbestekoak diren bitartekoetatik *at* gertatzen dira. Horrela ulertu behar da aurrez aipatutako *dualizazioa*. Gizartea *zatikatu* egiten da: norbanako gero eta gehiagok beren eskubideak galtzen dituzte. Eremu berri eta hazkor bat sortzen dela nabarmen liteke, gizartearen jokamoldeen barruan eta kanpoan kokatzen diren gizabanakoena eta taldeena.

omen dirudi lankidetzaren errealaren fruitua, baizik eta aberastasun eta abundantzia baldintzen eta politika sozial jakin batzuen onarpena (hots, tarta gero eta handiagoa izatearen ondorioa). Zuberok gaineratzen du, Europar Batasuneko Batzordeak bazterketa soziala ulertzeko ezinbestekotzat darabilela argudio hori bera: “Balio-sistemen eboluzioa, elkartasun kolektiboaren arloan progresoz jantzita dago; baina kontuan hartzekoak dira ere kohesiorako balioen eta elkartasunerako forma tradizionalen hondoratzea”, hots, elkartasunaren krisia. 2.BAUMANek (2000) aurrekoarekin lotuta dagoen fenomeno bat azpimarratzen du: norbanakoaren ondoezaren aurrean orain arte zegoen elkartasunerako kontzertu publikoaren erorketa. Bestetik, txiroez (jada ez soilik “ekoizpen gizartean lanik ez duena”) edo merkatutik *kaleratutako* kontsumitzailearen baldintzaz gogoetak egiterakoan, garrantzia emango dio birmoldaketa edo *urrats* bati: industria-gizarteko txirotasun-baldintza eta orduko “lanaren etikatik” (*edo* “diziplinaren, kontrolaren eta subordinazioaren etikatik”), kontsumo-gizartera eta beronen “estetikara” emaniko urratsa. Horren ondorioa txirotasun (gaur egun “klase marjinatua”) sozialki sortzeko eta kulturalki definitzeko forma berria izango da.

25. Hausnarketa horiek abiapuntu hartuta, “Europaren brasileñizazioaz”, ikus: BECK, 2000b.

Baztertuen jarrera eta dinamika soziala ulertzeko, guztiaren ondorio den hutsaltasun sentimendua azpimarratzeko da. Galduta daude, ez diote ezeri zentzurik eta esanahirik ematen, ez beraien buruari, ez beraien testuinguruari. Hori argi eta garbi tradizionalki marjinazioari lotuta egon diren talde sozialekiko erakutsi ohi duten mesprezuan, xenofobian eta bortizkerian islatzen da.

Horren ildotik, arrazakeria eta bazterketa xenofoboari loturiko bortizkeria aipagai denean, sarri zalantza bat egon izan da bere jatorriaren inguruan.²⁶ Errotuta dagoen ideia da arrazismoa legitimatzeko eta justifikatzeko orduan, nazio-nortasunaren (“nortasun tradizionala *desnaturalizatuko* da”) eta mehatxuaren aurreko babes-sentimenduaren defentsa.

Zailtasunak, ordea, gizabanako eta komunitate-jarrera horien jatorria aztertzerakoan sortzen dira. Oro har, bi izan dira irakurketak. Batzuen ustez, objektiboa den egiturazko egoera batek sortzen ditu interpretazio sozial jakinak. Beste zenbaiten iritziz, berriz, komunikazio eta elkarrekintza sozialarekin sortzen diren definizioek koiunturazko baldintza batzuk sortzen dituzte.

Ez dirudi egokia irakurketa bati erabateko arrazoia eman, eta bestea baztertea. Gizarteko talde jakin batzuek egoera orotan dute “etsaiarekiko”, “ezezagunarekiko”, “atzerritarrarekiko”, “etorkinarekiko”, jarrera itxi garbi bat. Aldiz, beste herrialde batzuetan etorkinei ematen zaien tratuarekin hunkituta, edota telebista aurkezleak egindako adierazpenekin eta ikusitako irudiekin ardura erakusten duten pertsonak, etorkina hezur haragizkoa dela ohartzean, alegia, auzora heltzean, zer dela-eta jarrera eta portaera aldaketa ematen den frogatzeak sakonagoko hausnarketak behar ditu. Irakurketa global baten bidez aipatutako bi ideiak osagarriak egingo dituen irakurketa bat beharrezkoa da.

Alde batetik, gizarte garaikideak sortutako egoera legoke. Bertan azpimarratzekoak dira egiturazko langabezia, bazterketaren fenomeno eta tradizionalki baztertutak izan direnekin bizi nahi ez izatea, edota testuinguru garaikideak gazterian duen zuzeneko eragina. Horren aitzinean, noski, Estatuak, zenbait hamarkadatan izan duen babes sozialerako jokabidea ahultzearekin, legitimitate oro galtzen du.

Honekin guztiarekin ez dago kontraesanean beste jazoera objektibo bat. Hain zuzen ere, etorkinen erabilgarritasun ekonomikoari zuzendutako auzia. Aitzitik, bai jazoera hau, bai paragrafo hauetan aipatuko diren gainerakoak ere, lasai asko esan daiteke hein handi batean “ilegalitatearen ondorioa” ere badirela.

Baina objektibotzat jo daitekeen egoera honekin batera, helarazten den *diskurtsoak* ere, dela eskuin muturreko-edo taldeetatik, dela erakundeetatik eratorriak,

26. Ondoren egingo diren aipamenetarako, ikus: ALVITE (1995). Liburu horretan jasotzen diren hainbat egileren ideiak erabili dira hurrengo paragrafoetan egingo diren gogoetarako.

aztertu beharreko fenomenoak dira. Diskurtso horiek erraztu egiten dute lege murriztaileak onartzea. Diskurtso baztertzailerik arazoaren jatorria baztertzear gain (migrazioaren arrazoi historikoak), egiturazkoa den arazoa estaltzea lortzen dute, langabezia edota lan-baldintza txarrak etorkinen ondorioztatuz.

Modu honetan, hauxe ondorioztatzen du pertsona arrunt batek: “Arrazakeriaren jatorria etorkinen helduek egonik, bortizkeria arrazista migrazio-mugimenduen ondorio da. Beraz, etorkinen iritsiera kontrolatu eta ekidin beharra dago”.

Horri lotuta, Pedro Alvite-k adierazi duen moduan, Espainiako kasua adierazgarria da. Europako beste herrialde batzuetan, zabaltzen hasi zen migrazio-fenomenoak 80ko hamarkadan bortizkeria arrazistaren adierazpenak sortu izana aitazkiatzen hartuta, etorkinen inguruko lege zorrotzak hartuko dira. Espainian, ordea, prozesua nolabait alderantzizkoa izango da. Bazterketa-adierazpenen aurretik, lege murriztaileen ezarpena emango da, eta ondoren ekingo zaio etorkina modu ezkor batean *irudikatzeari*.

Beraz, interpretazio subjektiboan datza jatorria (etorkinen kolektiboa arrisku, lan-lehia eta ziurtasun ezaren iturri). Eta hori, aipatu berri den gaur egungo gizarte-egituraren ondorez sakondu egiten du. Haziak erein ziren. Horrela lege murriztaileek berme sendoa dute eta, bide batez, lehen aipatutako krisi ekonomikoak eta politikoak sortutako Estatuaren legimitatearen gainbeherari aurre egiteko, *kontzentzu berri* bat lortzen da. “Arrazakeriak jatorria etorkinengan izanik, beharrezkoa baita kontrol zorrotzak ezartzea”. Aipatu diren argudioei etorkinek nazio-nortasuna zalantzan jar dezaketela erantsiz gero, erakunde politikoaren jarrera oro legitimatzen da.

Izan ere, baztertua jabetzen da, baina baita beste edozein hiritar ere, bere egoera egiturazkoa dela. Enplegutik desenplegurako joan-etorriak bere biografiaren atal bilakatzen dira. Jarraikortasun iraunkorra eta egonkorra ezinezkoa bilakatzen zaio. Bizi-zikloak desegituratzen dira eta lan-integrazioaren bidez eratutako ordura arteko gizarte-nortasuna desagertu egiten da. Joera hori betierekoa izateak lehenago edo beranduago askatasunik ez dutela onarrarazten diete beren buruei. “Eta jakina da errua nork duten”. Badirudi, konplexutasunak berariazkoa duela “irtenbide” sinplista.

Aditu askok aldagai horri erabateko garrantzia ematen diote efikazia irizpide duen eraentza autoritario bat onesteko eta demokraziari muzin egiteko azalpena egitean. Izan ere, zera galdetzen diote beraien buruari baztertuak: zein balio du eskubide politikoaren jabe izateak biziraupena bermatzeko gai ere ez bada?

Gauzak horrela, bazterketak hiritartasunaren printzipio demokratikoa hustu egiten du. Barnean/kanpoan dikotomiak, beraz, txirotasunaren eta marjinalitatearen auzia *hiritartasunaren* ikuspegi zabalagotik lantzea eskatzen du (Zubero, 1998a: 40).

Horren ondorioz, irtenbidea bilatu nahi bada *gizarte-auzia* hizpide hartu beharra dagoen garai hauetan, Zuberu (1998a: 44) ez dator bat lanaren ikuspegi funtzionalean oinarrituz errenta eskubidea soilik aldarrikatzen dutenekin. Zuberoren iritziz, lanak izaera funtzionala ez ezik izaera emantzipatzailea ere baduenez, lanaren bidez esfera ekonomiko publikora heltzeko eskubidea (baina baita betebeharra ere) hiritartasun eskubidearekin lotuta dago.

Irtenbide honi, jakina, zuzenean etorkinen fenomeno *berriari* lotuta dauden arazoak eta irtenbideak ere erantsi beharko zaizkio, bizitza-eredu garaikidea auzitan jarriko zukeena, herrialde guztien garapen autonomorako bitartekoak beharko bailirateke ezarri eta bermatu (ikus Goytisolo, 2001a).

Zuberoren zehaztapen hori lan honetan azaldu den moduan interpretatu beharra dago, ez makillatuta. Biak dira arazoari aurre egiteko ezinbesteko baldintza, baina baita eskubide eta betebeharrak ere (ikus, “Espainiar Konstituzioko” 35.1 art.). Alegia, ezin daiteke (gutxieneko) soldata edukitzeko baldintzatzat, “filosofia kontuengatik” gainera, norberak lana bilatzea ezarri eta kito. Baieztapen horren adibiderik argiena 2000ko abenduaren 27an Gasteizko Legebiltzarrean eztabaidatutako Gizarte Eskubideen Agiria (GEA) da.

Hona hemen historia laburtuta: 1987an Euskal Autonomia Erkidegoan Txirrotasun eta Desberdintasun Sozialen inkestak islatutako datu kezkarrien aurrean, urte hartan bertan sortu ziren: GGD Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrera; Gizarte Larrialdietarako Laguntzak; eta ekonomikoki eta sozialki baztertuak zirenen laneratze-egitamuak.

Azken lau urteetako inkestek (azkena 2000koa), ordea, “agregatu makroekonomiakoak ondoko herrialdeetan baino hobekak izanagatik ere, eta ekonomiaren eta *enpleguaren* hazkundera eman arren, txirrotasuna eta bazterketa igo egiten direla erakusten dute”.

Hori ikusita, Herri Ekimen Legegilearen bidetik (HEL) (ikus: “Espainiar Konstituzioko” 87.2 art. eta 87.3 art.; eta, “Euskal Herriko Autonomia Estatutuko” 27.3 art.), “Gizarte Eskubideen Agiria” sortu zen. Langabezia eta txirrotasuna arazo kolektiboak zirela azpimarratuz, eta ez indibiduala, helburua GGD (LGS Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren parekoa) eta lan-banaketa ziren.

2000ko abenduan, eztabaiden ostean, Gasteizko Legebiltzarrak 80ko hamar-kadako filosofiari eutsi zion, besteak beste, egoeraren kausa askotarikoa eta poliedrikoa dela argudiatuz. Lan-banaketaren gaia bere horretan uzten zen. Lehenengo helburuari dagokionez, berriz, hona hemen enplegua bilatzeko ahalegina oztapatuko duelako aitzakian hartutako zenbait zifra gogoetarako eta konparaziorako: Eusko Jaurlaritzaren ikerketek txirrotasun-muga (45 urtetik behera bakarrik dagoen pertsonarentzat) 95.000 pezetan ezartzen dute, aldiz, adostutako GGD: 61.845 pta. (x12); LGS: 82.460 pta. (x12); beraz, GGD LGSren %75ean geratzen da; LGS

bataz besteko soldataren %36 da, aldiz, Europar Batasunean %60. Bestetik (eta ekonomizismora mugatuz), ez dago arrazoi ekonomikorik aktibitate-hazkundera eta INEM eta bertako erakunde publikoen superatibak ikusita. Gainera, babes soziale-
ra aberastasunaren %22 bideratzen da (Europar Batasunean %28,7) etab.²⁷ Honetan guztian sakontzeko, ordea, zabalagoa den gai baterako atea zabaldu beharra dago, lan-banaketaren auziraino heltzen dena. Baina ez da gai hori atal honen helburue-
takoa.²⁸

Gogoratu atal honen helburua zein izan den. Batetik, klase-loturen ahultzea frogatzea; eta horri lotuta, bestetik, itxuraz kontraesankorrak diren bi jazoera, “desberdintasun sozialen harremana” eta “klase sozialen izaera”, desberdintasun sozialen indibidualizazioari esker azal zitezkeela frogatzea. Era berean, gizarte garaikidean fenomeno sozial berriak ematen ari direla erakutsi nahi izan da, azken ideia hau ondorengo bi ataletan esandakoarekin osatu beharko bada ere.

Atalarekin amaitu aurretik, ordea, komeni da esan denaz gain beste ekarpenik egitea norberaren hausnarketarako. Baliagarria da, era berean, aurrerago egituraz-
ko bazterketa eta “*edo hiria*” aipatzen direnerako (3. zatia). Izan ere, gizartearen *barruan* dagoena bilakatzen da gizarte garaikidean arrisku handiena. “Ezezaguna” edo “akatsa” da “etsaia” baino arriskutsuagoa, *ordena* sozialean kokatu ezina delako.

“Holokaustoaren” krudeltasuna elkarrekintza sozialaren ondorio delako (jatorri soziala duela uste izanez gero behintzat). Ez zen, eta ez da, protagonisten ezaugarri patologikoen ondorioa, edo ez soilik, gizarte modernoaren aldaera arrunt bat baizik. Eta ez salbuespen bat. Arrazoi instrumentalak eta burokraziak lehen-
tasuna hartu izanak, eta pertsona harremanen kosifikazioak, gizartea ingeniari-tza sozialeko metodoekin erabil daitekeen zerbait bilakatu dute.

27. Zifra, eztabaida, alde bakoitzaren jarrera eta gogoeta sakonagoetarako 2000ko gabonetako egunkariak landu dira. Egunkarietako berriez gain, honako prentsa-artikulu hauek erabili dira: OTAZUA eta DE LA CAL (2000); eta MANTECA, RIVIERE eta FERRADÁS (2000). Azken berriak: 2002ko martxoaren 12an honako hau onetsi zuen Gobernu Kontseiluak: Oinarrizko errentaren laguntza ekonomikoetarako 96.841.080 euro; gizarte larrialdietarako laguntzetarako 15.476.062 euro (ez dira laguntza periodikoak, norbanakoen ohiko edo ez ohiko gastu jakinetarako baizik); Joseba Azkarragaren hitzetan, zera bermatu nahi da baldintzak betetzen dituztenentzat: hamabi hilabetetan lanbide arteko gutxieneko soldataren %79ko diru-sarrerak pertsona batentzat; %25 gehiago bigarren pertsonentzat; eta, %10 gehiago hirugarren pertsonatik aurrera. Helburutzat daukate, berriz, 2006rako %79tik %86ra urretsa ematea lanbide arteko gutxieneko soldatari dagokionez. Batasunako ordezkari Antton Morcillok honako ekimen hau aurkeztu zuen: oinarrizko errenta 18 urteko gazteei aplikatzen hastea (orain 25 urte behar dira), eta lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzea (442,12 euro).

28. Lan-banaketaren inguruan eman ohi diren hiru tipo idealen inguruko gogoetarako, ikus: IMAZ, (1998).

Distantzia kontzeptuak esanahi sakona du. Aldamenean dagoen bestearrekiko harremanak erabateko garrantzia hartzen dute. Bauman-ek (1997) esan bezala, “gertutasuna” eta “elkarrenganako ardura” arras lotuta daude. Eta beste aukera bat distantzia soziala da, zeinak bazterketa (edo asasinatua) inolako protestarik gabe burutzea ahalbidetzen duen.

Gizarte garaikidean bazterketaren lehen hurbilpen bat egiteko, John Berger-ek (2000) idatzitako *King* txakurra protagonista duen eleberria atal honi amaiera emateko ezinbesteko irakurgaia da.²⁹ Gizarte garaikidean autopistatik iragatean inoren lurra ez den horietan bizi diren *naufra goei* buruz dihardu liburuak, garai hobeak bizi eta denborarekin txirotasun berrian eta bazterketan erori den Vico eta Vica bikotea abiapuntu harturik.

2.1.2.2. Ni-aren kontakizuna familian

Bigarrenik, gizarte modernoa eta gizarte garaikidea desberdintzeko beste aldagai bati egingo zaio tartea ondoko orrietan. Familia nuklearra ardatz harturik, zer-nolako aldaketak ematen ari diren ikusiko da familiaren baitan, baina betiere, iritsiera zabalago bat helburu izanik. Zehazki, gizarte modernoarekiko ea hausturirik atzeman daitekeen frogatu nahiko da.

Gizarte industrialeko bizikidetzat familia nuklearraren inguruan araututa egon da. Baina ordainetan (edo horretarako baldintza bezala) gizonei eta emakumeei aurrezartzen zitzairen eginbeharra gizarte garaikidean ahuldu egiten da. Gizonen eta emakumeen arteko generoaren auzien berregituratzeak (emakumeak heziketan eta lan-merkatuan txertatzeak, dibortzioak, haurdunaldia ekiditeko bideak, etxeko lanen deskualifikazioak, etab.), “familia txikiak” bere baitan jasotzen zuen oro eraldatzen du. Horren ondorioz, birdefinitu beharko dira: ekoizpen eta berrekoizpen harremanak; bikote-, aitasun- eta amatasun-harremanak eta sexualitate-harremanak.

Hala ere, sexuen arteko harremanak ikergai badira, aipatutako auziak ezin daitezke lanbideak, desberdintasunak, politika edo ekonomia kontuan hartu gabe jorratu, besteak beste.

29. Idazleak liburuaren aurkezpenean Madrilen 2000ko irailaren 28an esandakoa da: «He mirado cara a cara a esa miseria que se da en todas las grandes ciudades conviviendo con estos nuevos miserables, protagonistas de una gran caída vertical en la que podríamos entrar cualquiera de nosotros, seres con un horizonte vertical en el que confluyen presente, pasado y futuro». «Son seres que viven una situación inhumana, pero son seres humanos que luchan por su propio respeto, y esa lucha merece nuestro respeto». Bestalde, Manuel Rivasek: «Equiparo *King* con el Ulises de una odisea contemporánea que nos descubre los paisajes de la desolación humana [...] Berger es el escritor del senti-pensamiento, siempre fecundo, sugerente e irónico, empeñado en demostrar que razón y sentimiento no van siempre separados».

Gauzak aldatzen ari direla ukaezina den arren, berdintasun formalen areagotzeak heziketan eta zuzenbidean, gero eta ageriagoan uzten ditu desberdintasunak (eta beronen areagotzea sarri). Hau da, kontzientzian eta idatzizko paperetan aldaketak eman ahala, portaeren irmotasuna gero eta agerikoagoa da.

Jazoera horren adibide garbia Silvestre-k egin dituen bi lanetan frogatu ahal da. Bietan ere, bere lanaren xedea femeninoaren eta maskulinoaren eraikuntza sozialak Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako herritarren balio-esparruan neurtzea izan da. Beraz, portaeraren inguruan ez dago zertan gauza bera jazo. Are gehiago, aipatutako lanetan “beharko zukeena” izanik hiritarrak erantzuteko darabilten irizpidea, eta ez euren portaera. Balioaren arloa eta praktikoa ez dira inondik ere gauza bera eta egunerokotasunean ezusteko handiak eman daitezke benetako portaerak “esandakoarekin” zerikusirik ez duela frogatu daitezkeelako. Dena dela, balioen arloak gizartean ematen ari diren aldaketen hurbilpen bat egiteko balio dezake. Silvestre (1997) ere uste horretakoa izaki, 1995eko inkestetatik zenbait ondorio atera litezke.

Horrela, baloratzekoan, hiritarrak oro har irekiak dira emakumeek lan-merkatuan parte-hartzearen inguruan; ez dira emakumeak etxe eta familia-esparruetara mugatzen (emakumea jada *ez* da amarekin lotzen), eta esparru publikoan zein etxeko esparruan euren parte-hartzea positiboki baloratzen da. Era berean, ikus daitezke emakumearen rol berriak eta funtzio sozialak baikorren hartzen dituztenak, oro har, jende gazteena dela, eta berauen artean ezkerrekoak eta heziketa ertainekoak eta altukoak nabarmentzen direla.

Esan bezala, balioen ikuspegia da ikerketak darabilen irizpidea. Baina badira zenbait galdera portaeran oinarrituriko erantzunak eskatzen dituztenak. Eta horietan bai, horietan agerikoak egiten dira ez soilik portaera desberdinak, baita desberdintasun egoerak, eta sarri diskriminazioen islak ere. Halako kasuetan garbi ikusi ahal da aurrez esan den kontzientziaren eta portaeraren arteko desberdintasuna. Horren adibide garbi bat, 1999ko inkestetan oinarrituta, denbora librearen kudeaketa desberdina da: gizonak emakumeen denbora bikoitza izan ohi dute, lagunekin egoteko inbertitutako denborarekin gertatzen den bezala (Silvestre, 2001: 5).

Balorzio baikorrak eta onuragarriak jasotzen direla eta, Silvestre-k “tolerantzia eta irekitasuna” azpimarratzen dituen 1995eko inkestan ere, irakurleak arretaz aztertzen baditu erantzun guztiak, aplikazioa islatzen duten inkesten kasuetan arazoak sortzen direla frogatu daitezke.

Izan ere, jarrera baten efektibitate erreala neurtzen den kasuetan, gauzak aldatu egiten dira balorzio hutsa eskatzen duten galderekiko. Hala ere, egia da horrek guztiak, hein handi batean, bereizgarri soziologikoa duela: adineko jendea, ideologikoki eskuinean kokatzen direnak, heziketa-maila baxua dutenak eta zenbait kasutan “etxekoandreak” dira aplikaziorako orduan balorzioarekiko erantzun desberdina ematen dutenak.

Esaterako, emakumeek, gizonek bezala, diru-sarreretan beraien ekarpena egitea onuragarritzat jotzen bada ere (baloratiboa), bikote-harremanetan arazoak sortzeko aukerak daudela adierazten da emakumeen diru-sarrerak gizonenak baino handiagoak izanez gero (aplikazioa). Halaber, heziketa batari edo besteari onartu arren, arazoak sortzen dira heziketak emakumeari bere bizitzan hierarkia lehen-tasanak sortzeko aukera ematen badio, edo bere ezagutzak maila profesionalean egikaritzuz emakumeak lorpen ekonomikoak eskuratzen baditu (Silvestre, 1997: 102-103), zer esanik ez soldata gizonezkoarena baino altuagoa bada.

Beraz, xehetasunak eta bereizgarri soziologikoak kontuan harturik zenbait matizazio erantsi beharko balira ere, berdintasunaren erretorikarekin, gizonezkoek hitzez esandakoa ez dute ekintzetan maila berean islatzen.

Kontzientziak eguneroko harremani aurrea hartu dien gatazka luze baten hasiera da familia nuklearraren baitan biltzen den auzia. Bestetik, gero eta askotarikoa den egoera baten aitzinean, betiko kontzeptuak erabiltzen dira, egitura soziala egonkortzeko beste aldagai bat bilakatzerara hel daitekeena (nahita edo nahigabe bada ere), zenbait gizonek rol tradizionalen egikaritzan posizio dominante bat izaten jarraitu nahiko baitute.

Esan bezala, berdintasun juridikoa eman da herrialde gehienetako konstituzioetan, baita heziketa-iraultza emakumeen aldetik azken hamarkadetan ere, *baina* “lan-merkatuan hierarkia sexual-estamentalak mantentzen da” (Beck, 1998a: 135). Zenbat eta esparru boteretsuagoa, hainbat eta probabilitate urriagoa emakumeak bertan kokatzeko. Neurri berean, garai berriekekin (eta teknologia berriekekin) hondoratzerara doazen bizitza ekonomikoko esparru anitz bereganatu dituzte.

Modu laburrean esanda: gero eta parte-hartze handiagoa lan-merkatuan, gero eta langabezia handiagoa, gero eta lan gutxiago eskatzen dituzten eginbeharren arduradunak (“arrazionaltasun erreserbak” bezala ere ezagunak direnak). Hori horrela mantentzen jarraituz gero, benetako arazoak pixkanaka azaleratzen hasiko dira. Belaunaldi berrietan, gero eta heziketa handiagoarekin, heziketaren araberrako lanik ez egokitzeak, sexismoak aurrera begira zer-nolako ondorioak izango dituen ikusteko dago. Bazterketa belaunaldi berrietan agerikoagoa izango da.

Gaur arteko ereduarekiko arrisku hori ulertzeko nahitaezkoa da desberdintasun erreala, bere baldintza eta kausekin, kontzientzia-hartzearekiko bereiztea (Beck, 1998a: 152). Ez da gauza bera egoeren objektibitatea eta egoera horren deslegitimazioa eta kontzientzia-hartzea.

Berdintasun formalak emakumeei euren biografiaren alor guztietan gizonei adinako aukerak eta beharrak eskaini ahala, hutsuneak agerian geratzen ari dira. Lan-merkatuan egoera pertsonalak kontuan hartzen ez diren bezala, alegia, gizar-

tea inolako familia edota bikoterik gabe (merkatuko subjektua *bakarrik* dagoen norbanakoa da, haurrik ez baleuka bezala), oso bestelakoa gertatzen da familia- eta bikote-bizitzan.

Bikote-harreman eta lan-merkatuko betebeharren halako kontraesana ahalbidetu da gizonek eta emakumeek eginbehar aurrezarriak izatearen artean. Baina batak eta besteak lan-merkatuaren bidez subjektu autonomo izatea erabaki (eta lortu) ahala, hankaz gora geratzen da ‘gizona’ hornitzaile ekonomikotzat eta ‘emakumea’ etxeko lanen arduradunatzat izan duen joko osagarri eta baztertzaila hori.

Familia desberdintasun sexualen jatorria izan ez arren, banaketa sexuala sortzen eta birsortzen den esparrua den heinean (del Valle, 1995), sexu-rolaren araberako eginbehar aurrezarriak eraldatzea gizonen jarreraren esku ere badago, ikusi berri den okupazio-sisteman ez ezik, eguneroko lanean, familia-lanean ere (aitatasun aktiboaren bidetik esaterako).

Amaren rola gizonezkoentzat bazterketa-zeinua beharrean, lege objektibo bat da. Eta, horren ondorioz, ulertzekoa da zailtasunak zailtasun, bai lan-merkatuan emakumea txertatzeak (honek dakartzan gaitasun ekonomikoekin), bai gizonek emakumeen berdintasunaren diskurtsoa onartzen dutela adierazteak, bai aldaketa sozialek, ekonomikoek eta teknologikoek etxean, lan-merkatuan eta familia-harremanetan aldaketak bideratu ahal izateak, “etxeko ondasun eta zerbitzuen ekoizpenen arduraren aldaketarik ez ekartzea”. Etxeko lanetan, bereziki, emakumeen iraultza trabatu egiten da (del Valle, 1998: 63).

Setién-en (1998) lanean, Euskal Autonomia Erkidegoan EUSTATEk eginiko Denbora Aurrekontuaren Inkesta oinarri hartuta, garbi ikusten da egin berri den baieztapena. Aldaketaren batzuk nabarmentzen badira ere, *pertsonen zaintzak* emakumeen ardura izaten jarraitzen du.

Honako hauek dira, besteak beste, emaitzak frogatu bezala erabiliz, Setién-ek ateratzen dituen ondorioak:³⁰

“Emakumeek hirukoiztu egiten dute zaintza-lanetan emaniko denboraren batezbestekoa gizonekiko” (1998: 86); “zaintzarako bi emakume dauden heinean, gizon bat dago” (1998: 87); “zaintzarako eskaintzen den denboraren arabera, eginbeharretan hierarkizazio bat ematen da, ardura horiek dituzten gizonek adineko jendea zainduz eta, emakumeek, berriz, haurrak” (1998: 89); “pertsonekiko ardura erakusten den eginbeharretan, eskaintako denboraren arabera, gizonen kasuan espezializazio bat ematen da (1998: 89).

30. Modu sakonago batean jorratzeko, ikus lana bera. Bertan gainera, emaitzak eskuratzeko jarraitu den jardunbidea ere argi eta garbi azaltzen da. Dena dela, esan beharra dago, “etxeko lanak” kontzeptuarekin hau guztia barneratzen dela: umeen zaintza, umeekin jolastea eta umeak hezteak; adineko jendearen zaintza; gaixo dauden edo ezintasunen bat dutenen zaintza. Etxeko lanak zentzu zabalenean ikertuz gero, gizonen eta emakumeen arteko aldeak handiagotu egingo liriateke.

Ikus daiteke, era berean, etxeko zaintza pertsonen %20k soilik egiten duela (arrazoien artean daude: osasuna, biztanleria eta ongizate-estatuaren eskumenak), eta zaintza lanen %90 hurrei zuzendua dela (beraz, %10 baino ez adinekoei). Baina lan honen helburuetara itzuliz, esan beharra dago Euskal Autonomia Erkidegoko etxeetan denbora sozialaren zein zati etxeko zaintzari eskaintzen zaion ikusita batetik, eta ardura hori hartzen duten pertsonak zein diren ikusita bestetik, “emakumea dela zaintzaile nagusia” (1998: 92).

Denbora guztiaren %70 emakumeen eskutik dator. Etxeko zaintzaren ardura duten emakumeek haurren eta jaioberrien zaintzaren %80 egiten dute; etxetik kanpo senideen laguntzan, denboraren %78 beraiek betetzen dute; eta %75, berriz, adinekoek behar duten mediku eta pertsona zaintzari dagokionez (1998: 92).

Amaitzeko, Setien-ek lanaren bukaera aldera aipatzen duena lan honetan esan denarekin bat dator. Hain zuzen ere, etxeko zaintzan rol femeninoak duen garrantzia aipatzekoa den arren, aldaketak ere ematen hasi dira, bereziki, gizon gazteengan, aitatasunaren egikaritzan zeregin aktiboa hartuz.

Zentzu honetan, aitatasun aktiboak genero deseraikuntzan bere bultzadaxoa eman dezake. Ahalegin horretan, gizonezkoak etxeko lanen ardura hartu ahala ohartzen dira ideologia maskulino zaharrak etxeko lanak espazio aske moduan definitzeko zuen joera okerra dela. Aitzitik, lanaz gain kate berberari lotuta daude: errekonozimendu eza, lanaren inbisibilitatea edo autokontzientzia eza.

Etxeko ardurak eta kezkak beregain hartzean baino ez dira ohartzen pertsonak, gizonak eta emakumeak, *hiru* esparru zeharo desberdin direla etxea (emakumeei aurrezarritako *lekua*), esparru publikoa eta pribatua (ikus: Murillo, 1996).

Izan ere, “emakumea beti da Bestea; sexuaren araberako lan-banaketa sistema sozial baten aginduak jarraitzen dituen auzi kulturala da” (Molina, 1994: 254). Esparru bakoitzak ez dauka berez eduki zehatz bat. Aitzitik, kulturalki daude definituta eta, beraz, kode jakin bat behar du: balorazio sozial bat dago guztiaren oinarrian, zeinaren bidez rol jakin batzuk femeninoarekin lotzen diren “etxeko esparruan” eta beste rol batzuk maskulinoarekin “esparru publikoan”. Baina, hori gutxi izango ez balitz, era berean, *leku* bakoitzerako balorazio bat *sortu* ahal da (emakumeak diharduen hura gutxiesten da, eta alderantziz).

Hein berean, ordea, ezkortasunean eta etsipenean jauzi orde, generoaren soziologiak argitara eman duen tesi horrek badu bere alde onik eta baikorrik: “balioak desberdintasunak sortzeko, mantentzeko eta berrekoizteko halako balioa badu, genero ‘deseraikuntzarako’ ere balio behar du” (Del Valle, 1996).

Baieztaipen horretaz baliatzeak froga ditzake diskriminazioa eta sexismoa, baztertuta geratuz arrazoiketa biologikoak oinarri harturik emakumei *lekua* aurrezartzea argudiatzen duen jarrera. Generoaren soziologiak egindako ekarpen

honek merezi du azterketa sakonagorik, naturaltzat jo izan diren zenbait jazoera ukatu eta aukera berriak zabal ditzakeelako.³¹

Gizonen eta emakumeen arteko auzia itxuraz dirudiena baino sakonagoko gaiei lotuta dago, ordea, gizarte industrialaren oinarrian baitago eginbehar eta portaera aurrezarrien jatorria (Giddens, 1991: 202-203). Rol maskulinoak eta femeni-noak aurrebaldintza izan dira lana (soldatadun lana) eta bizitza (etxeko lanak bere zentzu zabalenean) ardatz nagusi izan dituen gizarte industrialala ahalbidetzeko.

Familiaren soziologian nagusi izan den paradigma funtzionalistak arrazoi biologikoak eta psikologikoak argudiatuz bultzatu duen *hitzarmen ekonomikoak*, “gizona” familia-batasuna bermatzeko *hornitzaile materialaren arduradunatzat* jo du; eta “emakumea”, berriz, etxearen eta haurren babes eta euskarri emozionalaren hornitzaile. Familiaren baitan rol sexualen diferentziazio funtzional hori gizarte industrialaren zutabea izan da.

Zentzu horretan, ulertzekoa da Pateman-en (1995) haserrea teoriko kontraktualistekiko. Azken horiek, Pateman-en iritziz, jatorriko hitzarmenaren alde bat ezkututzen dute, zehazki, gizonen emakumeekiko boterea ematen dien “sexu-hitzarmena”. Jatorriko hitzarmenak, aldi berean, gizartea eta familia sortuko baditu ere, bien historia oso desberdina da. Gizarte-hitzarmena askatasun historia den heinean, sexu-hitzarmena mendetasun historia izango da. Pateman-ek kontraktualistek baztertutako bigarren hitzarmen horren inguruko gogoetak egingo ditu. Honela labur liteke sexu-hitzarmenaren edukia: “Emakumea gizonaren menpe geratzen da bere mendetasuna eta giza heriotza onartuz zaintzaren eta babesaren truke”.

Modernitatearen printzipioekin kontraesanean egonik, modernizazio-prozesuen ondorioz gatazkatsu bilakatzen hasi dira aipatutako egoerak. Berdintasun formala erreal bilatzeko ahalegin guztiek familiaren oinarri guztiekin topo egiten dute. Autodinamika industrialarekin orain arteko gizonen ekoizpen eta emakumeen berrekoizpen biografia osagarriak porrot egiten du, baita lan-banaketa eta familia-arauek ere. Bizikidetzat estamentalak eta modernoak bateragarriak egin dituen gizarte industrialak biluzik geratzen da gizonen eta emakumeen arteko gatazkarekin.

Modernizazio prozesuaren ondorioz, azken hamarkadetan emaniko indibidualizazioak aurrezarritako lotura sendo guztiak hausten ditu, ez soilik klase-gizartea, oro har bizitza eredu zehatz bat baizik. Zehazki, sexuen, familiaren eta klaseen osaketa kate berberaren bizitza-eredu egiten zituen gizarte industrialak.

31. Ahalegin horretan, argigarriak izan daitezke RORTYren (1991) ekarpenak, betiere gai honetara egokituta: sentimendu apur bat bestearekiko (ez arrazoiak baliatuta, irudimenaren bidez bestearen lekuan jarrita baizik), bestearekiko ulermena eta elkartasuna (lanaren zati honetara egokituz: sentsibilitatea genero auziarekiko berau delako “gu”-az hitz egitea oztokatzen duena); edo, kontingentziaz eginiko hausnarketak, absolutizazio forma berriak ekiditeko. (Liburua, bestalde, Euskadin asko, gehiegi, erabiltzen diren zenbait kontzeptu eta gogoeta argitzeko ere baliagarria da).

Horrela, gizonen eta emakumeen arteko auzian familia *ez* da euren gatazkaren kausa, gatazka-lekua baizik. Edo gatazka islatzen den leku bat. Izan ere, gatazka-aren kontzientzia hartzen da aukera berriak zabaltzen zaizkielako, eta bereziki emakumeei, agerian geratuz bataren eta bestearen egoera desberdina eta bateragaitza dela.

Adibide bat jartzearen: haurrak izatea erabakiz gero, bikotearen lanbide profesionala baldintzatzen da, horrek era berean bietako baten (lege subjektibo objektibizatuari jarraiki, emakumearen) mendetasun ekonomikoa sortzen du bere ondorio guztiekin, etab. Modernizazioak “ekarri”tako modernitatearen biziera pluralarekin, indibidualizazioarekin, nortasun maskulinoa “estereotipo” bezala auzitan dago (ikus: Arraiza, 1998).

Esan bezala, itxura batean dirudiena baino sakonagoko gatazka izanik, alderdi pertsonalaz gain, ezinbestekoa da erakundeen aldetik irtenbideak plazaratzen has-tea, irtenbiderako estrategia pribatua eta politikoa bateragarriak izatearen bidetik. Erakundeen aldetik bermeak ezinbestekoak dira formalki areagotzen ari diren berdintasunak egunerokotasunean islatzeko.

Erabilgarritasunaren ikuspegira mugatuz (eta ez sakonagokoa den balioen ikuspegitik, horiek oinarritzko arazoak ere badira): nolako erantzuna emango da emakume baten aldetik, haurtzaindegirik gabe, ziurtasun ekonomiko eta sozialik gabe, egoera berrietara egokitu gabeko lan-baldintzarik gabe, bikotekidearen hezi-keta eta gaitasun berak izan arren, haurra edukitzeak *etxera itzultzea* behartzen badu?

Arazo horiei gaur arteko erakunde-egitura eta bizitza-forma sozialetan ezin zaie irtenbidea eman. Izan ere, erakunde horiek, estamentu sexualaren oinarriekin, familia txikiaren irudi tradizionala islatzen eta sendotzen dute. Erakunde-egituren aldaketa gabeko ahaleginak antzuak dira.

Baliteke gizonen eta emakumeen harreman pribatuetan estereotipo sexualak birmoldatzea, baina ziurtasunaren sistema sozialak, hiri-antolamenduak, lan-merkatuak edota okupazio-sistemak bere horretan jarraitu bitartean, gehienera jota, (nahiko sinesgaitza dirudiena), desberdintasunen elkar aldaketa baino ez da lortuko, gizona bizikidetzatza feudal modernoan emakumearen orain arteko eginbe-harren arduradun eginaz, eta alderantziz. Gizonen eta emakumeen arteko desber-dintasuna berariazkoa duen erakunde-egituretan *ezin* daiteke berdintasunik eman.

Ahalegin antzu horrek, pentsamendu eta ekinbide zaharretan oinarri duela, gizarte “modernoaren” printzipioak hankaz gora jartzen ditu. Eta bestetik, familia eta sexuen artean emaniko aldaketak arazo pribatura murrizten ditu (edo, bestetik, azkenaldian ohiko bilakatzen ari den moduan, pribatizatu egiten du), horrek guztiak modernizazio sozialarekin eta kulturalarekin duen lotura oro baztertuz.

Ezinbestekoa izango da argiek ilunpean utzi dituzten emakumeak argitzeko saioan,³² emakumea proiektu ilustratutik at utzi duen *lekua izendatzeko boterea* baztertuko duen marko teoriko berria lantzea (ikus: Molina Petit, 1994). Espazioak izendatzeko boterea politikoa den heinean, edo feministek esan duten moduan “pertsonala” eraikuntza politikoa den heinean, legitimoak ez diren botere harremanen “deseraikuntzak” ere politikoa beharko du izan.

Heziketak bidegurutze-egoera bat sortu du: langabezia masiboarekin eta emakumeei aurrezarriak zaizkien lanpostuetako arrazionaltasun erreserbekin, lanbide baten jabe egitea oso zaila bilakatu da. Baina aldi berean, bikote eta familiara itzultzeak, emakume gazteetan bereziki, gero eta posibilitate urrunagoa dirudi.

Gizonen eta emakumeen desberdintasuna egun *ikusi* egiten da. Lan-merkatutik etxera itzultzea erabakiz gero, ageriko kontradikzioa sortzen da: heziketa bera, gaitasun bera eta aukera desberdina. Emakumeen gaitasun ezaren argudioa historikoki gaingiduta dago.

Egitan hauxe da jazotzen dena: emakumeak gai dira *baina* gizonak ez dute hori onartzen. Desberdintasuna pertsonala bilakatu da, oztopo biografikoa, egunerokoa eta legitimazio gabea. Eta, beraz, politikoa (Beck, 1998a: 107).

2.1.2.3. Lanaren gizartearen krisia

Hirugarrenik, gizarte garaikideak baduela desberdintasunik gizarte modernoarekiko frogatzeko, haustura ematen dela argudiatzeko balio dutenak, “lanik gabe geratu den lanaren gizarteaz” gogoeta labur bat egingo da.

“Soldatadun lanaren gizartearen” arabera pentsatuagatik ere gizarte industrialia, orain arte oso garbia izan den *lanaren* eta *ez-lanaren* banaketa zaildu egiten da, bai lan-denbora, bai lantokia malgutzearen ondorioz.³³ Modernizazio prozesuarekin kontuan edukitzekoa da, bere aukera eta arrisku guztiekin, “infraokupazio plurala” deritzonaren forma berrien bidez langabezia okupazio-sisteman barnerratu izana. Lana eta lanbidea, familiarekin batera, izatearen edo existentziaren ardatza izan dira industria-gizartean. Ez zaio alferrik gizarteari *lanaren gizarte* deitu.³⁴

32. Ikus, *arrazoirik gabe* geratzaren ondorioz, Susan Moller OKIN (1996) eta Irish Marion YOUNGek (1996) hiritartasunari buruz egingo dituzten gogoeta argigarriak eta osagarriak. Dena dela, irakurketak badu arazo garbi bat: arazoari irakurketa esentzialista batetik heltzen diola.

33. Mikroelektronikaren iraultza ezinbestekoa izan da aldaketa horiek burutzeko. Horrek erabateko ondorioak ditu lanaren ondorengo lerroetan aipatuko diren lan-egitura eta antolakuntzan, enpresen egitura, lan-kontratuetan eta lan-merkatuan. Honetarako eta, era berean, gaur egungo aldaketek zer nolako eraginak dituzten ulertzeko, oso modu labur eta kritiko batean jorratutako MENDIZABALEn (1998) lana laguntza handiko liburua (izan) da.

34. UNZUETAK (1998: 9) dio Alemaniako XXI. Soziologia kongresuan Dahrendorf-ek jaso zuela “lanaren gizarte”. XIX. mendean sortutako gizarte-egitura azaltzeko erabiliko da, zeinak ardatz

Gaur egun kontzeptu hori erabiltzeak zer-nolako arazoak dituen azalduko da jarraian. Itxura batean, ez hanka ez buru ez duen esaldi batek erabateko zentzua izango duela frogatu nahiko da: lanaren gizartea izendatzen den gizarte garaikidean enplegua desagertu egiten da.

Lanbidea izan da pertsonen buruzko oinarritzko informazioa eskaini izan duen bitartekoa, pertsonaren izaera goitik behera baldintzatu izan duena. Familiarekin jazo den bezala, ordea, orain arte izandako berme- eta babes-funtzioak galdu ditu lanbideak.

Lanbidearen onurek eta galerek gizartea oro hartu izan badute, lanbidea galtzarekin gizakiek industria aroko bizitza-ereduak galtzen dituzte. Industria-gizartea ekoizpen lanaren gizartea izan bada bere esparru guztietan (lanetik at, bizitza-eskemetan, alaitasunetan eta ondoezetan, desberdintasunen arazoiketagatik, eskubide sozialagatik, botere orekagatik, politikagatik eta kulturagatik), ondorio erraz eta garbi bat atera daiteke: “Ekoizpen lanaren sisteman aldaketa ematen ari bada, orduan *gizarte-aldaketa* bat ematen ari da” (Beck, 1998a: 176).

Landu diren gainerako ataletan bezala, badira aldaketak onartu nahi ez dituztenak, eta langabezia irizpide eta kategoria zaharrekin jorratu nahian dihardute. Oraindik hazkunde ekonomikoak enplegu betea berreskuratu dezakeela argudiatzen da.

“Berregitura profesional” batera mugatzen den jarrera honek, ordea, “gaur egungo okupazio-sistemaren printzipioak baztertu, eta arrazionaltasun anti-industrial baten hasiera bultza dezakeen saiakera teoriko eta politiko oro baztertu egiten du” (Beck, 1998a: 177).

Jarraikortasunari muzin egiten ez dion lanaren sistema-eredu horrek lan-hitzarmena, lantokia eta lan-denboraren estandarizazioa izan ditu oinarritzat. Baina hirurogeita hamargarrenera arte nagusi izan den ereduak lanaren eta ez lanaren bereizketa garbia egin badu, gaur egun enplegu betearen sistema hori ahultzen ari da lanpostuen galeragatik (Gorz, 1995a).

Automatizazioak bere agerraldia egin duen esparruetan, ez dago giza lanarekiko errukirik eta hazkunde ekonomikoan eta soldaten jaitsieran ere langabezia murrizteko itxaropenek bere zentzu guztia galtzen dute. Arrazoa garapen teknologikoaren ondorio logikoa dela dio Zuberok: egiturazko langabezia (Zubero, 1998a: 84).

nagusi bezala zituen lan abstraktua, luxura bideratutako lan-mota, merkatuak arautua, modu kapitalistan birbalorizatu eta enpresa moduan antolatua. Behin liburu hori aipatu denez, 23. orrialdean eta hurrengoetan, Unzuetak burutu duen arkeologia soziologikoa “lana” kontzeptuaren inguruan aipagarria da, besterik ezean, *gaur arte* lanari eman zaion zentzua industria-gizartearekin jaiotzen dela berresteko. Osagarri moduan, “jaiotza” bera langileria ikuspegitik jorratuko duen BAUMANen (2000) lana ikus daiteke.

Azpisistema ekonomikoaren arrazionaltasunak desestandarizazio-moduei ekiten die. Arrazionaltasun-prozesu desberdinen bidez malgutzen ari dira sistemen hiru zutabe nagusiak: lan-eskubidea, lanaren lokalizazioa eta lan-ordutegia. Horien ordeaz, ekoizpen, lan-harreman eta giza heziketa eredu berriak, eta lanaren antolakuntzarako eta lan-enplegurako neurri berriak agertuko dira.

Horiei lotuta dauden hitz-joko berriak dira besteak beste: enpresa deslokalizatua, deskontzentrazio espaziala, ekoizpenaren deszentralizazioa, *downsizing* estrategia, lan partziala, aldikako lana, etab. Funtsean, bitarteko horiek guztiek lanaren eta ez-lanaren muga gardena ilundu eta azpilanaren forma pluralak eta malguak orokortzea dute helburu.

Inork pentsa dezake horrek langabezia murrizteko aukerak eskaintzen dituela. Lehen itxura batean hala badirudi ere, Beck-ek (1998a: 186) ukatu ez ezik, aurkakoa jazo daitekeela ere aurreikusten du. Malgutasun horrek, era berean, aukera berri bat ahalbidetzen du. Hain zuzen ere, gero eta jende gehiagok aldi baterako harremanak izatea lan-merkatuarekin, bereziki emakumeek eta gazteek. Horrela hautsi egiten da luzaroan pentsaezina zirudiena: familia-lana eta parte-hartzea lan-merkatuan, eta ikasketak eta lan egitea. Batean jarduteak, baldintza berrieekin, ez du ekiditen bestean jardun ahal izatea. Garbi dagoen beste auzi bat, egoera berri horrek soldatan duen beherako joera da, zalantza eta arrisku sozialak eta desberdintasunak sortzen dituen.

Ikusitakoaren arabera, esan liteke urrats bat ematen dela. Lehen, berezitasuna industria-gizarteko sistema zen: lan bateratua eta bizitza osorako berritasuna duena, beste aukera bat langabezia izanik, hau da, enplegua edo langabezia. Orain, ordea, arriskuz jositako azpilan malgua, plurala eta deszentralizatua da berezitasuna. Eredu horrekin langabezia *ez* da onartzen, azpilan horietan txertatuta baitago.

Bestetik, arriskuaren gizarte honetan ikusteko dago zer-nolako ondorioak ekar ditzakeen “soldatadun lana kanpoan eta familia-lana etxean” bereizketa garbia iluntzeak, enpleguaren erregulazio ezaren eta sare-elektronikoen ondorioz, besteak beste.

Oinarrizkoak izan diren lantegia, lanbidea edo enplegua lanaren organizazio berrirako hutsal egiten dira eraikitzen ari den azpilanaren sistemara egokituz. Gauza bitxiak gertatzen dira lan-harremanetan industria-gizarteko kontzeptuak erabiltzen jarraituz gero: aurkakoa izan dena, lan formala eta informala, enplegua eta langabezia, malgua eta plurala den sistema berrian elkartzen dira.

Lanaren organizazio sozial zaharrak eta berriak bateratuz, arrazionaltasunaren hazkundera bideratu nahi da efikazia, zenbaketa edo kontrola arloetan, besteak beste. Muturrekoak diren bi jazoera, industria-gizarteko lan-mota eta arriskuaren gizarteko lan-mota, ematen ari dira hein berean, eta badirudi, ikusteko dauden

aukera, arrisku eta ondorioekin, bigarren ereduak hedatzen joango dela lehenengo ereduak gainditzera helduz.

Halaber, arrazionalizazioak lanaren gizartearen euskarriak mehatxatu eta, bide batez, lanak gizartearen printzipio egituratzaile izateari uzten dio. Hori gero eta nabarmenagoa da gaur egungo lan-politika eta mikroelektronikaren eraginaren bidez areagotzen den ekoizpen- eta lan-prozesuen denboraren zein espazioen banaketarekin.

Botere-harreman berriak ere sortzen dira, lan-hitzarmen eta lan-merkatuaren harremanak lehertzearekin. Toki jakin batean kokatutako lan-ekoizpen prozesuaren zatikatzearekin eta lan-denbora eta zikloen harreman egonkorraren hausturarekin, langileei automatikoa izan zaien nortasun komuna, elkartasuna eta bizitzeko-forma homogeenak eratzea zaildu egiten zaie, ezinezko bilakatzen dela ez esatearren (ikus: Offe, 1993).

Aurrez esandakoa gaineratuz, lan-egoeraren gorabeherak enplegu-modu berriak bilakatzen dira, non enplegu betearen xedea eta lan mugagabearen nolakotasuna baztertu egiten diren. Halako jendearen heziketa okupazionala, oro har, kualifikazio ertainekoa da, eta horrek oztupoak jartzen dizkio lanpostuan ezinbestekoa izateko ahalmenari.

Izan ere, ekonomia-eraginkortasun goien baten izenean, lan-merkatuaren beharrak lan-esku ezinbestekoaren eta aldakorraren arabera egituratu dira. Eta, horren ondorioz, enpresaren zuzendaritza tekniko edo administrazio-zuzendaritzaren esku geratzen da ezagutza eta gaitasun beharrezkoa (Martínez eta Simón, 1997: 72).

Gizartearen erronka honako hau da (Martínez eta Simón, 1997: 72-73): Mezu thacherianoa mantendu, lehiakortasuna ardatz duela (epe ertainera eta luzera askatasun erreal ezak demokraziari dakartzkion arazoekin). Edo, krisian dagoen “lanaren gizartea” gizartea integratzeko gai ez dela onartuz, integratzaile eta bizitzeko modu berrien bila ekin. Azken horri heldzeak, arazoak egiturazko izaera duela onartzea du baldintzat. Horrek, berriz, orain arteko neurri asistentzialetara mugatzeko joera gainditzeko eskatzen du, politika ekonomikoa eta soziala bateratuko dituen estrategia baten bidetik.

Ahalegin horretan kontuan hartzekoak dira Gorz-en (1995b) gogoetak, are gehiago, ideia horiek lan honen sakoneko mezuarekin bat datozenean. Halaber, nagusitu izan den modernitatearen ereduak, bere barnetik (atal honetan aipatu eraldaketa teknikoaren eta industrialen bidetik), gizarte-eredu berri baten agerpena ekar dezakeela adierazten du Gorz-ek. Lanaren atal honetan, soziologoaren ekarpenetako batek du garrantzia, sozialismoaren inguruan egingo dituen hausnarketek, hain zuzen ere.

Arrazionaltasun ekonomikoak baldintzatu dituen mundua ikusteko bi eredu nagusiak kritikatu dituzte, hau da, sozialismo zientifikoa eta ekoizpenerako eredu kapitalista. Lehenengoa gaituta egonik, azken horri aurre egitea da gaur egungo erronka nagusia. Azken batean, bitartekoak teknifikatuta, eta egunerokotasuna baldintzatzen duten erabakiak profesionalizatuta eta industrializatuta dauden ereduak baztertu nahiko da.

Horretarako *ez* da nahikoa izango hazkunde ekonomikoaren fruituak modu justuago batean banatzea. Ezta lanaren birbanaketa eta langabeziaren murrizketa soilik ere. “Denboraren politika” deritzonaren helburua automatizazioari, guztiontzako etekina ateraz (denbora aprobetxatuz esaterako), komunitate-bizitza eta norberaren garapena guztiaren ardatz izango dituen ereduak bultzatzea izango da. Izan ere, arrazionaltasun ekonomikoak baldintzatuko *ez* dituen *esparruen sorrera* bultzatu nahiko da bakoitzak bere beharrak, nahiak eta bizitza administratu ahal ditzan. Lan honen beste atal guztietan gerta daitekeen moduan, gaur egungo ereduarekin jarrai daiteke bere muturreraino, baina guztietan ere ezagunak diren ondorioekin.

2.1.3. Erakunde-krisia

Lanaren atal honetan landu berri diren gizarte garaikideko modernizazio horiek guztiak gizarte industrialaren kategorien bidez azaltzeko ezinezkoak izanik, gizarte industrialaren proiektua ahalbidetzen zuten formak (klaseak, familia nuklearra, lan profesionala, zientziaren ulerkuntza, aurrerapena, demokrazia) auzitan daude.

Arrazionaltasunak bere hitza ez betetzeak (arrazionaltasun burokratikoaren aurka) eta kontrolerako gaitasun ezak (edo, Beck-en hitzetan, modernizazioen arrakastek) modernitate arrunteko kategorien bidez garatutako pentsamenduekiko eta ekintzekiko ezinegona sortu du jendearengan. Arrazionaltasunaren arau-sistemak, autoritaterako eta ezarpenerako botereekin, *bere euskarriak leherraziti ditu* modu sistemikoan eta sistematikoan.

Beraz, ikusitako guztiaren laburpen modura, modernizazio-prozesuak izadia gizartearen aurkako edo bestaldia moduan ulertzeko joera hankaz gora jartzeaz gain, gizarte industrialari berariazkoak zitzaizkion sistemaren barne-zutabeak ere botatzen ditu. Zehazki, zientzia eta teknika ulertzeko era, edo pertsonen bizitzetan hedatzen diren ardatzak.

Horren ondorioa modernitatearen erdigunean “erakunde krisia” da. Testu-guru honetan modernizazio erreflexiboa ulertu behar da, enpirikoki zein analitikoki, autokonfrontazioa bezala. Arrazionaltasunaren euskarriak birmoldatu behar diren honetan norbanakoa bera da arazoa, eztabaiden ardatza da (erakundeak eztabaidagai izateagatik). Erakundeak auzitan egonik, horiek definitu duten gizakia ere badago auzitan.

Arrisku ekologikoaz hitz egitean ere, komeni da arazoa eztabaida-maila honetan kokatzea. Arrazionaltasunaren inguruko oinarritzko egitura, joera eta jarrerak kolokan jartzen badira, aurrezarriak, zehaztuak eta bide bakarrekoak (unilateralak) diren *ordena-arazoen* ordeztan, behin betiko irtenbiderik ez eta anbibalentzia ezaugarri nagusizat duten *arrisku-arazoak* agertzen dira.

Jazoerak ordena-arazo moduan ulertzearekin, gizarte industrialak arazoak eta mehatxuak konpontzeko ziurtasuna adierazten du. Efektu negatiboak ekintza arduratsu eta kalkulagarri baten ondorioak besterik ez lirakeke izango. Modu horretan bere ondorio suntsitzailak sistemarako oharkabea, berebiziko ardurarik erakutsi gabe, iragaten uzten dira, eta noski, arriskuak etengabe metatzen joango lirakeke amaierara heldu arte.

Aldiz, “arrisku-arazo” moduan ulertzearekin, bere ondorio sistematikoak kontuan hartzen dira, eta horrek arazoa erakundeetako ia zateka ekarriko zukeen. Bigarren aukera horrek gizarte garaikidea eztabaidagai ezartzea eskatzen du (Beck, 1994: 22). Modernitatearen krisia litzateke, arazoak ez leudeke unibozitatera eta determinabilitatera zuzenduta. Gauzak horrela, hiritarrok kontzientzia hartu behar dugu modernizazio erreflexiboarekin gatazkak erakundeen baitan ematen direla, (bigarren fasea posibilitatuko zukeena). Alegia, erakunde-politiken garapenerako alternatiba eta printzipioen artean. Eta ez erakundeetatik kanpo, edo erakundeen mugetan, edo Habermas-ek esan bezala, sistema eta bizitzaren arteko harreman-lekuan.

Aurreko ataletan eta hurrengoetan argudiatuko den moduan, hortik lan honen ondorio nagusietako bat eratortzen da: arriskuak industria-gizartearen autopolitizaziorako motor bilakatzen dira. Are gehiago, arriskuaren gizartean politikaren kontzeptua, lokalizazioa eta bitartekoak eraldatzen dira (Beck, 1998a: 237).

Horren zergatia arriskuen izaeran datza: arriskuek *zer ez egin* esaten dute. Baina ez *zer egin*. Modu “ziur” eta “argian” irtenbidea ematen zitzaien “ordenako arazoekin” ez bezala (*modernitate ziurra*), arrazionaltasun teleologikoaren *ordena-inposizioaren* ondorioz emaniko “arrisku-arazoen” (*zalantzetara itzulerak*, “atzeragarritasunak”, anbibalentziak) *kultur onarpena* eskatzen dute. Eta ez, garai batean jazo legez, adituztat jo zirenen iritzia soilik.

Erabakiei norbanakoak eman behar die irtenbidea. Guztiok bilakatzen gara aditu, inor aditu ez izatearen ondorioz (ikus, bereziki: 2.1 atala).³⁵ Esan beharrik ez dago, gaur egungo egoeran, historia sozialaren motor arrazionaltasun teleologikoa-

35. Dena dela, atalean ikusi den moduan, horrek ez du esan nahi arriskuak gizarte konstruktibismoari (DOUGLAS eta WILDAVSKY, 1982) lotuta daudenik, objektiboak baino norbanakoen balioen eraginpean egonagatik ere. Honen ildotik, eta gaizki-ulertuak ekiditeko, BECKek arriskua hizpide duela, errealismoaz eta konstruktibismoaz egindako hausnarketak aintzat hartzekoak dira (1999), baita lehen aipatutako (ADAM, BECK eta VAN LOON, 2001) liburuko bere artikulua ere.

ren ordez *efektu kolateralak* bihurtu diren honetan (ikus 3.3. atala), ez erabakitzea ere erabaki bat dela.

Beste hitz batzuetan adieraztearren, *arriskuen* gainekoizpenak *aberastasunaren* gain ekoizpenari itzala egiten dion une beretik, arriskuaren eta arriskuaren pertzepzioaren desberdintasunak bere legitimazioa galtzen du. Desberdintasun horrek erabateko garrantzia du. Izan ere, arriskuen definizio zientifikoarekiko arrazionaltasun *monopolioa*, aipatutako desberdintasunaren *araberakoa* da.

Arriskuaren eta arriskuaren pertzepzioaren desberdintasuna mantentzen jarraitzen den heinean, arriskuak eta beronen zehaztaperen objektiboa *adituen menpe* geratuko da. Modu honetan, “zientziak teknikoki arriskuak definitzen baditu, eta hiritarrek arriskuak hauteman”, baieztaperen horri erronka egiten dion saiakera oro irrazionaltzat jotzen da. Eta teknologien aurkakoa. Hiritarren jarrera ezkor hori, informazio-arazoa baino ez omen litzateke izango, defizit kognitibo izenez eza-guna.³⁶ Horren ondorioz, behar adinako informazioaren jabe izanez gero, hiritarrek ez omen lukete halako jarrera ezkorrik erakutsiko.

Baina arriskua eta arriskuaren hautematea modu horretan bereizten jarraitzen dutenen jarrerak ez du zilegitasunik. Lan honen 2.1 atalean argudiatu den moduan, arriskuaren definizio zientifikoa berresten ez dutenen jarrera ez da irrazionala, segurtasunaren filosofia berria behar da, segurtasun teknikoaren filosofiatik harago doana. “Onarpenaren kultur premisak, arriskuaren azalpen tekno-zientifikoan bilduak daudenak, faltsuak dira” (Beck, 1998a: 65).

Arriskuaren aditu teknikoak oker daude onargarria den eta ez den bereizketan, hots, beren kultur premisen ziurtasun enpirikoan. Aurrerapenean fedea duen arrazionaltasun tekniko-zientifikoa etengabe ari da hiritarren oposizioa ezeztatzen. Beck-en ustez, “zientzia eta teknologiarekiko kritika eta ezkortasuna ez datza kritikoen irrazionaltasunean, arrazionaltasun tekno-zientifikoaren *ukapenean* baizik” (1998a: 66).

36. Defizit kognitiboari emaniko erantzunak gutxi ez direla lan honetan, datu enpiriko bat aurkez daiteke. Hain zuzen ere, Europar Batasunak 2001ean zientziaren eta teknikaren inguruan argitaratutako eurobarometroa. Bertan ikusten da, zenbat eta ezagutza eta informazio handiagoa eduki, hainbat eta zientziarekiko eta teknikekiko hiritarren jarrera ezkorragoa eta matizatuagoa dela. Espainia, Portugal eta Grezia dira baikorrak eta aldekoak honesebestez. Ikus, ordea, ETXENIKE irakasleak 1995eko UEUko ikastaroetan aurkeztutako komunikazioa. Berriki, Eusko Ikaskuntzaren XV. Kongresuan ere, Hannot Rodriguezen komunikazioak (“Comunicación científica en el Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación 2001-2004”) sortutako eztabaida interesgarrian, Etxenikek bere oinarri mugiezinak erabili zituen. “Euskal Zientzia eta Kultura, eta Sare Telematikoak 2001”. Azaroak 28-30, Donostia.

Eta erantsiko du:

Modernizazioaren arriskuen inguruko kontzientzia arrazionaltasun zientifikoaren *erresistentziaren* aurka ezarri da. Horretara bultzatu duten arrazoiaren artean daude akats zientifikoak, aurreikuspen faltsuak eta hiritarrekiko gutxiespenak. Arriskuen kontzientziazio eta onarpen sozialaren historiak zientzien *desmitifikazioaren* historiarekin bat egiten du. Onarpenaren beste aldean “ez ikusi, ez entzun, ez usaindu, ez jakin” zientifikoaren ukapena dago (Beck, 1998a: 66).

Gauzak horrela,

Teknikaren zientziak, gero eta garbiago, geldiene historikoaren une modura agertzen dira, hau da: XIX. mendeko oinarri zaharkituekin jarraitzen dute lanean eta hausnarketan (modu honetan arriskuaren gizarteko arazoak nahastu egiten dituzte klase-gizarte industrialeko arazoekin), edo arriskuari aurrea hartzeko erronkari aitzin egiten diote. Bigarren kasu honetan, arrazionaltasuna, ezagutza eta praxia, zein hauek egokituta egon diren erakunde-egiturak birmoldatu beharrak dauzkate (Beck, 1998a: 80).

Azken aukera horrek beharrezkoak ditu, besteak beste, “teknologiaren garapena eta teknologiaren aplikazioa bereiztea”, “teknologia interes publikoaren auzi modura planteatzea”, “efektu kolateralen eta arriskuen ekoizpenaren helburua ez onartzea” eta, beraz, “garapen teknoindustrialarekiko legitimazio galera onartzea”. Modernizazioa modu autistan ulertu ordez, “mediazio intersistemikoaren erakundeak” azpimarratuko lituzke modernizazio erreflexiboak. Bilakaera ez legoke autodinamika industrialaren eskutan: gizarteak egingo luke, eta gizartearen zerbitzura.

Honako hau litzateke Beck-en tesia:

Zalantzak, modu erreflexibo batean aplikatuta, bere gardentasun faltsuak eta ahulak apurtzen ditu, eta ardura eta atzeragarritasunaren printzipioetatik abiatuta, modernitate berri baten eredu bilaka liteke. Zabaldua dagoen uste baten aurka, zalantzak guztia —zientzia, ezagutza, kritika edo moralitatea— berriro izatea posible egiten du, baina modu desberdin batean” (1994: 45-51).³⁷

Sistema sozialak mantendu egin dira bere babes kulturaren topatu duten arte. Hala izan da *erakundeen gizartea* eta *norbanakoen gizartea* bateragarriak izan

37. Aipatutako orrialdeetan, arrazionalitate instrumentala eta adituek publiko profanoari ilustratzea eredu zituen modernizazio “arrunta”, “ziurra”, “ortodoxoa” gainditzeko gogoetak egingo ditu Beck-ek. Lan honen hirugarren atalean, tesia irizpide harturik, modernizazio erreflexiboaren azalpen orokorra egingo da. Funtsean, kontramodernoak (edo kasuaren arabera irrazionalak) diren ereduak gainditu nahiko dira, eta anibalentziari (edo anibalentzia existentzialari) leku egin nahiko zaio. Innerarity eta Innerarity-k, Beck-ek edo Sánchez Capdequí-k, besteak beste, aipatuko duten “hirugarren entitatea” izango da hizpide.

diren artean. Baina bataren eta bestearen norabidea alden du ahala, sistema sozialaren metafisika hutsala egiten da. Horren ildotik, Beck-ek (1996: 244) Luhmann-en muturreko jarrera neoplatonismo funtzionalistatzat joko du.³⁸

Funtzionalismoaren gogoetak hankaz gora jartzen dira, rolen eredu funtzionalistak azalduko zukeen baino elkarrekintza konplexuagoetan eraikitzen baitira norbanakoak. Horrela ulertu behar da subjektu indibiduala gizarteko erakundeetara itzultzen delako aipua, *politikoaren birjaiotze ez erakundetua* bezala ere definitua izan dena (Beck, 1994: 32).

Zentzu honetan, modernizazio erreflexiboak, gatazkak erakundearen baitan ematen direla esan nahi du. Alegia, erakunde politikoaren printzipiorako eta garpenerako hautabideen artean. Arriskuen inguruko definizioen lehia publikoa sortzen da, eta ez gizakiaren edo izadiaren osasunaren kalterako ondorioena soilik, horrek guztiak gizartean, politikan, ekonomian, zuzenbidean duen ondorioena ere bai.

Kapitalismo industrialak politikatik babestu zituen erabaki-esparru guztiak, zientzia, teknika, sektore pribatua, hiria edo egunerokotasuna, modernizazio erreflexiboaren gatazka politikoan agertzen dira. Kontzentzurik ez dagoenez, eta subjektuengandik askea balitz bezala jarduten zuen gizarte-ereduak eta sistemak bere legitimazioa galdu ahala, mugimendu txiki batek guztia jartzen du auzitan. Gizarteak aitortutako arriskuek eduki politiko garbi bat daukate: Gaur arte apolitikotzat jo izan den hura (industrializazio-prozesuaren kausak) *politiko* bilakatzen da.

Haustura bat ematen da. Arrazionaltasunaren euskarrien eta industria-gizartearen autokonprentzioaren inguruan gatazka ematen da. Modernizazioak, gizarte industrialaren modernizazio-prozesu autonomoaren itxurapean, *bere* euskarriak eta ardatzak *bahitzen* ditu, etengabeko jardun horrek *kontzeptuen eta errealtatearen artean haustura* ekarriz.

Horrek guztiak berarekin ekar dezake, Weber-ek aipatutako erakundearen kaio-lapetik norbanakoak askatzea. Edo ekintza, subjektibitatea, gatazka, jakintza, kritika, sorkuntza izeneko kontzeptuen itzulera (Beck, 1996a: 229). Modernizazio industrialak eta bere itxitasuna eztabaidara eta kritikara zabaltzen dira (Beck, 1996a: 230).

Alderdien irmotasunari aurre eginez, gizarte-mugimenduak izan dira mundu mehatxatuaren auzia agendan sartzea lortu dutenak. Axolagabekeria erakundetuaren nahien aurka, gai berriak baitaratu dira zalantza jositik eta zatikatutik jarduten duten talde moralizatzaileen bidetik. Baztertuak eta kriminalizatuak diren taldeen

38. Azken soziologo alemaniar honek arriskuaz eta modernitateaz egindako lanen artean azpimarratzekoak dira gaztelaniaz: LUHMANN (1992), (1996) eta (1997).

aldarrikapenak programa politiko edo gobernu adierazpenetan txertatzen dira, gobernu bat jausarazteko aldagai bilakatzeraino.

Arriskuaren gizartea, izatez, gizarte autokritikoa da. Erakundeetan boterearen auzia planteatzen da hautabideak proposatu eta taldeak elkar jotzen dutenean. Ohikoak izan diren adituei kontrako adituak aurrejartzen zaizkie, esaterako, organizazio ekologista bateko abokatuak, kimikoak, ingeniariak, soziologoak, etab.

Talde profesionalek inteligentzia ekoizlea eta gizartean gauzak antolatzeke boterea dute eta oposiziorako bidea ahalbidetzera heltzen dira berdinak ez diren gogoetak eginez gero. Adituen behepolitika erreflexiboa gauzatzen da, alegia, profesionalen eta adituen ekintza alternatiboetako arrazionaltasunak eta aukerak garatzen dira.

Teknokrazia-prozesu teknoekonomikoan hautabideak plazaratzen diren unetik amaitzen da, bide horretatik gatazka berriak sortuz erakunde, alderdi, interes-talde eta modu orotako esfera publikoen baitan eta euren artean. Era berean, sistema sozialen autoerreferentzialitate indiferentearen irudia zapuzten da (Beck, 1994: 69). Ekintza alternatiboen aukerak sistemen heriotza dakar. Lehia hau Jauregi-k (2000) ondorengo hitzekin azalduko du: korporazio transnazionalen politikari (parapolitika) aurre egiteko, politika modu berrien (behepolitika) beharra.

Egin berri den azalpena funtsezkoa da hurrengo atalean egingo diren hausnarketak ulertu ahal izateko. Hitz bitan, eta gerokoa laburtuz, arriskuaren gizartearen teoriak, gizartearen teoria kritikoaren oztopoak eta ezintasunak gainditzen ditu. Autokritika sozialaren teoria da (Beck, 1997a), eta modernizazio erreflexiboa *zeharkatzen* duten gatazken analisisa egiten du.

Hemendik aurrerako lerroetan ikusi ahalko den moduan, gizartea subjektuekiko askea marrazten zuen teoria sistemiko klasikoa autoritate gabe geratu da. Kontzentzurik ez eta, ondorioz, legitimitate guztia galdua duen gizarteko botere-esparruetan aldaketak ematen hasi dira.

Hori guztia ulertzeko, eta legitimatzeko, ez dira baliagarriak gaur arteko antolamendu neurriak, printzipio eta kategoria etiko legalak eta jardunbide politikoak. Neurtuta eta aurrezarrita zetorrenari amaiera ematen zaio. Ezin da goitik ezarri, ezta eredu funtzionalistaren bidetik ere. Aitzitik, guztia dago erabakitzeke, egitekotan, behetik egin beharko dena.

Nolakotasuna eztabaidagai izanik, gizarte industrialeko erakundeak beren printzipiorik gabe geratzen dira; kontraesankor bilakatzen dira, gatazkatsu eta norbanakoen menpeko, euren onarpena behar dutelako.

Modernizazioaren kontzentzu klasikoarekin, linealtasunaren oinarriarekin, enpiriko-teorikoki apurtzen du modernizazio erreflexiboak. Orain, *norbanakoen*

mugimendu sozial moduan ulertutako gizartea nola ahalbidetu da auzia. Zentzu oro galtzen du aktoreek berriro ekoizten dituzten egituren irudiak.³⁹ *Egiturak ekintza prozesu eta aldaketa sozialaren objektu izatera iragaten dira.*

39. Orain arte nagusitu izan diren jarreraren laburpenenerako eta bildumarako, ikus: SZTOMPKA (1995: 125-204) eta SOLÉ (1998: 13-203).

3. Modernizazio erreflexiboa

3.1. AUTO)SUNTSIKETA SORTZAILEA

Arriskuaren gizarteak testuinguru sozialaren euskarriei buruz autoerreflexioa, eta arrazionaltasunaren oinarrizko egitura eta gaurko ohiturekiko berrikusketa egitera behartzen du (Beck, 1996a: 212). Gizartera itzultzen da zalantza. Lan honen bi ataletan gizarte garaikidea trantsizio-une moduan uler daitekeela azalduko da. Modernizazio erreflexiboa maila orokor batean azalduko da lehenik eta behin, haustura-egoera batetik sorkuntza-fase batera, eta beraz, testuinguru berri batera iragateko aukera dagoela frogatu nahirik. Ondoren, politikaren esparrura bideratuko da eztabaida, zenbait kontzeptu zaharrituta geratu baitira, besteak beste, nortasuna, politika, demokrazia modernoa eta norbanakoa. Esentzialismoak gaindituz, “askatasuna” eta “pluralismoa” aintzat hartu eta instituzionalizatuko dituen ereduaren ezinbestekotasuna azpimarratuko da.

Bi atal horietan landuko dena *gertagarria* izan dadin, ordea, betiere bada aurrebaldintzarik: hautabideak eta *anbibalentzia* onartzea (Bauman, 1996). Eta horren ondorioz, ekintza politikorako ate berriak zabaltzen direla onartzea eta sinestea. Aurreiritziak, esentzialismoak, betierekotasunak, naturalizazioak eta unilateralismoak, gainditu behar dira.

Horri ekin aurretik sarrera txiki bat egingo da. Bi atal nagusiei lekua egin aurretik, bai zer-nolako beharra duen gizarte garaikideak urrats berri bat emateko, baita zer-nolako zailtasunak eta oztopoak dauden urrats hori emateko zenbait erakunde eta talderen jarrerengatik ere, azalduko da jarraian. Edo aurrez esandako hitzekin adieraztearren: anbibalentzia onartzeko erronkak zer-nolako zailtasunak dituen erakutsiko da ondoko orrialdeetan. Dogmatikoa den gizarte modernoa gainditzeko talde, erakunde eta botere desberdinek ipinitako harresiari nola aurre egin hausnartzea funtsezkoa da.

Teknokraziaren (edo aukera bakarraren *politikaren*) ordez, politikak lehentasuna hartu eta protagonismo pluralari, hautabideei, anbibalentziari atea irekitzeko Beck-en ahalegin honetan, hori guztia gertagarri egiteko irakurketa baikorrak Inglehart-en (1991 eta 1998) “mobilizazio kognitibo” eta balio postmaterialisten gogoeten bidez gara litezke. Aldiz, Ripalda (1999a) ezkorragoa da, protagonismo

pluralaren planteamenduen beharra ezinbestekoa iruditu arren. Izan ere, *governabilitate kontzentzuatua* axioma nagusizat duten gizarteetan, errepresentazio demokratikoa bera ere “gehiegizkoa” izanik, jendearen kontrola helburu (1) eta politikaren monopolioa bitarteko (2) ditu Estatuak (bortizkeria behar denean soilik erabiltzen da, Francoren azken faseetan sortutako “gutxieneko bortxaren ideia” kasu), gizartetik jaio daitekeena kaltegarritzat joz. Ripalda-ren ezkortasun horri, pentsamendu modernoak gauza oro absolutu, behin betiko eta definitibo bilakatzeke duen joera erantsi ahal zaio.

Baliteke, ordea, bi baieztapenak, Inglehart-en baikortasuna eta Ripalda-ren ezkortasuna, halaberharrez osagarriak izatea. Hori da lan honetan agerian utzi nahi dena. Izan ere, modernitate industrial-kapitalistak demokraziarekiko izan duen kontzepzioa aldatzera bultzatzen dezakete honako bi jazoera hauek:

- Bai belaunaldi berrietan heziketak eta balio berriek demokrazia formalarekiko, eta erakundeetatik erakusten den jarrera itxiekiko eta ilunekiko duten gutxiespenak.
- Bai arriskuaren gizarteak gizarte garaikidea *mugan* bizi dela frogatzeak. Era orotako fundamentalismoak, krisi ekologiko globala, belardia txukuntzeko sastraken “garbiketak”, txirotasuna, etab.

Bestalde, inoiz baino beharrezkoagoa da aldaketa hori, politika demokratiakoaren heriotzarako arrazoiak loratzen ari diren honetan. Esaterako, gaur egun, demokrazia liberala eta kapitalismo demokratikoa gauza berbera balira bezala kontzeptualizatzen dira, eta modu honetan, demokraziaren dimentsio politikoa zuzenbide-estatura mugatzen da, demokraziaren mobilizaziorako eta “gatazkarako” joera murrizten duena.

Era berean, azaldu den moduan, komunitatetik baztertuak diren taldeen marjinezioak joera hazkorra du, era orotako mugimendu antiliberaletarako aukerak dakartzana.

Aipatu berri diren bi baieztapen horien ildotik, “Holokaustoa” gizarte modernoak bultzatu dituen *oinarri* batzuk ezean, ez zela posible izango adierazten du Ripalda-k (1999a: 83-85).⁴⁰ Eta komeni da azken urte luze hauetan zenbait adituk berretsi duten baieztapen hori kontuan hartzea. Nazismoa garai eta toki jakin batean eman zen. Baina gizarte garaikideak estrukturalki antzeko efektuak lor ditzake haren beharrik gabe. Izan ere, kontzentrazio-esparruak arrazionaltasun burokratikoak bultzatutako bazterketarako eta marjinaziorako logikaren muturreko aldaerak liriateke. Alegia, nazismoa gizarte modernoaren salbuespena izan beharrean, gizar-

40. Ripalda-ri (1999: 83-84) jarraituz egingo diren hausnarketak modu sakonago batean lantzeko, ikus: BAUMAN, 1997.

te modernoaren *muturreko aldaera* bat litzateke.⁴¹ “Anekdotikoak ez diren ezaugarri komunak ditu gizarte garaikideak Nazismoarekin”, gizabanakoei zentzua eta esanahia ematen dien lotura oro sistematikoki suntsituz, biziraupenerako atomo eta lehiakor izatera murrizteko joera ere ezaugarri propioztat baitu gizarte kontsumistaren estetikak.

“Holokaustoa” ahalbidetu zuten gizarte modernoaren zazpi oinarriak aurkeztuko dira (Ripalda, 1999a: 84), lan honen orrietan eginiko gogoeta guztietan era batera edo bestera islatuak izan eta izango direnak:

- “Erabateko abstrakzioa mugatua den errepresentaziorako-teknika politikoaren bidez agintzen dutenen hierarkia naturalaren legitimazioa.
- Gizarte-bizitzara bortizkeria, teknika bilakatuta, azalerratzea eta Estatuaren aldetiko bortizkeriaren administrazioa kontrolatzeko gizartearen aukera eza.
- Baztertu estrukturalak dituen gizartearen diseinua. Bere ereduak: kirurgia (estirpatu, erradikatu, kondenuatu) eta “jardineria” (ordena, kontrola, gobernabilitatea).
- Diseinu horren zerbitzura jarriko dira elite zientifikoa eta intelektuala.
- Zientziak (bereziki Ekonomia), modu instrumentalean definitua, neutralitate etikoa eta sentimenduen indiferentzia zabaltzen ditu.
- Lan industrialaren eta burokratikoaren banaketak eta muturreko mediazio teknologikoak norberaren ekintzaren ondorioekiko despertsionalizazioa eta arduragabekeria sortzen dute;
- Politikaren subjektu pasiboak (eta unea iristean, bere biktima potentzialak) arrazionalki jardutera behartuta daude, baita euren interes arrazional indibidualen aurka ere. Horren guztiaren emaitza portaera konformearen orokortzea da, eta modu arrunt batean esanda, gehiengo isilak” (Ripalda, 1999a: 84).

Aipatutakoa aipatuta, protagonismo pluralaren beharrean, *ikuspegi-aldaketa* bat bultzatzea nahitaezkoa bilakatzen da. Horrek ezinbesteko baldintza du, ordea, politikaren inguruko ikuspegia, bere zentzu zabalenean, aldatzea. Beharrezkoa da *politikaz* nagusitzen den ikuspegi orohartzailea eta absolutua baztertzea. *Arau-*

41. Nazismoa zuzenean bizi izan zuen Imre KERSTÉSZek (2000) bere bizipenak jasotzen dituen liburua eta DAVISena (2001) alderatzea komeni da. Biek ere errealtate zehatzak eta jakinak kontatzen dituzte, eta, beraz, desberdintasunak ukaezinak dira. Baina sakoneko mezu komunikatera daiteke arretaz irakurri gero. Lehenengoak, nazismoaren garaian lan- eta kontzentrazio-esparruetan bizi izandakoa kontatzen du; bigarrenak, Los Angeles eta Las Vegas-eko gertakariak eta Kaliforniako espetxe-politika.

turiko kontzentzuak, gizartearen gehiengoak berretsia izanagatik ere, *ezin* dezake norberaren zentzia (norberaren/taldearen buruarekiko esanahia) eraikitzea eta besteei ezagutaraztea oztopatu.

Denboran eta espazioan hain urrutira joateko beharrik ez dagoela egunkariek erakutsi arren, lehengo adibideari jarraituz, “mundu nazia” definitu, eta oposizioaren eraikuntzarako batetik, naziaren ikuspegi sinplista eta, bestetik, “bereizketarik gabeko bestea” erabili ziren. Mundu artifizial horren sorrerarako aukera bakarra gizarte demokratiko eta liberal baten baitan eman daitezkeen gatazkak eta aniztasunak ezabatzea zen.

Gaur egun, oraindik ere, hedatuta dago, bai “nortasun kulturala eraikuntza soziala eta politikoa” dela, bai “errealitate anbibalentea” dela *baztertzen* dituzten jarrerak eta portaerak. Ez al dira ba espainiarra eta euskalduna nortasun kulturalaren ikuspegitik sarriegi izendatzen, substantzialak balira bezala definituz eta mugatuz? Esentziak hartzen du lehentasuna, ordenarekin identifikatzen dena, eta esperientziak baztertzen dira, hau da, existentzia gutxiesten da. Marko juridikoak hartuko du errealitatearen ardura, eta ordenak Herria simulatuko du.

Bata edo bestea izatearen ideia hauek Sánchez Ostiz-ek (1998) bere bizipenak —kritikagarri edo susmagarri, baina bereak— oinarri dituela jasotzen ditu:⁴²

42. Lehendik ere baduen arren ondoko pasarteari osagarria izan dakiokkeen libururik, berriena aipatzearen, *Las armas del tiempo* proiektu literarioaren barruan, *El corazón de la niebla* (2001) irakurtzea gomendagarria da. Gonbaraziorako ikus, Txomin Agirren *Garoa*: “Sustrai txarrak edonun ta edonoiz eman dezake kimu berria, ta gizonak dauden leku danetan oidira gaiztakeriarako sustraiak. Eztet nai egiaren argitasuna estali: orain ere azaltzen da gure artean otsokotarren bat edo beste; baña, esan dezagun gure biotzaren poztasunerako, ez urietan bezela maiz eta ugari, baizik noizean bein, urri, bakan, ñoiz edo berriz. Ezin da gure lurretan orrelako landara ta piztirik ugaldtu. Gurutzearen itzalak galtzen ditu emen orrelako landare ta piztiak, gurutzearen itzalak eta guk geure izen onari diogun begiruneak. Bai, goialdeko basurdeak baño geiagotan agertzen dira baserrietara urietako zakur amorratuak, baña euskaldun gurasoak ajolarik ezpaluteke edo euskal mendietan gurutzerik ezpalitz, laster ugalduko litzatezke zakur, otso ta basurde amorratuak Euskalerrian ta baserrietan bertan. Arretaz bizi bear, beti arretaz”. Eta aurrerago: “Eztek Moxolo ire erakuslea” (1993: 69). “Ez, jauna, Moxolo txit atzerea da, *Doñiñan* ere bera *dabil* azkenengo”. “Siñesten diat. Eztik arrek gauza onik erakutsiko. Bakoitzak dakiana erakusten du, ta gaiztoak gaiztakeria. Ez adi, bada, Moxolorekin egundaño ibilli. Ire lagunik andiena Joxe izango dek eta erakusleak geu, etxeokak, eta erriko apaiz jaunak, gurutzetarrak. Illobatxo, Joxe, nere semeak: bizi zaitezte baserrian, toki oberik eztagota; maita zazute mendia, maitagarria data; baño mendian bertan piztirik billatzen badezute, alde Jaungoikoaren izenean piztietatik gurutze ondora” (1993: 70). Eta Orixeren poemak. Eta “ni ez naiz hemengoa”. Eta *Babiloniako*en “... Ke beltza darion burnizko herensugea da trena, su eta fu dariona, deabruaren asmakizun... [...]. Trinidoren alde eta Felizianoren kontra...”. Ez bada ere horretarako unea, komeni da, Literaturako liburu ezagunetatik hasita, bai Euskadin nahiko berria den zibilizazio tekniko eta beronen ondorioak, bai euskal munduan “haiek” eta “gu”, ordukoak eta gaurkoak, aztertzea. Azken horretarako, ikus hurbilpen bezala: AZURMENDI, 1998a. Hala ezean, gaurko egoera ulertzeko funtsezko giltzarriak baztertzen dira. Horrela gaude gauden bezala!

Yo, desde que era un niño, he oído hablar mal, con desprecio, con inquina, con encono, de los vascos y mal de los catellanos y de los españoles en general. A los unos de los otros, a éstos de los de allí, a los de allí de estos. He vivido una forma de afianzamiento de la identidad basada en el desprecio, en rencores difusos, en algo torvo y violento. Cualquier cosa servía de pretexto: el origen familiar, los apellidos, los medios de fortuna, las ideas políticas, los temperamentos, las formas diversas de ganarse la vida, las costumbres privadas incluso... Había que ser de una manera determinada para ser persona, de la manera que otros querían, claro. Conmigo o contra mí. Te aceptaré como persona, te querré como amigo si eres como yo quiero que seas. Mete miedo. Al menos a mí me lo da. Y toda mi búsqueda ha sido en la dirección contraria (89. or.).

Quien me lo dice (no siempre depende del nivel de instrucción) se afirma a sí mismo limpiamente en el desprecio y en sus prejuicios recónditos, no necesita probarse nada, no necesita mirarse en el espejo, puede ser alegremente un granuja, dedicarse a negocios moderadamente fraudulentos, pero al menos dice él, y lo enseña a sus hijos, tiene sangre pura, donosura que como es del dominio público tiene el poder mágico de hacernos a todos la vida más agradable. Eso a quien lo siente de manera tan fundacional le exime de todo, no tiene que probar nada, ni siquiera tiene que disfrutar de los dones de la existencia. Yo no puedo hacerle el juego a quien me desprecia y afirmarme como depreciado y víctima. No exageremos, el cazador de cabezas es otro individuo y no representa a país alguno, y me temo sea un abuso y caer en una trampa el sostener lo contrario. Yo me afirmo como persona de otra manera, con lo que hago, que es lo que soy. Eso es todo (89-90. or.).

Para mí, la identidad tiene que ver con mi singularidad como persona, con mi individualidad, mi intimidad y mi soledad esencial, pero también con la forma en que elijo y me acerco a los otros, y el lugar en el que viva (91. or.).

He ido construyendo, pacientemente o a empujones, eligiendo esto, rechazando lo otro, buscando si no el bien, cuando menos lo mejor para mí y para los míos (91. or.).

Joxerra Garzia ere honela mintzo da 382 metaforismo biltzen dituen bere azken liburuan, Prokasto hizpide duela:

Greziako mitologiaren sorkari da delako Prokasto hori. Altzoko erraldoia baino are erraldoiago, bide bazterrean egon ohi zen, gizatasunaren muga zaintzen. Ohantze moduko bat zuen lanabes eta gizatasun-neurri. Bere ingurutik pasatzen zen bidaiaria ohantze hartan eratzaten zuen: bidaiaria txikiegia baldin bazen, gerritik tinko heldu, eta zangoak luzatzen zizkion, bortxaz, ohantzearen neurriko egin arte. Ostera, bidaiaria ohantzea baino luzeagoa zenean, ohantzetik kanpo geratzen zitzaizkion puskak aizkoraz mozten zizkion. Egin beharra zeukan, bidaiariak maiteko bazituen. Kontua da aspaldion asko ugaldu dela prokastoen kasta (2000: 66).

Hirugarren eta oraingoz azken adibide bat Ripalda-ren eskutik jaso daiteke, inori behartu xamarra iruditu arren, apropos jarria gauza gehiagotarako balio baitezake:

Nazionalismo eratuak nazionalismoa “besteengan” aurkitu ohi dute. Eurak ez dira politikoak, zoriontasun indibiduala baino ez dute babesten. Nazionalismoak ere ez dira, aspaldidanik zerbait naturalak baizik. [...]. Meteorologia politikoa. Ingalaterrako BBC, Ipar Amerikako CNN eta ABC edo Alemaniako ADR izeneko telebistetan meteorologia-marka politikorik gabeko mapa fisiketan aplikatzen da. TVE-ren kasua desberdina da [...] Espainia politikoa ez da soilik entitate natural bat, badirudi gainera bera baino ez dela. Ez da hori meteorologia politikoaren adibide bakarra. Euskal Telebistan meteorologia zazpi probintzien mugan sartuta dago, “zazpi ta bat” [...], esparru meteorologiko bakarra eratzen du [...]. Espainiako kasuan bezala, bi balizko: barne homogeneousuna eta historikoaren naturalizazioa. [...].

Frontera oro definizioz ez egonkorra da eta, egitate-auzi bezala, berrezartzeko zaila. Mugetan *sinesteak* irudi bat *errepresentatzea* eta bere mugiezintasuna nahi izatea da. *Pentsatzea*, aldiz, errepresentazioak definitzea uzten ez duen *errealitate* bati *aurre egitea* da; mugaren barnean eta kanpoan mugitzea da; modu efektiboan eta politikoan onartu beharra dago dibertsitatea eta baztertua barnean, kanpotik eraikia izaten jakitearekin batera; jakin beharra dago ez daudela nortasun eta diferentzia zehatzak, bere testuingurua amaiezina baita eta botere jokoek etengabe aldatzen baitituzte; mugek ez dituzte soilik euren bideak eraldatzen, baita esanahia ere. Herri bat soilik politikoki egiten da, historian. Meteorologia politikoa ezingo du simulatu besterik (Ripalda, 1999a: 134-135).

Garai postmodernoa (edo Beck-en hitzetan, “modernizazio erreflexiboaren garaia”), “ezezaguna” kategoria kontuan hartzekoa da. “Lekuko mundu kategoria eta estereotipoak *barnetik* hausten ditu. Ordena sozial jakin bateko estereotipoetatik at geratzen da.” (ikus Beck, 2000a: 125-153). Ezezagunak “bertakoak” izanik, bertakoek ekoizitako estereotipoekin ez dute bat egiten.

Baina hona egia: “Ekoizitakoarekin” ez dute bat egiten. Izan ere, modernizazio erreflexiboak ordenaren ordean anibalentziaren beharra aldarrikatzen duen bezala, “ezezagunak” demokraziari izugarrizko erronka planteatzen dio: ordena sozial oro ukatzen du, inork eraiki ditzakeen kategoria antonimo orotatik at dago.

Barnekoa da *baina* barneko ereduak hausten du. Ezezaguna ezin daiteke “bestea” hizpide harturik definitu. “Barnetik”, gizarteko muturreko ereduak eta posizioak zentzurik gabe uzten ditu. Ez da kanpotik (“beste estatu-nazio batetik”) etorri den “atzerritarra”. “Etsaia” ere naturalizat jotako ordenaren barruko kategoriekin eraikitzen da. Ez, ordea, “ezezaguna”. Honen adibide dira “hiritartasuna” oinarri harturik eraiki ahal izan den Frantzia zalantzan jartzen duten bigarren belaunaldiko magrebiarrak, estatu gabeko nazioak, edota nahaspilatsuagoa den

mantelinaren inguruan duela urte batzuk eman zen eztabaida (denborarekin beste estatuetara ere zabalduko dena).⁴³ Azken mendeetan estatu-nazioaren eraikuntza posible egin duen asimilazioaren ereduak zalantzan jartzen duen kasu oro aipa liteke. Goian aipatutako adibideek, nahita, Frantzia zuten erreferentziatzat, egitate politiko unibertsalista batean oinarritu eta gizarte-hitzarmenari lehentasuna emanaz, estatuak armada eta eskolaren bidez hiritarra sortzen duen mendeetako politika asimilazionistak gaur egun ez duela bideragarritasun erreala frogatzeko balio baitezakete. Ezezagunak ohiko muga eta desberdintasun “naturalak” zapuzten ditu. Garbi uzten du naturalizat jo izan diren “hemengoa” edota “horrelakoa” eraikuntza artifizialak baino ez direla. Horrela uler daiteke Jean Marie Le Pen eta gainerakoek *jus soli* baztertu eta *Etre français, cela se mérite* lehenestea.

Horren ildotik, kontuan hartu beharreko fenomenoak dira, esaterako: Euskalduna nor den hausnartzea, edo, emakume eta gizonen artean desberdintasunak murrizten-edo joan ahala, emakumea zentzu bakar eta hertsian erabiltzearen arriskua. Izan ere, nagusitu izan den jarrera esentzialistei aurre egiteko asmoarekin abiatuz, sarri argudio esentzialistak proposatuz amaitzen baita (ikus: Mouffe, 1999: 107-126). Edo irakur bedi homosexuala eta, harago, bisexualaren “esanahia”.

Honek irakaspen argi bat du: Ezer ez da betierekoa. Oro da *eraikia*. Baita euskalduna izatea ere —baina horrexegatik ez da hezur-haragizkoa—. Eta, beraz, guztia izan daiteke *beste* era batekoa. Gogoeta hauek fatalismo eta zinismoak gainditu eta, besterik ezean, pesimismo eszeptikorako aukera zabaltzen dute. Anbibalentzia existentziala modernizazio erreflexiboaren ezaugarri biografikoa da (Beck, 2000a: 135).

Hau guztia ulertzeko, eta hemen sakonduko ez den arren, jazoera hirukoitz bat kontuan eduki beharra dago: gizabanakoa askotarikoa bilakatzen da *indibidualizazio* prozesuaren ondorioz (ikus: 2.2. eta 4.2 atalak); globalizazioa (ikus: Beck, 1998c); eta industria-gizarteko kontzentzuaren amaiera (garapen teknikoaren arriskuak ez ezik, krisi ekonomikoa, zuzenbidezko Estatu demokratiko eta sozialaren krisia ere, etab.).

Nolabait esatearren, guztiek galtzen dute *aurrezarriak* izan daitezkeen ezaugarri *gardenekiko* lotura estua. Mugak ezartzeko orain arteko irizpide sinplistik antzuak bilakatzen dira. Talde erreferentzia unilateralak apurtu dira. Askotarikoa den gizabanakoa talde hertsia puru batean sartzea ezinezkoa egiten da: esparru desberdinetako esperientzien bidez eratzen bada pertsona, ezinezkoa da taldeko beste guztiekin ezaugarri komun guztiak izatea.

43. Baita iritsi ere! Askoren artean, ikus: Emilio LOPEZ ADAN: “Fatimaren mantelina”, *Argia*, 1844: 58; eta Jon ALONSO: “Mantelinaz”, *Argia*, 1847: 58.

Gauzak horrela, inork pentsa dezake konpondu direla arazoak eta ezinikusiak. Azkenean onartu dela berdintasunak eta desberdintasunak norbanakoen arteko eta talde arteko harremanak direla. Bizikidetzat demokratikoa emango da.

Baina “ziurtasunak” hankaz gora jartzearekin, Beck-en hitzetan, “egozentrismo eta etnozentrismo multikultura ezartzen da; delimitazio aktiboaren eta intolerantzia ignorantearen multikultura” (2000a: 143). Horrekin, era berean, ezezagunaren eraikuntza sozialerako testuinguruak, agenteak, instantziak eta baliabideak aldatzen dira.

Kulturalki eraikitako ezezagunetik *burokrikoki* eraikitako ezezagunera urratsa ematen da. Ezezagun kulturalarekin ez bezala, ezezagun burokratikoa ez da indefinitua, ezta kategorikoki bereiztezina ere (Beck, 2000a: 143-144).

Gizabanako oro bilakatzen da arriskutsua pertsona ororentzat.

Oharkabean, eta norberaren askatasuna bermatzeko aitzakiarekin, norbanakoaren askatasuna gero eta murriztagoa bilakatzen da estatu polizialaren indartzeagatik. Segurtasunik ez da faltako, baina espetxe barruan bezala bahituta bizitzearen truke.

Nortasuna kartzela bezala. Komunitate naturalak eta garbiak nahi badituzu,⁴⁴ —beste era bateko— euskaldunik, lehiatzaile politikorik, gazte erorik, hiesdunik, eskalerik, poetarik, ekologistarik, “txirorik”, kristaurik, yonkirik, kale-emagaldurik, gamelurik, lesbianik, etorkinik, eta beste, azken batean desberdinik gabe bizi nahi bada, “*eta hiria*” baztertu nahi izanez gero: kontsumoa, *lotsaren harriztar* elektronikoa, euskalduna, kamara zelataria eta alarma, supermerkatua, telebista, kartzela, garbiketa ideologikoa, Konstituzio nazionala edota naturala, negar egiteko pistola, “bakearen marrak” (Gurutze Sakratua ikastetxe katolikorako bide nagusia kasu), azken batean, zentzu bakarra, segurtasuna, nagusitasuna, kontrola, amaiera, helmuga, segurtasun babestuaren espazioa eta beldurraren hiri-ekologia, “*edo hiria*”, aukeran dituzu.⁴⁵

44. Lerro hauetan, *edo hiria* argudiatzeko, era desberdinetako adibideak jarriko dira. Denak, noski, ez dira aberastasun modura ulertu behar. Ez da, ordea, hori asmoa, araturiko kontzentzuak dakartzan bazterketa-joerak azpimarratzea baizik. Bestalde, “esentzien lurraldeetan”, komunitate naturala aitzakia hartuta sortzen diren gatazkek berebiziko garrantzia izaten jarraitzen dute. Ideia hori oinarri hartuta, IGNATIEFFek (1999) iragan hamarkadan emaniko gerra etnikoen inguruan eginiko hausnarketak adierazgarriak dira. Soldadu serbiarrarekin izaten duen elkarrizketan auzokidea, gaueetik egunera, etsai bilakatzeak sortutako arduragabekeriak garbi uzten du konplexutasuna eta inteligentzia baztertzeko dagoen joera. Era berean, gerra ulertzeko zentzu tradizionala gaintzeak guztientzat dakarren eskemen haustea ere lantzen du. Kontzientzia zibikoaren alde Torontoko idazleak helarazitako mezua ere aintzakotzat hartzekoa da, zenbaitetan “politikaren” zentzu hertsiegian jausteko arriskua badauka ere. Aipatutako gaien inguruan, bide batez, pasarte ederrak topatuko ditu irakurleak Goytisoloren (2001b) azken urte luzeetako artikuluen eta saioren bilduma berrian.

45. “Edo hiriaren” muturreko jarrera bat DAVISen (2001) lana izan daiteke.

Ez dago zalantzarik erakundeetatik eratorri baina gizarteko esparru jakin batzuetatik sendotutako politika jakin batzuek, bai “kriminalitatearen mehatxua”, bai “balio jakinen suntsiketeta” aitzakiatzat hartuta, “*edo hiriaren*” azken aukera hori sendotzen dutela.⁴⁶

Modernitateak ezaugarritzen duen ziurtasunaren metafisikak norberaren/talde-nortasuna bestea aurkari bezala irudikatuz, *edo hau edo hura*, gauzatu izan du.

Horren aurrean, nortasuna *eraikuntza* moduan ulertu behar da, eta gainera, eraikuntza horrek anibalentea izan behar du. Borondate orokor-bakarreko entitate unifikatuari eta homogeenari amaiera eman behar zaio. Bestearekin izaniko harremanen bidez sortuko den nortasunak baino ez dio ekarriko kartzelatik irten eta inolako (dagoen edo egon behar omen zukeen) estatu-nazioren aginduetara egon beharrik gabe, *zalantza askatasun moduan* ulertzea. Horrela soilik ulertu ahal da pluralismoa aberastasun moduan. Noski, hemen oihartzuna duten komunikabideek euren ikurtzat daukaten pluralismoak ez du honekin zerikusirik. *Edo hiriko* auzokideak dira, betiereko bakearen tabernan horditzen direnak.

Arauturiko kontzentzuaren arriskuez hitz egin bada aurreko lerroetan, bestalde, orain arte patologikotzat jo diren *gizartearen eskaerak* prozesu politikoaren esparru ere badirela onartu beharko da. Konplexutasunaren dilemak zabalik mantendu behar dira eta hori, soilik, *gatazkak* izendatzeko eta mugimenduen ekintzak aurrera eramateko bideak irekiz lortuko da.

Joko demokratikoaren arau formalen gibelean, gaur egun gero eta agerikoa-goak diren, eta ondorioz erreazioak sortzen dituzten, *selekzio eta bazterketa prozesuek jarrera itxi* hori nagusi dela erakusten dute. “Gaur egungo” globalizazioaren aurkako gizarte-mugimenduek Seattlen plazaratu zuten lema nagusiak ere horixe erakusten du: “Ez ordezkartzarik gabeko globalizazioari” (ikus: Castells, 2001).

Gizarte garaikidean demokraziaren bereizgarria izango bada, honako hau izango da: *Hitza* eskatzen duenari entzuteko dagoen *irekitasuna*. Norbanakoari eta taldeei diren zentzua eta izan nahi dutenaren zentzua entzun eta, ondorioz, gizartean dagoen *zentzuen pluralizazioa* onartu ezean, eta modernitateetik heredatutako demokrazia formalarekin jarraituz gero, bizikidetzak ez da lortuko. Gizartea ordenaren aurka: Euskadi 1998 eta Espainia 1978. Bakea, elkarbizitza eta gisa horretako aldarrikapenak ez dira gutxiestekoak, baina iruzurra da horrek baldintzak ez dituela argudiatzea, aitorten kontsumistaz harago, besteak ere, askotarikoa den euskalduna kasu, onartu behar baitira.

46. Ideia hori abiapuntu izanik, Mike Davis-en lana osatzeko WACQUANTen (2000) lana irakurtzea komeni da. Ideologia ekonomiko neoliberalak sortutako egoeraren aurrean, neokonterbadoreek bultzatzen duten kartzela eta “kontrol” ereduaren aitzinean, Europak duen dilema historikoaren inguruko hausnarketa argigarriak egiten ditu.

Gizarte garaikidea konplexua eta kontingentea dela esaten denean, benetako espazio publiko batean esanahiak, lehentasunak eta helburuak izendatu eta demokratikoki konfrontatu ahal direla esan nahi da, unean une kontzientzatu dena betierekoa izango ez dela onartzearekin batera. Hots, “aniztasuna” eta “behin-behinekotasuna”.

Oreka mantendu beharko da plazaratzen diren jarreraren eta nahimeneren artean. Partzialtasuna baztertu eta batak *edo* besteak lehentasuna hartzeak, jarreretako bat ahalguztidun eta oro hartzaile eginaz, politika demokratikoaren oinarriak *lehertzea* baino ez dakar.

Atal honen sarreran, beraz, zailtasun, oztopo baina, era berean, aldaketaren ezinbestekotasunak modu azkar eta labur batean ikusi dira. Jarraian, hori guztia ahalbidera dezakeen ikuspegi sortzaile berri batez jardungo da, modernizazio erre-flexiboaren ideian sakontzeko aitzakiarekin. Autosuntsiketa garaian sorkuntzarako aukerak badaudela proposatuko da. Funtsean, kasuan kasuko aldaerekin, nagusitu den ikuspegi lineala eta helmuga zehaztu eta aurrezarria (beraz, historiaren amaiera zoriotsua eta perfektua) alde batera uzteko aukera plazaratzen duela modernizazio erreflexiboak frogatu nahiko da. Alegia, historiak aurrera jarraitzen duela. Fukuyama, Huntginton edo New Yorkeko “abionazoaren” ostean sortuko den hirugarren profetak esango dutena esango dutela ere.

Erronka horretarako, ordena alde batera utzi eta *anbibalentzia* oinarritzat dabilten autore desberdinen ekarpena ekarriko da lan honetara. Behin *mendebaldeko ingurune hauetan* (ez hain) ezezagunak diren ideia horiek plazaratu ostean, guztiontzat ulerterrazagoa izango den gai bati irekiko zaio lekua. Hain zuzen ere, horrek guztiak *politikan* zein eragin duen ikusiko da, espazio publiko berrien beharra azpimarratzearen bidetik.

3.1.1. *Gizartearen desinstituzionalizazioa*

Gizarte-Zientziek frogatu duten moduan, forma sozialek euren kosmos-ikuskerara, praktika eta ekintza kolektiboak mito batean oinarritzen eta legitimatzen dituzte, munduaren irudi bateratua eskaintzen duena eta etorkizunari zentzua ematen diona.

Lehena eta *sakrala* den une hori kontatu ahal izateak mitoa bizitza modu ororen legitimazioa oinarritzen den oinarri axiologiko bilakatzen du, Imaginario sozial zentral horren inguruko *ezagutzak* norbanakoaren jardunak praktika kolektiboekin eta Izadiarekin elkarlanean jardutea ahalbidetuz (Sánchez Capdequí, 1996: 267).

Ulergarria den beste baieztapena da, era berean, gizarte modernoa *mitorik gabe* geratu izana (Garagalza, 1996: 111): zientziaren eta teknikaren botereak arazo orori irtenbidea eman eta gizadiak mahaigaineratuta zituen erronka guztiak asetuko zituelako iritzia nagusitzen da. Horrela, zientziaren aurrerapenaren ikuspegi

ofizialarekin bat egiten ez zuen jarrera oro irrazionaltzat joko da, erabateko dohai-nak eskainiz aurreiritzi mitiko, metafisiko, erlijioso edo etikorik ez omen zuen zientziaren ikuskera objektiboari.

Alegia, gizarte aurremoderno eta tradizionalak mundua mitoen bidez adierazten bazuten, gaur arrazoa gida izanik modernitateak mitoetatik at bizi nahi du, irrazionaltasun horiek guztiak baztertu nahi ditu. Hauxe da, Gehlen-en hitzetan, gure gizartearen desinstituzionalizazioa (Sánchez Capdequí, 1997: 17).

3.1.2. Arriskuaren (ezusteko) agerpena

Gizarte garaikidean bi modernitateen arteko bizikidetzat gatazkatsua ematen da (Beck, 1996a: 223-262): aukeren hedapenaren eta arriskuaren hedapenaren artekoa. Banaezinak dira. Modernitatearen helburuak lortzeko asmotan, arrazionaltasun finalistiko baten bidez ondorio perbertsoekiko kontrol eza areagotzen da. Modernizazio-prozesu honekin modernitatearen printzipio normatiboekiko haus-tura emango da.

Modernitatearen edukia *kontraesanean* dago gizarte industrialaren proiektuan ematen diren murrizketekin eta galerekin. Agerikoa den jazoera hori igartzea eta “figura sozial berri” bat sortzea ez da erraza. Beck-en ustetan, gizarte industrialeko kapitalismoaren teorikoek, XIX. mendeko pentsamendu soziala ez ezik gaur artekoa ere *harrapatuta* duena, modernitatearen figura historikoa “ezinbesteko baldintzatzat” darabilten heinean, figura sozial berria sortzeko zailtasunak bere horretan jarrai dezake.

Honako hau da ikuspegi berria oztopatzen duen ukitugabeko *mito* hori: gizarte industrial garatua, bere bizitza- eta lan-eskemekin, ekoizpen sektoreekin, hazkunde ekonomikoaren kategorien pentsamendurekin, zientzia eta teknikaren eta demokrazia moduaren ikusmoldeekin, gizarte *guztiz modernoa* da, modernitatearen puntu gorena zeinaren gainetik ezin daitekeen pentsatu. Aldaera baikorrean eta ezkorrean, gaur egun bazter guztietan entzuten den *historiaren amaiera*, horren guztiaren adierazpen moduetako bat da.

Modernizazioak nekazaritza-gizarteari industria-gizarteak ordezkotzea hartzearen irudia sortu bazuen XIX. mendean, orain modernizazioak gizarte industrialaren osagaiak birrintzen ditu, modernitatearen jarraipenak *bestelako* konfigurazio sozial bat plazaratuz (Beck, 1998a: 19-21). Hori guztia nola gertatzen den azalduko da ondoren bi zatitan banatuta.

Munduan pertsonak bizitako esperientzietatik eratorritako esanahi kontingentei, paradoxikoei edo kontradiktorioei erlijioak zentzua emateko aukera eskaini die, “azken esanahia” (Beriain, 1996: 19). Horretarako Jainkoa bezalako “kontingentzia formulatara” jo da: gauzak zergatik, zein modutan jazotzen diren adierazten du (baita beti desberdinak izan zitezkeela ere). Hots, gizarte bat, potentzialki

infinitua den kaos (natural) baten baitan, ordena txertatzen duten esanahiak sortzearen menpe dago.

Testuinguru horretan erlijioaren zeregina, lehen adierazitakoa oroituz, azken esanahiaren bidez arriskua aurreikustean zetzan. Konplexua den munduko kontingentzia *oro* Jainkoari leporatzen zaionez, erlijio-sistemak behar du guztia interpretatu.

Esfera sozialen diferentziazio funtzionalarekin (ere), nortasunak eta ez-nortasunak, jarraikortasunak eta hausturak eman daitezkeenean, dibergentziei eta kontingentziei aurre egin behar zaie. Oztopoa, ordea, erlijioa esfera pribatura iragatean datza, horren ondorioz sistema berriek *ez* baitute kontingentzia murriztuko duen Jainkoa.

Egoera horretan sortzen da autoerreferentzialitatearen eta kanpo-erreferentziaren arteko bereizketa. Kode binarioak eraikuntza oro hartzaileak dira, muga ontologiko gabeko eta derrigortasun unibertsaleko mundu eraikuntzak. Sistema bakoitzak modu autoerreferentzialean bere funtzioa asetu nahi du dualitatearen poloetako bat burutzearekin: eduki, gobernu, egia, justizia, etab. Baina hori mugatua da, aukerak areagotzeari berariazkoa zaion kontingentziaren areagotzea murriztuko duen Jainkoa bezalako formularik *ez* baitago gizarte modernoetan.

Zentzu horretan behar da ulertu arriskuaren gizartea *gabezia* (Beck, 1998a: 237) batek ezaugarritzen duenaren baieztapena. Alegia, arrisku-egoerak ezin daitezke *kanpotik* aurreikusi. Mehatxuei aitzin egin behar izan zien aurreko kultura eta garapen sozialaren aldietan ez bezala, gaur egungo gizarteak, arriskuekin harremanetan, bere burua du eztabaidagai.

Arriskuak industria-gizartean ekoitzi dira. Gizadiak pairatzen dituen drama desberdinak, hala nola, izurriteak, goseteak, urakan naturalak edo jainkoen eta deabruen mehatxurako botereak ez bezala, arriskuak norbanakoen erabakietan oinarrituta daude —epe luzera onurak baino irizpide ez darabiltzaten erabakiak non kalteak eta galerak alde ilunak baino ez diren (Beck, 1993: 20)—. “Gizarte tradizionalak zoriari egozten ziotena, borondate metasozial-dibinoari, industria-gizarteek arriskuari (zoriaren sekularizazioari) leporatzen diote” (Beriain, 1996: 8). Modernitate berantiarra amaierarik gabeko *aukeren* hedapen tenporala eta aldebereko *arriskuen* hedapena ematen den atalburu tenporal bezala agertzen da.

Beste hitz batzuetan, *aukeratzeko beharra* dago baina aukerak arriskua berariazkoa du. Gauzak horrela, tradizioarekiko loturak apurtzeak, eta ondorioz munduaz zehaztasun ezak, bere burua irudikatzea beharrezkoa egiten du. Berariazko euskarriak sortu behar ditu. Horrela uler daiteke uste/nahi ez bezalako ondorioen jazoera. Modernitate berantiarrean, Luhmann-ek “gertagaitza gertagarri” egiten dela adierazten du.

Loturaren apurtzea eta horren ondorioak nahikoak ez balira, bigarrenik, gogoratu beharra dago, gizartea iraganarekiko bereizteaz eta mugatzeaz gain, ordena berria bera ere azpizistemetan bereizten dela, hau da: *diferentziazio funtzionala*.

Azpisistema bakoitzak (ekonomia, politika, zientzia eta teknika, kultura) bere logika dauka, bakoitzak *bere* arrazionalizazio-prozesua jarraitzen du. Esparru bakoitzean sistema funtzionalek autonomia irabaztearekin, sistema *bakoitzak* norberaren jarduerarako muga sistemikoen baitan *errendimenduak* areagotzeko helburua baino ez du.

Jarduera horren ondorioak erabakigarriak dira gaur egungo egoera ulertzeko. Gizarte tradizionalan ordena zehaztasun ezari edo kaosaren anbigualentziari aurrejartzen zitzaion. Ordenaren beste alde bat edo kaosa betierekoa zen. Gizarte modernoan aldiz, ordenaren beste alde bat beste ordena bat izan daiteke, ordenaren borroka definizio-borroka da, errealitatea artikulatzeko proposamenen lehia. Ez dago lehentasunik definituta ordenaz desordenarekiko oposizioan. Ordenaren eta desordenaren arteko alternatiba dago, (Bauman, 1996: 73-119) hots, *edo* hau *edo* hura.

Bata *edo* bestea aukeratu beharraren jarrera horrek pentsamendu tragikoaren bazterketa adierazten du (Lanceros, 1996: 89).⁴⁷ Modernizazio erreflexiboak aurrera begira duen baliagarritasunaz jabetzeko, are gehiago mendebaldeko gizartearen jarrera arrazionalak kontuan hartuta, baliagarria da pentsamendu tragikoari loturik, *zauriaren* sinboloa aipatzea (ikus: Lanceros, 1996).

Pentsamendu tragikoak arrazionalaren (“*destino Hespérico*”) eta irrazionalaren (“*destino Egipcio*”) nahikeria hegemonikoak baztertzen ditu. Batak aurrerapenean eta besteak tradizioan daukaten *ziur egoteko* konfiantza itsuak (ontologikoki ezinezkoa den) destino tragikoaren bazterketa dakarte.

Aldiz, irtenbide tragikoak hau *edo* hura *hautatu daitekeenaren* uste faltsua ukatzen du. Kontradikzioa da irtenbidea. Errealia, hein berean, izadia eta ordena, irrazionala eta arrazionala da.

Modernizazio erreflexiboaz mintzatzerakoan behin eta berriz adierazi den moduan: totalitatea ez da eratzen *topos* teleologikoa xede duen ibilbide lineal batean, joan-etorriko ibilbidean baizik, *itzuleran*, aurkariak aurkari moduan bateratzen dituen *tartean*, *arriskua dagoen lekuan*.

Argi dago gaur egun munduko bazterretara begiratu bat emanez gero, bi mutur horietako bat nagusi dela. Mendebaldea izenaz ezagunak izan diren gizartee-tan, mendetasuna eta itxikeria teknikaren alde bateko gailentasunagatik etorri

47. Jarrera hori, bestetik, gizabanakoak bere bizitzaren esparru guztietara hedatu du. Orain garatuko denaz gain, beste adibide garbi bat “norbanakoarena eta talde-nortasunarena” izan liteke. Irizpide hori oinarri harturik, nortasunaz *azaleko* gogoeta hauek lan honen 3.2.2. zatian egingo dira.

dira.⁴⁸ Beste aukera bat erlijio/etnia/nazio fundamentalismoa izan daiteke, mito fundatzaile batean oinarrituz, itxikeriarekin *gaizkitik* babestea helburu duena. *Edo* bat *edo* bestea, inola ere ez tartean kokatuko zatekeen ezer, *edo* teknika *edo* mistika kasu. Adibide askoren artean, zuzeneko ondorio den *Walter Faber* teknikariaren pasarteak *Homo faber* (2001) liburuan aurki daitezke.

Bestalde, eta esan den guztiarekin harremanetan, modernitatearen proiektuak bere hastapenetatik pairatzen duen paradoxa ulertzeko ez dago Adorno eta Horkheimer-en *Ilustrazioaren dialektika* liburuaren tesia bezalakorik (Beck, 1996a: 211).

Hasierako helburuak zirenak zirela ere, mito oro baztertzeko asmotan botereaz eta arrazoiak baliatuz, ordena, kontrol eta kalkulu ekonomikorako joera modernoak norbanakoa kritika eta autonomiarik gabe utzi du. Arrazoiaren eta irudimenaren sorkuntza aurrez aurre jarri izanak (elkarren aurkako eta nork bestea irentsiko: *edo* hau *edo* hura), mendebaldeko gizartean ondorio bezala arrazionalizazioa eta *fundamentalismo teknokratikoa* gailentzea ekarri dute, aparatu burokratikoaren eta teknikoaren menpe geratuz norbanakoen sorkuntza- eta adierazpen-gaitasunak.

Subjektuaren eta objektuaren banaketak, arrazionalismo burgesak, mundua, izadia eta gizabanakoa ikerketa eta interbentzio logiko-zientifikorako, administrazio- eta kontrol-proiektu eta helburuetarako erabiltzea ahalbidetzen du. Norbanakoak berarekiko eta munduarekiko hasiko duen borrokaren lehen ondorioa *atzerazintasuna* da, arrazionaltasun teleologikoari berariazkoa zaion dominazioak logika hedatzaile eta kuantitatibo bati bide ematen baitio.

Mundu modernoa objektibatu izanak subjektibitatea oztopatzen du. Hauxe da Adorno eta Horkheimer-en tesia: “Historiaren mugimendu dialektikoa *gelditu* egin dela kontradikzioaren unean”. Beck-ek dio, dialektika geldituarekin ez dagoela kontradikzioa bere muturretara eramatea besterik: giza bizitzaren ekidinezintasuna, autoanikilazio nuklearra.

Weber-engandik datorren denbora linealaren ulertzeko erak:

Beharra, ekidinezintasuna eta ontologizitatea ahalbidetzen ditu: denbora ardatz honetan (*lineala, jarraikorra, atzerazina*) proiektu ilustratu eta askatzaileak eta honen bidean sortu efektu kolateralek, ondoeza eta hondamendia *ezinbestean* sortzen dute (Sánchez Capdequí, 1996: 271).

48. Moderniaren fruitua den gizabanakoa, baina baita modernitatearen paradigma ere, *Homo Faber* (tresnagilea, teknikoa) liburuan ikusten da oso garbi (FRISCH, 2001). Liburua irakurri ahala, honako gogoeta hauek egin daitezke: 1. Walter Faber edo modernitate maskulinoa guztia arrazionaliki eta matematikoki kontrolatu nahi duena. 2. Hannah edo mitoak arrazionaliki maite dituen modernitate femeninoa. 3. Sabeth-alaba edo bi modernitate horien ondorio den ondoeza. 4. Kultura modernoa eta sentimenduen harreman(ez)a. 5. Ezustekoen zeregina bizitzan. Azurmendi-k ere antzeko gogoetak (eta beste) proposatzen ditu: komenigarria eta lagungarria izan daiteke artikulua lantzea (ikus: AZURMENDI, 2001b).

Azken suntsiketak baino ez duela logika hori guztia geldituko, horra Adorno eta Horkheimer-en ondorioa.

Erakunde modernoek *historizitatea* ukatu eta *betierekotasuna* azpimarratzen datza gizarte modernoek arazoak oinarria.

3.1.3. *Betiereko itzulera*

Honen guztiaren aitzinean, modernitate industrialaren oinarri teorikoak eta, beraz, bere errealitate faktikoa ikusteko betaurrekoak, gaur egun ahulduta, eraldatzeko saioa da ordenatik baino anibalentziatik abiatzen diren lanak. Denbora ardatzetan aldaketak emanik, modernitate industrialaren aurrean (linealtasuna eta atzerazintasuna), modernitate erreflexiboari bide emango zaio. Horrela sortuko diren kategoriatan berriek (kontingentzia, anbiguetatea, efektu kolateralak), “gatazkaren soziologiaren” ordez (klaseak, determinazio ekonomikoa, ideologia, egiturazko autonomia), “arriskuaren gizartearen” paradigma bideratzen dute (Beck, 2000a: 13-31).

Arriskuaren gizartearen baitan mugatzen diren izendapenak izango dira errealitate sozial dinamikoa, inolako (historiaren) amaierarik ezarri gabe, azaldu ahalko dutenak.

Bakoitzak bere erara eta hainbat irakurketaren bidez (anitzek aurkako hainbat irakurketaren bidez), hala nola, Kant (ikus: Azurmendi, 1991), Hegel, Marx, edo berrikiago, Gehlen, Vattimo, Fukuyama (1992), baina baita Habermas (1989) ere, historiaren amaieraren *ordezkariak* dira.

Bestelakoa eta *ezezaguna* den erakunde *ordena* irudikatzen baliagarriak diren sorkuntza soziala eta gaitasun intersubjektiboa ukatzen dituzte (Sánchez Capdequí, 1999: 161). *Postmodernoek* nihilismoa azpimarratuz, Habermas-ek proiektu ilustratua amaitu gabea dela azpimarratuz, gaur egungo egoera/proiektua behin betiko marko orokortzat onartzen dute. (Eta horren ondorioz, *modernitatea* baztertzen dute).

Horren aurrean, Lancers-ek (2000: 29-30) izaera *etikoa* duen galdera baten aurrean gaudela dio: “Posible al da historiari izaera irekia berrezartzea, nobedari leku egitea eta norbanakoak beste modu batean sinestea, pentsatzea eta jardutea?”.

Galdera horri erantzuna emateko asmotan, bestelako jarrera darabilte lanaren atal honetan eredu bezala erabiltzen direnek, hauek ere sarri hainbat irakurketaren bidetik izan arren.

Inolako legeek historia idatzia dutela ukatu eta anibalentziaren bidetik dialektika *gelditua* gainditzeko ahaleginean, Beck-ek modernizazio arrunta eta “erreflexiboa” bereizten ditu, azken horri izaera normatibo zehatz bat emanez.

Modernizazioarekin “autokonfrontazioa” (Beck, 1996a: 202) ematen da, *arriskuaren gizarterako* urratsak ondorio kolateral latenteen eredupean, dinamika modernizadore independentearen forma hartzen du.

Modernizazio “erreflexiboak” aukeren hedapenari arriskuen hedapena elkar-tzen zaiela *besterik ez du* adierazten. Ez da salbaziorako giltza. Hau da, aukerak ez ezik, arriskuak ere ematen direla onartzen du, ez da *itsua* arriskuen aurrean.

Arriskuaren gizartea erabaki jakinen aurrean ziurtasuna eskaini behar duten arau sozialen sistema hutsala egitean sortzen da. Luzaroan jorratu diren teoria sozialeko liburuetan agertu ez bezala, iraultza kasu, gizarte industrialaren ondoeza efektu kolateralen ondorioz eratortzen da.

Modernizazio erreflexiboaren iraganbidean, gizarte industrial bateko gatazka politikoaren ideia berriak sortzen dira, arriskuaren gizarte izenez ulertu eta kritikatzeko dena. Aro berri hau ez da hobe edo okerragoa, izatekotan *ezberdina* da, eta zentzu horretan behingoz igarri eta izendatu beharra dago.

Hori horrela izanik, jarrera honekin ondoriozta daitekeena hauxe da: destino tradizional erlijiosoaren sekularizazioak ez du bere desagertzea adierazten, gizakiaren aldetik ekoitzia izatea baizik. Guztia neurgaitza bada, mito erator-tzea da: neurgarria ez dena, jakite arrazionalak adierazi ezin duena, *apeironaren* (edo zehaztu ezin denaren) zatia da (Beriain, 1996: 23). Neurtu gabeaz eta neurtezinaz, modernizazio sozialaren zatia izanagatik ere, ezin da zientifikoki hitz egin.

Munduaren jakite arrazionalak naturala baino *sozialki* ekoitzia den patua sortzen du. «Geroaren irekiera eta indeterminazioak ez dakarte patuaren erauztea, bere ekoizpen sozialaren hasiera baizik. Erdi Aroko “zortetik” “arrisku” modernora iragatean ez da mito sozial “berri” bat jaiotzen. Metasozialki “emaniko” patu batetik, kanpo metasozialetik —Jainkoa, izadia— ondorio handiko arriskuen aukera aniztearen ondorioz sortzen den *sozialki* ekoitzitako paturako urratsa da» (Beriain, 1996: 23).

Aukeren aniztasuna izeneko modernizazioa esfera sozial edo bizitza ordena desberdinen artean emaniko loturen (erlijiosoak, moralak, politikoak) hausturaren bidez ematen da. Gizarte modernoa arras kontingentea da lehen “gertagaitza zena” orain gertagarria baita. Esan bezala, hori bideragarri egiten da *anbibalentzia sozialaren eraikuntza* bideragarri eginda (Bauman, 1996), kaosaren eta ordenaren arteko alternatiba ahalbidetuta.

Denbora linealean modernitatearen *ukapenak* humanitatearen amaiera adierazten duen moduan, denboraren beste kontzepzio batean, *ukapen* horrek berak zerbait *berriaren abiapuntua* marraz dezake. Beck-ek plazaratutako etengabeko errepikapenak, dialektikaren amaiezintasunak, hasiera eta bukaera, bizitza eta

heriotza *amaiezina den prozesu zikliko batean koinplikatuta* daudela adierazten du (Sánchez Capdequí, 1996: 272).⁴⁹

Aurkarien koinplikazioak esan nahi duena da, beraz, etengabe autorekatzen den eta tentsioa indartzen duen totalitate dinamikoan aurkariak barneratzen direla modu bateratzaile batean, (baina) inoiz batak bestea xurgatu gabe (Garagalza, 1996: 121). Hau *edo* hura izan beharrean, hau *eta* hura.

Denbora zirkularren egiturazko ezaugarriak adierazterakoan, Sánchez Capdequí-k arriskuaren gizarteak (modernizazio erreflexiboak) errealitatea margo-tzeko eta sozialaren marko teoriko esplicitiboa ezartzeko darabiltzan kategoriak izango ditu hizpide. Bere ustetan, *efektu kolateralen* kategoria da inork baino hobeto hori guztia azaltzen duena. Efektu kolateralak hizpide harturik, honako bilakaera hau azaldu eta garatuko ahalko da: kontingentzia edo arriskua (negatibitatea), anibalentzia (negatibitatea-positibitatea) eta sorkuntza psikosoziala (positibitatea) (ikus: Sánchez Capdequí, 1996: 273-280):

3.1.3.1. Kontingentzia edo arriskuaren aldia

Beck-ek gai sozialen bertsio “postarrazionala” planteatzen du. Arriskua, *aurrez idatzitako* proiektu historiko oro hankaz gora jar dezakeen arriskua, agertu egiten da denbora linealean. Arriskuarekin, kontingentziarekin, frogatu nahi dena da erabaki (indibidual zein kolektibo) oro etengabe besteekin nahasten dela, eragin erreziprokoak hasierako orientazioa zein helburuak *eraldatuz*. Azalpen arrazionalak eta probabilitateen kalkuluak mugak ditu, erabakien metaketak kausa bakarra egotea oztopatzearen ondorioz.

Arriskua ekologikoki ardazturiko kategoria modura agertzen da. Arriskuaren gizartea modernizazio industrialaren arriskuen ekoizpenean, banaketan eta zatiketan egituratzen da. “Jakite arrazional” industrialak autoekoiztutako arriskuez galdetzen du arrisku ekologikoetan. Ezin zaizkio izadiari egotzi. Douglas-ek eta Wildavsky-k “eraikin kolektiboak” deritze (ikus Beriain, 1996: 8, 24).

Arrisku ekologikoak bestelako arrisku sozialen aldean neurtzeko zailagoak dira. Izadia jakite arrazionalako objektu modura agertu arren, “externalitate” moduan ez da arrisku-objektu. Erabaki-prozesuen ondorio kolateralen metaketa ez-kontrolatuaren emaitza izanik, hondamendi ekologikoa, ozono geruzaren zulaketa, euri azidoa, ezin zaizkio norbanakoari edo talde jakin bati leporatu. Arriskua oro-

49. Mendebaldeko kulturean, denbora historiko linealarekin hasiera eta amaiera banatu egiten dira; elkartopaketarako denbora historia amaitzen den unean ematen da. Hasiera eta bukaera bi entitate zehaztu dira, estatikoak: une jakin batean (Proletalgoaren garaipenarekin, Mesias-en itzulerarekin) soilik eta denboratik at errekonziliatuko direnak. Bestelakoa hau da: kultura preindoeuropear eta primitiboak dira (*Mari* oroitzapenera ekarri besterik ez dago), etengabekoa eta ziklikoa den elkartzeko lekua, aurkarien arteko koinplikazio errepikakorra (SÁNCHEZ CAPDEQUÍ, 1996).

hartzailea da, eta autoerreferentzialitatea eta kanpo-erreferentzia ahalbidetzeko diferentzia hutsala egiten da.

Diferentziazio funtzionalaren testuinguruan gizarte zibiletik sortutako estutasun eta beldurraren diskurtsoa (Giddens, 1995) ezin dute sistema politikoek, ekonomikoek edo militarrek gainditu.

3.1.3.2. *Anbibalentzia*

Proiektu soziokultural bat egiteko, arriskuek sorturiko arazoekin batera, *possibilitate aztarnak* atzematen dira gizartean irudimen-sorkuntza jardunari esker. Une hondatzailean nagusi den kaostetik sortzen da kolektibitateak nahi duen “behin-behineko ordena berria”, desordenatik erator daitezke ordena berriaren profilak.

Egitura sozial baten amaiera eta bizitza soziala birsortzeko ideal kolektibo berriak bideratzeko baldintzak ematen dira anbibalentziaren unean. Proiektu historiko ororen efektu kolateralean eta anbibalentzia konstitutiboan, hauexek ikusi ahal dira: ustez askatzailea zen proiektu ilustratuaren *hondakina* eta gizarte-forma berrien egitekoa, zeinak bere abiapuntua aurreko bizitza sozialaren hondarretan topatzen duen (Beck, 1993: 35-39).

3.1.3.3. *Sorkuntza psikosoziala*

Tarteko egoera batean kokatzen da une hau, desegituratutako forma sozialaren (modernizazio arrunta) eta konfiguratzeko dagoenaren (modernizazio erreflexiboa) artean. Subjektu arteko orok erakundeei bizitza ematen dien proiektuen hastapenaren eta (autonomizatuta, bere sortzaileari lehiatzen zaien) kontraproiektuaren artean. Sorkuntza garaia da, *idealen eta formen sorkuntza garaia*, eta ez denboran eta espazioan aurretikoak diren idealen berrekoizpena.

Horrela, ekintza sozialak bizitza ordena eta ilusio kolektiboak sortzeko alde transzendentala, imaginarioa kontuan hartu beharra dauka, *a posteriori* gauzatu ahalko den dimentsio errealizatiboarekin (Sánchez, 1996: 275-276).

Hala ere, izaki/zentzu sozial berri bat sortzeko eta aukeren mundua itxia izan ez dadin, ezinbestekoa da gorputz unitarioa den gizartea nortasunezko/egiturazko planoak eta irudimenezko/azpiegiturazko planoak osatzea. Desparadojizazioa (eta “amaiera gabeko paradojizazioa”) emango da denboraren kategoria bi mailatan bereizten denean. Bata, errealizatiboa eta imaginarioa. Bestea, kuantitatiboa eta objektiboa (Sánchez Capdequí, 1996: 275).

Beste hitz batzuetan adieraztearren: gizakiaren segurtasun ontologikoa (Giddens, 1995: 51-92), norbanakoak “bere/berarekiko” esperientzia, “oinarriko konfiantzaren” bidez sinbolikoki organizatutako pertsona eta objektuekiko harremanetan duela kontuan hartuta, zentzuaren kontzeptu *funtzionala* beharrezkoa da

zentzuaren kontzeptu *arketipal* batekin osatzea (Berriain, 1996: 26). Horrela baino ez da lortuko Beck-ek (1998a:83) ezinbestekotzat jotzen duen bai gizakien arteko bai gizakien, izakien eta izadiaren arteko elkartasuna.

Azaldutako guztia gogoratuz, laburpen gisa nahi bada, gatazkaren soziologiak humanitatearen joan-etorrian, aurrezarrirako helburu baterantz bideratutako denbora linealean oztopoak sortu ezin zitezkeela zioen. Denbora linealaren nortasun itxi eta behin betiko finkatuak helburu berri eta aurrez ikusi/pentsatugabeak ezin sortzea adierazten du. Gure garaian “metafora handiaren” antibalentzia-aztarnak kontingentzia eta arriskua ezin ematea.

Baina, efektu kolateralek materializazio eta erakundetze sozial prozesu orotan, (nahi ez diren edota aurreikusitako gabe) emandako ondorioak esan nahi dute. Bidaia tenporal orotan dagoen kontingentzia edo arriskua, helburua lorraraz dezaketena zein finkatutakoaren aurkakoa.

Horrela ulertzen da Bauman-en (1996) ondoko ideia: errearen konplexutasuna eskematizatzeko sailkapen bibalenteen *ahultasuna*, baina, ahalegin horien porrotean, nortasuna birrintzen duen kontingentzian, sorkuntza psikosoziala eta bizikidetzaren ordena zehaztugabea *salbatzen* dira.

Hots, Castoriadis-en hitzetan, izaera tragikoak esaten duena da erakunde orotan, lehenago edo beranduago, *kontingentziak*, kaosak, eragiten duela eta aurreikusi gabea izanik euskarri guztiak ahultzen dituela. Behin hori onartuta, lehen tasun semantikoa duen Imaginarioari bere garrantzia murriztu behar zaio lehenik, eta ostean, *balio berrien bidez bizitza soziala eraiki* ahal izateko ingurunea prestatu. Horretarako, balio berriak, esandako guztia aplikatuz, lehenik irudikatu egin behar dira. Gero, erakunde-mailan zehaztu. Eta, jakina, gizartearen aldetik erreformulazio kritiko etengabera behartu (Castoriadis, 1998) eta inoiz ez absolutu egin.

Modernizazio erreflexiboaz mintzatzean ez da, beraz, gizarte idealaz ezer esaten. Bikoiztasuna baztertzen bada, ona/txarra ere baztertu beharra dago. Denbora kualitatiboak gidatutako sorkuntza psikosoziala, mito berri baten mozorropean “beti berdinarean” itzulera baino ez da.

Mito ezak, edo nahiago bada progresoaren mitoaren porrotak, jasangaitza den eta norbanakoen integritatea erasotzen duen modernitate industrial deslegitimatu du. Hori gertatzen da Imaginario moderno definitzen duten eduki semantikoan oreka mantendu ordez, “besteekiko”, izadiarekiko, ardura erakutsi ordez, luxuari eta aberastasunari lehen tasuna emateagatik.

Eta legitimatu, berriz, gaur egun anomikoa den gorputz soziala birsortuko duen kontraproiektu berria. Zentzu horretan behar da ulertu, gaur egungo erronka sorkuntza mitikoaren denbora delako baieztapena.

3.2. **POLITIKOAZ (EDO POLITIKA BERRASMATU BEHARRAZ)**

Ekintza politikoa gizarteak bere sorreraren berrikusketa kritikoa eta arduratsua egitea da. Gizartearen esparru etikoa da. Ekintza politikoak gizakia eta bere sorkuntza, horren ondorioz lege ororen izaera kontingentea eta, beraz, berrikusi beharra azpimarratu behar ditu. Horretarako, noski, hori egin ahal izateko aukera eta baldintzak bermatu behar dira, Euskadin ez daudenak:

- Batetik, komunitatea behar da, komunitate errekonozitua, printzipio etiko-politikoak instituzionalizatuko dituen. Askatasuna, bizitza eta beste, akordatu egiten dira, absolutuak izan daitezela hitzartu egiten dira, egin behar dira. Horretarako behar da komunitate politikoa. Zentzu horretan lotu beharko lirake etika eta politika. Hori horrela izan ezean, ez da Euskadirik izango.
- Bestetik, behin aurrekoa bermatuta, demokrazia, indar-harremanak behar dira, gizarte politizatua, gizarteak politikaz hitz egiteko aukera izatea, erabakitzea, eta ez burokrazia eta alderdikeriak, ez kultura politiko autoritarioa.

Konstituzioa eta erakundeak nahitaezkoak direla onartu beharra dago, baita Konstituzioak ezin duela subditoen kontradizioen mediaziorako bitartekoa izan ere. Muga itxiak eta zehaztuak gaudituz behar dira. Prozesuaren baldintzen teoria bat eta horren arabera hiritarrek euren oinarritzko egiturak aldatu ahalko dituzte. Erljioa eta politika nahasten ez badira, giza eta gizarte-harremanetan balio absoluturik ez dago. Esfera politikoan egiak ez du lekurik, iritziaren esparrua da, eta tokian tokiko baliagarritasuna eta legitimitatea izango du (Mouffe, 1999: 34). Taldearen egitura logiko-kognitiboak bere bitarteko kritiko-diskurtsiboen bidez, gaur duen egiteko nagusia, politika kanpotik ordenatua (demokrazia formala) den ustea baztertua da. Ez dago esan beharrik, horretarako baldintza den komunitaterik ezean, azken hori egituratzea dela lehen erronka. Ondoko orrietan, lanean zehar orain arte egindako hausnarketak esparru politikoan nola islatzen diren erakutsi nahiko da.

Politika berrasmatu behar dela argudiatuko da lanaren atal honetan, baina sistema politikoaren, ekonomikoaren, zientifiko-teknikoaren, erlijiosoaren eta besteen arteko elkarrekintzaren ikuspegitik. Goiko paragrafoetan bereizi diren baldintzetatik bigarrenari helduko zaio. Alegia, komunitatea, bere printzipio etiko-politikoekin, onartuta dagoela auresuposatzen da. Ez da, beraz, politika eta nortasun kolektiboaren ikuspegitik garatuko.

Baina bigarren ikuspegi horrek ere konplexutasuna eta kontingentzia oinarritzat dituen gizarte garaikidean arretarik mereziko luke, eta zeresanik ez Euskadin. Izan ere, azken hamarkadetako jazoerekin (harresiaren erorketa, klase-borrokaren paradigmaren ahultzea eta marxismoaren krisia) politika kontzertuz

“unibertsalaren” bidetik gauzatzeko joerak bazter guztietatik nagusitu dira. Sistema batek totalitatearen ordezkari ezin dezakeela izan argudiatuko den bezala lanaren ondoko orrialdeetan, pertsona bakoitzak, eta bere kasuan komunitate bakoitzak, munduaz duen ikuspegia ere partikularra dela onartu behar da.⁵⁰

Azken baieztapen horretan murgiltzeak pluralismo demokratikoaren ideia beharko luke azpimarratu. Horrela politik(o)a hitzaren bi erroak errespetatuko lirateke (Mouffe, 1999: 14): bai bizikidetzaren aldeko apustua (*polis*), baina baita bertan “agonismoa eta gatazka bermatzea” (*pólemos*) ere. Biak eman eta bermatu behar dira politika demokratikoaz hitz egiteko. Hala izan ezean, dela lehenengoa baztertzearekin (Schmitt, 1991), dela bigarrenkoa baztertzearekin (Habermas, Rawls), “politika lagun/etsai”-harreman arriskutsu bilakatuko da (ikus: Mouffe, 1999).

Modernitateak jorratu izan dituen kontzeptuak berrikusi beharko dira gizarte garaikidearen *arazoa* pluralismoa den honetan. Hots, demokrazia modernoak bere hastapenetan berdintasuna eta homogeneotasuna zituen helburu, eta gizarte garaikideak bere baitan, besteak beste, hizkuntza, erlijio, etnia, arraza, ongiaren eta justiziaren ikuspegia edo joera sexual desberdinak edukirik, *desberdintasuna* eta *pluralismoa* behar ditu *onartu*.⁵¹

Modernitatearen filosofia politikoa egiten jarraitzen dutenengan agerikoak dira gabezia horiek, baita beren jardunean eraldaketa- eta eboluzio-nabarmenak emanagatik ere. Alderatu besterik ez dago, esaterako, Rawls-en idazkietan (1978 eta 1996) joera aldaketa hori.

Berrikusketaren behar eta ahalegin hau izaera orotako nortasun-gatazketan, kontzentzu arrazionalaren aitzakiarekin posizio absolutuak darabiltzaten jarrerak (Rawls, 1978; Sudupe, 1994) baztertzeko ekarpena izan daiteke, norbanako/talde-berezitasuna *eta* beronen berrikusketa/kontingentzia ere onartzearekin batera (Miller eta Walzer, 1997). Halaber:

50. Xavier RUBERT DE VENTÓSek azken lanetan beti egin dio erreferentzia ideia horri. Sistema baten barruan sektore batek hazkunderako hartutako muturreko joerak taldea kontuan ez hartzea ekarri izan du; lan honen 3.2.1. atalean, sistema politiko eta ekonomikoak hizpide harturik argudiatuko bada ere ideia hau, filosofo katalanak (1996) gauza berbera gertatzen dela frogatu du norbanakoaren bizitza moralean ere bai. Norberaren printzipioen, idealen edo inperatiboen baieztapen metastasikoak, gainerakoak norberaren helburuak lortzeko bitartekotzat erabiltzea ekartzen du. Horren aurrean, inguratzen gaituzten beharren aurrean arreta jartzea beharrezkoa izango da; bestearekiko (elkar)menpekotasuna. Inplizituki mezu hau bere hartuta, INNERARITYk (2001a) gizabanakoon eguneroko pasarteak oinarri dituela (ezezagunaren agerpena, denbora, zorientasunaren eta moralaren harremanak, “biografia erreflexiboa”, pluralismoa, etab.), moralaren inguruko hausnarketa filosofiko bat egingo du. Gizarte garaikidean ematen ari diren azken gertaeren aurrean, aintzakotzat hartzeko liburua da, bere kritika guztiakin.

51. Filosofia politikoa pil-pilean dauden eztabaiden inguruan, Ikus: KYMLICKA, W. (2002): *Contemporary political philosophy. An introduction*. New York, Oxford University Press.

- “Integraziorako eta bizikidetzarako esparru politikoa” eta “norberaren nortasunaren balio morala” bereizteko (Walzer, 1994), eta, bide batez, “Estatuaren neutraltasun morala” (Dworkin, 1983) planteatzen duen argudioa baztertzeke.
- Erakunde itxiak eta betierekoak demokrazia modernoaren aurkari direla jabetzeko.
- Denek zentro politikoa (zentroaren errepublika) bereganatu eta ezker-eskuin antagonismoa baztertzeke joera duten honetan, aukera honen arriskuez ohartarazteke ere bai. Pragmatismoaren izenean, ideologia eta politikaren porrota kasu, erabakiak adituei utziz. Demokraziaren teoria ekonomikoa delakoarekin uler litezke Europako herrialdeetan ezker-eskuin *cleavage* edo gatazka ardatzaren oinarri nagusia den zerga-politikaren inguruko erabakiak, SPD alemaniar alderdi sozialdemokrataren zerga-erreforma ez delarik auzi bakana.⁵²

Eta hori guztia, “nortasun- eta ideologia-borrokak gainditu direla” esatea “politikan balioen pluralismoa baztertzea” delako (Innerarity, 2001b). Alegia, antagonismoa desagertzea politika demokratikoaren amaiera da, ez baita ahanzi behar bizitza politikoa nortasun kolektiboaren eraikuntza eta ekintza publikoaren esparrua dela.

Beraz, esan bezala, hurrengo orrietan, egin berri den gogoeta horren garrantzia ahaztu gabe eta, lan sakonago baterako ateak zabalik utzita, areago Euskadin hor egongo bada izaera politikoa duen nazio nortasunaren gatazkaren bideratzea, sistemen arteko elkarrekintzaren ikuspegitik jorratuko da esparru politikoaren gaia.

“Politikoaren amaiera” heldu dela sarri entzun izan bada ere, ahanzi egiten da estatu-aparatuen immobilismoa bateragarria dela gizartean irudikatu daitezkeen esparru orotako aktoreen mobilizazioarekin. Hots, politikak behepolitika aktiboan amai dezakeela. Horretarako, politikoa eta sistema politikoa bateratzeari muzin egin beharko zaio, beharrezkoa izanez “konstituzioaren teoria” berri bat.

Kapitalismo industrialaren ereduan sistema politikoaren erabaki-esparruetatik at geratzen diren gaietan eta arloetan ematen ari da lehia politikoa. Laborategietan, erietxeetan eta medikuen bulego pribatuetan, familian eta etxean, unibertsitate- eta enpresa-hitzarmenetan. Behepolitikak politika baldintzatzen duen aro honetan, politikoa “berrasmatzeko” aukerei behar zaie erantzun. Edo beste hitz batzuetan esanda, gaur egun politikak zerbaiten beharrik badu, hori konplexutasunaren tematizazioa da.

52. Ikus: DOWNS, 1973.

Gaur gaurkoz hutsune politiko nabarmena dago, mendebaldearen garaipenarekin batera, kontzientzia faltsu batek estalia dena:⁵³

“anitz euren baitan babesten dira postmodernitatearen arrosarioa murmuratuz —politikaren amaiera, historiaren amaiera, ezerk ez du zentzurik, beranduegi da—, Ekialde-Mendebalde ordenaren hondarretan, politika birjaiotzen den heinean”.⁵⁴

1989. urtea historiara garai baten amaiera moduan iragango da. Eta ez soilik errealki emaniko sozialismoaren porrotagatik, baita itxura egonkorra plazaratua-gatik ere, Sortaldearen erorketak Sartaldean eraginik izan duelako. Montesquieuren esaldia bere erara azalduz, Beck-ek (1994: 14) erakundeek euren garaipenagatik egiten dutela porrot dio, Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko aurkakotasunaren amaierak mendebaldeko politikaren printzipioak jokoaz kanpo utziz, eta beraz, politikoaren birformulazioa eta erreforma ahalbidetuz. Kritika harrizatuaren heriotza da, hots, kritikaren piztuera. Eta ez, zenbaitek sinetsarazi nahi duen bezala, kritikaren heriotza.

Oposizio hark politikoa izaera bakarrekoa izatea zekarren, eginbeharrak tinkoak ziren eta kontradikzioek guztia betetzen zuten. Guztiek zekiten zer egin eta zer ez, eta modu honetan “Ekialde-Mendebalde gatazkaren mekanikak politika zentzu hertsian desmontatu zuen”. Mendebaldeko pentsamenduan garatutako “politikaren amaieraren” tesia Ekialde-Mendebalde oposizioaren markoan emaniko politikaren tesiaren amaiera da. Gizarte-ekintza oro zentzugabekeriatzat jotzeko joera zuen garaiari amaiera ematen dio, ekintza eta fantasia politikoak aukera berriak mahaigaineratuz. Modernitate fatalista modernitate politiko bilakatzeko da zutabe nagusiak mugitu, berritu eta aldatu egiten direlarik: familiaren eta sexuen birdefinizioak, industria-gizartearen berregituratze ekologikotik iraganaz, Europaren berreraikuntzaraino, guztia dago mugimenduan. Gakoa eraldaketa hori Ilustrazio mugimendu sozial moduan ulertzen duen politikak (behepolitika erreflexiboa eta politika erreflexiboa) *edo* teknokrazia autoritarioak gidatuko duena izango da.

Fatalismoari berriazkoa zaion eta bere aliatua den indiferentzia, Mendebalde zaharraren ideologia bihurtzen da, argumentu atzerakoi horiek ordena zaharreko hondarretatik politika askatua izan dela ahazten baitute. Bitxia hori dioten asko, gehienak, boterean edota horren zerbitzura dauden intelektualak izatea. Bestalde,

53. Ekialde-Mendebalde gaiak egingo diren argudioak zuzenean BECKen (2000a: 99-114) irakurketatik hartuta daude.

54. Hamaika modutara erabilia da *postmodernitate* hitza, egilearen arabera arras esanahi ezberdina izan dezakeena. Kontzeptuaren jatorrien inguruko irakurketarako, ikus: ANDERSON, 2000. Lan horretan, *postmodernitate*-kontzeptuak aipatu berri diren esanahi guztiak barneratzen ditu: politikaren amaiera, historiaren amaiera, ezerk ez du zentzurik, beranduegi da, etab. Zehazki gai hau sakondu nahi izanez gero, estetika eta hizpideak, eta horren guztiaren azpian ezkututzen dena ezagutzeko, ikus: RIPALDA, 1996; zer esanik ez, lanean zehar erabilitako RIPALDA, 1999a.

euskaldunak —bizitza guztirako marka beltza izango dutenak— asko dira Madrilén: intelektual etapistak helmugara ailegatu dira. Bizitza politikorako itzulera pribatua zirudiena, politikoaren dimentsio berri batek gardentasun politikoko kategoria zaharrekiko erronkatzat darabil.

Beraz, ez da politika agortzen, politika egiteko forma jakin bat baizik. Politikak azpisistema bakoitzak (sistema politikoa, ekonomikoa, zientifiko-teknikoa) luzaroan bere ezaugarri bereizleak izan dituen hierarkia, zuzeneko autoritatea, guztiaren erdigunea izatea eta alde bateko kontrola baztertzeko ardura hartu behar du. Eta gizarte garaikidean jarduteko ezaugarri berriak bereganatu beharko ditu(zte), hala nola, “heterarkia, komunikazio lotura, eraketa polizentrikoa, inplikazio politikostuak” (Innerarity eta Innerarity, 1999: 232-233).

3.2.1. *Parapolitikatik behepolitika erreflexibora*

Modernizazio itxaropentsuak zein ezkorrak antzekoa dute modernitate bakarra. Adibidez, progresoaren eredu linealaren bultzatzaileek eta ekologista nihilistek, “teknikak sortutako kalteak teknika perfektuago batek zuzenduko ditu” eta “dena da arriskua, ezer ez da arriskua” azpimarratuz, ez dute autodinamika industrialaren aukera besterik onesten, legitimatzen, orokortzen, legalizatzen. Modernizazio erreflexiboak jarrera horri modernitate anitz daudela erantzuten dio. Gizarte industrialeko bestelako diferentziazioek modernitate berri baterako ateak zabaltzen dituzten unean, Beck-ek (1994: 40) funtzionalismoak gizarte diferentziatua diferentziazio amaitutzat jotzea salatzen du. “Funtzionalki diferentziatua” den industria-gizarteari “diferentziazio funtzionalak” behar zaizkio aplikatu, modernizazio industrialak behar da modernizatu.

Kode-sistema baztertzailak (“azpisistema bakoitzak bere kode unilateralak, independenteak eta betierekoak ditu”) aukera oro baztertzeko duenez, azpisistemaren arteko *elkarrekintzak* behar luke izan ezaugarri adierazgarri berria, adituek publiko profanoari ilustratzea uztea eta anibalentzia onartzea. Arrazionaltasun instrumentalaren ereduak baztertu, eta industriaren, politikaren, zientziaren eta biztanleriaren artean kontzientzia eraikiko duen lankidetzarako foroak eta taldeak eraikitzea (Beck, 1994). Hots, Arrazionaltasunaren arrazionaltasuna. Berreskuratu behar dena arrazoia da bere onura eta akats guztiekin, gizakia bere onura eta akats guztiekin. Arrazionaltasun burokratikoaren orde, arrazoia, arrazoi akastuna.

Gizarte garaikidearen ezaugarri bereizgarria konplexutasuna dela adierazten bada, diskurtso menperatzailearen “bi aukera, hau edo hura, besterik ez daude” baztertzeko dela esan nahi da. Gaur arteko ordenari buruzko ikuspegi sinplisten joera bazter daiteke hori berretsiz gero. Hau da, aukera bakarra ez da “azpisistema independenteak *edo* zati guztien arteko batasuna sistema jakin baten gidaritzepean”.

Ordena, ordena bada, gizarte konplexuetan ez da, ez erabateko kaosa, ezta muturreko ordena perfektua eta autoritarioa ere. Unibertitate, merkatu-ekonomia, Zientzia eta Teknika, Zuzenbidea beharrezkoak dira. Hori da modernitatea ahalbidetu zuen urrats azpimarragarrietakoa, baina horiek ez dira autonomoak, ez dute naturalki eta beraien kabuz funtzionatzen. Gizakien menpekoak dira. Eta gizarteak zuzenduta eta gizartearentzat zuzenduta egon liteke. Hirugarren bide hori ere aukera bat da, lortu eta bermatu beharreko aukera bat. Politikaren erronka beharko zukeen izan, bai gizartearen zerbitzura egotea, bai botere banaketa, baina elkarrekintzan bermatzea.

Politikak (edo beste azpisistema orok) ez duela guztiaren ardatza izan behar esaten bada, politikaren eginbearra batasunaren eta diferentziaren bizikidetzat ahalbidetuko duen gobernurako jardunbideak eratzea da. Egiatzki, alde bateko irtenbidea baita *izatez* arazoa. Nagusi izan diren jarrera unilateralen orde, elkarrekintza behar da egikaritu.

Gobernuaren erronka-sistema diferentziatuek (Zientziak, Ekonomiak, etab.) “ingurunea kontuan hartzeko” bitartekoak eskaintzean datza, modu deszentralizatu eta ez-autoritario batean egin beharko dena. Azpisistema bakoitzak bere ingurunea baino ez du kontuan izan. Autoerreferentzialitatea izan da ezaugarri nagusia eta ondorioz, zientziak esparru zientifikoa edota ekonomiak esparru ekonomikoaren inguruko ardura erakutsi du soilik. Ez da kontuan hartu beste esparruetan eragin zezakeenaren ustea. Are gutxiago, gizartearen eraldatzeko aldagai bilaka zitekeelako ideia.

Gabezia horri irtenbidea aurkitu behar dio politikak. Baina, berriro errepikatuz, honako baldintza hau bete behar da, politika bera ez dadin bilaka guztiaren erdigune autoritarioa. Ekintza politikoak abiapuntu modura gizartearen konplexutasuna eta kontingentzia hartu behar ditu eta, beraz, estatu autoritario baten kontrola baztertzeko duten sistema sozialen koordinazioa eta mediazioa dituzte eginbear modura politikak eta Estatuak.

Estatu modernoaren inguruan baieztapen kontradiktorioak formulatu daitezke: Batetik, desagertzen ari dira, baina bestetik inoiz baino beharrezkoagoak dira. Agian hori ez da lehen itxuran eman dezakeen bezain absurdoa. Formula batera murriztearren: desagertzea gehi asmakuntza estatuaren metamorfosia da (Beck, 1994: 57).

Estatuak eginbear klasikoak gainditu eta izaera globala duten eginbearretara egokitzekeko erronka du.⁵⁵

Ruvert de Ventós-ek honela adierazten du:

55 Irakurlea ohar dadila: ez da Estatuaren desagertzeaz hitz egiten. Batzuek, ordea, “Europa, Europa” esateari utzi diote, “Kuota, Kuota” hobetsiz. Con-fe-bask. Sin-fe-bask. Europa sin-bask. Postmodernoak izan nahia ondo dago; ni horren alde nago, baina modernoek erabakitzen dute zorritzarekin, modernoegiek. Eta agente soberanoak ez daude postmodernoak izateko prest.

Nik ez dut uste ardura hainbeste politikoena denik, berauek ibili nahi edo behar izan dituzten *surf* “tablena” baizik. Garbi dago, Europako estatu garaikideen “tablaz” mintzo naiz (2000: 145).

Bere ustetan, “sistema politikoaren” defentsarako erreakzio guztiak Estatuarengan duten fede “errepublikanoa” ez galtzearen eginiko azken prozesioaren edo auto-sakramentalaren antzekoak besterik ez dira (2000: 148).

Industrializazioko implementazio prozesuaren amaiera da. Ekintzaren gizartean sistema politikoetatik eta korporatiboetatik at dauden agenteei jarduteko aukera eman behar zaie.⁵⁶ Behepolitikak, jendea *behetik* konfiguratzea dakar. Industrializazio- eta teknifikazio-prozesuan inplikatuak ez zeuden taldeek gizartearen organiazioan ahotsa izatea lortu nahi da, beraiei eragiten dien heinean, erabaki-esparru birformulatuetan parte-hartzea.

Politikaren berreraikuntza-saio honetan:

Aurkakotasunak baztertu eta beronengandik botere-tresnak eratorri eta areagotuko ez dituen politika sortzailea eta autosortzailea beharko zatekeen eraiki. Berritasuna dela edukietan, dela formetan, dela aliantzetan (Beck, 1994: 56).

Konplexutasunak ezinezkoa egiten dio sistema bakoitzari: bai norberaren konplexutasuna harremanik gabe kudeatzea, bai beste sistemen jarduerak ulertzea. Autoerreferentzialitatearen ondorio kaltegarria da hori.

Agerikoak dira, ordea, modernizazio erreflexiboak eskatzen duen jokabide berri horietara urratsa emateko zailtasunak. Ezintasun horren gakoa, lehenik eta

56. “Esta opacidad de lo público, característico de regímenes con importantes vinculaciones precapitalistas, que se suele llamar abreviada, aunque inapropiadamente ‘feudales’, no es ya, ni mucho menos, sólo una cuestión de arbitrariedad, ansia de poder o intervención de los poderes fácticos y los grupos de presión. Lo que actualmente se perfila es la falta de entidad política de los supuestos sujetos del voto y de la opinión pública, es decir de los contituyentes del Estado por representación, sustituidos por las corporaciones. Jane M. Gaines (*Contested Culture. The Image, the Voice, and the Law*. The University of North Carolina Press, 1991) ha documentado en la producción estética la sustitución del individuo como sujeto de derechos por las corporaciones. Este desplazamiento jurídico se inscribe en realidad en un movimiento mucho más amplio, denunciado por Th. J. Low (*The End of Liberalism*, cit. por Greider) hace veinte años y cuya designación como “democracia de los lobbys”, demasiado eufemística, debería ser sustituido por el nombre más recto ‘liberalismo de los grupos de intereses’. (En la versión alemana, conforme a la tradición estatal europea y a conocidos condicionamientos históricos, se ha adoptado una variante cauta, estatal de este mismo liberalismo bajo el nombre de “sociedad conformada” –el canciller Ehrhard fue su propugnador político, como Luhmann su teórico característico–: es la versión que posiblemente vaya a tener aplicación más aproximada en España.)” (RIPALDA, 1993: 73-74; testu eraberritua: 1996ko liburuan, *Apostilla: La decadencia de los intelectuales* artikuluan, 177-191. or.). Lanean zehar gogoeta horiek era batera edo bestera islatuak izango dira, Luhmann (teoria funtzionalista “eraberritua”) eta gainerakoen lanak kritikatzeko asmoarekin. Autokritika sozialaren teoriak (Beck) hori du helburu nagusizat. Era berean, noski, Ripalda bere liburuetan (ikus, 1999a) behepolitika erreflexiboaren alde agertuko da.

behin, *politikaz* zer ulertzen den aztertuz jakin daiteke. Modernitatearen eta kontramodernitatearen arteko bizikidetzeta nabarmentzen da. Industria-gizarteak bere hastapenetatik hiritarra eta burgesa bereizi izan ditu.

Alegia, sistema politiko-administratiboaren eta sistema tekniko-ekonomikoaren autodiferentziazioa ematen da (Beck, 1998a: 238): esfera politikoaren printzipio axiala hiritarrak demokrazia politikoaren erakundeetan parte-hartzea da. Aldiz, “burgesaren” jarduna bere nahimen tekniko-ekonomikoak lortzearren politikatik at kokatzen da. Azken hori lortzeko, bi ideia erabiltzen dira euskarri modura: Aurrerapen sozialaren eta teknikoaren parekatzea (aurrerapenaren eredu “zaharra”), eta aldaketa teknikoaren emaitzaren eta garapenen zuzendaritza ordena teknikoetara eta ekonomikoetara murriztu beharra. Teknokrazia autoritarioaren eredia.

Horren ondorioa, bizitza-maila hobetzearren, efektu ezkorak onestearekin batera, berrikuntza tekniko-ekonomiko guztiak politikoki legitimatuta egotea da. Teknika kritika orotatik at dago. Aurrerapenak ezer auzitan jartzea ekiditen du. Nolabait esatearren, ezezagunak diren emaitzaren eta ondorioen aurretiazko onarpen edo baimen politikoa eman da.

Horren zeharkako ondorioa, jakina, komunitate-bizikidetzaren ahultzea eta ikerketa zientifikoarekiko eta teknikoarekiko mendetasuna dira, horiek merkatuaren eta irabazi ekonomikoaren zerbitzura jartzen baitira.

Hiritar- eta burges-nozioak parekatzean, gauzarik okerrenea politikoa burgesa murriztu izana da, zeina, era berean, nahimen indibidualetara mugatuta dagoen, baina “hiritarra” simulatzen duen orokortasun ukitu batekin, merkatuarena (Ripalda, 1999a: 26).

Funtzio eta sistema baten nagusitasunak dakartzan ondorioen irakurketa berbera egin liteke, noski, sozialismo errealeko herrialdeetan, konplexutasuna murriztuz, “sistema politikoak” inposatutako ordenaren alde onak erakusteko beharrezkoak izan ziren errepresioa, ingurumenaren hondamendia (Zhores, 1993), militarizazioa, etab. argudio bezala erabiliz gero. Baita, bizikidetzarako “erlijioa” ardatzerako eta legitimaziorako iturri darabilten herrialdeak eredu hartuz gero. Kasuan kasuko desberdintasunekin, integrazio sozialaren eta ordenaren berrekoizpenarako monopolioa aldagai bakar batek hartzen ditu Ekonomia, Zientzia eta Teknika, Politika edo Erlijioa.

XIX. mendeaz geroztik indarrean egon den politikoaren eta ez politikoaren bereizketa ahalbidetzen zuten bi ideia nagusi, ordea, birrindu egiten dira hirurogeita hamarrean. Batetik, ongizate-estatuari zentzua eman zion desberdintasun soziala. Eta, bestetik, zientziaren orokortasunaren eta ekoizpen-indarren garapena (horien “aldaketa-indarrak” ez zuen, ordura arte, ekintza politikoaren esparruan eragiten, eta ez zituen aldaketa sozialaren aurrerapen-ereduaren zutabe legitimatzaileak zalantzan jartzen). Lan honetan erakutsi ahal izan den moduan, modernizazio erreflexiboan hori guztia zapuzten da.

Inork pentsa dezake politika ahultasunak jota dagoela. Baina ahul daudenak sistema politikoaren ekintzak dira. Bestelakorik ari da ematen ongizate-estatuarekin orokortutako eskubideen bidez sortutako kultura politiko berriarekin. Ekintzaren gizarteak zaharkituta uzten du gobernua guztiaren ardatz egotearen irudia.⁵⁷ Aurreikusi eta kontrolatu daitekeen ezer ez egoteak eta klase politikoa ematen diren jazoerez ohartzeko azken esparrua izateak autoorganizazio gaitasuna eskatzen du, hau da, jendearen behopolitizazio erreflexiboa.⁵⁸

Garapen zientifiko-teknikoak (nahigabe, autodinamika industrialaren bidez), eraldakuntzak eta kalteak sortzeko gaitasunarekin, esparru “ez-politiko” izateari *uzten* dio (familiaren kasuan gertatu den bezala, esaterako). *Gizarte berriaren eraikuntza* ez dago legebiltzarraren edo botere exekutiboaren erabakien menpe. Mikroelektronikak, teknologia nuklearrak edota manipulazio genetikoak baldintzatzen dute gizarte berriaren eraikuntza.

Hori gertatzen den une beretik, modernizazio-prozesua orain arte politikoki neutralizatu duten esparruak birrindu egiten dira. Herritarrek ezin dezakete erantzuna jasotzearen zain egon, are gehiago alderdi politikoak, sindikatuak edo gobernuak —erakunde sozialak, or har— gero eta birmoldatuagoa den errealitate sozial zahar-kituaren babesleak izanik.⁵⁹

57. Normatiboki ez ezik, funtzionalki ere zaharkituta geratu da, buruzagitza politikoaren lehia oinarri darabilen demokraziaren teoria enpirikoa. Ideia *haietaz*, ikus: Schumpeter, 1968; Lipset, 1977.

58. Elitistek ez bezala, gizarte zibilaren dimentsio politikoa azpimarratzen dute. Botere politikotik at geratu ordez, botere politikoa baldintzatu egiten du. Dikotomia liberala, estatua eta gizartea banatuta ikustea, amaitzen da (Cohen eta Arato, 2000). Ildo horri jarraituz: *Demokraziak bizirik iraungo badu, ezinbestekoa da bizilagun guztiok herritar gisa jokatzea. Hots, gizarte zibilaren ekimenak eta nahiak aintzat hartu behar dira, ezen demokrazia bahituta dagoenean, behopolitikaren beharra inoiz baino beharrezkoagoa baita, ia inperatibo kategoriko bilakatzeraino* (Casquete, 2000a). Ikus: Arato 1996; Vallespin, 1996; eta, Pérez Díaz, 1996. 4.1 atalaren amaieran, aipatutako artikuluak kritikatzeko pasarteak topatuko ditu irakurleak.

59. Agian “errealitate sozialaren babesle izanik” esan ordez, hobe ondokoa esango balitz: “errealitate sozialaren babesle diren heinean”. Zeharo ezberdinak izan daitezke bi esaldiak. Lehenengo esaldia bere horretan ulertzearekin, OFFEren (1988) akatsean eror gintezke, hau da, gizarte-mugimenduek paradigma zaharra edo alderdi politikoak ordezkatzeko sortuak diren ustea. Azken hamarkadan emaniko jazoerek, ordea, gizarte-mugimendu berrien helburuak bestelakoak zirela eta direla erakusten dute. Inork *dezepziarik* har ez dezan, beraz, baliteke (momentuz behintzat) euren helburua alderdi politiko gardenak lortzea dela uste izatea, gaur egun daudenak *txukuntzea* edo Ibarra-k (1995) dioen moduan “ametsetako alderdi politikoak” lortzea. Ibarraren jarrera horrek, era berean, mugimendu sozialen normalizazio eta erakundetze politikoa eman izana ulertzeko balio du. Bibliografia apur bat 1. alderdi politikoen inguruan: von Beyme, K. (1986), Casquete (2000b), Duverger (1974), García Cotarelo (1985), Martínez Sospedra (1996), Michels (1969), Sartori (1980). 2. Gizarte-mugimendu berrien inguruan: Casquete (1998), Castells (1997), Ibarra eta Tejerina (1997), Kriesi (1992), Laraña eta Gusfiled (1994), Laraña (1999), McAdam, McCarthy eta Zald (1996), Melucci (1989, 1996), Tarrow (1997).

Industria-gizartetik *harantzagoko* gizartea jaio da. Haustura islatzen du “mundua ulertzen ez duen” erakundeetan babestutako gizarte industrialarekiko. Aldaketa soziala forma *ez-politiko*en bidez ematen ari da.

Bereziki gazteei politikarekiko ardurarik ez dutela leporatzen zaienean, egin berri den baieztapena izan behar da kontuan. Alegia, autoritate ofizialen gaitasun politiko urria eta, gaitasun ahalmena galdu eta ez politikoa esparrura marjina-tuz, etengabe aldatzen ari den gizartearen artean dagoen *desproporzioa*.

Berrikusketa sistematiko baten beharrea daude politikoa eta ez-politikoa kontzeptuak. Horretarako kontuan hartu behar dira *baldintza* modura: batetik, ekintzarako eta erabakirako estatu autoritarioak estatu negoziatzaileari bidea eman behar diola, egitura subirano eta koordinatzaile hierarkiko izateari utziz. Eta bestetik, estatuaren iraungipenaren beste ezaugarria autorganizazioa, gizartearen behepolitizazioa dela. Eginbeharrak eta moduak aldatzen ari direla, edo aldatu behar direla esaten bada, eginbehar berriak eta aitzinera eramateko moduak eztabaidagai bilakatu behar dira. Honetarako bitartekoa “nahimen sozialen negoziazio ahalmena da” (Beck, 1994: 59).

Esan bezala, Ripaldak (ikus 3. atala) urrats honetan ikusten ditu zailtasunak. Izan ere, hori burutu ahal izateko ezinbestekoa da interesak autoorganizatzeke gai izatea. Gizarteko eta politikako esparru esanguratsuei agente antolatuek hitza ematen dietenean baino ezin daiteke gauzatu. Baina gaur egungo gobernu eginbeharren ezaugarria oso bestelakoa da.

Hala ere, beste muturrera ere ezin daiteke egoera eramán. Alegia, horrek ez du esan nahi, estatuak ardura guztietatik askatu behar duenik. “Gizarte-gaitasunik” ezean, Estatuak aldi baterako eginbeharrak mantendu behar ditu. Baina ahal den heinean, gizarteratu behar dira. Politika erreflexiboaren mezua bikoitza da: Estatuak *eginbehar* berriak bereganatu behar ditu, baina baita *modu* berriak ere.

Azaldu berri den “sistema politikoa” eta “politikaren” arteko urruntzea eztabaida eta jarrera politiko askotan onartua da. Politikoa eta ez-politikoa kontzeptuak berrikusi behar direla gero eta sektore zabalago batek onartzen du. Hala ere, hori onartzen den jarrera askotan, eta irtenbideak topatzeko ahaleginetan, hutsune garbi bat dago Beck-en ustetan. Izan ere, eraginkortasun politikoak garapen ekonomikoaren eta teknikoaren ondorioz oztupoak jasaten dituela onartzen den kasuetan, “bozkatzaileen demokrazia” jarri ohi da auzitan. “Baina inoiz ez *beste* gizarte bat sortzen ari denik” (Beck, 1998a: 242).

Haien iritzian, irtenbidea honako hau izango litzateke: Gizartea eraldatzen duten esparruek sistema politikoari lotuta dauden “erakundeen oniritzia izatea”. Lehen aipatutako hiru adibideekin irudikatzearen, besteak beste, mikroelektronika, teknologia nuklearra eta manipulazio genetikoa esparruetan ematen diren aldaketek ordezkari politikoen oniritzia aurrebaldintza izan beharko zuketen. Halako

jarrerren aldekoek legebiltzarrak konplexutasunaren ondorioz nahimen arrazionalaren erdigunea izateari uztea kritikatu ohi dute. Eta, beraz, euren ustez legebiltzarraren birjaiotza litzateke irtenbidea.

Hala ere, izaera horretako irakurketek hutsune garbia daukate: Hiritarren nahimenak ahaztuz, legebiltzarrari dagozkion erabakiak beste esku batzuetara joaten ari direla ez onartzea. Izan ere, gero eta gehiago dira alderdi-aparatueta eta burokrazia estataletan harturiko erabakiak. Legebiltzarraren berpizkundea, besterik gabe, irtenbidetzat jotzen dutenen jarrera ahuldu egiten da, era berean, beste bi joera hazkor hauek erantsiz gero: hazkunde teknokratikoa, eta modu korporatiboan antolatutako taldeen areagotzea eta sendotzea (Beck, 1998a: 242).

Gainera, legebiltzarraren ahultze honi aurre egiteko sortu ohi diren “erantzun-taldeak”, mugimendu sozialak, *oztopo* bezala hartu dira “legebiltzarraren ego-kipena” asmo dutenen aldetik. Honako hau diote: “Ez dakigu bozkatzaileek zein jarrera har dezaketen”, eta mugimendu sozialak eta hiritarren ekimenak ezinegona sortzen die. Jarrera defentsibo horiek mantentzearekin ezkutatu egiten da sakoneko arazoa.

Neurri handi batean ulerkorrak dira jarrera atzerakoi horiek, industria-gizartearen proiektuarekin “sistema politikoak” erabakitzeko gaitasunaren erdigunetzat jo izan baita. Horretarako, batetik, legitimazioaren aitzakian hiritarrei eskubide demokratikoak eskaini zaizkie. Baina, bestetik, erabaki politikoak hartzerakoan, harreman autoritario hierarkiko bat mantendu izan da. Joera hori oraindik oso errotuta dago. Eta lan honetan proposatzen dena oztopatu egiten du politikaren monopolioa aldeztu duen jarrera orok, kritikoa izanagatik ere.

Modernizazio erreflexiboarekin, ordea, halako formek ez dute bideragarritasunik. Gero eta agerikoagoa da irtenbide politikoaren izaera kontingentea. Praktika sozialak eta gobernu-formak, “tradizioak edo zalantzan jarri gabeko autoritateak babestuak *ez*” dauden garai honetan, ziurtasuna eta ordena galtzen diren garai honetan, politikaren eginbeharrak kontingentziaren kudeaketa izan behar du (Innerarity eta Innerarity, 1999: 232).

Sistema politiko-administratiboa bizitza politikoaren leku jakin eta zehatz batean egotearen irudiak “zentzu” guztia galtzen du. Demokraziak politikoaren bestelako nozioa eskatzen du, eta erakunde politikoek eskubideak dituzten eta parte-hartzeko prest dauden hiritarren nahimenei lekua egin behar die, erabakiek euren bizitzan eragiten dutelako eta euren zerbitzura jarri nahi dituztelako.

Alegia, eskubideak hedatu, ugaritu eta parte-hartzea erraztu ahala, politikak bere txokoa galtzen du eta orokortu egiten da. Neurri berean, “erabakitzeko botere hierarkikoaren zentralizazio ikuspegia” sistema politikoaren gorenean, demokrazia formalaren oroitzapen zahar bilakatzen da. Funtsean, demokratizazioak “politikoaren desposesioa eta deslokalizazioa” adierazten du (Beck, 1998a: 247).

Oinarrizko eskubideak bermatu ahala, edukia errespetatu eta botere politikoe-kiko eta ekonomikoekiko independentzia bermatu ahala, behepolitikarako esparruak sortzen dira. Esparru horiei indarra ematearekin, gauza bitxia gertatzen da. Hain zuzen ere, politikari boterea kendu eta mugatzen du eta, hein berean, gizartea politizatzen du.

Jazoera bikoitza, beraz. Batetik, sistema politikoaren modernizazioak politikaren eragin-ahalmena murrizten du, arlo juridikoen, ekonomikoen, zientifiko-teknikoen eta sozialek *politikaren* gain eragina baitaukate. Bestetik, aldiz, modernizazioak sistema teknikoan eta ekonomikoan parte-hartzea ahalbidetzen du gaur arte ezinbestekoak izan diren kultur oinarriak eraldatuz gero. Hots, arriskuak areagotu ahala, garapen tekniko-ekonomikoaren eta kultura sozialaren eta politikoaren arteko harremana hautsiz, sorrera- eta interpretazio-unean egoerak, baldintzak eta bitartekoak politizatzen ditu.

Balio-aldaketa bultzatzeko asmoarekin jaioa den kultura politiko berri bat gizartean latente dago. Zientziak legitimazio-iturri izateari uzten dio, eta ez “Harri Arora itzuli nahi duten zenbait irrazionalistaren” ondorioz, argumentatzeko eta antolatzeko gaitasuna dutenen aldetik baino. Horrek ez du esan nahi, jakina, aldaketa teknikoek gaur arteko bide beretik jarraituko ez dutenik, beste arlo batzuetan bezala, *behepolitika* teknikoa eta ekonomikoa badagoelako, autoritarioa, horrek ekar ditzakeen arriskuekin, baina baita aukera guztiekin ere. Hori dela eta, politika arruntari politika erreflexiboak lekua hartu behar dion moduan, beharrezkoa da behepolitika arruntaren ordeztu, behepolitika erreflexiboa ere bultzatzea.⁶⁰

Beraz, sistema politikoak bere antagonistekin egiten du topo. Iritzi publikoaren definizio-boterea duten (*ia*) era orotako korporatiboki antolatutako taldeek, komunikabideak aprobetxatuz, politikaren lehentasunak eralda ditzakete. Modu formal batean ezarritako erabakitze-eskubideak eta gaitasunak ahuldu egiten dira eta borondate politikoa eratzeko aurreikusitako esparruek garrantzia galtzen dute. Oinarrizko eskubideak, beste behin ere, politikaren deszentralizaziorako tresna bilakatzen dira hainbat garai historikotan gertatu bezala. Aldaketarako azken aldaera, gizarte garaikideetan ematen ari dena, eskubide formalen egikaritzan “hiritarren mobilizazio politikoaren bidez legebiltzarretik harantz forma berriak ezartzea” izan da. Horiek are garrantzi handiagoa hartzen dute behepolitikaren oso esparru eraginkorrak bilaka daitezkeen komunikabideak eta epaitegiak aprobetxatuz gero. Edo aukera eskainiz gero.

60. Modu bizkor batean esanda, honako hauek dira desberdintasunak. Lehenik, *sistema politikoaren politikari* dagokionez, “politika arruntak” politika sinbolikoa, hazkundera, enplegu bete, aurrerapen soziala eta teknikoa azpimarratzen ditu; aldiz, “politika erreflexiboak” berpizkunde ekonomikoa eta estatuaren metamorfosia. Bigarrenik, *azpisistemaren politikari* dagokionez, “politika arruntak” adituaren arrazionalitate arrunta, ekintza teknikoaren eta burokratikoaren lehentasuna eta esfera pribatua azpimarratzen ditu; aldiz, “politika erreflexiboak” arrazionalitatearen erreforma, politikaren enpresariak eta bokazioa ekintza politiko modura. Ikus: BECK, 1996b.

Demokraziaren kontzepzio autoritarioa eredu duen goitik eratorritako gogoz kontrako erabakien aitzinean, oinarritik edo behetik kontrabotere bat sortzen da modu honetan. Horrela behar da ulertu sistema politiko-administratiboak politikaren zentro izateari uzten diolako baieztapena, politika publikoen azken urteetako eboluzioak nahiko garbi uzten duen moduan.

Berrikusketa hori onartzeko joera oso astuna egiten zaie erakunde politikoei. Era berean, kontzertuak babestutako industrializazio-garaiko inplementazio-prozesua makaltzen ari da, kontzertu-mota berriak nahitaezkoak bilakatzen direlarik, besterik ezean, gizartearen aurrean legitimazioa izandako eta hartutako erabaki politikoak aurrera eramateko. Ez da eredu zaharra gibelean utzi nahi baina,aldi berean, bideragarritasunak bestelako politikak eskatzen ditu. Dilema horretan harrapatuta daude gaur egungo erakundeak.

Hauxe da gizarte garaikideek bizi duten nahaste-borrastea. Politika arrunta eta politika erreflexiboa, alegia, “arauak gidatutako politika” eta “arauak eraldatzen dituen politika” (ikus, Beck, 1994: 52-56) nahastu egiten dira. Batzuetan batek hartzen du lehentasuna eta besteetan besteak, edo are okerrago, arazo jakin baten aurrean bi jokabide politikoak darabiltzaten aktoreak aurrez aurre jartzen dira.

Egoera horren guztiaren ondorioa, bizitza politikoa *geldiune*-egoera ikaragarrian egotea da. Orduko gatazkek (teoria politikoei) baldintzatzen dituzte gaur gaurkoz alderdiak, legebiltzarrak eta norbanakoak. Baina erakundeen barnean zein kanpoan atzematen diren oposizioak eta nahasmenak, sistema- eta erakunde-mugak gainditzen dituen laguntzarako sareak ahalbidetzen ditu, norberak lotu eta mantendu beharreko sareak.

Arazo sozial bat sortu ohi den guztietan, koalizio sozialak eta politikoak eratu behar dira. Baina horiek jada ezin dezakete, arazoen konponbidea helburu bada behintzat, klasearen eskema zaharra oinarritzat izan. Horrek, ordea, ez du esan nahi talde eraketa berriak burutu eta gelditu ezin daitezkeenik. Indibidualizazio-garaiko existentzia pribatuak, bata bestetik independizatuak eta lotura gabeak, modu orotako jazoeren ondorioz soziopolitikoki *eraberritu* daitezke. Horrela uler daiteke gaur egungo koalizioetan izaera askotariko jendea topatzea. Deslotura ematen da, baina lotura berriak eratzeke aukerak ere bai.

Arrazoi hori da, era berean, talde asko gertaera puntual baten aurrean sortzea eta bat-batean desagertzea. Gizarte indibidualizatueta gatazka berriak eta askotarikoak sortzen dira. Pertsonari eta egoerari lotutako gatazkak dira. Aldiz, gatazka luzeak pertsonari berariazkoak zaizkion ezaugarrietatik sortuko dira, besteak beste, arrazatik, sexutik, etniatik eta naziotik, hain zuzen ere.

Aipatutakoa berresten bada:

Politizazioak esfera pribatutik esfera publikorako iragatea esan nahi du. Edo alderantziz esanda, alderdiek, politika alderdikoiek edo gobernuek bizitza pribatuko bazter guztietan eragiten dute (Beck, 1994: 65).

Arrisku globalaren gizartean pribatizateak, irudikatu daitekeen politikoaren unitate txikiena bezala, bere baitan du gizarte globala. Bizitza-estilo pertsonalaren mikro-kosmosa zalantzazko arazo globalen makrokosmoarekin elkarlotuta dago.⁶¹

Lokalaren eta unibertsalaren dialektika honetan, aukera-aniztasunaren aurrean norbanakoak euren bizitza-estiloak hautatzera bultzatuta daude, eguneroko jardunerako zein niaren nortasunarentzat garrantzia duena. Emantzipazioarako aukera berriak ematearekin batera, ordea, erakunde modernoek niaren errealizazioarako baino horren oztoporako bitartekoak ematen dituzte (ikus, 4.2. atala).

Ukaezina da lokalaren eta unibertsalaren elkarrekintzan ematen diren bizitza-estilo hautaketek auzi moralak planteatzen dituztela. Horrek guztiak mugimendu sozialek aurreratutako konpromiso politikoak eskatzen dituzte. Niaren pertsona-garapenez arduratzen den “bizitzaren politika” (Giddens, 1995: 18-19, 265-291) “emantzipazioaren politikak” proiektatutako itzaletik sortzen da.

Emantzipazioa, ilustrazio aurrerakoiaren inperatibo orokorra, bizitzaren politikaren programa bat sortzeko baldintza da. Emantzipazioaren politikak ez du garrantzia galtzen zapalketa zaharrak eta berriak ezaugarritutako munduan. Baina nahi politiko zahar horien ondoan, bizitza politikorako nahimen modu berriak agertzen dira.

Lanaren atal honetan errealitatearen eraikuntza azaldu nahi da, non beste sistemetako errealitate eraikuntzek jarduteko askatasuna duten. Kanpoko aldagaiak barnean kontrolatu ezin direnez, *sistema funtzional diferentziatuen automugapenak* daude jokoan biziraupen prozesu baten bidez, bertan elkarrekintza ikuspegia elkar osagarriak diren nortasunen asmakuntzaren ikuspegiarekin osatzen delarik.⁶²

Politika zentrorik gabe, oposizio gabe, bere ohiko kontzeptuazioa galduta geratu den honetan, etsipenera jo dezake inork, baina modernizazioaren aro berri bat ere has daiteke: modernizazio erreflexiboa (edo hobeto, modernizazio erreflexiboaren bigarren fasea). Diferentziazio funtzionalek berariazkoak zituzten zentralizazioa, burokratizazioa, egitura sozialen zorrotasuna baztertzen dira. Eta, horren ordez, malgutasun-printzipioa ager daiteke.

61. Indibidualizazioa eta globalizazioa modernizazio erreflexiboaren bi alde dira: GIDDENS, 1993; BECK, 1994: 29.or. Hirugarren alderik ere eranstean da, aurrekoei zuzenean lotuta dagoena, inseguritate fabrikatua: BECK, 2000a: 138-139 orr. Lan horretan, nolabait, hirurak jorratzen dira.

62. Ikus, Offe-ren arazoak eta *proposamenak*: J. BERIAIN, 1990: 97.

Arriskurik eta segurtasunik eza nagusi den gizarte garaikidean autokoordinazio-modu berriak sor daitezke, eta “komeni” da sortzea. Modu honetan, batetik, industria-gizartearen *bikoiztasuna* bazter daiteke eta, bestetik, arriskuaren gizarteari aukera berri bat eskaintzen zaio aurrerapenaren fatalismoaren muga eta agindu funtzionalista baztertzailak gaindituz.

Baztertu egin behar da estatu-botere zentralizatua gizartearen demokratizazioaren isla den ideia. Baita, aldi berean, Ekonomiak edo Zientziak onartu behar dute gizarte-bizitza eraldatzen dutela ere, hots, politika egiten dutela beren bitarteko bidez.

Autokontrola ukazina da (ez dago bakoitza norberak baino hobeto ezagutzen duenik) baina horri autokritika ere erantsi behar zaio (norberak bere burua eza-gutzeko eta mugak jartzeko besteeiko elkarrekintza beharrezkoa du). Diferentziazio sozialak errespetatu behar dira, ordena inposatuko duen alde bateko irtenbiderik ez da komeni, baina “ingurunea” ahaztuta *itxitasuna* bultzatzeak dakartzan galera sistemikoak kontuan hartu beharrekoak dira. Kanpo-aldagaiak sistema bakoitzak bere baitan kontrolatu ezin dituenek, sistema funtzional diferentziatuen automugapenak daude jokoan. Autokontrolaren eta autokritikaren arteko nahitaezko bizikidetzak eman beharra dago; esaterako, gaur arte zaila izan den enpresarien kudeaketa eta profesioen nagusitasunari oposizioa egin ahal izatea erakundeetatik bermatu beharra dago.

Funtsean, autokritika lehenago edo beranduago mundua suntsituko duten akatsak ekiditeko bide bakarra da, izatekotan. Ondoko hitzak Jon Alonsorenak dira (2000), *Jakin*-125, Sloterdijk eta *Blade Runner* filma hizpide dituen gogoetetan dabilela: “Mendebaldeko gizon zuriaren harrokeria hain da harroputza eta hain dago itsu, ezen ez omen baitu segundo bakar batez ere prozesuak eskuetatik ihes egiten ahal diolako posibilitatea kontsideratu”. Gogoeta nahitaezkoak dira, orain arteko bidean, ikerketak eta saiakerak areagotu ahala, Harrison Ford-ek bere kode moralean, edukitezkotan, balio demokratikoak eta giza eskubideak ezezagunak izan dakizkiekeen erreplikanteen aurrean porrot egin baitezake. Alonsok amaieran erantsiko du: “Baina ez, gure etsairik gabe, agian gure ondorengo da, gu Neanderthalaren ondorengo garen bezala. Eta hau pentsatzen denean, zorabioa are eta handiago da”.⁶³ Hausnarketa bera egin liteke, era berean, filmean (hiru amaiera posible dituen filmetako batean) Distopia Ekotopian amaitzen den ideia-aren inguruan.⁶⁴

63. Hausnarketa horiek aurki daitezke gerora argitaratutako saiakera baten zenbait pasartetan, Juan Zelaia saria irabazteko balio izan ziona. Ikus: ALONSO, Jon (2001): *Agur, Darwin. Eta beste arkeologia batzuk*. Pamiela, Iruñea.

64. Bestalde, “eugenesia utopikoaren” ildotik, ugaria bada ere bibliografia gomendagarria, hiru baino ez dira aipatuko, elkarren artean eta lanean zehar aipatutako beste edukiekin eta liburuekin osagarriak direlako: Beck, 1998b: 29-63; Ambrogi, 2001: 243-263; eta Ferrer Hurtado eta Sánchez Pujol, 2001: 389-401.

Ez zaio politikari monopolioa eman nahi, baina bai kontzientzia bultzatzeko aukera, Ekonomiari eta Zientziari euren ikuspegi partikularra oztopatu ahal izateko. Politika eta askotarikoa den behepolitikaren artean botere eta eginbehar banaketa berri bat. Koordinazioa, merkatutik etor daitekeen harremana, batetik; eta harreman hierarkikoa, bestetik, baztertuta.

Dena dela, atalarekin amaitu aurretik, aurkeztu berri den jarreraren aurrean badira bestelako argudioak dituztenak ere. Eta komeni da norberaren argudioak eta proposamenak ez ezik, bestearenak ere ezagutu eta kritikatzeko saiatzea. Horrela, helburu bikoitz bat lor daiteke: bai besteak egin ditzakeen kritiken aurrean, erantzuteko prest egotea; bai norberaren ildoak sendotzea. Modu labur batean, atalari amaiera emateko, horixe egingo da ondoko orrialdeetan.

Aurkeztu berri den proposamenaz bestelako jarrerak, Beck-ek “industria-gizartera itzulera” eta “garapen tekniko-ekonomikoaren demokratizazioa” izenez definituko dituenak azalduko dira (azalduko denaren jatorria: Beck, 1998a: 279-285).

Lehenengo jarrerak, aldaera ezberdinak baditu ere, oro har, industria-gizarteak sortutako arriskuak ez ditu mehatxutzat jotzen, are gehiago, sorkuntza teknikoan aurrera jarraitzeko pizgarriak dira: teknika berriei ateak zabaldu behar-ko zaie irtenbiderako bidean. XIX. mendeari berariazkoak izan zaizkion ezaugarriak berriro ekotziko lirateke jarrera horrekin eta, beraz, industria-gizartearen aldeetako bat, kontramodernizazioa, ez du aintzat hartuko.

Jarrera horrek industria-gizartea eta modernitatea aurkakoak izatea ezkututzen du. Behepolitika teknologikoa azpimarratuz, politika ekonomikoak hartzen du lehentasuna, ondorioekiko ardurarik erakutsi gabe. Horrela, politika-gizartea eraldatzen duten erabaki “ez-politikoak” botere legitimatzaile izango da. Ekonomiak sortutako ondorioak ez ditu aintzat hartzen eta politikak, berriz, berak sortu ez duenaren ardurak hartzen ditu. Hori da azken luzeko politikaren patu beltza.

Politika-egiturazko desabantaila honetan egoteak dituen ondorioak agerikoak dira. Ez soilik egitura sozialaren eta politikoaren artean edo biztanleriarengan politikoek sor dezaketen apatiagatik edo jasanezintasunagatik. Baita demokraziaren arau-sistemak zalantzan jar ditzaketelako. Politikaren eta behepolitikaren artean botere banaketa berria planteatzen hasi ezean, epe ertainera, mehatxu horiek, kultura demokratikorik ez dagoenez, irtenbidea ekarriko duen *gida* baten itzala berpiztu dezakete. Arrazionaltasun burokratikoa eta salbatzaile autoritarioaren arteko lokarria estua da, arriskua baitago gaur egungo ereduaren porrotaz beranduegi jabetzeak “beldurtu” eta, epe laburrean —eta epe laburreko— lasaitasuna lortzeko, erabaki autoritarioak onestea. Joera bikoitz bat ematen da, epe laburrean mutur batetik bestera iragan daitekeelarik: “Arriskuaren gizarteak aurrerapenaren segurtasunaren bihotzean daude zaurituta” (Beck, 1998b: 301). Dimentsio ikaragarrietako hondamendien gertutasuna susmatzea nahikoa da, gauek egunera, ondoeza politikoaren arduradunak arriskuaz irakurketak egiten dituzten mugimendu

ekologistei leporatzetik, hondamendi ekologikoak ekiditeko autoritatea eskatzera iragaterako. Arrazionaltasun eta autoritate estatala bermatzeko agindua eta hondamendi ekologikoa ekiditeko agindua aldakorrek bilaka daitezke autodinamika industrialari aurre egin ezean. Hori bai, demokrazia da beti kaltetua.⁶⁵

Esan bezala, beste aukera bat, “garapen teknikoaren eta teknologikoaren demokratizazioa” da. Modernitateak bere gaitasunak beharko lituzke sakondu eta hedatu. Ikuspegi horren arabera, akatsa industria-gizartearen berrikuntza-prozesuan erakundeek demokratikoki jarduteko aukera galtzean datza. Gainera, berrikuntza teknikoak eta ekonomikoak eraldakuntzaren motor bilakatu direnez, parte-hartze, kontrol eta oposizio orenen bazterketa areagotzea kritikatzan du.

Aurreko jarrerak onesten zuen aldaketak egiteko *baimena* baztertzen du. Hori dela eta, modernitatearen printzipioak berreskuratuz, erabaki-esparru horiek bereganatu eta demokratizatu beharko lirake. Horretarako moduak hauexek izan daitezke (Beck, 1998a: 283): “Legebiltzarrak industriaren aldaketa teknologikoak kontrolatzea”; “diziplina desberdinetako adituak bilduko dituzten modernizazioari buruzko legebiltzarrak”; edo “hiritarren parte-hartzea teknologia-planifikazioan eta ikerkuntza-politikarako erabakietan”.

Gobernua eta ekonomia-, ikerketa- eta teknika-behepolitikak legebiltzarraren arduraren menpe egon beharko lirake ikuspegi honen arabera. Inbertsio- eta ikerketa-askatasunari esker kobernatzan dutenez, gutxienez “arrazionalizazio prozesuaren” oinarriko erabakiak erakunde demokratikoen aitzinean justifikatu beharko lituzkete. Baina, hain zuzen ere, transferentzia horretan datza exigentzia politiko eta intelektual horren akatsa (Beck, 1998a: 283): industria-gizartearen markoa mantentzen da, “berrindustrializazioak” ez bezalako estrategia erabilia-gatik ere.

Demokratizazioak XIX. mendeko zentzuan zentralizazioa, burokratizazioa, etab. adierazten du, eta gaitutak edota eztabaidagarriak diren egoerekin bat egiten du. Helburua jazoeren aurretik legebiltzarraren onarpena bada, ondorioa ere garbia da: enpresa-arrazionaltasun eta ikerketa zientifikorako legebiltzarraren oztopo burokratikoak erantzen dira, ez besterik.

Bigarren ikuspegiaren beste aldaera batek Estatu sozialaren eraikuntza darabil eredu modura, eta horren ondorioz, arriskuei txirotasunari bezala erantzun nahiko zaio, horien ustetan “txirotasunaren arriskua” eta “teknologia-arriskua” industrializazio prozesuaren aldi desberdinetako bi ondorio kolateral baitira.

65. Hondamendi ekologikoaren adibidearekin bezala, noski, lan honetan jorratu(ko) diren beste kasuekin ere ondorio berbera gerta daiteke. Edo zuzenagoa izan eta historiari leialagoa izanez, argudio horiek onarri enpirikoa dutela ohartuko da irakurlea. Totalitarismoak-eta aztertuta daude, eta demokraziaren defentsan, komeni da gogoeta egitea. Ez soilik autodinamika industrialaren ondorio ekologikoez jabetzeko, baita demokraziaz, kultura sumisoaz (“gehiengo isilak”) eta kultura autoritarioz eztabaida pizteko ere.

Irtenbidea ekintza politikoak bermatu eta babes demokratikorako eskubideak onartzean datza. “Ongizate-estatuaren aukera ekologikoan” (Beck, 1998a: 284), zeinak langabezia masiboari eta ingurumenaren hondamendiari erantzungo dion, prebentzio-sistemak, eskumen zehatzak dituzten autoritateak, erregelamendu juridikoak eta erakunde politikoak azpimarratzen dira. Esaterako, euskarri juridikoak eraldatuko dira, kaltetuek arazoan lotura kausala erakutsi beharrik izan ez dezaten.

Aintzat hartu beharreko baldintzetako bat ere bada. Baina Estatuaren gehiegizko parte-hartzearen arriskua erator daiteke jarrera horren ondorioz, eta hein berean autoritarismo zientifikoa eta gehiegizko burokrazia. Gainera, berrindustrializazioa bultzatzen duen beste arrisku bat ere badu bigarren aldaera horrek. Modernitateak gobernu politikoaren zentro bat du oinarritzat; batetik, modernizazioak autonomia, diferentziazioa edo indibidualizazioa esan nahiko du; bestetik, aldiz, arazo dibergenteen irtenbiderako sistema politikoan birzentralizazioa eta demokrazia parlamentarioaren ereduak bultzatzen dira. Zentralismo eta parte-hartze burokratikoaren ondorio ezkorak izatea ez ezik, gizarte modernoa polizentrikoa dela ere baztertzen da, hots, gizarte modernoak zuzendaritzarako “zentro *bat* ez duela” ez da onartzen.

Badaude, lan honetan aurkeztu den moduan, zentralismo parlamentarioa ekidin eta ekintzak aurrera eramateko justifikazioen eta argudioen beharra sortzen dituzten kontrolerako bestelako aukerak, hala nola, hiritar-ekimenak, protesta-mugimenduak, komunikabideak, etab. Zentzua galduko zuketzen politikarako zentro instituzional batera joz gero (eta gainera bidera ezinak, orekarik gabeak eta defizienteak lirakeke), parlamentuz kanpoko legalitatearen mugetan baitihardute. Baina, aurkeztu den bezala, Beck-ek (1998a: 285-289) proposatutako “politikaren delimitazioaren auzia” ardatzean ezarriz gero, zuzeneko kolaborazioa bultzatzen duten demokrazia esperimentalaren forma hartuko zuketzen. Hots, “aurrerapen-itxura eta zuzendaritza zentralizatua baztertuz, eskubide deklaratu eta sortzen ari diren behopolitika moduak”.

Azken batean, eta amaitzeko, luzea eta gaztelaniaz jasoa bada ere, funtsezkoa da Ripaldak Espainiatik idatzitakoa:

Todo proyecto de izquierdas pasa por el establecimiento a largo plazo de otras bases institucionales y otras perspectivas económicas; porque ni el modelo desarrollista puede seguir siendo un supuesto indiscutible, ni la explotación del Tercer Mundo la condición de nuestro bienestar y de nuestra democracia; ni esta democracia se puede considerar ‘profundizable’. Me resulta patética la discusión entre la izquierda marginal sobre el lugar de su ubicación política para las próximas elecciones, cuando toda opción con posibilidades de algún éxito tiene que pasar por las horcas caudinas de su macroinstitucionalización y funcionar de arriba abajo como cúpula de un sector social [...] ¿Serán núcleos marginales políticamente en conjunción con

¿sombrillas institucionales los sustitutos futuros de la sociedad inexistente? Seguramente no; las instituciones actuales pueden valer en algunos bordes —como IU— para acoger ciertos fragmentos de sociedad real; pero al fin sirven sobre todo para percibir la nulidad política que se espera de nosotros [...] Una profesión ideológica rígida, alimentada por el miedo a perder la identidad revolucionaria, se convierte en mera referencia simbólica, congelada teóricamente; y sólo vale para mantener el *statu quo* interno de una organización o de un Estado. Y sin embargo revolución sería que los partidos representaran más que integraran —con todo lo problemática que es la misma representación democrática—; que *los* partidos no fueran los sujetos de la política, sino la gente. En mi opinión eso no puede ocurrir a partir de los partidos existentes. Revolución es hoy entre nosotros la imposición desde debajo de nuevas formas de hacer política. (Ripalda, 1999a: 20-21).

3.2.2. *Biografia erreflexiboa*

Modernitatearen proiektu politikoa eraberritu eta sakondu beharra dagoela errepikatu da lan honetan behin eta berrero, baldin eta bizikidetzat bermatu nahi bada. Helburu hori lortzeko, filosofia politiko postmodernoa, *beste* modernitate bat helburu duenaren zentzuan, ekarpen adierazgarriak egin ditu. Horien artean daude, besteak beste, ilustrazioaren unibertsalismo abstraktuaren arbuioa edota totalitate sozialaren ikuspegi esentzialista baztertua.

Badira beste ekarpen garrantzitsu batzuk ere. Dena dela, ondoko orrialdeetan, ekarpen horietako bati egingo zaio erreferentzia, zehazki, norbanakoa subjektu unitariotzat jotzen duen mitoa baztertzeko duten gogoetei.⁶⁶ Ekarpen hori aintzartzeak hartzearen arrazoiak hauxe dira: lan honetan lehen ere aipatua izan den indibidualizazioaren ideian sakontzea. *Ni-a narrazio* bilakaturik, norbanako zatikatua (askotarikoa) baina batua nola bermatu izango da hiritar garaikidearen erronka.

Arriskuaren gaineko gaur arteko kultur oinarriak eraldatu egiten dira definizio iturri oro norbanakoen eskuetan geratzeraino. Industria-gizarteko ziurtasunetik arrisku-unibertsaleko-gizartera prozesua da, non norbanakoen bizitza, elkarrekin joan, izaera pertsonaleko eta globaleko hainbat arriskurekin topatzen den.

Norbanakoak erlijio- eta estamentu-segurantzatik gizarte industrialera jaregin baziren, gaur egun ziurtasunetik arrisku globalaren gizartera urratsa ematen da. Tradizio bilakaturik gizarte industrialeko loturetatik askatzen da, zalantzen eta arriskuaren gizarte globalean murgiltzeko (Beck, 2000a: 139).

66. Lan honetan “filosofia politiko postmodernoa” izenez definitu eta jarrera horri “eman” zaizkion hiru ezaugarriak, ohikoa duen zuhurtziaz, RUBERT DE VENTÓSek (1999) jorratuko ditu. Hori guztia, gainera, demokraziaren ikuspegi “minimalista” edo “light” batetik (“gatazkaren errepresentazio eszenografikotik”) abiatuta egingo du.

Horrela, izaera pertsonaleko eta globaleko eta, gainera, aurkakoak diren arriskuei atxikia azaltzen da beraien bizitza. Industria-gizarteak *bera* eraikitzekeo natur eta kultur baliabideak izan ditu, baina modernizazioaren bidez berauek eraldatuak izaten ari dira (ikus: 2. atala). Nortasunaren inguruan emaniko eraldaketek eta indibidualizaziorako inoiz baino aukera gehiago edukitzeak *norbanakoaren kontzeptu modernoak krisian* jartzen dute.

Bai norbanakoa, bai norberaren eta talde-nortasuna ekintza eta *prozesu* moduan ulertu beharko dira hemendik aurrera. Horri lotuta, jakina, arazo esanguratsu bat *mugak ezarri* eta gutxieneko *izaera egonkor* bat mantentzen jakitea izango da.

Norbanakoaren biografiaren aukerak, arriskuak eta anibalentziak, familiaren eta herri-komunitatearen baitan aurrera eraman zitezkeenak arau edo klase sozial aurrezarrien bidetik, orain norbanakoak berak beharko ditu definitu, zeinetarako harreman sozialen konplexutasunaren ondorioz modu arduratsuan eta ziurrean hartzeko gaitasunik ez duen. Lehen ere aipatu izan den moduan, ez baitira “ordena-arazoak” (alegia, ez dira unibozitate eta determinabilitatera zuzendutako arazoak), “arrisku-arazoak” baizik, erantzun anibalentea eta behin-behinekoa eskatzen dutenak.

Lanean lehen ere aipatu den indibidualizazioaren esanahiaz, zenbait ideia landuko dira. Funtsean, gizarte industrialeko bizitza-forma baztertu, eta norbanakoei eurek eraiki beharko duten “berariazko biografiaren” ordua dela adierazi nahi da indibidualizazioarekin. Eredu bakarraren eta aurrezarrien amaiera. Hautazko biografia edo “biografia erreflexiboaren” (Giddens, 1995) ordua, zeina ez dagoen norbanakoen erabaki askean soilik oinarrituta, norberaren biografia eraikitzeaz gain konpromisoak eta sare-harremanak gauzatu behar direlako.

Indibidualizazioak, beraz, ez du atomizazioa, indibidualismoa eta isolamendua esan nahi. Ezta indibiduazioa, emantzipazioa, autonomia, norbanako burgesaren birjaiotzea bere heriotzaren ostean ere, baizik norbanakoaren eta gizartearen arteko harreman berria (Beck, 2000a).

Alegia,

Indibidualizazioak, lehenik eta behin, *deslotura*-prozesua adierazten du, eta, bigarrenik, aurrekoei ordezkoa hartuko dien gizarteko bizitza-forma berriekiko *lotura*, non norbanakoei beraien kabuz euren biografiak ekoitzi, ordezkatu eta konbinatu beharko dituzten (Beck, 1994: 28).

Esan bezala, hori guztia gizarte industrial aurreratuetan ongizate-estatuaren baldintza orokorretan emango da.

Ongizate-estatuan, eskubideen eta betebeharren subjektu bilakatutako norbanakoak beharko ditu aurrez ikusi ezin diren ondorioen arabera jazoerak (mehatxuak) pairatu, interpretatu eta erabili. Aukera arriskatuak dira. Modernizazioaren beraren

dinamikaren bidetik, industria-gizartea bizitza-eredu modura ulertuta (non sexuen, familiaren eta klaseen osaketa kate berberetik eratortzen ziren) birrindu egiten da.

Egiturazko aldaketa horiek eta subjektibitatea elkar elikatzen dira. Azken hamarkadetan ematen ari den indibidualizazio-prozesua *modernitatearen erreferentziarako kategoriak ahulduta* daudela erakusteko jazoera aipagarriena da. Ahul-tasun horri lotuta, ondoko orrialdeetan bi zatitan bereizita, indibidualizazioak giza-banako garaikidearengan sortzen duen egoera paradoxikoa aurkeztuko da: Batetik, gizarte garaikidean, inoiz baino bitarteko gehiago daude erabaki askeak hartuz norberaren nortasuna bakoitzak nahi bezala eraiki ahal izateko; bestetik, horri aurre egiteko, sistemak kontrolerako bitarteko berriak sortzen ditu, gizabanakoak bere nortasuna lantzeko beharrezkoak dituen esanahiak eta zentzuak kontrolatuz.

3.2.2.1. Inbidualizazioa, autonomia, mugak

Indibidualizazioa gizarte garaikidean paradoxen iturri emankorra da. Alde batetik, destradizionalizazioarekin, aurrezarrirako aginduen gaineratik, norbanakoek ekintzarako *subjektu autonomo* modura jarduteko inoiz baino aukera gehiago dituzte. Norbanako autodeterminatu eta autodeterminante bezala jarduteko ez dituzte inoiz gaur arte adina informazio- eta sinbolo-baliabide eta horiek egikaritzeko bitarteko eduki.

Horrek guztiak, jakina, ez du esan nahi norbere nortasuna eraikitzeke garaian pertsona guztiek aukera berdina izango dituztenik. Hiritartasuna *eskuratzeko* ohikoak izan diren desberdintasun materialak mantendu eta, horren ondorioz, areagotu egiten dira. Lanean zehar etengabe aipatu diren adibideetan, giza desberdintasunak baina baita eskualde desberdintasunak ere hor jarraitzen dute.

Izan ere, indibidualizazioak talde handietako gizarteetako kategoria tradizionalak darabiltzan pentsamenduaren oinarriak alde batera uztea dakar. Baieztapen hori indartua izango da enplegu ezaren inguruko hausnarketak gaineratuko balira: horiei ez dagozkie klaseen kulturako bizitza-loturak.

Hemendik, sistemaren arazoak porrot pertsonal legez eraldatzen direla politikoki ondorioztatzen da. Alegia, krisi sozialak modu indibidualean agertzen dira, euren izaera soziala ukatzen da, erantzun politikoa baztertuz. Horren guztiaren zuzeneko ondorioak dira bai txirotasun berria bai irrazionaltasunaren piztuerara, gizarte indibidualizatuan sortzen direlako sozialki identifikatu daitezkeenekiko erasoak (homosexualitatea, sexua, arraza eta jatorri etnikoa).

Baina, are gehiago, desberdintasun materialak eta horien ondorioak ez ezik, subjektu indibidualaren *autonomiarako gaitasunak* ere gaur egun inoiz baino sendoagoak diren garaietan, norbanako legez jarduteko eta norberaren nortasuna eraikitzeke *bestelako* baliabideetan ere desberdintasunak ematen dira.

Garbi gera bedi, beraz, informazioaren gizartean hiritarren eskura jarriko diren era orotako ekimenak, kultura eta heziketan eragingo duten ekonomia-ekimenak bereziki, bultzatu ezean, aro berriarekin sortutako *hizkuntzak* (mediatikoak eta telematikoak) interpretatzeko bitartekoetatik baztertu den hiritarra baztertu soziala eta politikoa izango dela. (Baztertua bilakatuko dela edo baztertua izaten jarraituko duela).

Zehaztapen hori egin eta lehengora itzuliz, “hizkuntzak” sortzeko inoiz baino bitarteko gehiago dauden honetan, baina era berean, bai gizakiak bai izadiak bere osotasunean gaur egun bizi duen testuingurua zer-nolakoa den ikusita, garai berrira egokituko den pentsamendu berria ezinbestekoa egiten da. Ahalegin horretan, *informazioaren erabilera* egokiak gaur egun duen garrantziaz jabetzea erabakigarria izan daiteke guztion bizikidetzarako.

Luzaroan hautatzeko gaitasuna askatasunarekin lotu izan da. Aldiz, gizarte garaikidean, informazioaren aroan, ez hautatzea ere erabakia den honetan, hautatzea eta erabakia hartzea *patu* bilakatzen dira. Testuinguru horretan, gaur egungo gizakiaren arriskua eta aukera hautaketa horietan kanpotik *gomendioak* ematen dizkion inor ez egotean datza. Bestetik, hautatu ahal izatea, eskubide ez ezik, biziraupenerako betebeharrak bilakatu den honetan, norbanakoak gai izan behar du *mugen jabe* izaten, aukera batzuk hobetsiz eta beste batzuk baztertuz.

Mugak ezarri beharrak gizakia ez dela ahalguztiduna frogatzen du. Beharrezkoa da, era berean, norberaren eta taldearen ziurtasunak *zalantzan jartzeko gaitasuna* (adorea?) izatea. Eta aukerak behin-behinekoak direla jabetzea. Eta, hala ere, aukerak egin behar direla sinestea eta aukerak egitea.

Egin berri diren baieztapenak ukatzeak edo bestelako portaerarik erakusteak, muturreko ondorio bikoitz baten arriskua dakar (Melucci, 2001): gaur egun norbanakoari eskaintzen zaizkion aukera-kopuruak pertsona batek aukeratzeko duen gaitasuna baino handiagoa direnez, ez gaitasun horrek eta aukerak galtzen diren sentazioak sindrome patologikoak sor ditzake (depresio endogenoa). Beste muturreko egoera bat, aukera guztiei aurre egiteko portaeratik eratortzen da, nartzisis-moa kasu.

Horri aurre egiteko, barne-denbora eta denbora sozialaren arteko bizikidetzaren ezinbestekoa da⁶⁷. Oreak hori lortzeko gaitasun eza da gaur egungo gaixotasun askoren arrazoia. Barnekoaren *eta* kanpokoaren *arteko* muga ahulean mugitu behar

67. Barne-denbora eta kanpo-denbora (denbora soziala) bereizita eta bakoitza sakonduta lantzeko, ikus MELUCCIren (2001) “Tiempo interior y tiempo social en un mundo incierto” eta “Silencio y voz juveniles. Individuidad y compromiso en la experiencia de los adolescentes” kapituluak. Bien arteko bizikidetzaren ezinbestekotasuna argudiatzean, “modernizazio erreflexiboa-ren zatian”, denbora linealaren eta imaginarioaren inguruan eginiko hausnarketa antzekoak topatu ahalko dira. Alegia, Melucci-k mantentzen duen tesia mantendu da lan honen 3.1. atalean.

du norbanakoak. Horrela lortuko du zientziak eta teknologiak eraikia den munduarekin elkarrekintzan jardun eta norberaren aldaketei erantzun egokia ematea.

Giza gaitasuna dela eta, aukerak askoz gehiago direnez aukera *errealak* erabiltzeko ahalmena baino, gaur egungo bizitzaren arazo nagusienetakoa mugak zuzen bereiztean datza. Zientziaren eta teknologiaren aukerak, bestalde, ezin daitezke natur eta giza mugak kontuan hartu gabe gauzatu.

Zentzu horretan, ekologismoak muga naturalez ohartarazteko baliagarritasuna du: Kanpoarekiko eta izadiarekiko ardura erakusteak norberaren barne-gaitasun hazkorrei mugak jartzea ere badakar. Gizakiak ekosistemaren zati izanik, axolagabeko edozer gauza egitearen ondorioak gogorarazten ditu ingurumenaren sunsiketak. Gizakia Ahalguztiduna ez dela frogatzen du barne-izadiaren eta kanpo-izadiaren elkarmenpekotasunak.

Norbanakoa Ahalguztiduna *ez* den bigarren froga eta, beraz, mugak jarri beharra, bestalde, eguneroko giza harremanetan dago. Denboraren pluralizazioak eta zatikatzeak aukerak sor ditzake, baina ezer aurrezarria ez egoteagatik, baita ondorio ezkorrak ere. Aukera-, arlo- eta esparru-aniztasunak gizakiak *desberdinu* egin dituzte. Gero eta zailagoa da “bestea” eta “desberdintasuna” onartu gabe bizitzea. Azken *bizitza-ikuspegi* baztertzaille horretarako *aukera bakarra* konplexutasuna eta kontingentzia bizitzaren osagaiak direla baztertu, eta arrunckeria eta homogeneotasun itxira mugatzea dira. Hori modu indibidualean zein kolektiboan eman daiteke. Jarrera horrek gauza bitxiak sortzen ditu.

Komunitate-ikuspegitik begiratuta, neurri handi batean, pertsona oro da beste guztiekiko desberdina. Norbanakoaren ikuspegitik, berriz, esperientzia sozialak esparru diferentziatuetan aurrera eramaten ditu, eta neurri horretan, askotariko barne-nortasuna eratzeaz gain, desberdinak diren pertsona pluralekin eta ugarirekin harremanak izaten ditu. Ez dago, inolako kasuetan, ezer pururik hizpide hartzerik. Baina hara non, horregatik, muturreko ondorioak ematen diren, ondoan dagoen pertsona, arrazoi “esenzialistengatik”, *auzokidetzat* nahi *ez* izatea kasu. Fisikoki *gertu* dago (batzuk fisikoki ere urrundu egiten dira). Baina *urruti* nahi da eduki. Distantzia sozial horrek bestearekiko *ardurarik eza* dakar. Honek, berriz, bestearen aurka erabilitako bitarteko oro justifikatzea, edo behintzat ez protestatzea.

Joera moderno errotua denez ondokoa norberaren berdina izan beharra, gainerakoak “ezezaguna” bilakatzen dira. Eta ezezagunari bere buruarengandik urruntzeko *beharraren* sentimendua sortzen zaio. Besteek ez bezalako edo norberak ordu arte izandako bizimoldeak ez bezala jardun beharra (euskaldunak asko daki honetaz, gertu eta urrun, askotariko ezezagunak baitaude, edo hobe, alde orok bere ezezaguna *sortzen* baitu.).

(Gizartearen baitan, barnetik, ematen den destradizionalizazioaren ondorioz sortutako aniztasuna gutxi izango ez balitz, pluralizazioa areagotzen duten etorki-

nen auzia azpimarratzekoa da. “Mugen” garrantziaren ildotik, Taguieff-ek (1995) egindako ekarpena aipatzea beharrezkoa da, hain zuzen ere, “arrazakeriaren eraldakuntza ideologikoa”. Izan ere, jada argudio eta irudi arrazistek ez dute hainbesteko indarra desberdintasun biologikoan, kultur desberdintasunean baizik. Gauzak horrela, etorkinen iritsiera, ezinbestean, hazkorra izango denez, nortasun kolektiboa naturala baino etengabe eraikitzen den ideia dela azpimarratuz, hiritarren kultur-bizikidetzak bermatuko duen irakurketa berriak nahitaezkoak dira. Emakumeen kasuan gertatu bezala, etorkinen kasuan ere argudio biologikoak gaindituta egonik, balio kulturaletan egongo da gakoa).

Pertsona orok giza harremanak mantenduz bizirauten duenez gizarte eta komunitate baten baitan, norberaren mugak eta bestearen desberdintasuna onartzea ezinbestekoak dira bizikidetzarako. Ondorioz, norberarekiko desberdina den *bestearekin* harremanak izateak *mugak* ezartzen dizkie giza garapenerako eta autonomiarako *aukerak* gero eta handiagoak dituen norbanakoari zein komunitateari.

Azken gogoeta hori ulertzeko, destradizionalizazioaren ondorioz, pertsonaren esperientziak eta norberaren nortasunaren eraikuntza gero eta zatikatuagoak daudela frogatu besterik ez dago. Aldi berean, testuinguru, talde eta bizitza sozial eta kulturalaren arlo desberdinetan jarduten du gizabanakoak bata bestearekin loturarik zertan eduki ez duena. Nia definitzeko esparruak aniztu egiten dira. Esaterako, langile arrunta izateak ez dio behartzen sindikatuta egotera, ezta ezkerreko alderdi tradizional bat bozkatzera, eta, aldiz, pentsaezinak diren esperientzia eta bizimoldeak hauta ditzake. Aniztasun hori gutxi izango ez balitz, nortasunari zentzua ematen dioten erakundeetan edo taldeetan parte-hartzea, gainera, aldi batekoa izan daiteke.

Ruvert de Ventós-en hitzetan, horrek guztiak baditu alde positiboak: Arlo politikoan botere-banaketak duen funtzioa bete dezake maila pertsonalean “leialtasunen banaketak”. Gizarte demokratiko garatuek badute berariazko ezaugarri bat: partaide izatearen aniztasun inorganikoa.

Eliza eta klub batekiko lotura, alderdi politiko batekiko eta jarrera teoriko batekiko eta aukera arrazional batekiko. Lotura multzo bat, harreman txiki-koak elkarrekin edo harremanik batere ez dutena, eta, inoiz itsu sinetsi ez dugulako, modu militante batean sinesteari utzi beharko ez zaiona; salbaziorako babes berri batekin ere ez da ordezkatu beharko, alegia, aldi berean salbazioa eta abangoardia den mezu batekin... (2000: 144).

Komunikabide, lantegi, harreman pertsonal edo denbora askeak etengabeko informazio fluxu batean murgiltzen du norbanakoa. Sistema gero eta diferentziatua izan ahala, “hizkuntza”, ezagutza eta erabaki-aniztasuna eta independentea areagotu egiten dira. Nortasuna ez dago aurrezarrita, bizitzan zehar aldaketak eman ahal dira. Toki jakin batean bizitzeak eta lanbide jakin bat edukitzeak jada ez du norbanakoaren nortasuna modu bakar eta betiereko batean zertan definitu.

Prozesua eta nortasuna elkarrekin ulertu behar diren bi kontzeptu dira. Bitxikeria bat izan daiteke egin berri den baieztapena, edo gaur arteko pentsamendua mantenduz gero, kontraesankorra iruditu dakioke inori. Nortasunak, gaur arte, norbanakoak eta taldeak egitura egonkor eta iraunkor jakin batekin identifikatzeari egin izan dio erreferentzia, norbanakoak eta komunitateak “ziurtasun erabatekoa” zutelarik beti berdinarean eskeman.

Gaur egun, ordea, nortasuna eraikuntza da, etengabekoa den eraikuntza, non aktore nagusia norbanakoa bera bilakatzen den. Baieztapen horrekin bat egiten du Santi Eraso-k, beharrezkotzat joz ikuspegi historizista eta erromantikoak baztertuz, “bestelako optika politikoetatik konfiguratua izango den kartografia berria” (1998:50). Hiri demokratikoa legoke “identifikazio-prozesua nortasun kritiko baterako etengabeko bidaia erreflexibo bezala” (1998: 49) ulertzen duen ideiaren atzean. Betiere, komeni da egile berberak artikulua hasieran dioena:

Gizaki oro, nola edo hala, testuinguru sozial batean kokaturik dago. Neurri batean edo bestean, salbuespenik gabe, denok gara komunitate bateko edo besteko kide. Nor berak dioena dioela, inor ez dago komunitate jakin batekiko lotura-harremanen mundutik kanpo (1998: 48).⁶⁸

Nortasuna *norberaren ekintzaren bidez* eraikitzen den garai hauetan, norbanakoari zentzua norbanakoaren ekintzak ematen dion garai hauetan, eta prozesu hori gainera *sistema diferentziatuetan* emanik, bada azpimarratu beharreko ideia bat.

Sistemen diferentziazioarekin, norbanakoaren ekintzak esperientzia sozialaren esparru batetik bestera iragatea gero eta zailagoa egiten denez (baina, era berean, jokamolde hori gero eta ohikoagoa eta ugariagoa denez), norbanakoak gai izan behar du desberdintasun horien gainetik, norberaren bizitza *bakarra* dela gogoratzen. Aldi berean, erreferentzia kultural eta portaera-eredu aniztasuna biltzen

68. Nahitaezkoa da, Mario ZUBIAGAREN (2000) zehaztapena gogoan hartzea, askoren “hitzen mailako adostasuna” zalantzan jar dezakeena (5. ataleko pasarterako ere arras artikulua baliagarria izan litekeenez, kopiatu egingo da, eta kontutan har bedi): “Ez dago demokraziarik alde aurretik *demos* edo herri bat mugatzen ez bada [...] Ez dut uste euskal gizartea errebindikatzen ari direnak, euskal gizarte politikoaz mintzo direnik, alegia, euskal herritar gisa egikaritu behar ditugun eskubide politikoaren esparruaz [...] Eskubide politikoaren iturri diren bakarrak, frantsesa eta espainola baitira: Besteak, euskal gizartea esaterako, “gizarte zibil” hutsak diren bitartean [...] Ez dago *demosik ethnos* edo nortasun kolektibo bereziturik gabe [...] *Ethnos* hori ez da zertan nortasun sendoen partekatze materialean oinarritu [...] Euskal *demosak* —gizarte politikoak— euskal interes orokorrean beharko du izan zutabea, eta berau ez da inoiz sortuko nolabaiteko komunitate sentimendurik ezean [...] *Euskal herritarraren borondatezko esparru politikoa proposatzen duen burujabetza-proiektua, prozesu soziala da, eta arrakasta lortuko badu, euskal herriko biztanleen atxikimendu eta partaidetza funtsezkoa da*” —azpimarratua nirea—. Ziurtasunik ez, aurretiazko proiekturik ez, norbanakoa bezala komunitatea ere eraiki egiten delako, ezagunak eta ugariak diren metodo etnizistarik gabe. “Azken finean, eraikuntza nazionala esamolde pisutsuarekin adierazi nahi dena, euskal *ethnosaren* ezaugarriak aintzakotzat hartuko dituen euskal *demos* bidezko baten eraikuntza besterik ez baita”.

diren gizartean, desberdintasunak ez ezik, kulturen arteko komunikazioa ahalbidetuko duen gizarte- eta kultura-integrazioako sistema ere nahitaezkoa da. Hala baino ez dira bermatuko “gertutasuna” eta bizikidetzak.

Testuinguru existentzialaren desberdintasunak eta aniztasunak norbanakoa izatea ezin dezake zatikatu. Esperientziek norbanakoari *askotarikoa* den nortasuna eraikitzen badiote ere, ez du ahaztu behar fragmentazioa ekidinez *hiritarra* izaten. Horretarako baliagarria izan dakioke, nahiz eta irtenbidea ez, bere ahalmen mugatuekin aukera eta muga jabe izanik, aukeren artean lehentasunak hobesten jakitea.

Baina horrekin guztiarekin batera, kontziente izan beharra dago *Ni nor naizen* erantzutea lortzeak ere, ez duela erantzuna betierekoa egiten. Aldaketa erritmoa, partaide izatearen aniztasuna edo aukera eta mezuen kopuru hazkorrak norberaren eta talde-nortasunaren oinarriak ahultzen ditu.

“*Nor naiz ni* eta zerk bermatzen duen neure biografiaren jarraipena” etengabe berriztatu behar dira. “Etzerik gabeko” nortasun pertsonala sortzen da, aldakorrek diren jazoeren eta egoeren aitzinean gure “etxea” etengabe eraikitzen eta berreraikitzen garamatzana (Melucci, 2001).

3.2.2.2. *Indibidualizazioa, kontrola, erantzunak*

Orain arteko lerroetan aukera eta autonomiarako bitartekoen areagotzeaz hitz egin bada, bestetik, paradoxarako txanponaren beste aldea, aipatu berri den indibidualizazioa bizitza-egoeren erakundetze- eta estandarizazio-joerei lotuta doa (Beck, 1998a: 165-173): lan- merkatuaren eta horren ondorioz hezkuntzaren, legeen, etab. menpeko sozializazio modu muturrekoena bilakatzen da.⁶⁹

Gizarte garaikidearen ohiko bereizgarriak edo ezaugarriak dira, besteak beste, bazterketan, despertsonalizazioan, homogeneousotasunean, informazioaren manipulazioan, konformismoan oinarritutako prozesu sozialen masifikazioa.

Kapitalismo informazionalaren garaikoak diren baliabideak erabiltzeko gaitasunik ez duten norbanakoen eta eskualdeen kasuan, aurrez esandakoa errepikatuz, ohikoak izan diren desberdintasun materialekin batera, tokian tokiko kulturaren galera eta euren burua identifikatzen ez duten bizitza-estilorako urratsa ematen da. Horren aurrean muturrekoak diren bi erreakzio nagusitu ohi dira, gizarte garaikideetan inoiz baino argiago ikus daitekeen moduan. Alde batetik, uniformizazioarako erasoetatik babesteko nortasun itxiak sortzen dira (bere era orotako ondorioekin). Bestetik, norberaren/talde nortasuna gutxietsi eta nagusi den kultura

69. Kontradikzioaz, ikus Beriain, 1990: 31-; eta 95-. Bai zer-nolako bilakaera eta irakurketak, bai bibliografiarako abiapuntutzat, baliagarria da liburua bera lantzea. Bestetik, norbanakoaren ahalmenean eta nortasunean jasaniko eraginez, ikus: Barcellona, 1992; Touraine, 1992; Touraine, 1994. Begiratu bat baino nahi ez duenak, aipatutako azken liburuko 276 eta hurrengo orrialdeak oinarritzat *nahikoak*.

hobesten da: “Norberaren tradizioaren automesprezua eta kanpotik datorrenarekiko lilura”.⁷⁰

Sistemari bere biziraupenak eskuetatik ihes egin ez diezaion, *berak sortu dituen aukerak* kontrolatzea ezinbestekoa zaio. Nortasuna, lehen ez bezala, norbanakoen eskuetan *dagoen* etengabeko eraikuntza izanik, sistema diferentziatuek euren batasuna bermatua mantentzen dezaten *kontrolerako bitarteko berriak* sortu beharrean aurkitzen dira.

Norbanakoa inoiz baino aukera gehiagoren aurrean dago, non informazioa lehentasuneko bitarteko bilakatzen den. Era berean, giza esperientzia informazioak eraikitako testuinguru artifizialean ematen da. Norbanakoak barneratzen duenaren zati adierazgarria ez da zuzeneko esperientzietatik eta bizipenetatik jaso, kanpotik jasotako informazioak eragina baizik. Gauzak horrela, baldintza materialek (familiak eta lanbideak bereziki) norbanakoen esperientziak baldintzatzen dituzten markoetan eragina galdu ahala, “baldintza sinbolikoak, zeinu-sistemak eta estimulu imaginatiboak esanguratsua goak bilakatzen dira” (Melucci, 2001).

Informazioa baliabide bilakatzearekin, informazioari zentzua eta esanahia ematen dioten bitartekoen kontrolak botere egitura *berria* ahalbidetzen du.⁷¹ Norbanakoaren eta taldeen ekintzak sortu eta esanahia ekoizten duten baliabide horiek kontrolatzea lehentasuneko eginbehar bilakatzen da. Alegia, garai batean nortasuna finkoa izanik, informazioa zen kontrolatu beharrekoa. Gaur egun, ordea, nortasuna etengabe eraikitzen denez, helarazten den “informazioaren esanahia” kontrolatzea nahitaezkoa da.

Komunikabideek eta publizistek orainaren eta geroaren irudia eraikitzeko “materiala” ez ezik esperientziak marrazteko “hizkuntza” ere eskaini behar dute, kontrola mantentzen jarraitu nahi izanez gero. Urrats berri bat ematen da, beraz, *eurek sortutako* aukeren kontrolerako ahaleginean.

Horixe da indibidualizazioa ezaugarritzen duen egoera paradoxikoa. Sistema diferentziatuek, norbanakoari autonomiarako aukera berriak ematen dizkietenak, hein berean, ordenaren *haustura ekiditeko* kanpotik ezarriak eta sarri ikusezinak diren kontrolak ezartzen dituzte. Inoiz baino informazio gehiago dago, horrek ahalbidera ditzakeen abantailekin, baina horiei zentzua eta esanahia ematen dieten ko-deetara heltzeko gaitasun ezak mendetasun berria sortzen du. Gizarte garaikidean

70. Aipamen horretan sakontzeko ikus, bakoitzak bere erara: Sarasua, 1997; eta, Maalouf, 1999. Bestalde, euskal hizkuntza eta euskal kultura hizpide dituela, diagnostiko zuhur bat egiteaz gain, historian ez ezik, gaur egun ere, bi aldaera horiek jarrera politiko desberdinetan nabarmenduko ditu Andu Lertxundi-k (1998).

71. Horretan sakontzeko, Naomi Klein-en (2001) liburua argigarria da. Tokian tokiko lan-baldintzen gordintasuna azpimarratzeaz gain, kanadako kazetariak market gure bizitza-estiloak, gure pentsamendua eta gure nahiak nola baldintzatzen eta erabakitzen dituzten argudiatuko du. Kontuan hartzekoak ere badira egoera horri aurre egiteko proposamenak.

informazioaren inguruan gatazka gero eta esanguratsuagoak ematearen arrazoiak horrela ulertu behar da.

Dominantea den diskurtso horren aitzinean ezer egiterik ez dagoela dioten jarrerak, ordea, modernitate zaharraren babesle bilakatzen dira, nahita edo nahigabe. Zailtasunak zailtasun, kontsumo estandarizatua, apatia, konformismoa baztertuz, badira helarazten den informazioari zentzu eta esanahi desberdina eman nahi dizkieten ahaleginak.

Gaur egungo erronka ez dago jada informazioa helaraztean soilik, edukiaren esanahia ekoizteko ahalmenean baizik. Hain zuzen ere, aipatu berri den kontradikzio horretatik mugimendu sozialak agertzen dira.

Adosturiko, edo inposatutako, mugen barruan jardutea zalantzan jarri eta nagusi den ikuspegiak normalizat jotzen duenari aurre eginaz, gizarte-mugimenduak *hizkera* berri baten bidez gizarte konplexuetan aldaketak ematen ari direla frogatzeko adierazle gorenak dira. Informazio-aniztasunaren bidetik, kodeen inguruko borrokaren bidez desberdina den ikuspegia helburu dute.

Gizarte-mugimenduak, batetik, arriskuaren gizartean emaniko arrisku berrien zein sexuen artean emaniko kontradikzioen arteko isla dira. Eta, bestetik, politizazio moduak eta oreka-arazoak destradizionalizatuak eta indibidualizatuak diren bizimoduan emaniko nortasun sozialen formazioaren prozesuen emaitza.⁷²

Azken hamarkadetan emaniko jazoerek erakusten dute industria kulturalak eta denbora aske gehiagok bizi-baldintzen berregokipenerako aukerak dakartzatela. Prozesu horrek gizarte industrializatueta berrogeita hamarrekota eta hirurogeigarreneko hamarkadetan familian eta beronen pribatismoan eragiten du. *Baina* denbora aurrera joan ahala, froga daiteke askotariko formak har ditzakeela, pribatismo horri izaera politikoa erantsiz edo publikoaren eta pribatuaren mugak suntsituz.

72. Politika lehentasunaren, nortasunaren, balioaren eta mobilizazioaren aldibereko *prozesu* modura: MAIZ, 1995: 9-23. Lan horretan aipatutako gaiaren bilakaera bat jorratzen da bertan hainbat autorek eta eskolak izan dituzten jarrerak landuz. Aipatzekoak izango dira Pizzorno-ren eta Melucciren ekarpenak bai politika bai nortasuna etengabeko prozesu bezala ulertu behar direla argudiatzeko. Bestalde, Melucci-k bere lanean “nortasunaren eraikuntza” ideiarekin inguruan egingo dituen argudioetan Foucault-en ekarpenak oso nabarmenak dira. (Melucci-k berak ere aipu batean onartzen du eragina). Ideia horiek gogoko dituenarentzat, Foucault-en ideiak modu egoki eta laburtuan irakurtzeko, ikus: LANCEROS, 2000. Lan sakonago batek kontuan hartu beharko litzuzke, “*estética de la existencia*” eta beronen inguruan sor daitezkeen kontzeptuak, hala nola, “esperientzia” eta “fundamentua”, “irizpide kritikoaren” garrantzia, unibertsalismoarako joeren aitzinean etika eta askatasunaren inguruan eginiko harreman/gogoetak, “jarrera-limite” eta “jarrera-esperimental”... Helburua honako hau da: “Guganako ontologia historiko baten bidez, esaten, pentsatzen eta egiten dugunarekiko kritika”; edo, “garena eginarazten gaituenaren kontingentzia onartzea eta, hortik abiatuta, garena, pentsatzen duguna eta egiten duguna ez izatea, ez egitea eta ez pentsatzearen posibilitatea” (2000: 43). Foucault-en pentsamenduaz, bestalde, ikus: Lanceros, 1995.

Ikusi besterik ez daude aldaketa kulturalak edota familiak, sexualitateak, bikoteak hartzen dituzten esanahi berriak (Beck, 1998a: 126). Ez da *eskuak gurutzatu eta burua makurturik etxerako itzulera* ematen, subjektibitate politikoaren birjaiotzea baino, bai erakunde barruan bai erakundetik at (Beck, 2000a: 39). Jazoera sozialen subjektibizazio aberasgarria (P. Ibarra).

Gauzak *beste* modu batean egin nahi dira. Berrogeita hamarreko balioak baztertu eta aldaketa bat ematen da norberaren nortasuna bilatzeko asmotan, belau-naldi berrien, heziketa hobearen eta diru-sarrera handiagoen ondorio dena. Joera berri horrek, hein berean, norberari buruzko *betiko* galderak dakartza.

Sarri, arrazoizko portaera batzuk ikusita, berekoikeriatzat jo ohi dira jarrera berri hauek. Ezin uka daiteke Melucci-k (2001) ohartarazi zuen moduan, egitate sozialen desbideraketa indibidualista eta subjektiboa emateko arriskua dagoela. Horren froga garbia lirerateke nartzisismoaren kultura, harreman sozialak etika pribatura mugatzea edo hedonismo estetizista.

Mardones-i, besteak beste, honako esaldi hauek irakurri ahal zaizkio:

Publiko egiten den pribazitatearen aroa da. Bizitza pribatua publiko egiten da. Garai hauetan gorputzaren *strip-teasea*, hain ikusia, ez da nahikoa: bestearen arima biluzia ikusi nahi da. Agortezinak dira pribatuaz dagoen gustua eta/edo intimitatearen erakusketa adierazleen aurrean metatzen diren galderak eta hipotesiak. Baina modernitate berantiarraren kultura eta gizarte honetan, bada ondorio garbi bat: espazio publikoa pribatizatzen da. Komerztio harremanen feudalismo inperialistaren eta boterearen instrumentalismo burokratikoaren bidez, dimentsio pertsonal eta intersubjektiboen kolonizazioaz hitz egiten ziguten espiritu kritikoen diagnostikoa aldatu beharra dago. Orain, mundu pribatuak publiko kolonizatzen duela ematen du (Z. Bauman). Ala sistemaren ondorio perbertso eta nahigabekoen aitzinean gaude eta, barrua kolonizatu ostean, barruak kanpora ihes egin edo kanpoan “bururik gabe” txoko bat egin nahi du? Publikoaren espazioa hiritarraren interesean, dedikazioan eta pasioan gero eta murriztagoa da. Gaur egun, gero eta gehiago neuri interesatzen zaidana interesa duena da. Norberaren edo bestearen biluztasunaren bitxikeria morbosoaren asetzearak argarritasuna duen barne egozentrismo moduko bat. Axolagabekeria publiko inbaditzen duen pribatuaren likiskeria lizunkoia (Mardones, 2001).

Horren aurrean:

Gure gizarteko bazter ilunak, txiroak eta pairatzaileak erakutsi behar dira. Ikusi nahi ez denera begiratzen irakatsi, gurea mimoz zaindu eta guztionaz ardurarik erakusten ez denean, azkenean galdu egiten garela eta geure buruaz ere arduratzen ez garela ohartzeko (Mardones, 2001).

Baina salaketa horietara soilik mugatzeak familian, lanean edo politikan bultzatu nahi diren harreman sozial berrien muina ezkututzen eta baztertzen du. Artifizialitatea eta “arte” ezaugarritzat dituen gizarte garaikidea bere osotasunean irakurtzen saiatu behar da. Aurreko paragrafoetan Mardones-ek zuhurki adierazitakoa ez ezik, forma sozialen indibidualizazioa ere ematen da (horrek esan nahi duen guztiarekin: haustura ematen ari dela, alegia, gizarte industrialaren autokontzeptu eta arrazionaltasunaren euskarriekiko gatazka modernitatearen baitan).

Ekintza indibidualen zentzua prozesu sozialetan eraikitzen da. Aktore bilakatzen dira norbanakoak, eta, jarduera horretan, norbanakoaren esperientzia “kontrolerako eta manipulaziorako esparru” edo “autonomiarako eta autoerrealizaziorako esparru” bilaka daiteke.

Horrelako irakurketak besterik gabe egiteak gizarte garaikidean ematen diren aukera asko batera mugatzea dakar. Era berean, eta baieztapen horiek duten arrazioia ukatu gabe, modernitate arruntaren irakurketa hertsiazen aztarnak mantentzen ditu: besteak beste, moda eta komertzializazioa izeneko ideiak azpimarratuz, konpromisoak, mugak, ardurak eta aukerak egiteko ahalmena baztertzeko arriskua sortzen da. Azken mezu hori ez azpimarratzeak, gizarte-eredu zaharra *mantentzea* ekar dezake, horrekiko jarrera kritikoa mantenduagatik ere.

Ahalmen eraldatzaile hori:

Kode-konbinazioak, kode-aleazioak eta kode-sintesiak imajinatzen, ulertzen, asmatzen eta entsaiatzen direnean ematen eta irekitzen da. Laborategi estetiko bilakatu den gizarte esandakoaren adibide bat baino ez da. Termino klasikoak erabiliz, honako hau da planteatzen den galdera: nola konbina daiteke egia edertasunarekin, teknologia artearekin, ekonomia pribatua politikarekin, etab.? Kode komunikatiboak bata besteari aplikatzean eta euren artean urtzean, hortik alternatiba baztertzailak sortu ordez, hirugarren entitate bat baizik, egoera berriak posible eta iraunkor egiten dituztenak, zein errealitate eta arrazionaltasun ahalbidetzen eta sortzen dira? (Beck, 1994: 50).

Esfera pribatuaren botere politikoa gauzak *beste* modu batean egitean datza, neurri handi batean emakumeek hain ondo ezagutzen duten galderatik eratortzen dena: nor da hemen “ni” esaten duena? Nork hitz egiten du, norentzat, zertarako? Gay eta lesbianen adibidearekin irudikatzearren, beraien boterea egunerokotasuna eta normaltasuna eraldatzean ere badago, familiarik sistema juridikotik barrena erabaki-esparru orotaraino hedatzen dena eta zentzu hertsia eta bakarrean ulertutako mundu maskulinoa lehertzen duena, emakumeen botereak egin dezakeen bezala.

Aurrez idatzia, izaera bakarrekkoa, orohartzailea eta ahalguztiduna zen eredia eraldatzean datza gaur egungo gizarte-mugimenduen eta horiek sortutako gatazken gakoa. Nahita interes jakin batzuk bultzatuta edo nahigabe *etsipenaren* ondorioz,

ezkortasunera bultzatzeko joerak bazter guztietatik agertzen diren garai hauetan, ekintzarako eta bizitzarako jarrera/erantzun berriak ezinbestekoak dira.⁷³

Baina, kontuz, modernitate industrial-kapitalista zaharkituta geratu dela argudiatu da lan honetan, sistema bere mugetara heldu dela esan da, bai espazioan, bai denboran. Hori dela eta, besteak beste, “gaur egungo bazterketa, injustizia edo giza eskubideen bortxaketa, ez dira etorkizuneko gizarte zorionsuan emango” izeneko argudioak (modernitatearen mitoa?) baztertu behar dira.

Gizarte-mugimenduek erakutsi ohi duten moduan, itxaropenak ezin daitezke geroaldi perfektuan jarri (are gehiago, hondamendi nuklearra edo ekologikoa benetako mehatxua den garai honetan). Horrek ez du esan nahi gaurkotasan hutsa bizi behar denik, bere zentzu itxienean gaur egun zenbait erakundetatik saldu nahi den moduan, iragana eta geroa gaur egungo esanahien arabera direla baizik.

Ezkortasun guztiaren itzalean, Melucci-k gizarte-mugimenduetan argi-izpirik badela argudiatzen du, baikortasuna erakutsiz kultura-ekarpen, boluntario eta gazteen parte-hartze modu garaikideetan. Bere ustetan, badira bi ezaugarri jarrera hori sendotzen dutenak (Melucci, 2001):

- Lortu daitekeen hura esperimentatzeko desioa, ekintzak berak izanez esanahia, eta ez etorkizun urrun batekin *dituen* harremanengatik.
- Ekintzak, tokiko esparruan eginagatik ere, maila orokorrean izatea eragina.

Horri atal honetan azpimarratua erantsiz, gizarte-mugimenduen ahalegin horretan oreka bat ezinbestekoa izango da zalantza, aniztasuna, elkar onartzea eta mugak ezartzeko gaitasunaren artean, batzuek orain arteko jarrerak alda ditzaten eta beste batzuek, beste modu batean bada ere, errepika ez ditzaten.

73. Erantzun edo jarrera berriak ondokoaren *ondorio* dira: Eduardo Galeano-ri jarraiki «erantzunak geneuzkan unean, galderak aldatu dizkigute», galdera berriak asmatu eta berauek egiteagatik ala galdera zaharrei erantzun berriak emateagatik?

4. Urrats kualitatiboa kontzeptualizazioan

4.1. ONDORIOAK

Aurrerantzean emango den gatazka, modernitatearen bidea jarraitzen dutenen eta, modernitatearen esperientzia bizi ostean, berau modu autokritiko batean eraldatzeko asmoa dutenen artekoa izango da. Bi modernitatearen arteko *gatazka*, teknokrazio autoritarioa bere aldaera guztiekin batetik, eta Ilustrazioa mugimendu sozial bestetik.

Soziologoen eta politologoen egitekoa kultur gatazka hori atzeman eta ulertaraztean datza. Are gehiago, aurreko sistema sozialekin ez bezala, egunerokotasuna sozialki eta kulturalki eraikitako testuinguru artifizialetan ematen den honetan. Aro modernoarekin, norbanakoa arrazionalizatuak diren harreman sozialetan kokatu da, non oinarritzkoak bilakatzen diren ezagutza, informazioa eta komunikazioa. Bere garaiarekin konprometitua agertzen den zientifikoak, zentzu honetan, ahulenen esku baliabide kognitiboak jartzeko erronka eta ardura izango du.

Gizarte-Zientzietako fakultatean, ikasle orok irakurri behar izaten ditu “solidaritate organikoa”, “kapitalismoaren krisiaren teoria”, “burokraziaren teoria”, “sistemen teoria”, “kapitalismo berantiarren teoria”, “erakundeen nagusikeriaren teoria” eta “ilustrazioaren dialektika”. Eta Niklas Luhmann. Baina ez, historiaren amaiera iragartzen duten profetek ez daukate horrekin zertan atera. Politika autoritarioari eta lasaigarriari nola aurre egin badago. Lehenik eta behin, garbi izan behar du pertsona orok, aukera politikoak eta ekonomikoak zein baliabideak norabideratzeko erabakiak arazoa zehaztu eta definitzeko moduek baldintzatzen dituztela. Horretarako praktiketan, portaeretan eta erakundeetan barneratuta dagoen ezkutuko boterea azaleratu beharko da, hizkuntzaren monopolioa ekidinez, norbanakoek eta taldeek diren eta izan nahi duten zentzua eta esanahia gizarteratzeko “hitza” izan dezaten, beraien bizitzan eragina izango duten erabaketan parte-hartu eta beraien zerbitzura jar ditzaten. Eta ez norbanakoak eta taldeak gutxi batzuek efikazia, kapitala, abstrakzioa irizpide izanik hartu dituzten erabakien zerbitzura. Menpekota izaten jarraitu, edo hiritarra bilakatu.

Marko teorikoaren eta praktikoaren artean erreprozitatea egonik, intelektualek pulpituetatik botatakoak garrantzi handiegia du, orain arte analista sozialek egin

duten moduan, funtzionamendu autonomoaren eta naturalaren irakurketarekin jarraitzeko. Horren ondorioz, gaur egungo eztabaida-ardatzetako bat *arazozen izendatzeko modua* da. Hori zentzu bikoitzean ulertuta: bai teorikoki egindako ekarpe-nei dagokienez, bai egunerokotasunean parte-hartze demokratikoari dagokionez. Teoria eta praktika elkarren menpeko direla esaten bada, jarduera garaikideak eta gizartearen teoria abstraktuena elkarri atxikiak daudela ere esan nahi da. Ezagutza marko berriak nahitaezkoak dira, norbanakooi gauzak aurrezarrita egotea amaitu baitzaigu. Gaindituta badago mundu zaharra, horri zuzenduriko pentsamolde markoa gainditu beharra dago.

Mundu garaikidea bere pluraltasunean *bakarra* izanik, guztion parte-hartzerik gabeko irtenbideak antzuak izango dira. Bazterketak, mespretxuak ez du sufri-mendua besterik ekarriko, ez soilik parte-hartzea eta onartzea ukatua zaizkienei, baita hori, zuzenean edo ez protestatzeagatik, bultzatzen dutenei ere. “Besteak” baztertuz gaur arte eginiko ahaleginak amaitu dira. Mugak ingurumenarekin eta pertsonekin eta kolektiboekin jarri ezean, “norbanakoa/kolektiboa ahalguztiduna ez dela” ahaztuko da. Eta okerreña da, ideia horiek ez direla jarrera etiko batetik soilik aldeztu beharrekoak, baita erabilgarritasunaren ikuspuntu funtzionalistatik ere. Jada ez badago “bestea”, ez badago zer konkistatu, mugaz beste aldean Hondamendia aurkitzen da.

Esan bezala, mugimendu sozialek nortasun kolektiboaren izaera itxuraldatzen dute. Gainera, nortasuna ez da aurrezarritako metaketa hutsa, nazioa objektu bat ez den bezala, norbanako garaikideak bizi diren mundu diferentziatuan dauden askotariko aukeren bidez emaniko eraikuntza soziala baizik. Badira, ordea, oinarrizko eskubideak eta askatasunak bermatuta ez dituztenak, eta lortu dutenak aurreko mendekoak direla uste arren, baina nahitaezkoak dira eta beti izango dira. Hori onartzea beharrezkoa da munduko eta gizarteko tragediak ulertu nahi badira.

Bizitzan eragiten duten politikak —hau da, norbanako guztiok bideratu beharreko eraikuntza erabili beharko genituzkeenak— aktore jakin batzuek beren intereserako egokia den semantikarekin ordezkatzan dituztenean gertatzen da mugimendu sozialen jaiotza. Horren aurreko erreakzioa dira mugimendu sozialak, eta zentzu honetan, gizarte konplexuetako gatazken adierazle gorenak.

Urrats kualitatiboa emateak iraganarekiko haustura dakar berarekin. Auzi ekologikoak erakusten du sistemaz harago (paradigma kapitalista eta industrial) ez dagoela ezer. Lan honen xedeetako bat egoera izendatzearen garrantzia azpimarratzea izan da. Zentzu horretan, eta ilustrazio modura, sistema bere mugetara heldu dela esateko, mugaz harago, ez espazio, ez denborarik, Melucci-ren “planetarizazioa” kontzeptuaren ekarpena eskertzeko ahalegin bat izan daiteke. Egin beharrekoaren adibide bat da.

Kontzeptu horren arabera, globalizazioa txanponaren alde bat zatekeen (elkarraren mendetasun globala).⁷⁴ Bestalde, ez denboraz, ez espazioaz harago ezer ez dagoela argudiatuko zukeena. Bi ideiak barneratzeko ahalegina da “planetarizazio” kontzeptua. Beharrezkoa da gizarte garaikidea modu egoki batean irakurtzeko betaurrekoak ez ezik, hitz berriak ere *asmatzea*, edo behintzat lehengoei zentzu berria ematea. Izan ere, XVII. mendean geroztik, “izadiari” erreferentzia egiteko hizkuntza oro kontzeptu eta metafora militarrez josita egon bada, eta gaur, Bacon, Comte, Descartes, Diderot, Saint-Simon, Marx-en Gizakiak, izadia domeinatzen ahaleginek XXI. mende honetan bere muga gainditu badute, (harantzago jada ez dago inhumanismoa baino), “planetarizazio” kontzeptua erabiltzea ezinezon teorkoa gainditzeko ahalegin bat izan daiteke.

Are gehiago, oraindik ere biziraupenerako aukerarik badagoela sinetsiz gero. Iñaki Barcena uste horretakoa da, “nazioarteko erakunde politikoaren eta ekonomikoaren bilerak eta konferentziak tratatzeko mobilizazio kopurutsu eta ongi prestatuak, baketsuak eta koloretsuak” ikusita (2001). Gizabanako guztion oinarriko eskubideak eta biziraupena jokoan dauden honetan, aniztasuna eta aldaketa ezaugarri nagusitzat edukirik, (“ez dute egitura estatalik bere probetxurako, eta aniztasun harrigarria dute beren baitan, ez daukate botere politikoa eskuratzeko estrategiarik, baizik eta gauzak aldatzeko proposamen gordinak eta legítimoak”), mugimendu eko-bakezalearen lekukoa hartu ei duen gizarte-sare berri honen indarra azpimarratuz, Barcena-ren ustez badago argi izpi txiki bat. Eta aukera txiki hori gutxi izango ez balitz, ezin ahaztu aro modernoaren *altxorra* (gizarte-bizitza bizitza kolektiboa bezala), munduaren bermea eta biziraupena gizakiaren erabakien eta aukeren esku egotea dela (edo behar luke!).

Horregatik, norbanakoak, ezer egin aurretik, ekinbide berriaren zerbitzura egongo den hitz-joko berria moldatu eta gauzatu behar du, hegemonia semantikoa gaindituz. Eta horrek sistemari eragiten dion dilema bat planteatzea eskatzen du. Eta horrek, hein berean, jarrera moraletatik harago, politizazioa.

“Faxismoak” iraganda, demokrazian, ezarritako edo jarauntsitako markoaren etikak estetika ordezkatzearekin, denek gai *berriekiko* ardura morala erakusten dutela dirudien honetan, adi ibili beharra dago. Sozialismoaren eta komunismoaren ideiak edo suediar ereduko ongizate-estatua ez ezik, merkatu-ekonomia sozialaren eta Estatu nazionalaren dotrina ere birrindu dira.⁷⁵ Demokraziaren itzalean, ahal-

74. Azkenaldi honetan edonork darabilen kontzeptua izanik “globalizazioa”, komeni da kontzeptuen arteko bereizketa garbi bat egitea, lehendik ere nahastuta dagoena gehiago ez nahasteko. Saio bat Beck-ek (1998c) egiten duena izango litzateke. *Globalismoa* (merkatu mundialaren domeinurako ideologia neoliberal, ikuspegi ekonomizista, lineala eta alde batekoa darabilena), *globalitatea* eta *globalizazioa* bereizten ditu.

75. Asetzeraino eztabaidatu da gai nagusia: “What’s left?” (Steven Lukes). “What’s right?” galdetzeko ordua da: *arrazoia al du eskuinak? Kontserbadurismoaren kontradikzioen auzia eguneko gai bilakatu behar da!* (Beck, 2000a: 104; Beck, 1994: 61).

guztidun moduan agertzen den kapitalismoak bere hazkundera, txirotasuna dakarren ingurumenaren suntsitzearen ordainetan egiten du. Hori guztia erakunde, politika eta zientziarentzako erronka da, estatu nazionalen baitan ezin zaielako irtenbidea eman.

Bada garaia moralki, psikologikoki eta politikoki garaturiko joko bikoitzari amaiera emateko. Autoorganizazioan, sistema politikotik at bilatu beharra dago, politikaren definizio okerra egin eta, oraindik ere, politika sistema politikoarekin parekatzen jarraitzen den honetan, irtenbiderako giltza (Beck, 1994: 57-60).

Lehen ere aipatu moduan, gaur egun, iraultza “behetik politika forma berriak ezartzea izango litzateke” (Ripalda, 1999a: 21).

Aurkarien bereizketa klasikoak hustu egin dira; eskema politiko zaharrek, ofizialek edo iraultzaileek, ez dute funtzionatzen; bereizketa inoiz baino beharrezkoagoa eta zailagoa da. Pribatizazioaren eta politikoaren suntsiketaren garai honetan, ez indibidualki (‘hiritarra’ ilusio erretorikoa da) ez globalki (klaseak edo nazioak eskema sinesgaitzak dira) behetik sortutako politika nabarmentzen da, heredatutako... edo inposatutako erakundeen behin betiko ospea galtzetik sortzen dena (Ripalda, 1999a: 105-106).

Gizarte garaikidean arriskuak etengabe hazten dira. Baina egoerari aurre egiteko moduaren arabera, inoiz ezagutu ez diren aukerak ere zabal ditzakete. Hitzarmen berri baten bidez, bizidun guztiak bere baitan hartuko dituen gizarte global bateko politika demokratikoak, ondoko bi inperatiboak behar ditu bete, pertsona-harremanetan eta sistema-harremanetan baliagarria, eta era orotako baieztapen “metastasikorako” joerak ekiditea helburutzat duena (moral “unibertsal” edo azpistema baten nagusitasuna kasu).

Batetik, “desberdintasunak ez azpimarratu hondamendia sor dezaketen punturaino”. Eta, bestetik, “desberdintasunak errespetatu bere ukapenak hondamendia sortzen ez duen punturaino”. Horrek, noski, gaur arteko ikuspegi aldaketa beharrezkoa egiten du.

Euskadiko adibidearekin irudikatuko da hori, bide batez, kontzeptuen eta errealitatearen arteko haustura frogatzeko balio duena. Ikuspuntu politologiko eta postmoderno batetik egingo da gogoeta, betiere eskubideak eta demokrazia irizpide erabiliz. Arrazoizko egoera bat eskaini nahi da, elkarrizketa posible bat, adostasunerako esparru bat. Ez adostasuna, ezta kontzientzia. «Pero es aquí donde los intelectuales orgánicos del Estado-nación ponen el grito en el cielo [...] Fuera de la transparencia de la triada poder-territorio-población definida por el Estado, nos dicen, todo lo demás es galimatías, laberinto y confusión, y responde además a una definición esencialista y antidemocrática de una nación preexistente a sus ciudadanos. La impugnación del Estado-nación es un ataque contra los Derechos

del Hombre y del ciudadano que sólo él puede defender, y en los límites territoriales por él trazados».⁷⁶

Egunerokotasunak *irtenbide gabeko* proposamenak bideragarritasun ahula duela erakusten du, hitz potoloen gainetik nazionalismoa kukuka erasoka baitabil. Zoritxarrez, arkeologia politikoa den estatua esanak esan, inor izateko ezinbesteko baldintza dela dirudi. Gaur ez da estatu bat aldarrikatzea historiaren atzetik ibiltzea. Estatu berri bat, izatekotan, iraganekoa eta gainditua beharko zukeen historian oinarriak dituzten estatuei egingo litzaiekeen trabatxoa da. Edo gaur egungo Europar Batasunari, estatu-nazio independenteen Europari. Ez da ezer aurreratuko Kant piztu eta giza duintasuna hizpide harturik, subjektu arrazionalak eta autonomoak garelako diskurtsoa ebanjelizatu eta etika abstraktuan galtzearekin.

Lehen baldintza: muga daitekeen esparru batean gertatzen den gatazka jakina da. Bigarrena: baina mundu osoko gizarte baldintzatzen duena, behintzat Europa; eta alderantziz. Nahitaezkoa da errepikatzea, ez dela ez zuzena ez egokia Euskal Herriko gatazka XIX. mendekoa dela eta gaindituta dagoela esatea, eta hori eboluzio naturalaren ondorioz gertatu dela argudiatzea. Irakurketa erratua delako, eta zuzena balitz ere bai. Ez da zuzena zintzoak eta gaiztoak daudela esatea, ez da zuzena era bateko edo besteko dikotomia modernoekin gizarte banatzea. Konplexuagoa da. Besteak beste, ustezko gatazka modu anitzean irakurri behar delako, aniztasuna ez soilik Ezker Abertzalea, euskal nazionalismo gobernantea eta estatu-nazio espainiarraren nazionalismoa bereizteagatik; kulturala den gatazka ere badagoelako; baita beste aukera “erreflexiboak” posible direlako ere, Europak eta nazioarteak aro berri bati ekin behar diotela, horren araberrako elkarriketa eta gatazka Euskadin planteatuz. Eta hori egiten dutenak ez dira, ez ordenaren nazionalismoa, ezta erakundeetako elitea ere. Ondoko lerroetan, noski, ez da esan berri den guztia landuko. Espazioa murriztegia da. Helburua sinpleagoa. Baina garbi gera bedi etiketak merkeak direla, XIX. mendea bizi dagoela, esanak esan, bai Euskadin, baina baita beste bazter batzuetan ere. Ez gara horretan ere hain diferenteak. Hemen inork hala idatzi arren. Gutxi dira modernoak izateari utzi nahi diotenak. Ez da bitxia hori planteatzen dutenak nor eta modernoak izaten utzi ez zaien gutxi batzuk izatea.

Gogoeta bat baino ez: estatu-nazioek duten erronka ikaragarria da. Edo askotariko nortasuna eta konplexua duen sistema eta hiritarra onartzen ditu (*eta* honekin batera, egin behar eta egiteko forma berriak hartu). Edo, estatu-nazio izaten jarraitzen du, alegia, lurralde mugatu horren baitan ohikoa izan duen joera berretsiz

76. Letamendia (1999); 2001eko urriaren 15ean Letamendia UPV/EHUko Politika eta Administrazio Zientzien sailak plazaratutako katedran bere lana eta pertsona defendatzen ari zela, honako galdera hau bota zion F. Reinares Burgosko Unibertsitateko katedradunak: “¿Qué quiere usted decir cuando habla de soberanías e identidades compartidas?”. Lehengo lepotik burua jende modernoak. “La política del estado frente al hecho diferencial de Euskal Herria desvela, con una nitidez sin precedentes, a la casa étnica española que, al ver amenazadas sus fronteras, su territorio y su cultura, recurre a métodos étnicos para combatir al enemigo” (Martínez Montoya, 1999: 19).

homogeneizaziorako joerarekin jarraitzen du (“nortasunaren lurralde-teoria”). Horrek badu ondorio bat: “besteak” “bere” estatu-nazioa aldarrikatzea. Baina estatu-nazioa aldarrikatzen duenari, lehenago aipatutako aholkua gogoratu beharko litzaioke, oinarri fundatzaileak hizpide izanik, zeren legitimazio identitario eta fundamentalistak bilatzen baitira. Hala izanez gero, eta inoiz independentzia lortzekotan, “mimetismoak” edo “ispilu-jokoak” (Paco Letamendia) estatu-nazio berri baten sorrera ekarriko baitu.⁷⁷ Zaharra den ordena bat gehiago, ez besterik.

“Mimesi lehiakor” hau baztertu beharra dago. Euskadiko arazoari (edo hobeto: Europako arazoari) arrazoizko irtenbide bat eman nahi bazaio, barne-pluralismoaren eta askatasunaren errespetua gatazka politikoaren lehentasuneko auzi bilakatzeko da, gatazkaren humanizazioarekin batera. Bi horien betekizunak pluralismo nazionalaren onarpena baldintzatzen duela dirudi, nazio orok pertsonalitate kolektibo diferentziatu bezala nazioartean garatzeko aukera izan behar duelako (ikus: Moulines, 2001). Alegia, Euskadik barne pluralismoa gauzatzeko, pluralismoak behar du egon (1) eta Euskadi behar da izan (2) Horrek, nahitaez, Mendebaldeko eraikuntza heterodeterminatzailea zalantzan jartzea eskatzen du, “auzi nazionala” modu uniformizatzailean landua izan baita. Beste nazio batzuk ukatu eta nazioaren baitan homogeneotasuna bultzatu. F. Requejok esan duen moduan, “kolektibitate politikoaren demos homogeneizatzaileak aplikazio konstituzional uniformistak, eta estatuko kolektibitate nagusien hegemonia kulturala azpimarratu ditu”. Aurreko paragrafoetan esandakoa gogoratuz gero, noski, pluralismoarekin proposatu nahi dena ez da nazio absolutuak elkarren ondoan egotea, ezta komunitatearen baitan hamaika bizitza modu paralelo desberdin ere.

Esaten errazagoa dena, nahiz eta hemen esan ere ez egin: nazio anitz eta askotariko nazioa. Eta ziur asko, eta horretarako, europar hiritartasuna. Beraz, nazio-nortasunaren gatazka Europaren eraikuntza baldintzatzerantz heldu beharra dauka. Estatu-nazio balira bezala planteatzen diren jarrerak gainditzeak, estatua eta nazioa koktel tradizional berean bilduko ez diren egitura politikoaren bideragarritasuna eskatzen du. Eta honen bideragarritasun erreala Europar Batasunak hartzen duen jarreraren arabera da. Ez baita zentzuduna, bakea ahotan, Europa estatu-nazio independenteen ikuspegitik eraikitzea. Nahikoa izan bedi Joxe Azurmendiren honako gogoeta hau:

77. Desberdinak dira Xavier Ruvert de Ventós-en independentziaren defentsa eta horretarako argudioak (1999). Irakurlearentzako oharra: bere gogoetak pertsona intelektual batenak ez ezik, Madrilgo Gorteetan eta Europako “Legebiltzarrean” urteak eman dituen batenak ere badira. Berak onartu du, gainera, aipatutako esperientziek bultzatzen dutela eduki horiek idaztera. Alegia, dakienak idatzia. Eta ez norberaren bulegotik “ezjakintasunaren estalkiarekin”. Bide batez, aipatu den mimetismoaren inguruan Letamendia irakaslearen lan sakona nahitaezko irakurgai da (1997). Ikus, Palestinaren eta Israelen inguruan piztutako eztabaida intelektuala aitzakiazat hartuta, Ripalda-ren artikulua: “Terrorismo y ética”. *Gara*, 2002-04-11.

Orain asko aipatu da pluralismoa. Nik uste dut pluralismoa ez dela ona, txikizio dogmatiko batek utzi duen hondar pila moral eta materiala baizik ez denean. Hori da gure kasua gaur (eta pluralismoaren apologia asko, horren apologia mozorrotua besterik ez). Pluralismoa, eraikuntza denean bakarrik izan daiteke positiboa. Aberatsa. Askatzailea. Eta hori da guk, daukagunaren aurka, lortu behar duguna. Egin dugun eta zanpatzen gaituen historia intelektual dogmatiko guztia errotik iraul-gaindituz.⁷⁸

Politologikoki: orenen gainera, elkarrizketa eta bizikidetzarako baldintza moduan, kultura berri bat. Eta marko teoriko eta epistemologiko berri bat. Hiritartasunaren teoriaren arkitektura berri bat.

Honen ildotik, besteen artean, asko aipatzen den kasua: autodeterminazio ilustratuaren arazoak. Ez soilik Euskadi XIX. mendeko nazio burgesa ez delako, eta izan ez delako, baita azken hamarkadan azaleratu diren eraldaketa ekonomikoek eta kulturek zuzeneko ondorioak dituztelako politikan eta, jakina, estatu-nazioaren ideiarekin zuzeneko lotura izan duen autodeterminazioan.

En definitiva la noción ilustrada de autodeterminación no puede ser restaurada en el presente con la falsa inocencia que traslada los términos ilustrados al uso mediático actual. Es preciso reflexionar qué estamos diciendo y haciendo, cuando los usamos en contextos realmente muy diferentes de aquéllos en que surgieron esos términos. “Autodeterminación” en el siglo XVIII reclamaba el derecho a librarse del privilegio y la rutina; pero también insinuaba la nueva construcción estatal de homogeneidades rigurosas, destructivas con la diversidad lingüística, presocial y cultural europea. Hoy es la crueldad, pobreza e inutilidad de ese corsé lo que salta a la vista en un contexto que —en parte por los mismos éxitos de la Ilustración— parece permitir *otras* soluciones, *otros* proyectos.⁷⁹

Europar XIX. mendean sortu ziren estatu autoritarioekiko desberdintasunak ditu *gizarte* garaikideak.

78. Non: Azurmendi, 1999: 9. Elkarrizketa batean, berriz, honako hau dio: “Gure komunitate etnikoaren hondamen historiko biolentoaren ondoan, komunitate etnikoaren hondamena dugu” (2000). Azken orduko eranskina, PSEko Gestoraren ponentziatik jasoa: “Euskadi es una sociedad de pluralidad cultural y política. Sólo desde el reconocimiento del pluralismo y la integración es posible construir su futuro”. “El pueblo vasco, al aceptar la Constitución y el Estatuto, al desarrollar su actividad dentro de su marco, fundó su soberanía”. Eta, beraz: “Existen problemas políticos, como en todos los países, pero no existe un conflicto político previo irresuelto que justifique el desprecio o la cancelación o la superación de la actual autonomía. No es un conflicto político del país, sino un conflicto ideológico interno del nacionalismo que no ha sabido resolver”. Patxi López-ek dio: “Que venga donde nosotros, al autonomismo”.

79. Autodeterminazioaz hitz egiten hasi aurretik, nahitaezkoa da aipatu Ripalda-ren (1999b) irakurtzea. Ohar bedi irakurlea zitak horrek (1999: 19) lan honetako tesiarekin duen lotura. Lizarra-Garazi bezala, *Propuestas para un nuevo escenario...* liburua horixe da (Gómez Uranga eta besteak, 1999). Ikus, Letamendia (1999) argigarria ere. Bestalde, azken urteetan emaniko eraldaketa esanguratsuei hurbilketa lagungarria: Robertson (1992).

Esan bezala, ez *ordena* garaikideak: mendebaldeko estatuak nazio-nortasuna oinarri hartzen dute oraindik orain, Espainiako kasuan ez dena nazio-iraultzaren ondorioa, inperio bat gogoan zutela armak, beldurra eta ahaztura⁸⁰ erabiliz nazionak ezarritakoa baizik. Baina kontraesan hori ordenan tokia ez duenarentzat aukera politikoa ere bada. Abertzale kontzeptualentzat kasu. Modernizazio erreflexiboan pentsatzeak beste modernitate bat ahalbidetzen duela ikusi da. Zentzu horretan, autodeterminazioa ez da komeni Euskadin herriaren zentzu fundatzailean egitea, alegia, 1978ko konstituzio espainiarrak egin zuen bezala⁸¹, zeinak gaurko jarrerak, portaerak eta egiturak dituen ondorioztat; “eskualde” eta “autonomia” kontzeptuak erabiltzen dira eta bere adierazpena administrazio deszentralizazioa da —Estatu unitario deszentralizatua—. Hori gutxi ez dela, birzentralizazioari ekin zaio. Patriotismo konstituzionala eta abar globalizazio-prozesuan nazio zaharberria ezin bermatuaren adierazgarriak dira.

Eztabaida-maila termino demokratikoetan jartzea komeni da, ukatu egingo litzatekeelarik, besteak beste, euskalduna izateko inposatu nahi den modu homogeen eta heterodeterminatzailea. Kaosera eramango ez duen euskaldun leiala, ordenari leiala. Kasuan kasuko nortasun itxia oinarri darabilen orok euskaldun zintzoa izateko modu bakarra proposatu ohi du, mito fundatzaile bat kukuka. Alderantziz, Lizarra-Garazin politikoa den prozesu eratzzailea bultzatzen da, historian, etnien, estatuaren inposizioan, ordenan eta moralean aurretik zehaztu ez den errealtatea. Bere porrotaren zergatietako bat: autoritarioa den kulturak jardunbideak markoaren berrespenerako bitartekotzat erabiltzea. “Aurretiazko bazterketak” eta “joko-arauak zalantzan ez jartzea” (Nazioa, Koroa, Ejertzitoa, Kontsumo-gizartea) dira batzuen pluralismoaren eta demokraziaren baldintza. Horrela soilik uler daiteke espainiar “administrarien demokrazia”ren gakoa: bake sozialaren hitzarmena, erreforma hitzartuaren oinarri den erregimen frankistako “gehiengo isila” deritzonetik asko desberdintzen ez dena.⁸²

Komunikabideen behin-behineko berriak gaintuz, gutxiestekoak ez direnak, azken ideia horiei dagozkien hausnarketak egin behar dira irtenbiderik topatu nahi bada. Eskubideez hitz egin behar da, eskubideak adostu, baten batzuk absolutu izan daitezela erabaki, beharrezkoa izanez ikuspegi modernoaren zenbait ideia eta aurreiritzi gaintzea. Izaera politikoa duen nazio-nortasunaren gatazka da. Herri

80. Hemen kopiatuko ez den arren, Mirallosek Javier Cercasi Dijoneko (Frantzia) Rue des Combotteseko erresidentzian kontatuak, eta Cercasek ostean egindako gogoetak aintzat hartzekoak dira (Cercas, 2001). Oroimenaren garrantziaz. Trantsizioak duen garrantziaz. Kultura berri baten beharraz. Ez soilik Euskadin falta omen den bigarren trantsiziorako, baita espainiar subditoen jarrera ulertzeko ere. Erreforma hitzartuaren ondorioez jabetzeko, sistema politikoz aldatzea nahikoa ez delako, eta horren ondorioz, noski, egiturazko defizit demokratikoa izango du.

81. Ikus, kritikak kritika: Bastida (1998); eta Lacasta-Zabalza (1998).

82. Komeni da GAL (edo beste) zer den, nola den posible eta beste hausnartzea. Kultura bat.

honetan enfrontamendu kulturala⁸³ ere dena eta etengabe berrikusi beharko den bizikidetzarako konpromisoa behar du. Bide batez, ez da komeni nortasuna izeneko gatazketan betiereko konponbidea lortu dela esatea, susmo txarrak hartu beharko lirateke gizarte garaikideetan identifikazio-aniztasuna ematen den honetan. Irtenbidea ez proposatzean dago gakoa, eta nortasunak ezagutzean, XIXan bezala XXIean ere adiera desberdina izan arren. Nazioa objektua ez den moduan, gizakia hezur-haragizkoa (Sudupe, 1999) ere ez delako. Bat euskalduna izan baitaiteke, kontzientziak hala aginduta, eta Euskadi izan bere aberria. Ukatua zaiona. Bat euskalduna edo beste izanik, Euskadik zertan izan ez duen bezala bere aberria, eta bai Espainia edo Frantzia (“Pido ser —hobe, seguir siendo esango balu— algo tan sencillo como español y socialista —psoeista esan nahi du—”, Euskadin). Aldiz oso susmagarria, gaur eta hemen behintzat, gizadia. Hitz-joko horrek zerrenda luzeagoa eskatzen du. Baina hiritartasunaren teoriaren arkitektura berri bat behar dela kontzientzia hartzea nahikoa da, luzatzen ari den pasarte honen helburua asetzeko.

Turista beti itzultzen da beka amaitutakoan bere etxera, edo behintzat oheratzean beti du etxea gogoan, etxea baduelako. Turistak bere borondatez bidaiatzen du, bere borondatez itzultzen da.⁸⁴ Dogmatismoa ez da nortasuna, diferentzia, nazioa. Dogmatismoa nortasuna, diferentzia eta nazioa ukatzea da. Dogmatismoa exiliora behartzea da, exiliora betierekotzea, espazioan urrunduz edo ez. Dogmatismoa desberdina ez onartzea da, eginbehar unibertsal mesianikoa, etorkizuna iragarri eta hori ziurtatzea, askatasunaren paradisia, integrazioa. Herri aukeratua. Horri erantzun behar zaio, baina mimetismoak kartzela berriak ekar ditzakeela jakitun izanik, mito fundatzaile zaharren eta berrien arriskua duelako. Ez da korapiloa askatu behar, baizik eta korapiloarekin bizitzen ikasi. Enpirikoki ez ezik, normati-boki eta axiologikoki ere. Nazioaren alde, neoilustratu neoliberalen demokrazia

83. Bereizketa analitiko bat, proposamen askatzaile gisa: bai bi kultura, bi etxe aurrez aurre dauden zentzuan (MARTÍNEZ MONTROYA, 1999); baina baita, eta bereziki, bi kultura, bi moral aurrez aurre dauden zentzuan (AZURMENDI, 1997, 1998b, 1999). Lehena lortu arren, mimetismoak ekidin nahi badira sakonagokoa den auzia, bigarrena, konpondu beharra dago. Euskadin (eta Europan) gerra ondoan piztutako erronka teologoen kultura tradizionalistari uko egin nahi dion borroka da, predikatzea utzi eta akordatzea eskatzen duena.

